



Iturria: *Confesio ta komunioko sacramentuen gañean eracasteak*.
Juan Antonio Moguel ta Urquiza. Ezquerroren Alargunaren etxea, 1800.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MogelJAErakusaldiak.htm>

KONFESIO TA KOMUNIOKO SAKRAMENTUEN GAÑEAN ERAKASTEAK

Juan Antonio Mogel

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**KONFESIO TA KOMUNIOKO
SAKRAMENTUEN GAÑEAN
ERAKASTEAK**

EDO

*Zenbat gauzak lagundu bear dien
Konfesio ta Komunioari ondo eginak izaiteko*

*Ateratzen da argira Giputz itzkeran
kristau euskaldunen onerako*

DON JUAN ANTONIO MOGEL, TA URKIZAK:
Markinako Kura, edo Anima-zaia.

Bear bezela.
Iruñeko Librugille Ezkerroren Alargunaren Etxean:
1800. Urtean.



ERAKURLE EUSKALDUNARI ITZ-AURREKOA

Artu nuen orduko asmo ta gogoa argitaratzeko orain ekusten dezun Libro euskerazko au; ezagutu nuen, batek baño geiagok jardungo zuteela marmarioz ta nere leporako zirala itz gogor ta astunen karga guziak. Bel-durtzen nintzan zerbait, atzeratu ere bai aldi batzuetan beste askotan artzen nituen gogo guri, ta beroetatik. Nere buru zalea, edo nerekoia izanik jatorriz, esaten nuen nere artean: Zerk sartu nai zaitu, zu baño gizon jakintzuagoak artu nai izan ez duten lan gogorrean? Euskera ondo itzak erakastea, gauza gaitza da; Konfesio, ta Komunioko Sakramentuak zeero, ta banaan azaldu ta adieraztea, oraindik gaitzagoa zertan edo artan utsegin gabe. Zer egin bear nuen bada? Ixildu? Gorde burua, ta ez eman Euskaldun nekezale edo langillai Jangoikoaren itz santuaren ogia? Au zer da? Erdaldunak izango dituztela Libro gisa guzietako ugari, ta geiegiaz bezela, ta Euskaldunak ain urri? Erdaldunak ez dira atzeratzen ateratzetik Doktrina santuko Libroak, badakite ere gauza gaitza dala erakastea zeero ta apur apur eginda bezela Fedeko gauzaak, ta gure Kristautasuneko egin bideak, ala Jangoikoaren amar agindu edo mandamentuen nola Sakramentu santuen gañean, ta eragozpen guziak, ta gaitzatasun garaitu ezinak egongo dirala Euskaldunentzat? Zer egin bear bada, diot berriz? Larga koldarkeria, ta ikara guziak, ez enzuterik eman erauntzi, berriketa ta esamesai, ta dendatu azkortu, ta biotz-anditu emateko Euskaldun beargillai argia beren jakin-ezetan.

Egia esan bear bada, Euskal-errietako Apaiz, Fraile, ta Anima-zai guziak esan dezakegu bidaldua edo autuak gerala berri on animaren gañekoak emateko, ez Erregei beren Jauregietan, ez Andiki goratu, edo Jaun urre-zillarra ugari darabiltenai, ez jakituria lurrekoz beren ustez beterik dauden gizon arrotzaarrai, ta bai nekezale, beargin, artxulari, olagizon, ikazkin emakume gorula, eula, jostun, ta onelako jende me ta bekokiko izerdi larriarekin ogia billatu bear duteenai. Ez degu Pablo Apostoluak bezela agertu bear Athenasko Bilkui, ta Erakastegian, eranzuteko Jakitun aizto-asmariai beren galdetze guzietara. Agertu bear degu enzula biotz oneko ta samurerren aurrera zeintzuek enzungo gaituzten geienez ao, ta biotz zabalekin, ta beti ixillik. *Ebangelizare pauperibus miscit me Dominus.*

Orain bada, nolako erakaste, edo doktrina eman bear zaie onelako jende argi laburrekoai? *Aurtxoak ogi eske zeuden*, dio Espiritu Santuak, ta

etzan nork puska ziezaten. Aurtxo txiki indar gabeai ematen badiezu ogi oso ta azaltsua, illko ditu goseak beste jan gabe. Ezingo dute gaixoak ebaki ez gañibetarekin, ez eskuarekin, ez ortzekin, ogia gogorra dagoalako, ta berak indarrak ez dutelako. Berriz zeatzen, puskatzen, ta apurtzen badiezu, egingo die, aseko dute gosea, ta biziko dira. Ala bada gure euskal-errietako gizon ta andra, neskatx ta mutillik geien geienak dira jakituriaren aldetik, aurtxoak bezela, ta eman bear diegu animako ogia zeatu ta puskatuta. Esan nai det, eskuaz bezela erakatsi bear diegu, non dagoan infernuko bidea, non Zerukoa, non Purgatoriokoa; au da, noiz egiten dan bekatu astun edo mortala, noiz bekatu txiki edo beniala, ta noiz gauza ona. Pilloan, edo albastoa erakatsiaz ezer egiten ez da; da ogi osoa ematea ebaki ezin duen aurrari; geldituko dira lengo ez jakinean; bekatu andiak idukiko dituzte txikitat; txikiak edo utstzat, edo anditzat; ondo dana txarra dala iritziko die, ta ebilliko dira illunbean larrapastaka, non oña ipiñiko duten ez dakitela; erorten badira ezagutuko ez dute non erori diran. Zenbat kalte emendik, jakineza, bada gaitz guzien raso, edo iturburua? Ordea ez det uste utsegin ta jakinez geiago dagoala ezertan, nola Konfesioko Sakramentuaren gañean. Pozoi izatera biurtzen dute askok, Jesu-Kristok gure animen osagarritzat larga zigun Sakramentu au. Ekusten degu kristauen artean lasaitasun lotzagarrikkoa, urte batak dirudi bestea gaitzagoa ezpada datorrena igaro dana baño: Ekusten ditugunean Santuaren kontra jaiki, ta jarkita etsaiezagun, ta agiriak, damutzen gera. Ezin aitu ditugu biotzeko min gabe Kristoren kontrako gaizki esate, ta izt astunak. Negar malkoak eraiten dira gure begietatik jakiten degunean gure Fede santuko etsaiak amorrurik andienarekin ezarri dituztela lurrera Elizak, erre Santuen korputz-apur edo erlikiak, eragozten duteela meza ematea, konfesatuta komulgatzea, Sazerdote onai pakerik ematen ez diela, kastigatzen dituztela Presondegiko gogorretan, deserritu asko, ta ez gutxi ill, kristau onai lagundu nai zielako, ta gaiztoai erakatsi beren bide utsegiña. Bada negargarriago da kristau izenekoak, Eliza Santari ematen dien nalgabea, adiskide ta pake estalkiaz jasotzen dien persekuzio motel, ta otsgabearekin. Pakean, dio San Bernardok, ematen zaiola mingozitasun ta sentigarriarik andiena. Ekusten ditugu Konfesategiak jendez inguraturik; urbiltzen dira gero aldara santura; uste genzake poztutzeko gauza dala. Baña nolakoa da ateratzen dan onera, edo frutua? Zerk geien estutzen du gaurko egunean Eliza Santa gure Ama? Ona zer eranzun zuan Florenziako Bilkui, edo Konzilio Santuak, dala Penitentzia palso, edo itxurapen utsekoa. *Falsa scilicet paenitentia.* Batzuek erratzen dira bekatuak egitera konfesatuko dituztelako sesio, edo aitzakiaz: beste batzuek uste dute kon-



fesioan agertu ezker ozer estaldu gabe, guzia dagoala eginda, ta irteten duteela garbi garbirik, begiratu bearrean nolakoak izan bear duen bekatuen damuak, ta aurrera onizateko gogoak. Asko dijoaz kontzienziako esamina, billakuntza, edo azterren arin ta gañetiko bat eginda, ezagutze-ko nekerik artu gabe, nola ez-egiaz edo egin bearrak largaz, edo esan oi dan bezela itz arrotzean, omisioz egiten diran bekatu txit asko. Onezaz gañetik, zenbat kristau daude lotsaz bekatuak ukatzen, gutxitzen, apaintzen, edo estaltzen? Zenbat Konfesio guzien edo jenerala egiteko premia estuan, ta ez dakiteta nola egin! Uste izan det bada ezin nezakeala gauza obeagorik, nola dan gauza oien gañean erakastea zeero ta argiro jakin bear duten guzia kristauak. Konfesio onak dakar berez komunio ona, ta konfesio ta komunio ondo egiñak bizitza berria, ta gero betiko salbazioa. Erakusten da Santa Teresak Zerutik etorrita adirazo ziola anima txit on bati, Konfesari, ta Predikatzaileak beti bezela jardun ta ekin bear lukeela itz egiten konfesio gaiztoen gañean; sinistu ezin zitekeala zenbat anima betiko galtzen ziran konfesio gaizki egiñak gatik.

Ori orrela da, esango dit nork edo nonk: baña idukirik Sazerdote edo Eliz-gizon erakaslak libru asko ta ugari erdaraz, zertako dute euskarazko au? Berak biurtuko dituzte erderatik euskarara. Ala dirudi, ordea ez da alperra nere nekea. Badira Eliz gizon asko, Apaiz egin berrian txit atzeraak daudenak euskaraz itz egiten, ta guziz Elizan. Agurtzen detuzte beren buruak Sermoi bat euskeratu ezinik. Nola erdallerrietatik etortzen diran urteren batzuek igarorik Eliz gauzak ikasten, ta aztu zaien asko len zekiten itzkera Amaren bularretik zekartena, ez da esatekoa, zenbat gaiztasun ta atzerapen arkitzen duten euskera itz egiten Eliz gauzeetan. Ez da berdin oen gañean bear bezela itz egitea agirian, ta bestelako gauzeetan. Gure gizon ta andra baserrietakoak txit ederki, ta bear bada inork ez bezela, itz egiten dute berai dagozkien gauza askotan. Ordea ez lukee jakingo nola zuzendu itzak gauza goratu ta beren gañetikoetan. Au onela izanik, Libru euskarazkoak, ez dira alperrak, ta bai mesede andikoak Eliz-gizon askorentzat ere. Erakurriaz ikasiko dute nola esaten dan euskaraz berak etzekitena. Oituko ere dira erraz erakurtera, zeren gauza lotsagarria da ekustea asko, errazago erakusten Franzes ta Ingles Libruak oen itzkerak aitu edo jakin gabe, jatorriz dakarten euskera ondo dakitena baño. Zerk egiten du au? Ekandu, edo oitu ez diralako euskarazko libruak erakurtera.

Badira bai animen kargua daukaten artean ere, ain ikarakor, edo bel-durtiak, non da ezin azartu diran buruz Sermoi bat egiten, ta zenbat kalte emendik? Baleuzke Libru egokiak erdaldunak bezela, erakurriko luke Eli-

zaan, joango litzake beldurra geldiro, ta egingo lirake gero buruz ta itzbian erakastera.

Zer esango det berriz bestelako kristauei elduko zaien onaren gañean, badituzte libru euskerazko ta animaren onerako egiñak? Erakurriko lituzkee etxeetan. Erakurten ez dakiten askoa, erakurten ikastera dendatuko lirake. Emendik zenbat bekatu bide larga? Zenbat jakinez kendu?

Badira euskarazko libruak, esango didate. Aitor det, ta euskaldun guziak eman bear dizte esker andiak onetan jardun duten animazaleak izan diran gizonai. Gora-bera guzien artean ez dira aztu euskal erritan Kardaberaz, ta Mendibururen izen onak. Au ezagutu zuten bai Napar ta Giputzak; ura, oek ta Bizkaitarrak, Arabar ta Naparrekin. Zabaldu zuten al izan zuten artean aoz misio santuetan Jangoikoaren itzaren azia, artu ere bai frutu gozoak. Beren anima gosea etzan onenbestean gelditu; iraunkorrago izan zidin frutua, izkribitu zituzten deboziozko libruak. Ala ere esan bear da, ez dala arkitzen laburki baño itz egin duteenik Konfesio, Komunio ta beste Sakramentuen gañean, ta orobat Doktrina libru oso batek eskatzen dituan zabaltasun, ta zeetasunez. Astete ta Dutariren librutxo euskaratuak ezin obeak dira egin ziran asmorako; au da buruz ikasteko doktrina bearra. Baña zenbat zer ikasi ta jakin gure Fedeko Estal pon-edo misterio miragarrien gañean? Zenbat argi zabalduko ez dira Jangoikoaren Legeko agindu edo mandamentuak zeatuaz, ta erakatsiaz, nola uts egiten dan oen kontra? Nere gogoia izan da Doktrinako lau Zati edo Parteen gañean egitea erakaste edo esplikazio osoak. Etzait gogoia oztu. Baña nola gauzarik bearrenkotzat iduki dedan Konfesio ta Komunio Santuen gañean astiro itz egitea, ta erakastea jendeai, orain bein iritzi izan dit, obe dala oen gañeko Libru au agertzea. Arrera ta jera ona egiten badie oni, beste gauza ez ustekoren batek galerazitzen ezpadit, argitaratuko ditut gerora aitatu ditudan gaien gañeko beste libruak, ta lan edo nekerik andiena egin det.

Izango dira bear bada jakitun bupera, milika, ta begiratuégi batzuek, ondo iritzioko ez dienak emen arkituko diran gertaera miragarri, edo esan oi dan bezela, ejemploai. Ez dala esan bear Erakastegi Santuetatik Eskritura Santeetan arkitzen diran gertaera edo ejemploak baño. Ipuiak kendu bear dirala Eliza, egia billatzen duanetik. Ipuiak kendu bear dirala? Arkitzen det nik Eskritura Santan ere Arbolen gakeño ipui egoki bat, zeñekin Profeta Santuak adirazi zuen berak gogo ta Jangoikoak nai zuena. Ipui ero, ume ta atzoen artekoak ez dira Pulpitorako egiñak, ez da ere gezur itxurakin datozen ejemploak. Ordea, gaizki egintzat ematea, ejenplotxo



bat edo beste, erakutsi dan gauzaren sinisgarri geiagorako, kontutzea jende pozik ta onandiaz enzun nai dituztenai, da esatea gaizki egiten zuteela San Agustin, ta San Gregorio Elizako Erakasla ta Jakitun andiagok, gaizkitzat ematen dituztenak baño. Da esatea gaizki egiten zuteela San Antonio Padoakok, San Bizente Ferrer miragillak, San Bernardino Senako ta zenbat beste birtute ta jakitura andiko Predikari beneragarriak! Irakurri bidiz oen Sermoiak, ta ixildu ditezela gero lotza apur bat badie alako Santuai, ta ez gaitzala ñior salatu, beren bideti bagabiltza. Jesu-Kristok predikatu zien penitentzia, ta zematu zituan nagiak mundu onetan ekusi ziran kastiguak gogoraerazirik. Bere Sermoiak ziran txit lauak, berdintza edo konparazio ederrekin eginak ez itz apainduz moldatuak. Apostoluen Burua zan Pedrok, doktrina errazarekin, bildu zituan anima asko Kristoren artaldera. Onela bada gauza onik egin nai duteenak gure errietako jendeetan, eman bear die ogi biguñia, ta San Pablok dionaz, Ama batek aurrari ugatza bezela. *Lac dedi vobis.*

Zer billatu bear du Animazale izan bear duten edozein Eliz-gizonek? Ez besterik ezpada animak irabaztea. Nork esan bada zenbat anima aldatu diran bekatutik Jangoikoaren aldera enzunaz beste gabe ejemplo edo gertaera mirarizkoren bat? Zenbat kristau urte osoetan egon ziranak lotsaz agertu gabe bekatu itxusiren bat edo asko, joan dira arinka Konfessorearen oñetara egiteko konfesio zuzen, garbi ta damuz bete bakarrik enzunaz Sermoiaren artean Jangoikoak egin dituan kastigu latzgarriak onelako ta alaka anima konfesatu gabe gordetzen zituztenekin! Au dakite Misionari, ta anima billa dabiltzan Konfessore guziak. Onelako ejemploak enzuten dituzte nekazariak ao zabal, ta atenzio andiarekin; ejemploa bukatzean asitzen dira Jesuska, larritzen dira beste anbeste gertatu ez didin berakin, daramate arantza biotzean, erasten zaizte gertaera guziak, kontatzen dituzte etxeetan joan etziranen aurrean, ta Jangoikoak berak bakarrik jakin dezake, zenbat on dakarren predikatze erraz, ta humill onek. Tito Libio, Plutarko, ta onelako mundu-jakitun batzuek zerbait kontatzen badute, sinisten zaie. Berriz testigu obeagoetatik datozen ejemploak, Ipuiatzat dauzkee onelako jende jakitun ustekoak. Fedeko gauzeen sinisgarri-rako egin dituala Jangoikoak mirari andiak, nork uka lezake? Ala bada egin ditu mirari asko bekatariak zuzentzeko bizitza onera, obligatzeko ondo konfesatzera ta komulgatzeraz.

Euskararen gañean zer esan dezaket? Batzuek dituzu, dio Aita Larramendi euskaldunearn maisuak, gure euskeran nai ez lukeenak beste itzkundeetatik itztxo bat ere. Euskerari eratxi zaizka erdaldunetatik itz ez gutxi; baño adituaz, ta oituaz, euskerakoak bezain ongi aditzen diranak; ta

oiek utzi bear eztitugu, ta bear bada noiz edo berriz obeko da onelakoak usatzea euskerakoak baño, batez ere Eliz gauzeetan, ta gure animen salbazioari dagozten egikarietan. Onela itz egiten digu Maisu izen andiko onek. Eta egia esateko, Elizak beretu ta konsagratuta bezela dauzka itz asko doktrina santua erakasteko. Ez dira bada utzi bear izen oiek, Bateoa, Konfirmazioa, Komunioa, Konfesio edo Penitentzia, Oleo azioa, Ordena, ta onelako Eliz itz asko igaro diranak kristau erri guzietako itzkundeetara. Oen ordean esan ditezke itz euskerakoak, ordea guzia naaitzea da, ta ez adierazotzea gauzaak bear bezala. Esaten badet nik *Bautismo* orde *Garbituntzako* Sakramentua, egia esango det, baño ez ziurki ta bear bezela azaldu, zeren garbitzea zabaltzen da gauza askotara, berriz *bateatzea*, ematen zaion sentidu edo esan naian gauza bakar ta guziak aditzen dutenera. Beraz erakeria edo arrotasun kaltegarria da animako gauzeetan ez jarraitzea arturik dauden Eliz itzai.

Beste batzuek, dituzu premia gabe ta animen-kalte andiarekin euskara guzia galtzen duteenak, bein euskera, bein latiñera, guzia barastu ta zikindua. Gutxi daki bere jaieterriko euskeraren erdia, ta alpertzten, nagitzen, ta lotsatzen ere dira ikasten, ta galdetzen; ta gero gaitzki esaka dabiltza garbiro euskera egiten duteenak gatik. Begitantzen zaie nekazari euskera baño ez dakitenak, aditu bear dituzteela erdera euskeratuak. Euskerak dauzkanen itz ederrak, guzien aoetan dabiltzanak, zertako da erdera mordollo jardutea Erakastegi santuan? Euskaldun garbiak, zer aituko du esaten bazaio Seme *Unijentua*, Aita *Omnipotentea*, Espiritu Santu *Bibifikadorea*, gauza *nezarioak*, ta ezin esan beste itz onelako? Ala bada ebilli bear da bide erditik geiegiaz edo gutxiegiat utsik egin ez dezagun. Nork ez daki Jesu-Kristok itz egiten ziela Hebreo, edo Judatarrai, ez anzinako Gurasoak zekiten itzkera garbi Adanegandik artuan, ta bai Salbagille onen egunetan itz egiten zan bezala, naiz zeukaten itzkera naasia ta eratxirik itz arrotz ta erbestekoak. Bazekian egiaz Kristok nola itz egin anziñakoen gisaan naste gabe, edo garbiro: ordea etzuen ala itz egiten, ezpada bere egunetako Judatarrek egiten zuten bezela. Onela guk ere egin bear degu. Nork aserre gabe enzun lezake euskera ederki jakin bear duten Eliz gizonak esatea Pulpitotik itz zatar oek *Abarientoak dira Idoloen sierboak*, *Ira da bizio kapital*, ta *benganzaren orijina puru purua*, *Jangoikoaren Klemenzia infinitak asko aborrezitzen duena*: ta zenbat onelako astakeria! Zer adituko dute nekazariak, belarriekin enzuenagatik, alako itzkera irutik bategiña?

Uste det berriz libru onetako euskera izango dala aditua Giputz guzian, Bizkaiko erri askotan, ta Naparroa geienean. Kardaberasen libruak aditzen errazagoak dira Euskal-errietan Mendibururenak baño.



Onek itz asko artu ditu Napar euskeratik, ta nola urruti dauden bata besteagandik Naparroa, ta Bizkaia, ez ala Giputzak (bada oek erdian daude) errazago egiten zaie Bizkaitarrai aditzea Kardaberasen itzkera giputz utsekoa, Mendibururen giputz-naparra baño. Auez da esatea, Mendibururen euskera, ederra ez dala; da egiaz ta itzak garbiago ta euskeratsuagoak Kardaberasen libruetakoak baño; ala ere onenak leku zabalagoan aditzen dira esan dedan arrazoiagatik. Nik ere oni jarraitu diot aleginez arrazoi bera-gatik.

Bada atsekabe ematen didan beste gauza bat, au da enzutea Euskaldunak gaitzki esatea, ta auzitan bezela batzuek besteakin. Giputzak enzuten dutenean Bizkaitarren itzkera, bereala abiatzen dira esaten, *au dek euskera zatar, astun, ta gogaitkarria. Nork enzun belarriak estaldu gabe?* Bizkaitar askok (ez erri guzietakoak) esango dizute giputzak dirala *labañak beren itzkeran, emakumen mingain zorrotzentzat ona dada, bizkaikoa gizontsuagoa*. Asitzen dira kiñu ta siñuka; oek arpegian ematen die aiei, *nion, zion, diot*, ta ala beste epai moldeakin. Aiek berriz Bizkaitarrai, *deutsat, neutsan, zeuntsan, esan juan, ez dok, bai dok* ta onela beste itz askotan. Euskaldun maiteak, zertako dira itzauzi oek? Zer esango digute erdaldunak errietan ta siñuka bagabiltza alkarren artean? Gure euskera gauza ez dala. Aita Larramendi, ta Kardaberasek, giputzak izanik, aitortzen zuten, etzekitela zein zan obeagoa: bakoitzak jarrai beza bere jaieterriko euskera; ordea ez gaizkirik esan. Ez degu errikoiak, edo erriko amorean itxutuak izan bear. Nik guziak dauzkat edertzat. Zati bat naiz giputza, ta beste zati bat bizkaitarra, ta bietara zerbait egin banaiz ere, geiago bizkaiko euskerara nere bizitarik geiena emen igaro dedalako jendeai erakasten animako gauzaak. Libru berau ipintzea uste det Bizkaiko euskeran ere. Ez dakitenak aste dute Bizkai guzian esaten dala: *Ene, ara toroa plazaan manzania jaten*. Bilbotarren erdi erdera erdi euskera daukate Bizkai guziko euskaratzat. Ez da ordea ala. Eztitsua goak dira giputzen itzak; baño itzen euskeratasun, garbitasun, ta euskera legeen aldetik, ez dio ezer zor Bizkaikoak, ta Kardaberasen iritzian, obeto gordezten dira euskeraren regla edo zuzen bideak Bizkaian, Giputzean baño. Dan bezela dala, o euskaldun onak! arzazute nere borondatea libru onetan. Ez arren utzi inoiz, sartu zanetik, euskal-errietan galdu ez dan Fede egiazkoa. Fede oni lagundu bear dio bizitza onak, gaiztoa erama duenarentzat, ona emen Onbidea, Konfesioko Sakramentuan. Jaunari eskerrak, gauza onik badago. Aaztu zitzatan gauza bat adieraztea bere lekuan, edo euskeraren gañean aitatu dedanean. Ez da berdina itz-joko edo konjugazioa Euskera giputza ederki dakitanen artean. Aita Ubillosek, zeñek Franzes erderatik euskaratu digun Fleuriren Doktrina-librua, onela ebakitzen

du baten itzketka, ta askorena. Nik egin *nuan*, aiek egin *zuen*, ta ala oetatik jaiotzen diranak. Bizkaiko euskeran ere jarraitzen da itzjoko au letra bi oekin, *a, ta e; a* batena danean itzkera edo egikera; eta *e* askorena danean; nik egin *neban*, aek egin *eben*; ala Aita Ubillosek ere *nuan, zuan*, zuen letra aldatze labor onekin. Berriz Aita Larramendik, Kardaberas, Mendiburu, ta Labor euskerako librugillak, beintzat nik ekusi ditudanak, ez dute ala konjugatzen, ta bai onela, nik egin *nuen*, ark egin *zuen*, aiek egin *zuten*, ta ala oetatik jaiotzen diranak. Zein dan konjugazio ohea, nik ez dakit; errazagoa ta garbiagoa dirudi Aita Ubillosek. Baña nola aitatu ditudan beste euskaldunak diran izen andikoak, eien gisara nik ere konjugazio esana egin det. Zein batera, zein bestera egin, ez da zer esanik. Giputz garbi garbia billatu bear da Giputz erdian, ez Franzes, Napar, ta Bizkai urrean dauden errietan; zeren erasten zaiez alkarren itzak urrean dauden errikoai. Irun, ta alderetan Franzes euskeraren usaia dute, ala ebakitzen itzak, nola itzen batuetan. Elgoibar, Eibar, Bergara, Mondragoe, ta ala besteeritxo batuetan erdi giputz, ta erdi bizkaikoak dirudite, Bizkai urrean daudelako. *Ez da ordea ansi*. Libruetan bakoitzari eman bear zaio. Giputz izeriditzen danean, giputz euskera naaste gabea alegiñez; Labortarrak beren gisara, ta orobat Bizkaitarrak. Baña buruz ikasten dan doktrina, obe da erakastea bakoitzaren errian itz egiten dan bezela. Ez dago onen premiarik Sermoi ta beste-lako libruetan. Elgoibar, Eibar ta Bergaran predikatzen bazate giputz garbian, ondo adituak izango dira Sermoigillak, baita-ere giputz urrean dauden Bizkaiko errietan. Ordea Kura Jaun edo animazaiak itz egin bear dute, al dezatela, beren kargura daukaten errikoak itz egiten duten bezala errian erakasten dutenean. Itztxo bi oei ta beste Eliz-gizon Eraskaleai, ta ona San Pablok guziori esaten diguna: *Attende tibi, et doctrinae. Hoc aenim faciens, et te ipsum salvum facies, et eos qui te audiunt*. Et certe, quid nobis proderit clamor et tumultus in docendo, predicatio opportuna et inportuna, argumenta aegregia methodo elaborata, increpationes, et obsecrationes in populum effutire, si unun audiunt, et aliud vident? Si exempla pravitatis in nobis obserbant? Praenstans praedicatio exemplum bonum. *Attendamus ergo nobis bene vivendo*. Sed nulla vita bona in Ecclesiae Pastoribus sine doctrina. Qui non docet iam iudicatus est: qui suarum ovium curam non habet fidem negavit et est infideli deterior. Qui Ecclesiae doctrinae in Tridentino annuntiatatae non obedit, Christi vocem non audit, et tamquam et nicus habendus. Qui autemad virtutem erudiunt multos, et qui bene praesunt Praesbiteri, magnam remunerationem habebunt, et in Dei iudicio dicent, *Ecce pueri, quos dedisti mihi*.



LENENGO PARTEA

Sakramentu Santu Konfesiokoaren gañean

ERAKASTE I.

Zein gauza bearra dan Konfesioko Sakramentua

G. Asko da bat bateatua izatea salbazioa izateko?

E. Bai, bateoko grazia galdu ez dutenentzat; ta bateoko grazia ez dute galtzeen, grazia au artuezkero bekatu mortal edo eriotzeorik egiten ez duteenak.

G. Eta galdu badu kristauak bateoko grazia, ta itxusitu animako janzi zuri ta ederra, zein bide gelditzen zaio graziara biurtzeko, ta berriz zuri-tzeko anima bekatuz loitu ta itxusitua?

E. Sakramentu Santu Penitenziako, edo Konfesio oso ta bear dan bezela egiña, al didilla; ta beti gogoz.

G. Zer esan nai du Penitenziaren izenak?

E. Esan nai du naigabe, edo pena idukitzea, edo artzea damu egiazko ta Jangoikoagandik datorrena.

G. Penitentzia gisa bat baño geiago ote da?

E. Bai: bi dira; batari deritzo Penitentzia Birtutea, ta besteari Penitenziako Sakramentua.

G. Zer da Penitentzia Birtutea?

E. Da Jangoikozko doai bat garamazana gorrotatzera bekatua, ta artzeera gogo sendo bat ez geiago bekatu egiteko. Da, dio San Agustinek, negar egitea igaro edo egin ziran bekatuak gatik, ta damuturik, ez geiago egitea.

G. Ori arrela bada, berriz bekaturatzen danak, ez du penitenziarik leenago egin?

E. Ez du egin penitentzia salbazioa ekarriko dionik, zeren penitentzia iraunkorra ezpada, ez da koroatzen. *Irauten duenak onean azkeneraño, salbazioa izango du*, dio Espiritu Santuak. Egia da bekatu biurtuagatik, izan zitekeala egiazkoa lengo konfesioa naiz damua. Baña Penitentzia igaroak ez dio ezer balioko inori salbatzeko, bekatu mortlarekin galdu bada Penitenziako irabazi edo frutua. Zenbat daude Infernua denpora zati edo urte batzuetan penitenziako negarrak ixuri zituztenaz? Ordea etzuten iraun, gogait egin zuten, eman zien espalda Jangoikoari, ta beingo baten bezela galdu zuten Zeruko koroa.

G. Beraz bear bearra da Penitentzia pekatuan erori dan edozeiñentzat?



E. Bai, ta ala denpora guzietan bear bearra izan da Birtutea dan alde-tik Penitentzia onen bidez salbatu ziran Adan ta Eba. Penitentiaren soñu au beti bezela erakusten da Eskritura Santa guzietan. Profeta santuak soñuau jotzen zuten. Zer izango zan Dabid Erregeaz Natanen itzetara biurtu ezpalitza! Ala beste penitenteak. Baña nolako penitentzia eskatzen du Jangoikoak? *Biur zaitzete nigana biotz guziarekin, baraur, ta negar egñiaz. Urratu edo ausi ezazute biotza, ta ez soñekoak.* Itz oekin aditzen eman digu Jangoikoak ez dala ezertako gauza biotzaren erditik irtetzen ez duen penitentzia edo bekatuaren damua; Biotza eman bear zaiola osoro edo guziz. Benetako penitenteak prest egon bear duela galtzeko honra, ondasunak, bizitza, edo edozein gauza Jangoikoa ofenditu baño leenago. Korputza ere ezi edo mortifikatu bear dala baraur edo beste nekagarriekin. *In jejuniu et fletu.* Ez dala asko bekatuaren batzuen damua, baita ere gorrotatu bear dirala bekatu mortal guziak: bularrak kolpetzea biotza ausi gabe, au da damu sendo gabe, dala penitentzia irudi utsa, edo hipokresia garbia. Nork esan lezake, zenbar utsegite ta itxutasun dagoan gauza onetan? Badakite kristauak penitentiari eskeñita dagoana barkazioa; baña begitanzten zaie txit erraza dala peniteneia egitea. Arkitu bear dira Jangoikoaren itzetan egiazko penitentiaren señaile, edo ezaugarriak. Ordea zer erakasten digu Jangoikoak? Ona zer dioan Ezekiel Profeta Santuaren aoz. *Bekatu egiten duen anima, dio, bera illko da. Baña bekatariak egiten badu bere bekatu guzien penitentzia, nere agindu edo esanak aurrerakoan gordetzen dituela, ta bada-rama bizitza zuzen ta garbia, biziko da ta ez illko. Atozte nigana, ta egiezazute gaiztakeria guzien penitentzia... Bota ezazuez zuengandi egitada esker guziak, ta egiezazute biotz ta espiritu berri bat. Zergatik iltzen zerate? Eztet nai il zaitzeten, ta bai biur zaitzeten nigana, ta bizi onela.* Orra nolako penitentzia eskatzen duen Jangoikoak. Bekatu guzi bizien damna. *Ab omnibus peccatis,* aurrera gordetzea beste aginduak. *Ut custodiat omnia praecepta mea.* Egitea gero justizia, edo eramatea bizitza zuzena. *Ut faciat iudicium justitiam.* Artzea biotza anima berri bat bezala. *Facite cor novum, et Spiritum novum.*

G. Ori ala izango zan anzinako legean, Konfesioko Sakramenta etze-goan orduan, baña nork sinistu Jesu-Kristoren lege biguñean bear dirala orrelako penitentzia señaileak?

E. Ez det ukatuko lege anzinakoan grazian jartzeko Penitentiako birtutearen bidez, bear ziola lagundu Jangoikoaren amorio garbi garbiak, ta esan oi dan bezela, Kontrizio osoak, edo Jangoikoaren amorioak ausitza. Eta Konfesorako ez dala bear modu orretako damurik gero erakatsiko degun bezela. Baña zer? Biotza osoz aldatu gabe gaitzetik onera, bekatu mortal guzien egiazko damu gabe Jangoikoaren ofensak diralako,

artugabe gogo sendo bat ez geiago bekatuak egiteko, gordetzeko osoz Jaunaren mandamentubak, jarraitzeko aurrerakoan bide zuzen ta garbiari, eduki gabe borondatea emateko satisfazioa Jangoika ofendituari egin diogun injuria, bide gabe edo ofensagatik, deritzagu iritxiko degula bekatuen barkazioa? Ez inola ere; animako penitentzia gabe, ez du Penitentzia agiriko edo Konfesioko ezer balioko, baizikan gere animen kalterako.

G. Beraz Konfesioko da egiazko Sakramentua?

E. Baita ala daduka erabakita Eliza Ama Santak bere Anima arzaien Batzakuntza, Bilkai, edo Konzilio Santuetan. Ona nola siniserazitzen duen egia au Erromako Katezismo edo Doktrina-Libru urrezkoak. Bautismoa da Sakramentua, zerren barkatzen dituan bekatu guziak, batez ere orijinal, edo jatorrizkoa. Ala bada Konfesioko ere barkatzen ditu bateatu ezkeroko egin diran bekatuak Penitenteak emiten dituan señaile agiri, ta Konfesoarearen absoluzioarekin. Ordea bein ondo bateatua ezin berriz bateatu diteke, baña bai nai adiña aldiz konfesatu.

G. Ote da bekatu ain andi ta izagarriak, zeña ezin barkatu ditekean ondo konfesatu ezkeroko?

E. Ez; bear diran prestaerakin konfesatzen bada.

G. Nola ordea erakurten da Ebanjelio Santuan esan zuela Jesu-Kristok Espiritu Saturaren kontrako bekatuak barkatuko ez dirala mundu ontan, ez bestean?

E. Ez dira itz oek aditzen barkatu ezin ditezkealako, zerren Jangoikoak emanda daduka itza barkatuko zaizkola bekatariari bekatu guziak batere utzi gabe, egiten bada egiazko penitentzia; Esaten da bada barkatuko ez dirala, zerren dan guziz gauza gaitza egitea alako bekatuen egiazko penitentzia. Esaten da eritasun edo korputzeko gaitzen bat osatu ezinkorra dala gaixoak artu nai ez dituan osakarri edo erremedio agintzen dizkeenak. Ala bada bekatu batzuek dira barkatzen ez diranak, bekatariak artu nai ez dituztelako bear diran sendagarri edo erremedioak aninako eritasun, edo gaitzetatik osatzeko. Bear dira hala milagroko grazia ugariak alako gaitz gogorretatik osatzeko; eta nola milagroak gutxienak dira, ala ere gutxienak dira alako bekatuetatik barkazio egiazkoa biotz penitentearekin eskatzen dutenak.

G. Nola bada esaten da badirala bekatu batzuek Aita Santuari, edo Obispo Jaunai gordeak, edo errietako Konfesoareak absolbitu ezin dezaizenak?

E. Ez da ori Sakramentu Konfesiokoaren birtuteren paltaz, baizikan absolbitzioaren gaitzasunak ezaguerazi dezan bekatariari bekatuen batzuen anditasuna. Aita Santu ta Obispo Jaunak ere barkazioa eman bear



dute Konfessore nagusiak bezala berai bekatuak agertuta, edo bai berak ematen diela beste Konfessore beera-gokoai absolbitzeko eskubidea. Baña beti da egia Elizan dagoala eskubide edo podere osoa barkatzeko edozein bekatu anima egiaz biurtu, edo konbertituarentzat.

G. Beraz badira bekatuaren batzuek Erromara joan gabe, edo Obispo Jaunai konfesatu gabe barkatuko ezin diranak. Zer egingo du bada bekatari joan ezin danak Erromara, edo Obispo Jaunarekin konfesatu ezin danak? Eta eriozko arrisku edo peligroan badago, zer egin?

E. Guzirako arkitzen da erremedioa. Eliza Ama Santak emaren die eskubidea Sazerdote, Konfessore ez diranai ere, konfesatzeko ta absolbitzeko alako gaisoak, edolaere ez dagoanean konfessore dan Sazerdoterik. Ona nola errukitzen dan bere umeeekin. Orobat bulda kurutzeko santua dadukana absolbi dezake edozein Konfessorek Aita Santu ta Obispo Jaunai gorderik dauden bekatu guzietatik, bakarrik ez benetako herejia aoz edo bestela atera danetik: Baña arkituko balitza bat herejia askorekin ere, Erromara joan gabe errietako Konfessoreak arkituko luke bidea absolbitzeko eskaturik ezkutuan, ta dirurik kosta gabe absolbitzeko lizenzia edo eskubidea. Eta ala ez du arkituko bekatariak edergarri; eskusa edo aitzakiarik ez konfesatzeko zuzen ta argiro bere bekatu guziak. Badira berriz asko, herejiazko bekatutzat dauzkenak ez diranak ere. Ai, balego anima benetan humilde ta konbertitua, ta zein erraz arkituko lukean salbazioko bidea! Ordea bekatu andiekin matasaturik daudenak bear dute billatu Konfessore jakitun ta animen zelo edo goze andiko bat besteak baño ere kontu geiagorekin. Baña zer gertatzen da? Billatzea Konfessore nola alakoak, irentsiko dituztenak bekatuak aztertu gabe noizkoa dan gaitza, ta absolutzio arin batekin bialtzen dituztenak pake gezurrezkoan, biak galdutzeko peligroan gelditzen dirala. Anima Jangoikoak jo dituenak, salbazioaren eske dabiltzanak, ta egiaz irten nai dutenak bekatuaren gaitzetik, billatzen dituzte Konfessorerik santuenak. Betor Misio bat. Zer gertatzen da? Anima bigunduak, konfesio oso ta egiazko bat egin nai dutenak, konfesio jeneralak egiteko, al dutela, billatzen dituzte ez Konfessore nasai ta kontu gutxikotzat daudenak, baizikan jakitune nak, anima zaleenak, len nasai bizi ziranean enzun ere nai etzizutzenak, ta misionisten artean ere bata baño bestea ferborosoago bada, urase nai lukee. Orobat erioztako beldurretan eskatzen dira geienez Konfessore begiratuak. Eta egia esateko, nola anima geldituko da pakean Konfessore arin dijoazenekin, enzun ta enzun, igaro ta igaro dabiltzanekin? Zenbat esankizun geldituko dira gero kezka emango dutenak? Ordea Konfessore jakitun batek, ta guziz konfesio jeneralak egin bear diranean, galdetuko diozka bear diranak, aztertu-

ko du konzienzia guzia, ta utziko du penitentea txit pake andian. Eritzen edo gaisotzen geranean badaude eskuor edo prest sei edo geiago Mediku, esaten ote degu, betor edozein? Ez; onena nai degu. Zergatik? Zerren osasuna benetan nai degun. Auzi bat dadukanak billatzea du Letradurik jakitunena. O itxutasun kaltegarria! Animaku osasuna dijoakunean, edozein Konfessore dala ona, ta bear bada billatzen dira pama txarrekoak, bekatuaren kontra gorroto andirik ez dutenak. Zer esan? Ez dala nai osatu, ez dala nai deabruarekin daukagun auzia irabazi, baizik engañatu edo zoraerazi konzienzia.

G. Ori orrela dala konfesio txaar asko egin bide dira?

E. Ala da, ta eztago kristau errietan kalte geiago egiten duen gauzarik, nola dan Penitenzia palsoa edo itxurapen utsekoak. Egiten da bekatu beldurgabe, ta esaten da, konfesatuko det, bekatuak esatean balego bezela barkazioa. Enzuten dutenean, Konfesioak edozein bekatu barkatzen duela, aisatzen dira edozein bekatu egitera, Penitenzia egiazkoa balitza bezela Jaunaren laguntza gabe egin ditekenea. Ala erremedio Kristok utzi ziguna buirtzen da animako pozoi izatera, ta gero dijoaz itxu itxuan erioztza gaitzo batera.

G. Nondik dakigu Jesu-Kristok utzi zigula Penitenziako Sakramentu, edo aozko Konfesioa?

E. Ebanjelio Santuan erakurten da, nola Jesu-Kristo, illen artetik piztu ta gero, agertu zitzaizen beldurrez ezkutuan ta alkaturik zeuden Apostolui esaten ziela. *Pakea zuekin*, ta au esanda erakutsi zitzen eskuak ta alboak; ta berriz esan ere bai, *Pakea zuekin. Nere Aitak ni bidaldu nauen bezela, ala nik ere zuek bidaltzen zaituztez. Zan esatea, nola niri Aitak eman zidan eskua izateko gizonen Juez, ala nik ere ematen dizuet eskubidea lurren gizonak juzgatzeko. Gero ezarri zien bere arnasa Jangoikozkoa, ta esan ere bai, *Ar zazute Espiritu Santua, zuek barkatzen dituzuten bekatuak barkatuak izango dira; ta zuek barkatu gabe largatzen dituzunak, ez dira izango barkatuak*. Esan ere zien beste bein gauza bera beste itz batzuekin, zuek askatzen dituzuten bekatuak, askatuak izango dira, ta zuek lotzen dezuna, lotua izango da. Ona nola Jesu-Kristok eman zien Apostolui bekatuen gañean sententzia emateko eskubidea, ta sententzia emango ezin da bekatuak jakin gabe, bekatariak deklarazio zuzena eman gabe, ta deklarazio au da aozko Konfesio garbi gezur ka estalki gabea.*

G. Zer esan nai du ordea askatzeak ta lotzeak?

E. Esan nai du, Jesu-Kristok eman ziela Apostolui eskubidea absolbitzeko edo libratzeko bekatuen katea gogorretatik benetako penitenteak, damu andiarekin zuzen konfesatzen ziranak; ta ez libratzeko edo ukatze-



ko absoluzioa damu egiazkoaren ezaugarri edo señailekin konfesatzen etzirana; zerren onelakoa ematen zaien absoluzioa dan kaltegarria ematen ta artzen duenarentzat.

G. Zer egin bear du penitenteak esaten badio Konfesoreak eztagoia orduan prestatua absoluzioa artutzeko?

E. Pensatu, obeto dakiala Konfesoreak zer egin bear duen, ta biurrera gero esaten dion dendoran, arturik ematen dion ordena. Badira kristau asko dijoazanak konfesatzera absoluzioa artu ezin dezakin bizi moduan. Onelakoen artekoak dira bekatuaren okasio urrekoan borundatez daudenak, uzten ez dituztenak leku edo lagun, anima len sarri galdu dienak, Konfesoreak leenago esanda ere egunetik egunera luzatzen dituztenak buirrrera edo errestituzioak egiteak, egiazko arrazoi gabe; ta ezin kontatu beste ekandu, oitura, edo kostunbre jarraitu ta luzekoak daukeenak, leenagoko konfesioetan itz onak emanda ere zakurrak bezela buirtzen diranak jaatera lenago trokatu edo errebasatu zitzaten bekatuen loiak. Ona nola itzegiten dien Jangoikoak bere Sazerdoteai; Ez arren egotzi gauza Santua Zakurrai, ez da ganau beltzai ere arri preziosoak. Da esatea, ez eman Jesu-Kristoren Korputz Santua zakurrak bezelakoai, bekatuetara erraz buirtzen diranai, ta ganau beltzak bezela garbitu ondoan dijoazanai loitzera berriz zingura, edo basatzen. Baña zer gertatzen da? Konfesore zur edo prudente batek esaten badie utzi dezela absolbitu orduko bekatuaren okasioa, begia ta oñak baño bearrago bada ere, agintzen duen bezela Jesu-Kristok; biur dezatela ostua, kalte egiña, ta bidegabeko irabazia, buirtu ditezela konfesatzera absoluzioa gero, emendatuta artutzeko, asitzen dira erreguka palagatzen Konfesorea; Jauna absolbitu naza; biurtuko det ostua, utziko edo botako det okasioa, emendatuko naiz, ta ala milla onirudiko itzak emanda absoluzioa ateratzeko. Badira bai esaten dienak Konfesoreari, geiago konfesatuko ez dirala absolbitzen ezpaditu ordu artan, ta bai errosarioak botatzen edo ematen dioztenak Konfesoreari esanaz, nere anima galdutzen bada izango da berorren kontura. O, nolako prestantua humildadearekin konfesatzeko! Zein señaile argiagorik ezagutzeko zijoala gaizki prestatua! Ala bada utzi Konfesoreari egin dezan ondo deritzona, artu berak ematen dituan osabideak ezagutu, Konfesoreak iñork baño naiago lukeala eman absoluzioa animaren kalte gabe al balu, ta ez berarekin itz auzitan. Bestela gaizki prestatua dagoala penitentea, esaten badu, Konfesoreak *nik absolbitzen zaitut* esango du Jesu-Kristok, *nik lotuago largatzen zaitut*, ta irtengo du Eleizatik sartu zanean baño gaiztoago sakrilejio andi birekin, absoluzio eman bear etzarenaren ondoan komulgatzen bada, ta batekin komulgatzen ezpada.

G. Zer bear da bada ondo prestatzeko Konfesiorako?

E. Bost gauza. Konzienziaren Aztertze, billazientza, edo Esamina kontuzkoa. Bigarrena, Damu egizko edo biotz osokoa Jangoikoa ofendita dalako. Irugarrena, Asmo, gogo, edo propritu sendoa ez geiagoren geiago bekatu mortalik edolaere egiteko, ta aldegitoko bekatuaren labanarri, edo okasio urrekoeotik. Laugarrena, agertzea bekatu mortalak jakiñak jakinak bezela, dudakoak dudakoak bezela, apaindu, gutxitu ta geitu gabe. Bostgarrena, egitea Konfesoreak ematen duan Penitentzia. Ekusiko dira gauza oek doktrina batzuetan.



ERAKASTE II.

Konfesio aurreko Esamina

Esan degu igaro dan doktrinan ondo konfesatzeko bear dan lenbiziko gauza dala Konzienziako Esamina.

G. Zer da bada Konzienziako Esamina au?

E. Da kristauak egaiten duan bere biotzaren aztertze, edo billakuntza kontuzko bat, gogora ekartzeko azkeneko Konfesio ondo egiñetik egin dituan bekatuak.

G. Zergatik esaten da Konfesio ondo egiñetik?

E. Zerren ez dan asko konfesio azkenekotik esamina egitea, leenago konfesioren bat, bi, edo geiago gaizki egiñak badauzka. Arkitzen dira kristau dauzkeenak gaizki eginda Konfesio asko, edo lotsaz bekatoren bat edo geiago isildu dituztelako, edo egiazko damu gabe konfesatu diralako. Oek zer egingo dute azkeneko Konfesiotik, egin bear duenera, esamina egiteaz? Ezer ez gauza onik, ta bai bideak egin geitzeko sakrilejioak. Onelakoak, gero astiro erakatsiko degun bezela bear dute egin Konfesio gaizki egin guzien Konfesio jenerala, ta artarako, denpora guzi artako bekatu guzien ta konfesio eginen esamina kontuzkoa; bestela ezin salbatuko da, ta ezin ondo konfesa diteke Konfesio jenerala egin artean. Ala bada Konzienziako Esamina egitera dijoanean lenengo eginbidea da aztertzea, edo billatzea ote daukan edo ez konfesio gaizki eginik. Ordea leenago kontuau atera duenak, ta arkitu ez arrazoi onik sinisteko gaizki konfesatu dala, eztu beti ebilli bear alako arazo ta ardura geiegian, batez ere ezaguerara osuaz ezer estaldu ezpadu ta oitura gaiztoetan sarturik egon ezpada; eta arrazoi geiagorekin Konfesoreak agindu badio ez artan bururik ausitzeko.

G. Zertako da esamina konzienziakoa?

E. Agertzeko Konfesoreari bere konzienzia, akusatzeko bere burua, Jangoikoaren ordean barka ditzan bekatuak absolutzioaren bidez. Esan genuzan, nola Konfesoarea dan Jesu-Kristoren ordeko Jueza. Juezak ematzeko sententzia jakin bear du zeren gañean eman, bestela oker ebilliko da. Lurreko Tribunaletan daude Piskal, edo Akusatzalleak, Testigoak, ta gais-tagillearen deklarazio edo Konfesio Juezak artu bear dizkonak. Guziak aituta ematen da sententzia, edo libratzeko, edo kastigatzeko. Nola bada Konfesoare batek eman dezake sententzia zuzena ezpadago akusazio, ta deklarado garbirik? Eta nola deklarazio edo, konfesio zuzena eman, biotza esaminatu gabe? Geiago. Lurreko Juezak ez tie inori agintzen burua

akusatzeko, edo agertzeko gaiztakeria, ezpadago akusatzallerik, edo egin duelako seinaleren bat. Baña Jesu-Kristok agintzen dio, barkazioa nai duen bekatariari, egiteko berak akusazio edo konfesio zuzen garbi bat ezer utzi gabe, zerren egin zuan Tribunale Inkisiziokoa baño ixillagoa, beste akusatzalle ta testigu gabe bekataria bera baño. Beraz bear da esamina kontuzko bat egin akusazio osoa aleginez egiteko. Lurreko Tribunalak dira Justizia utsekoak bezela, Juezak ondo badabiltza. Berriz Konfesioko Tribunalak da miserikordia utseko Tribunalak, zerren Konfesoarea egin zan barkatzeko gaizki egiña konfesio zuzen ta garbi bat egiten bada bekatuaren damuarekin. Eriotzaren bat egin da Justiziak arrapatzen duenari, zer erakusten etzaio? Darama Karzelara, ezarten diez kateak, sartzen dute zepoan, an dira gosea, otza, loa, lur gogorra, bakartadea, ta zenbat naigabe? Konfesoarek artzen diozkenean andira Eskribauak, ta Jueza bera, edo bere ordezkaria itz on bat esaten ez diela, ta bai agertu bekoki illuna. Ukutzen badu, arrapatzen dute gezurrean milla kontu artzerekin, artzen dira testigoak, ta ez tie ezer balio ukatzeak probantza osoa billatu dutelako. Egia esanagatik, ez dago barkaziorik, kondenatzen dute bizitza galtzera; ez tie ezer balio kulpagabe badago ere, baldin egotzi badie eriotza egina, arkitzen badira testigo gezurrezko sendo daudenak. Milla negar malkorekin barkazioa eskatu arren, ezta enzubia, Justiziak egiten du berea, ta arrazoiak. Ez ala Konfesioko Tribunale Jesu-Kristok ipinian. Konfesatzen badu zuzen egia, ta ori ezkutuan Juez inori esango ez dionari, ta eskatzen badu barkazioa humiltasun ta damu andi batekin, ezdago kastigu esatekorik, ta bai barkazioa. Eriotza bat eginda dagoanari deituko balio ixillik Juezak, ta esan, libratuko zaitut Karzelatik esaten badidazu egia, edo konfesatzen badidazu neuri bakarrik, nola konfesatuko ez lioke? Nolako eskerrak eman ez alako Juez biguñ, ta errukiarrari? Orra bada zertako dan Esamina, agertzeko Konfesoreari bekatu, edo gaizki egiñak barkatu ditzan Jesu-Kristoren Juez ordekoak bezela. Nork ezagutu ez juizio onen biguntasuna? Nork emanez Jesu Kristori esker andiak anbeste erruki agertzen digulako?

G. Zergatik geiago egin bear da Konzienziako Esamina?

E. Zerren Konfesoarea Juez ez eze, dan ere animako Osagille edo Medikua, ta Medikua bati esan bear zaizka garbi korputzeko gaitzak, ta ez ezer estaldu utsik egin ez dezan. Medikua batek zenbat azterri egiten ez dituzte gaitza ezagutzeko? Jakin bear du gaitza zaarra edo berria dan, nondik jaio dan, ta zer ez? Beraz Konfesoreak animako Medikua dan aldetik, jakin bear du bekatua zaarra edo berria dan, anzinatik datorren edo ez, nondik jaiotzen dan, nolako leka edo adiskide gaiztoetatik, dan gaitza



mingañekoa, eskukoa, bularrekkoa, edo toki askotakoa, au da itzez, eskuz, biotzez edo nongoak diran bekatuak. Ematen ezpadio kontu zuzena bekatariak osatu bearrean, eriotzarekin irtengo du. Beraz bear da bekatu edo animako gaitzen esamina kontuzko bat egin, agertzeko garbiro Konfessoreari.

G. Zergatik geiago egin bear da Esamina au?

E. Zerren gure salbazioko osasuna dagoan esekita bere bekatuaren ezagutzatik. *Intuim salutis notitia peccati*. Ala dio Seneka Jakitun fedea ezagutu etzuanak. Ezagutu gabe, ezingo du konfesatu, damurik ere artuez; ezagutzen ez dan bekatua nola gorrotatu? Nola berriz ezagutu, aztertu, edo esaminatu gabe biotza?

G. Beraz Konzienziako esamina da obligaziokoa?

E. Nola ere dan; ta ala bakoitzaren nagitasun osoaz, edo andiz largatzen bada konfesatu gabe bekatu mortalen bat, izango da Konfesioa txarra; nagitasun esaminakoa laburra edo gutzi baten bada, izango da bekatu beniala, ordea ez gaiztoa konfesioa beste utsegirik ezpadi.

G. Nolakoak bada izan bear du Konfesorako esaminak?

E. Kontuzkoak, arretaz egiñak, ez itoka, arinka, ta senian bezala. Zeregin astun edo ardura ematen dutenak, ez dira beingoan ta itomendian egiten, baizikan astiro ta kontuz. Zerbait irabazi bear bada, edo bai aldegin kalte andi batetik, nolako dilijenziak? Galdu danean erezatun eder bat, ekusten dira etxe guziko bazterrak, artzen da itxuski edo eskaba, garbitzen dira loiak. Ekusiko bagenu sartutzen etxean Suge bat, nolako beldurra, zenbat arazo? zulo, oape, ta zoko guziak aztertzen dira arkitzeko piztia zitala. Nork lo egin bakean arkitu ta ill gabe? Zerk egiten du au? Estimutzen dalako erezatuna, osasuna edo bizitza. Non da gure fedea? Zenbat kristau dira dakitenak, beren biotzean sartu dirala sugea baño kaltegarriagoko bekatuak, ta lo egiten dutenak beldur gabe, ta ekusi gabe nolakoak ta zenbat diran, arkitu, ta iltzeko Konfesioko ezpataz? Errege batek irten biar badu gerrara beste Errege batekin, dio Jesu-Kristok, parten da kontuak ateratzen nolako gastuak egin bearko diran, zenbat Soldadu prestatu bear dituan etsaiari arpegi emateko. *Sedens prius cogitat: asitzen da pensatzen eserita*, au da astiro, ez itoka, ez arin ta beingoan. Orain bada, zer egin bear ez du: Kristauak bere zereginikan dienen? Atera bear du kontu Errege alakoak, dira Kristoren itzak, asko ote dituen, gauza guziak ondo aztertuta, amar milla Soldadu, ogei millarekin bere kontra datorrenari, irtetzeko. Nolakoa ez da gure gerra Infernuko etsaiarekin? Badauzka etsai gaiztoak ogei bekatu mortal guri ateratzeko, guri gerra berekin emateko, ta guk kontuak ondo ez ateratzegatik, gure esaminaren paltaz,

amar baño ezpadaramaguz Konfesioko batallara, ta au gure nagitasunez, ardurarik ezaz, iges egiten degulako doktrina ta Sermoietatik, non ikasi genzekean esamina ondo egiten zer gertatuko zaigu? Garaituko gaitu etsaiak, beretuko gaitu, ta Jangoikoaren grazia atera bearrean Konfesiotik, aterako ditugu Sakrilejioak.

G. Nai nuke enzun gertaera edo ejenplu egoki bat gauza onen gañean.

E. Ona erakurten dana Santa Margarita Kortonaren bizitzan. Zegoala munduko bizitza lasai eraman zuena kastigatzen bizitza penitentzia arrigarri batekin ondoan, agertu zitzaion sarri Kristo, baña beti ematen zion bekatari gaisoaren izena. Jauna, esan zion alako ager aldi baten, zergatik ematen ez dit noiz bait alabaren izena? Ez dizur ematen, eranzun zion Kristok, dauzkatzulako bekatu ezkutu anzinako bizitzan egiñak bear dan bezela konfesatu gabe bear adia esamina egin etzenualako. O nere Jauna, esan zion Santa Penitenteak, zu zera argi egiazkoa, ken zazuz bada nere animako illuntasunak, ezagutu detzadan argiro ta banaan bezela, nere bekatu ta zirkunstantzia guziak, berriz Konfesiio jeneral ta bizitza guziko bat eginda, iritxi dezadan guzien barkazio osoa, ta, zuk ematean niri alabaren izena. Bereala ispillu baten bezela agertu edo ekusi erazi ziozkan Jangoikoak argi bizi batekin bere bizitza guziko utsegiñak, ta konfesatu zituan, nork esan nolako damu amore garbikoarekin? Orduan agertu zitzaion berriz Jesu-Kristo, ta emanik alabaren izena, artu zuen bere sekreto andi ta askoren kontua emateko. Santa onek egin zuan konbertitu ta laster bizitza guziko Konfesiio jenerala damu guziz andiarekin, etzuen ezer utzi lotsaz, ta igaro ere zituen urte osoak sarri konfesatzen ta komulgatzen zala, egiten zituen obra on asko, zeintzuen bidez zegoan ez bakarrik Jangoikoaren grazian, baita ere aurrera penandiak perfekzioko bidean eginda. Zerk bada atzeratzen zuen Jangoikoa alabaren izena ematera, ta ez bekatari gaixoarena? Agertu etzituelako bekatoren batzuek, Jau-nak nai zuen zeetasunarekin, ez borondate onaren paltaz, ta bai bear adia esamina edo aztertze egin etzuelako. Santa onen utsegitea etzan andia izan, ez bekatuzkoa ere bere esaminaren laburtasuna; ala ere eskatu zion esamina zeagoa. Egia da esamina ondo egiteko nagitasuna eztan andia, barkatzen dirala kondesatu gabe gelditzen diran bekatuak, nola barkatzen diran esamina oso ta kontuzkoa eginda aaztuak; ordea konfesatzeko kargarekin gogoratzen direnean. Ez ala nagitasun andiarekin, edo ezaueraz esamina txit laburra egiten danean Konfessorearen galdetze ze ta kontuzkoarekin suplitu ez danean esaminaren laburtasuna, ta au noiz edo berriz gerta diteke buru txaarrekoren batzuekin, ez beti ta ez guziekin. Ona zer dion Trentoko Konzilio Santuak gauza onen gañean. Bear dira



Penitenteak agertu esamina kontuzko baten atera dituen bekatu mortal guziak. Eskatzen du esamina ziur ta kontuzko bat. Nolako ziurtasun, arreta ta kontua idukitzen ez da gauza pisukoetan? Guraso on ta zur bazek nai duenean ezkondu bere alaba, ez dio ematen emaztetzat edozein gizasemeri. Nolako azterriak egiten ez ditu Senargaiaren ondasun, kristautasun, jenio, ta Odolaren gañean? Zenso bat ipiñi nai duenak begiratzten du kontuz, nori ematen dion, zeren gañean: aztertzen du leenago beste zenso edo zorrik duen, ta zenbateraño; eskatzen diozkaz piadore seguruak. Jaun batek eskatzen diozka bereazienda edo ondasunen Maiordomoari kontu estuak, ez dio esan utsari sinistea ematen. Nola bada kristaua gauza ain pisukoan, nola dan animako salbazioa, izan diteke nagi ta arretagabea? Nola bere buruari kontu estuak artu ez jakiteko nolako moduz, ta zenbat bider ta ze aldetatik utsegin duen Jangoikuak ondo erabiltzeko eman dionai animako gobernuan?

G. Ori ondo ezagutzen da, ordea zenbateraño eldu bear du esamina onen kontu ta zeaztasunak?

E. Eztago zuzen bide edo erregla, jakin ta erabakirik; batzuek bear dute denpora geiago, besteak gutxiago. Nork nai ezagutuko du, Konfesio bizitza guzikoa, edo jeneral osoa egiteko, bear dala geiago lau edo bost urteko Konfesio jenerala egiteko baño. Buru iratzarri, azkor, ta onekoak gutxiago bear duela buru txar, ta gutxi jakin batek baño. Konfesio urte osokoak geiago, urte erdikoak baño; ta ala ere gutxiago konfesio sarri egiñak. Langintza edo ofizioak ere badira batzuek baño besteak arazo-tsuagoak ta obligazio geiago dakartenak. Beraz, neskame batek obligazio gutxiago du etxeko Jaun edo andrearek baño, neskatx batek ezkonduak baño, aberats batek nekezaleak baño, merkatari batek atxurlariak baño; bada estaduko obligazioak eskatzen dute berezko esamina. Ola gizon baten alkandorea ez da ain erraz garbitzen, nola beste askorena. Urte guzian sutegi, ikatz, ta mallu burnizkoekin dabillenen eskuak ur geiago, igortzi estu ta sarriagoak bear dituzte arotz baten eskuak garbitzeko baño.

G. Ondo dio, ta ez det zer esanik orren kontra; ordea beti gelditzen naiz beldurrarekin ondo esaminatzen naizan edo ez.

E. Ezin eranzungo dizut zuzen jakin gabe nolakoa dan zure bizitza. Bi aldetatik utsegiten da gauza onetan, geiegiaren ta gutxiagiaren aldetik. Geiegiaz utsegiten dure Kristau eskrupuloso, ikarakor, ta bidegabeko beldurrez burua autsitzten dutenak esamina luzeetan. Deabruak siniserazi nai du Konfesioa dala tormentu lekua, ez lege biguna, gogaiterazirik, eramatea guk bizitza estua, ta iges erazi anima onai konfesio ta komunitatik. Anima naiago duenak bizitza galda bekatu mortal bat egin baño, ta pres-

taera biotzeko onekin betiko beldurrean daudenak ondo esaminatu diran edo ez, leenagoko konfesioak onak diran edo ez, berriz egin bear dutela esamina luzeagoarekin Konfesio jenerala, Konfesoreak uzteko esanagatik baketu ezin diranak, utsegiten dute. Zertako onelakoak ausi burua esamina gogaitgarri ta luzean? Eztute besterik egiten baikan asmatu bezela bekatu egin ez dituztenak; begitantzen zaiez bekatu naiak, edo tentazioai leku emanak eman ez dien orduan. Onelakoak bekatu mortalen bat egin balute, ezin egiteko bear dan ezaguera ta borondate osoa, ezin aztuko luke, ez lorik egin beldurgabe, ta ez dute esamina andiren bearrik gogoratzeko bekatu mortala. Bekatu benialen konfesioa txit ona bada ere, ezta obligaziokoa; beraz ez da beren esamina ere. Au esaten det Kristau egiaz eskrupulosoak diranentzat, ez gauza batzuetan lasaiak, besteetan estube-giak. Onelakoak dira euskalerrietan esan oi dan bezela *Zaietan zioi, irinetan ero*. Zai apur bat galdu ez didin estu ta larri, ta irin zatiak galduagatik farre galanki. Anzinako Sakristauak bezela, ostu Elizan ostuala argizai, ta beldur izan txistu apur bat Eliz barruan botatzen. Ekusten dira kristau bekatu mortal galantak irinsten dituztenak, ta bestetik bekatu ez diran gauzeetan txit beldurtzak Fariseo arro ta hipokritak bezela. Oek dira deabruak poliki engañatzen dituenak. Onelakoak bear dute Zeruko argi eder bat, ta esamina luzearen bearra: Baña benekako eskrupulosoak ez luke bekatu egingo esamina apur batekin, ta esaminarik gabe balijoaz ere konfesatzera; zerren esamina ez da bear bearra dakianean batek azkeneko konfesi onetik bekatu mortalik egin ez dala, ta au txit sarri gertatzen da anima onetan. Ai, Kristau eskrupulosoak esaminagintzan igarotzen duten denpora, alperraik galdu ta kaltegarria, igaroko balute Jesu-Kristok digun amoreaz aztertzen, batez ere altarako mai santuan, eta nola beldur eragabeak utzirik elduko lirakean komulgatzera gozamen ta bake geiagorekin! Zer bide artu onetarako? Enzun Jesu-Kristoren itza Konfesorearen aotik, ta begi itxuekin egin bere esana. Besteak dira kontrako bidetik dabiltzanak; oek dira kristau nasai, ta arduri gabeak animako salbazioaren gañean. Oen artekoen ill askotako edo urte guziko Konfesioak dijoaz esamina gabe, edo txik arin batekin Konfesorearen oñetara, ta esaten dio, Jauna galdetu begit. Nola igarriko die leenago ezagutu eztuan konzienan zer igarotzen dan? Konfesore artuak, sarri konzienziako baztarren berri izan dutenak, laster ta erraz igarten die dan edo ez pekatu penitenteak iduki duen tentazioa, ezta-baida edo duda aldietan ebakitzen dute gaitz-gabe. Mediki ez ezaguna ez da ain ona besteak berdin dirala, nola Mediki gaisoaren berriak dakizkiana. Etxe baten sarri sartu danak, edo urteetan bizi danak, gabaz ta illunean ere ebilliko da erori gabe. Berriz len etxe-



ko berri eztakiana, ebilliko da, argirik ezpadu, atzaparka eztakiala nori eskua erratsi erori ez didin, ta geldika dabillega ere banatu diteke erraz bazterren baten kontra, edo erori eskalleratik. Ala konzienziako etxe illunean sarri sartu dan Konfesorea, ebilliko da erraz; badaki non dauden gelaak, zer dagoan, non labandu ditekean, nolakoak diran penitentearen jenio, pasio, oitura, tentazio, ta daraman bizimodua. Zer egin berriz Konfessore jakitun onak ere esamina kontuzko gabe datorren penitente ez ezagunarekin! Ezin jakin lezake zertaraño galdetu, ez zer ebaki ezta-baida edo duda askotan. Ain erraz eranzungo dio amar, zein ogei, ain laster konsintitu zuela, nola ez. Ala dio Suarez jakintsuak. Egia da kristau gutxi dirala konzienzia txit ona ezpadute konfesio luze ta naastuetan egin dezaketanak esplikazio argi, zuzen ta bear diran zirkunstantzia guziena, ta bear dutela Konfessorearen laguntasuna galdetzeetan. Ordea, eldu Konfessorearen oñetara esaminarik gabe, edo itxurapenazkoarekin igarri dezozon zer egin duen, au litzake jarrea konfesio gauza ez dan bategeteko bidean.

Badira beste batzuek Konfesio luze edo urte geikoarekin beren esamina modua eginda asiko diranak esaten, akusatzen naiz Jauna, aserre apurtxo batzuek izan ditudala nere etxean, ta auzokoekin, galdu det zer-bait nere pazienza, esan ditut farre eragiteko itzat, baita gezur txiki batzuek, ezarri det noiz bait trago bat geixeago, baña eztet trokatu, ez pakerik galdu, ez errierta andirik jaso, ez inori gaitzik egin... Eztet Jauna geiago zer konfesatu. Akusatze labur onekin zer aditu lezake konfessoreak? Eztu akusazio garbirik egin, pekatu arintzat esan ditu guziak. Onelakoak geienez dira orazioa zer dan ez dakitenak, mortifikazioaren izena ere aitu ez dutenak, daramenak bizitza lasai ta gauza onik egingabea. Zenbat bekatu estaltzen dira beren animako begi lausotu, edo geunduetatik? Itz farre eragiteko akusatu dituenak dira edo murmurazio astunak, edo itxusi, zatargarbitasunaren kontrakoak, ta anima asarren galgarriak. Errierta edo aserre apurtxoak dira birao edo maldizio gogoa etxeke ta auzokoen eskandalagarriak, tragotxo bat geiago edatea, da albo alboka, begiak lausotuta, oñak lokatuta etxera nekez biurtzea etxekeak bear zutena gastatuaz ardantegi edo Tabernan. Onela dijoaz konfesatzera esamina gabe lenengo burura etorten zatena esatera, apintzen dituztela bekatu andiak ta utsera joerazita. O konfesio ederrak! O esamina prestaera ederrekoa! Eguzki argitik sartutzen dana gela illunean, itxutzen bezela da ordu artan, ta ez du ezer ekusten ordea irauten badu gela artan egotez, ekusiko ditu gerora an dauden pintura, ta tresna guziak. Beste onenbeste gertatzen zaie kristau askori berea konzienziako leiza, edo kobao illuna bezelakoan. Begiratze edo lenbiziko sarreran, esamina laburrean, ez dute

ezer ekusten egonagatik bekatu itsusi asko. Baña iraungo balute esamina, edo kozienziako begiratze, ta aztertzean ekusiko lituzke an dauden gauza lotsagarriak. An arkituko luke nola leku eman zien tentazioari, nola berriketatzat zeudenak, diran murmurazio astunak, itz farre eragitekoak, zira-la itz zarar ta eskandalagarriak; nola eragotzi bear zituzten gauzak, eragotzi etzituzten, ta ala beste gauza txar asko. Idiki orma, ta an arkituko dira gordeta nork esan zenbat gaizki egin. *Fade parietem.*



ERAKASTE III.

Gauza beraren Jarraitza

Ikusi ditugu igaro dan dortrinan, zer dan Esamina konzienziakoa, nolakoak izan bear duen, ta zenbatek utsegiten duten gauza ain bearrean; baña nola gauza asko dagoan zer erakatsi gai ugari onetan, nai ditut azaldu, edo esplikatute beste doktrina baten, dauden zer jakifiak.

G. Zertan bada utsegiten dute kristau askok esamina ondo ez egitean?

E. Bi aldetara; bat, ez animari kontu artuaz bekatu omisiokoen gañean, ta bestea pilloan, ta zeaztasun gabe mandamentuak igaroaz bekatuak gogoratzeko.

G. Zer da bekatu omisiokoa, edo eginezekoa?

E. Da ez egitea egin bear dan gauzaren bat. Ona ejemplo bat edo beste. Agintzen du Jesu-Kristok egiteko limosna. Au da obligazio estua. Bada ez egitea limosna egin bear dan aldietan, da omisioko bekatua. Ala beste obra miseriakordiakoen gañean utsegiten da obligatzen gaituzten aldi askotan. Guraso bati agitzen dio Jangoikoak aziera ona emateko beren umeai. Ez ematea aziera ona da omisioko bekatua. Emen sartzen dira bakoitzak bere estadu edo ofizioko obligazioai ez eranzutea. Nork esan berriz zein gutxi diran onelako eginezen gañean esaminatzen diranak? Eldu zan bein Errege kanpoan zebillen bat erritxiki batera, ta billatu zuen konfesatzeko erriko Kura, edo Erretora. Egin zuen Erregek mandamentuetatik bere konfesioa, ta uste zuenean etzeukala zer esan geiago, esan zion Konfesore on ark, Jauna, konfesatu ditu gizonaren bekatuak, orain konfesatu bear dira Erregerenak. Artu zion gero kontu, nola zuzentzen zuen bere Reinoa nolako Ministroak zeuzkan, nola begiratzen zuen enpleoak ematen, ta ala beste gauza asko. Etzion gaitziritzi Konfesore aren kontu artzeari, ta bai egiñ Toledako Arzobispo, ain begiratuia zalako animak zuzentzen, ta itzegiten beldurgabe. Eli Israelgo Jueza guziz ona zan alde askotara, baña bear bezela kastigatu etzituelako bere Seme gaizto biak, zeintzuek egiten zituzten oker asko, ta eragotzi etzituelako Seme aien bekatuak, irurak il ziran beingo batean, ta igaro zan kastigua beren ondorengoetara. Ala gizon aberats batek igarotzen badu mezaak enzuten goiz guzia, ta egunak dituen beste ordu guziak gauza on asko egiten, bada diruzalea, zekena, ta ez limosnaria, ez da salbatuko, zerren ez duen egiten egin bear duena, ez duen karidaderik; ta zerren pobreak ukatzea limosna bear orduetan, dan ukatzea Jesu-Kristori. Beraz dirudunak esaminatu

bear dute konzienzia egiten duten edo ez bear beste limosna, bere gogortasunagatik atzeratzen ote diran edo ez premian da-odenak berari limosna eskatzen. Zergatik erori zan Infernura Aberats zikotz, zeken ta diru zalea? Beretzat zuen mai txit ona, jatekoa geiegiaz, ta bere atarian zegoan pobre Lazaro zeritzanari, erakusten zion arpegi astuna sokorritu bearrean. Orra nola kondenatu zan ez egiñaz edo omisioko bekatuagatik. Beste anbeste gertatuko zaie biotz gogorren jaubeai, errukiorrak ez diranai, ondasun asko eduki ta geituaz dijoazenai, zabaldu gabe pobren artean. Kutzia, edo Zekentasuna da Idoloak serbitzea, ta bekatu askoren iturburu edo sustraia. Ala dio Espiritu Santuak. Ez dute onelakoak zer ekusirik izango Jangoikoaren Reinuan, ala dio San Pablok. Ordea, nork ezagutzen du bekatu au? Bai aberats biotz biguneko ta limosnagillak, ez zeken diruzaleak. Beraz egin bear da esamina zuzena ez egiten gañean egin bear diran gauzeetan. Eskola-maisu batek iduki bear du kontu andia eskola mutillekin, eman bear die doktrina ta ejemplo ona, erakatsi ondo doktrina, erakurten ta eskribitzen, meza santuan ondo egoten; nagia bada, egingo du bekatu ez egiñaz egin bear zuena; ta koafesatzeko esaminatu bear du, nola kunplitzen edo betetzen dituen bere obligazioak. Gurasoak berriz zenbat utsegite? Oek egingo balute egin bear dutena, egiñaz alegina aziera on bat txikitatik emateko beren umeai, nola ekusiko lirake anbat nasaitasun ta bekatu mutil ta neskatxetan? Zenbat guraso dira onen gañean esaminatzen diranak? Gutxi. Zenbat etxeko-jaun edo andra beren morroe ta mirabeakin animako gauzeetan konturik ez dutenak? Etxerako ona bada, beargina bada, ta esku garbikoa, mingaña ta obrak gaiztoak baditu ere, txit kontentu daude beren serbizioarekin. Zer dio berriz San Pablok? Bere etxekoen ardura, edo konturik ez duenak, fedea ukatu du, ta da fedegabe edo Jentila baño gaiztoagoa. Ordu osoak ez dira asko adieratzeko Ofizio ta estadu bakoitzeko obligazioak, ta egiten diran utseginak. Jakin bear ditu bakoitzak bere ofizioari dagozkionak, ta jakineza da geinez bere erru edo kulpaz. Estadu guziak dituzte beren karguak, Kura Jaunak Sazerdoteak, Konfesoreak, mediku-barberak, Letradu Eskribadu, Juezak, ta ala beste ofiziokoak. Beraz bakoitzak jakin bear du nola utsegin dezakean bere ofizioan, ta nola ondo egin: esaminatu ere bai nola eranzun dien obligazioai.

G. Zein dira gaizki esaminatzen diranak pilloan, ra zeaztasun gabe mandamentuak igaroak?

E. Diru mandamentuen itz utsai begiratzen dienak, ta ez sarturik dauden anbeste gauzari. Demagun asitzen dala esamina egiteko amar mandamentuak banaan igarotzen, ta dio bere artean lenbizikoa Jangoikua



amatzea gauza guzietz gañean. Nik Jauna maite izan det, ez diot gaitik nai izan. Eztet zer akusatu mandamentu onetan. Emen gelditzen da esaminatze guzia. Ederki. Eta ez dio konzienziari begiratu bear aztertze Jangoikoa amatu duen edo ez? Egin ote dituen Fedeko, Esperanzako ta amoriozko aktoak? Arkituko dira asko etzaitenak gogoratu ere egiten; egin badituzte aoz, ez dala izan bear bezelako bekatuaren damuaz, egon diralako bekatu mortalean denpora luzean. Bigarrena, ez juramenturik egitea alperrrik. Justiziaren aurrean gezurrezko juramenturik egin ezpadute, aurrera igarotzen dira asko esamina geiago egin gabe, egiten dituztela gezurraren gañeko juramentuak bestalako denporetan, esanaz gezurren bat siniserazitzeko, *Jangoikoak ala salba nazala, emendik pausorik eman ez deza dala*, ta onelako bere kontrako biraoak. Uste dute gezur txikien gañeko juramentuak, bekatu arinak dirala. Irugarrenean mezarik enzun gabe utzi ezpadute, gutxi esaminatzen dira nola enzun duten. Laugarrenean lenago esan genuan bezela Gurasoak asko dute zer esaminatu umeen aziera onaren gañean, umeak ere bai gurasuai zor dien lotsa edo honraren gañean, ta utseginak ezagutu bear lituzke Teolojarik jakin ezagatik. Bostgarrenean dakitelako iñor ill ez dutela, gelditzen ere ez dira. Baña zenbat daude ase-
 rre baten ondoren itzi zere egin gabe, gorrotoan, ta projimo alakoen gaitzetan poztutzen dirala bene benetan? Moskortzen diranak, zenbat eder-
 garri estaltzeko beren bekatua? Seigarrenean, *ez aragjazko bekaturik egitea*. Jangoiko maitea, nolako esamina mandamentu onetan? Zenbat kristau dira bekatu oso edo aragi-korputzekorik egin ezpadute, ezereztzat ez dauzkenak apa laztanak, eskuka loiak, itz kaltegarriak, ta biotz bakarreko atseginak? Nolako esamina egingo dute alakoak? Eta zer balioko die beren itxutasun borondatezkoak? Zenbat aldiz edo bider aitu dute Pulpituetatik, Konfesorearen aotik, dirala bekatuak pensamentu nai izan edo konsentituak, ta esan diran beste gauzaak? *Zazpigarrena, ez ostutzea*. Eskuz ezer artutzen ezpadute, eztago beste esaminagintzarik askorentzat. Nork esan berriz zenbat aldetara bekatu egiten dan mandamentu santu onen kontra? Zenbat logreria, irabazte bidegabeko salduerosietan, zenbat kaltemodu inoren ondasunetan! *Zortzigarrena, ez gezurrezko testimoniorik egotea, ta ez gezurrik esatea*. Iñori asmatu ezpazai gezur kaltegarriak, eztago askorentzat beste eseminarik. Baña zenbat murmurazio astun ta ezkukuko? Onela, ala Jangoikoaren Legeko amar mandamentuen, nola Elizako bosten gañean egiten da esamina, edo konzienziako aztertze txit azalekoa ta laburra, uzten dira ezagutu ta konfesatu gabe bekatu asko, ta egiten dira konfesio gaiztoak. Nondik dator kalte au? Ez ote dituzte animazai edo Kura Jaunak zeaztzen mandamentuak beren Sermoi edo doktri-

netan? Ote dira nagiak erakasten ta beren obligazio ain estuari eranzuten? Ala balitza, zer kontu emango lioke bere eskuetatik, entregatu diozkan animak, eskatuko dituen Jesu-Kristori? Baña zer esesio edo eskusa emango dute doktrina Santuetatik igesi dabilzan animak; edo ardi aldendurik dabilzanak enzun nai ez dutela Arzaiaren deia? Beren ezjakina letorke ikasi naiezagatik, ta au litzake bekatu, beste bekatuak estaldu ezingo duena. Ezagutzen ez dalako bekatua, ez da bere damurik artutzen. Ala dio Jangoikoak Jeremias Profetaren aoz. *Ez dago nork egin dezan bere bekatuaren penitentzia, diotela, zer egin det?* Esamina bi egin bear dira konfesio ona egiteko: bata ezagutzeko bekatuen zenbatusun edo numeroa, nolako gauzatan, bekatu egin dan, ta bekatuaren zirkunstantzia edo zer zelidade batzuek. Au egin bear da aozko Konfesio osoa aleginez egiteko. Bigarren esamina egin bear da ezagutzeko bekatuaren malizia, edo gaitzotasuna, nor dan ofenditua, edo noren kontra bekatu egiten dan, nor dan bekatu egiten duena, zergatik; zein diran bekatuaren ondorengo, edo kalteak. Esamina au egin bear da biotzeko Kontrizio edo damua iristeko, zeina gabe aozko Konfesioa alperra dan, gero agertuko degun bezela damuaren gañeko doktrinan.

G. Nola bada egin bear da aozko Konfesio osoa agiteko Esamina?

E. Jakin bear da bada eztuela esamina onek izan bear ez munduko gauzeen aztertze edo esamina bezalakoa, baizikan fade bizi batetik jaiola. Merkatarik batek ateratzen ditu bere artu eman, galdu irabazien kontuak beti biotza dadukala iratsirik ezagutzean, nola irtengo duen bere kontuetan. Ordea Kristau, konfesatzeko esamina egin edo bekatuen kontuak ateratzen dituanak, egin bear du lotsa santu batekin, ta barkazioa eskatzeko Jangoiko ofendituari biotzeko damu andi batekin. Jarri bear du Jangoikoaren aurrean, ta leku bakar baten; eskatu bear dio animako begien argitasuna, eskatu zion bezela Ebanjelioko itxua Jesu-Kristori korputzekoen ikusbidea. Gizon gaiso ark, sentitu zuenean igarotzen zala Jesu-Kristo bere urretik, asi zitzaion deadarrez, *Jesu Dabiden Semea, errukitu zaitz niaz*. Jendeak esaten zion, zaude ixillik orrenbeste jardun gabe. Baña orduan deadarra geiago jasotzen zuen. Biurtu zan Salbagillea beragan, ta galdetu zion zer nai zuen? Jauna ekustea, edo begietako argia. *Domine ut videam*. Jesuses ekusirik bere eskatze fede osokoa esan zion, ala izan didilla eskatzen dezun bezela; ta argitu zitzaiozen bere begiak. Gu gerez itxua gera anima ta salbazioari dagozkion gauza guzietan. Bear degu Zeruko argia ekusteko gure biotz barrenean igarotzen dana, ona iduki ez dezagun gaitzatz, ta gaitza ontzat; ta ala ere geiago, ezagutzeko bekatuaren gaitzotasun edo malizia. Dijoa bidiazti bat lekuez ezagunetan, ta



artzen du gabak baso andi baten. Nolako estua berea? Nolako ikara ta beldurra? Alako baten arkitzen du bakartadean etxe erdi erori ta zar bat. Sartutzen da ta bideko nekea arintzeko etxuten da bazter baten lo egiteko. Argitzen da eguna, ta orra non ekusten dituen bere aldamenen suge, Dragoi ta beste Piztia asko. Izaturik, jaikitzen da bereala, ta ikara ta guzi iges egiten du. Non lo egin det? dio; Nola irentsi ez naute Piztia odol zale aiek? Nork eraman nau ni alako lekura? Zorionekoa Eguzki atera nauena peligro ain anditik. Zerk iges erazitzen dio len ordu osoetan lo pitzan egon zan leku artatik? Ekusi zuelako argiaren bidez bere gubide edo peligro andia. Ala bada bekatarriak ekusten dituenan Zeruko argiaren bidez bere anima barrenean dauden bekatu Dragoiak baño kaltegarriagoak, nola lo bezela egon dan bekatu askoren erdian, artzen du ikara santu batek, iges egiten du Konfessorearen oñetara, ta an arkitzen du libra bidea. Nola bada esaminatzeko unean eskatu bear ez dio Jangoikoari bere argia, eskatzek aspertu gabe, ezagutzeko, zenbat bekatu ta nolakoak egin dituen, damu andi batekin konfesio osa bat egiteko? Argi au eskatuta, asi bear du kontuak ateratzen, noiz egin zuen azkeneko konfesioa, utsirik ote daukan bekaturen bat lotsaz, norekin lagundu dan, non igaro dituen denporak, utsik egaiten ote duen bere ofizioko karguetan; igaro bear ditu mandamentuak kontuz. Zer egiten du ereztun eder bat galdu zaionak? Asitzen da kontuak bere buruari artutzen, ta aztertzen non izan dan, noiz galdu zuen, nondik nora ebilli dan, ta gero dijoa bide ta leku aiek ekusten begi azarriekin damuz beterik bezala bere ereztunaren galtzapenaz. Arkitzen badu, nolako poza? arkitzen ezipada, dijoa berriz ere obeto aztertzen bideak ta leku ebilliak. Zerk arerazitzen dio anbat neke ta arazo? Ereztunaren amorioak. Munduko pitxi ta ereztun guziak zer balio dute Jangoikoaren graziaren aldean? Nola bada damutu bur ezta bera galtzean? Nola damu onekin aztertuez, non edo nolako lekuan galdu duen? Sartu bear du gero bere inklinazio, edo pasio txatarrak esaminatzera. Aserre erraza ta sutua bada, ekusi, nola ezi duen bere jenio gaisto au; edo larga ote dion inoiz, ta zenbat aldiz egiten nai duena: emendik birao gaiztoren batzuek inori egotzi ote diozkan; golperen bat inori eman ote dion, edo gorroto andiren bat artu. Ala ere egin dezake beste pasio txarretan.

Esaminatu bear dira pensamentuak, itzak, ta egiteak, batez ere sei-garren mandamentuan, izan bada zerbait lasaia alde onetatik. Kristau kontu andiarekin bizi diranak, ta geiago beldurtzegi edo eskrupulosoak ez dute esamina luzerik zer egin. Onelakoak idukiko balute beren naiz ta ezaguera osoaz pensamantu loa, pakerik izango ez luke ez egunez ez gabaz. Esango balute itz desonesta edo garbitasunaren kontrakoa, ta oro-

bat egin txatareriaren bat, ez luke esaminaren bearririk; kenduko ezingo luke gogotik bekaku itsusia. Berriz kristau Jangoikoaren beldur gutxikoak irentsiagatik bekatu loa, ala pensamentuz nola itzez egiñak, egiten dute lo arduragabe; geitzen dituzte bekatuak, ta esamina kontu andiko gabe ez dute gauza garbirik aterako. Esaminako denporan dudan edo eztabaidan gelditzen bada lekuri eman ote dion pensamentu gaisto loiar, konfesatu bear du konzienan dauden bezala.

G. Zein da biderik errazena esamina oso batekin Konfesioa egiteko?

E. Da egunoro bein edo bi bider eguneko esamina egitea, ta esamina eginda konfesatzea Jangoikoari damu andi batekin bekatu arkitzen badu. Zer diot nik? Au da San Ignazio Loiolako animako Maisu andiari sinistu nai badiogu, birtute goratu batera eldutzeko bitartekorik egokiena. Badira etxeko Jaun asko egunoro etxean zer gastatzen dan kontu ze zara daramenak: onenbeste diru atera nituen aragia erosteko, anbeste ardoarentzat. Astean dakite gero zer gastatu dan. Azteetatik ateratzen dute ill guziko gastua, ta illetik urtekoa; ta urtearen azkenean, noraño igo duen urte guzikoak. Daukate beste kontu bat errenta, ta irabazienak, ta kontuai jo erazita ezagutzen dute, kastua edo artua geiago izan dan. Berriz batere konturik ez duenak, baizikan eman ta eman, artu ta artu, dauzka kontu loi ta garbitzen gaitzak, ta onegatik galtzen ere dira etxe asko. Ala bada, nola idukiko ez ditu konfesorako garbituak bere animako kontuak bere konzienia egunoro aztertzen edo esaminatzen duenak? Nola betiko kontu artze onek, ta Jangoikuari egunoro egiten zaion konfesio bakarrekoko ekarri ez bizitza guziz on bat? Demagun kristau batek dauzkala oitura txatar batzuek, gezur txikiak esatea, aserratzea erraz, karidadeko paltak, ta anbeste pasioen frutuak: Artzen du onek asmoa goizean Jangoikoari egun guziko lan edo obrak eskinitzeko, ta ez egiteko ezaguera paltarik, ta erorten bada inpazienza edo gezur txikiren baten mingañarekin igortitzeko lurra, ta eskatzeko barkazioa Jangoikoari. Dator gaba: artzen dio kontu animari, nola igaro duen eguna, norekin lagundu dan, nolako itzketan egon ziran; nolako tentazioak izan dituen, ta nola portatu dan. Erraz gogoratuko zaio zer egin duen, batez ere paltaren bat eginda bere buruari eman bazion mingai gogoragarriren bat. Arkitzen baditu kolera, bizkortasun geiegi, edo gezurak, konfesatzen diozka humildade andiarekin Jangoikoari, artzen du gogoa urrengo eguna obeto eramateko, ezaguturik nola Jangoikoa maite duen kristauak (ta nola maite izan bear ez duen) ez dion ofensarik egin bear bekatu benialen izena dutenekin; nola kastigatzen dituen Jaunak Purgatorioko pena andiekin. Nola izan ditake egunoro onelako kontuak animari artzen diozkan kristaua ez izatea guziz



ona denpora gutxian? Esamina oni laguntzen badio goizeko, ta arrats aldeko orazio mental, edo biotzekoak, o ta nolako irabaziak ta aurrerape-nak Jangoikoaren bidean! Zer? Lurreko ondasun labor batzuek gatik ken-duko lirakean oitura txatarrak, kendu ez Jaunaren graziaz ala billatzen duen kristauak egunoroko esamina, ta orazioarekin? Esango baziño gezurti bati; gezurrik esaten ez dezun egunean emango zaitu ogei erriale-ko bat, Jaugoiku ona! Nolako kuidado edo ardurarekin itzegin ez! Nola esaminatu bere barrena itza atera bear duenean! Eta eroriko baditza gezu-rrean, nolako naigabe ta damua itz txatar bat esan gabe ez egoteagatik galdu duelako ogei errealekoa? Urrengo egunean kontu geiago idukiko luke, ta bear bada illabete osoan ez luke esango, beintzat ezaguera osoz, gezur bat ere. Beste batek du biraoak egiteko oitura zaarra. Konfesoreak esanagatik garai dezala ekandu edo usario txar ura; eranzungo dio naita ez bezela irtetzen diola, ta konfesio asko eginda ere beti oñean deabruai dei-tzeko oitura txatarra. Esango baziño biraorik egiten ez duen egun bakoi-tzean emango diozkatzula amar errial, nolako poza? Nolako arreta kon-tua ez esateko biraorik? Nolako damua berriz beingo baten ta ustekabean, edo lengo oitura txarraren indarrez irtengo balio? Nolako kontua urren-go egunerako! Onela lurreko sari eskintzak gatik kenduko lirake kolera, edo aserratzea, ta ezi grina ta obenik bizkorrenak. Non ote da Kristauen fedea? Jangoikoak pasio gaiztoak ezitzen dituen animari, eskintzen dioz-ka Zeruko sari andiak, emen konzienziako pake, ta poz andia; ta lurreko ondasun zirzil ta galgorrak gatik garaitzen diran pasio txatarrak, ez dira ezitzen Zeruko ta animako ondasun andiak gatik, ez da Jangoikoak, Juez zuzenak bezela, prestatuta dauzkan kastiguak gatik ere. Zergatik ez? Zerren egiten ez dan bear dan dilijenziarik, arretarik ere artuez. Zein da bada bide bakarra ezitzeko pasio andi ta txiki guziak? Egunoroko kon-tuartze, edo esamina, onen ondorengo konfesio gauoro Jangoikoari baka-rrean egitzen zaiona, artutzen dan damua paltaren bat arkitzen danean, ta ematen zaizkon eskerrak Jaunari gorde geranean bere graziaz bekatu egi-tetik. Esamina artan ezagutuko dira len ezagutzen etziran palta asko; anima edertu ta zurutuz agertuko dira motarik ta orbanik txikienak, egu-netik egunera geituko da bekatuaren gorrotoa, Jangoikoaren amorioa, ta birtutetik birtutera ebilliko gera. Zertako? Ekusteko gero Jangoikoa ani-mako begi garbituekin. Esamina egunoroko au egingo balute Kristauak, irtengo luke epeltasuneko bide kaltegarritik, ez lirake egingo bekatu benialak ere ain erraz, ta ain begi argiekin; gure biotzak erantsiko lirake Jangoikoagana ta ala egin aurrerapen andiak Jangoikoaren bidean. Zerk ekarri zuan Dabid Erregea Santu ain andia izatera munduko zeregin asko-

ren artean? Gau ta eguneko nere ogia dira negarrak, esaten zuen, galde-tzen didatenean, non da zure Jangoikoa? Kargatik anbeste negar? *Scapam Spiritu meum*. Aztertzen zuen bere konzienzia, oroitzen zan bekatu egin zuenez, Jangoikoagandik artu zituan mesedeakin. Egin dezagun guk ere ala, ta elduko gera birtute goratu batera. Ala izan didilia.



ERAKASTE IV.

Nola ondo konfesatzeko bear dan biotzeko damua

G. Zeren gañean itz egin bear degu doktrina onetan?

E. Kristauak gutxien dakiten, ta geien jakin bear bear duten gauza-
ren gañean, zefa dan bekatuen damu konfesorako bear dada.

G. Orren bearra da damu ori? Ez ote da asko bekatuen esamina kon-
tuzko bat egin ta guziak ezer utzi gabe humiltasun andi batekin Konfeso-
rari agertzea?

E. Ez dago konfesio humillik biotzean maite bada bekatua. Bekatua
anima duen kristaua da Jangoikoaren kontra jaiki dan traidore andia, ta
traizio onetan irauten du damu ezpadu biotz guziarekin bekatu egin.
Nola bada izango da humilla? Eskuetan mun egin, ta esku mun egiñak
erretzea nai. Alakoa da kristau askoren humiltasuna konfesioan. Daude
belauniko, golpetzen dituzte bularrak, eskatzen dute barkazioa, aoan diru-
dite humilde batzuek, ta biotzez gezurti andiak. Itza Jakob justuarena,
ordea eskuak, edo egitadak Esau gaiztoarenak.

G. Zergatik esan du damu au dala gutxien dakitena, ta geien jakin
bear dutena kristauak?

Ez da sarri predikatzen gauza au, edo damuaren premia? Nola bada
egon diteke jakineza?

E. Enzuten dute Pulpituetatik; aurtxotatik ere erakasten zaie esami-
naren ondoren bear dala bekatuen gorroto edo damua. Baña etzaie eras-
ten biotzean. Begitantzen zaie bekatuak osoro konfesatu ezker, ta nere
Jesu-Kristo Jauna kolpe batzuek bularrari emanda eginda dagoala guzia.
Au da Eliza Ama Santak duen gerrarik kaltegarriena; penitenzia falso edo
gezurti bat. Aoarekin damutzea, biotzarekin bekatua laztantzea. Itxura-
pen utseko penitenziak dakar berekin animako lo ta itxutasun osagaitza.
Ekusten ez duen begia, da damutzen ez dan biotza. Igarten ez dan gaitza
nola osatu? Gaizki konfesatzen danak argiro, bekatuen batzuek lotsaz ixil-
du edo estalduta, igarten dio non duan min, non dagoan gaitza, ez du
pakerik, biotza samintzen zaio txitsarri, arantzaz beterik darabil, sermoie-
tan enzuten badu Jangoikoak egin duen kastiguan diren bat bekatuak
gorde zituztenekin, tarritzen dira, izerdi otzak irtetzeraño, ta ekusten dira
beldurrez beterik dijoazala agertzera bekatu ezkutatuak Konfesio oso edo

jeneral batean. Ordea bekatuak agertu dituztenak, ta damu irudi batekin
konfesatu diranak, daude lotan deadarrekin ere iratzartzen ez dirala beren
lo zorro gogorretik. Ez dute kezkarik ez larririk; begitantzen zaie ondo
konfesaturik daudela, dijuaz komulgatzera beldur gabe, ta konfesio ta
komunio bekatuzkoekin bizi dira kondenazioko arrisku andian.

G. Nola gaizki konfesatu ta komulgatu igarri gabe?

E. Erantzuten du Santo Tomas Maisu andiak, ez igarte edo ez ezagu-
tzea danean bakoitzaren erruz, edo kulpaz; zeren jakineza ta ez ezagutzea
dan bekatua, ta bekatu bat izango ezin dalako beste baten eskusa egiaz-
koa. Gauzaren bat danean ikasi bearra ta ikaserraza, ez ikastea ta ez jaki-
tea, bekatua da. Damua da gauza bear bearra konfesio ona egiteko, inork
ukatuko ez duen bezela, ta bestetik jakinerraza sarri erakasten dalako.
Bada ez dakitenak, edo Sermoietatik iges egiten dutelako, edo enzunda
sinesten ez dutelako, edo sinistuta puestatzen ez diralako, beren naiz egi-
ten dituzte konfesio ta komunio gaiztoak, ta dijoaz otsgabe ta animako
begi estaliekini beti iraungo duen Suleza edo Infernura. Egia au ezagutze-
ko ez dago galdetu baño edozein kristauri konfesioa eginda ezer ixildu
ezpadu; damu dezu Jangoikua ofenditua? ezagutzen dezu zeure gaizki
egina Jaun gaitzik egin ez dizunaren alderako? Esazue egia, damu dezu?
Bai Jauna, damu det; eztet damu izango? Nola ere damu dedan; emango
ditu golpeak bularrean, makurtuko du burua, ta esango du ezpañez nere
Jesu-Kristo Jauna edo akto kontriziokoa eztuela. Onela konfesatzen dira
bekatuen inguruan beti dabilzanak. Onela okasio galduetan sarturik dau-
denak. Onela urte osoetan obetu ez diranak sarri konfesatuz ere. Onela
ordi, luxurioso, lapur, ta bizio gaiztoen oitura jarraituak dauzkeenak.
Artutzen badute absolbizio arin emana bekatuarekin ezagueraz utzi gabe,
dijoaz pake iridiko baten komulgatzera ta erakustera Jeku-Kristori bere
ostatu gaizto artan, nola biotza dagoan bekatuarekin oratuta. Odolezko
malkoakin negar egin bear genukean itxutasuna! Bekatuaren izena ez dute
nai, bai ordea bekatuaren izana. Beraz ez da egongo doktrina bearragorik
nola damu onen gañekoa, erakatsiaz, zer dan, zenbat modukoa, nork
daraman konfesiara, ta nork ez. Erakurten da Santa Teresaren gertaere-
tan eskribitu, edo adirazo ziola Santa onek Predikadore bati predika zeza-
la txit sarri konfesio gaiztoen gañean, zerren ez du, zion, deabruak ani-
mak arrapatzeko katigugarri edo lakirio seguruagorik, nola kontesio gaiz-
toak. O gauza arritzekoa! Konfesioa berez izanik animak libratzeko dea-
bruen kateetatik, askorentzat da, bakoitzaren kulpaz, beren animen gal-
bidea. Ekus dezagun bada zeero ta astiro doktrinagai au.

G. Zer da bada Kontrizio edo damu konfesiara eraman bear dana?



E. Kontrizio edo damua da, dio Trentoko Konzilio Santuak, zeñen itza da Elizaren ta Fedeko itza, *bekatu egin danaren naigabe, eta gorroto biotzeko bat aurrerakoan geiago ez egiteko gogo edo propositoaz*. Penitenziako Sakramentuak dauzka iru Parte, Kontrizioa, Konfesioa, ta Satisfazioa. Kontrizioan sarturik dago bekatuik geiago ez egiteko proposito edo gogo sendoa; Konfesioan, aurrez egin bear dan examina. Kontrizio edo damuak, dio berriz Konzilio Santu onek, *prestatzen du bekatuen barkazioa iristeko, laguntzen badio Jangoikoaren miseriakordiarene itxaropen edo konfianza, ta borondateak egiteko Sakramentu au artzeko bear diran beste gauzaak*. Emendik aterako dute kristauak, dio Erromako Doktrina-libruak, damu edo Kontrizio au ez dagoala bakarrik gerora bekatuik ez egitean, ez bekatuik geiago ez egiteko asmoan, ez da bizitza on bat asitzen ere; bear dala guzien aurrez bezela, artu leengo bizitza gaiztoaren igui edo gorroto sendo bat lema edo satisfakzioa emateko gogoarekin. Egia da ezin egongo dala egiazko proposito edo bekatuik ez egiteko gogo Jangoikoagandik jaiorik, bekatu lengoen damu, edolare ezutuko gabe; ta asitzea ta eramatea aurrekoan bizitza on bat, dala señalearik onena ezagutzeko kontrizio edo damua. Baña eskatzen da ez bakarrik propositoan sarturik dagoan damua, baita ere Jangoikoagandik datorren mobimentu bat, zeñek gorrota erazitzen digun leengo bekatua. *Konfesatuko dizkitzudaz nere urte guziak nere animako naigabe, edo mingaitzasunarekin*. Ala dio Isaias Profetak. *Enzun zuen Jaunak nere negarren itza*, ala zion Dabid Erregeak.

G. Beraz negar egin bear da egiazko Kontrizioa idukitzeko.

E. Ez ori, dio Doktrinako libru aitatu degun, ta besterik ez bezelakoa. Kontrizioa da borondateko akto edo egikari bat; damua da dio San Agustinek Penitenziaren laguna, ez Penitenzia bera. Ordea Elizako Irakasla bekatuaren gorrotoari ematen die damu edo dolorearen izena; baita ere Eskritura Santuak. Damu au dator Kontriziotik; damu au agertzeko aldatu oi zituzten anzinako penitenteak beren janzi, edo soñokoak, ta egin oi zuten penitenzia zilizio ta autsez estalirik. Nola bada soñoko penitenziakoekin egon ditekean biotz bekatuan sartua, ta penitenziako janzi gabe bekatuaren damu txit andia, ala ere malko ta zizpuru gabe egon diteke bekatuaren damu edo gorroto bizi bat, ta negarrekin ere bai damu biotzekorik eza. Beraz negar egitea konfesio aurrean, edo konfesioan bertan ez da damuaren ezaugarri edo señaleari argia, ez da damurik ez dagoanarena ere malkorik ez ematea. Ekusiko degu egia au geroago.

G. Zergatik bekatuen damuari ematen zaio Kontrizioaren izena?

E. Adirazotzeko Penitenziarekin ausitzen, urratzen, ta biguntzen dirala gure biotzak, nola arri batekin ausitzen, edo mallatzen dan gauza

gogorren bat. Bekatuak dauzka gogortuak biotzak, ta penitenziak ausitzen edo biguntzen ditu. Argatik lurreko gauzaren batzuen galtzapenak ematen duen naigabeari, ematen zaio damuaren izena, ez ordea Kontrizioarena. Itz oek dira Erromako Doktrina-libruarenak, nondik izentazu gabe ere artuko ditut gauza txit asko. Iturri garbian ura edan dezagun.

G. Zergatik esaten da biotzeko Kontrizioa? Biotza da Korputzaren zati bat, ta kontrizioak izan bear du animakoak. Kontrizioa nola egon biotzean?

E. Ederki galdetzen dezu; ona zer eranzuten duen, aitatu dedan Doktrina-libruak. Biotzaren izenez aditzen da animako borondatea, ta nola korputzeko mobimentu guziak sortutzen diran biotzetik, ala borondatea ere da zuzentzen dituen animako akzio eta afekto guziak. Biotza ustela badago, ez da korputza usteldu gabe egongo; biotzeko eriotza esan dezakegu dala korputz guziaren eriotza. Iturburu agortzen bada, ez da txorrotik urik eroriko. Orobat, borondatea ona dagoanean ta kalte gabe, animan kalterik egongo ez da; berriz borondatea dañatua edo kaltetua badago, anima ere kaltetua egongo da. *Zure begia garbia badago*, dio Jesu-Kristok, *korputza ere garbi edo argia egongo da; ta zure begia gaundua, ta gaiztoa badago, korputz guzia illunean egongo da. Buir zaitezte nigana biotz guzitik bararrekin, negarrekin, zizpuruekin, ta zatitu itzatez zuen biotzak*; ala dio Jangoikoak Joel Profetaren aoz.

G. Kontrizio gabe barkatu diteke bekatuik?

E. Ez iñola ere. Esamina, aozko konfesio, ta penitenzia obraxko gabe salba liteke, ez ordea bekatuaren damu egiazko gabe.

G. Nai nuke jakin nola dan ori?

E. Artzen du norbait gaitz erioztzor batek Sazerdoterik bertan ez duela, ta esamariak egiteko astirik ere ez. Nai luke konfesatu, ta ez duela norekin, artzen du bekatuen damu egiazkoa, ta galtzen zaio itza. Dakarte arinka Konfesorea ta arkitzen du konfesatu ezin ditekean estaduan. Ordea, nola eskatu zen Konfesioa ta eman damuaren señaleari absolbitzen du konfesatu balitza bezela. Gaixo ark etzuen esamina ta aozko konfesioa egiteko eperik izan; baña egiazko kontrizio edo damua bazuen, barkatuko zitzaion bekatua konfesatu balitza bezela. Berriz esamina kontu andiko ta konfesio zuzen ta oso batekin iltzen bada ta absoluzioa artuta ere, ezpadu kontrizio edo egiazko damurik, ez dio ezer balio, ta kondenatuko da. Munduan igarotzen dira asko alditan Eskritura ta diru palsoak; baña ez Jangoikoaren aurrean kontrizio egiazkoa ez danik. Ez da ezer egiten, dio San Gregoriok, Osagilla edo Mediko bati gaitz guzia ager-



tzea; bear ere da osasuna benetan naiz izatea, ta gaitzari gorroto bezela artzea.

G. Zenbat modukoa da bada Kontrizio edo damu au?

E. Bi modukoa; bata da Kontrizio perfekto, edo oso osoa, ta bestea Kontrizio ez osoa. Kontrizio osoari deitzen zaio Kontrizioa, ta osoa ez danari deitzen zaio Atrizioa. Argiroago jakituria gabeko ta euskaldunentzat, Kontrizio edo damu osoa da Amorior-damua, ta Atrizioa Beldur-damua.

G. Zergatik Kontrizio, edo amorio damua da oso edo perfektoa, ta ez Atrizioa edo beldur damua?

E. Zerren kontrizio edo amore-damua bera bakarrik asko dan bekatua barkatzeko ta animai grazia iristeko. Ez ordea Atrizioa, edo beldur damua. Damu onek prestatzen du bekataria Konfesio Sakramentuaren bidez grazian jarteko. Doktrina au da Trentoko Konzilio Santuarena. Eiztari batek jarraitzen dio Basaurde bati ta jaurtiki edo tiratzen dio; jotzen du garunetan balarekin, ta bertan gelditzen da illik abere zatarrak. Irretzen dio geroago beste Basaurde batek, tiratzen dio oni ere; ordea etzuan jo leena bezela beingoan eriotza emateko tokian; ausitzen dio aurreko besoa; ezin abere erituak arinik egin du igesa artzeko: jarritzen die zakurrak ta Eiztariak, ta atrapaturik iltzen dute bertan kolpea, ta usikiekin. Ona amen Kontrizio ta Atrizioaren berdintza edo konpario ederra. Eiztariaren lenbiziko tiroa zan oso osoa, zerren il zuen bertan; ala Kontrizioa ere da damu osoa, zerren Konfesioaren laguntasun gabe edo konfesatu baño leenago, iltzen du bekatua berriz beldur damu edo Atrizioa ez da kolpe osoa iltzeko bekatua: mankatzen du, ta konfesioak lagundurik gelditzen da illik bekatua.

G. Zer da bada Kontrizio edo damu osoa?

E. Da gorrotatzea bekatua gauza gaitz guziak baño gutiago Jangoiko txit on ta maitagarriaren ofensa dalako. Damu au dator Jaunari artzen diogun maitetasun, amorio, edo karidade garbitik gere onari begiratu gabe, alako moduz, ezen Zerurik ezpalego ere saristatzeko gure bizitza ona, Infernuri ere ez kastigatzeko gure bekatu mortalak, naiko genukean ondo bizi ta bekatuak egin ez, merezi duelako Jaunak guk bera amatzea bere ontasun neurrigabeagoati. Jangoikoa Zeruak ta Infernua baño leenago zan berez orain bezein ona; ez dio perfekzioari geitu kreaturak egiteak. Egun baten artu zuen Santa Maria Magdalena Pazisko Jangoikoaren amorio-kolpe ain andiak, non da irten zuen bere gelatik illit bat esku batean, ta urez beterikako morko bat bestean zuela. Zer darabilzu? nora zoaz, Magdalena, esan zien beste Monjak? Noa nere gogoz, eranzun zien,

illiti onekin erretzera Zerua, ta ur onekin iltzera Infernuko sua maitatzeko Jaun ain ona Infernuko beldurgabe, ta Zeruaren interes gabe.

G. Beraz kendu bear degu Infernuaren beldurra, ta Zeruraro gogo ta esperanza Jangoikoa garbi garbi maitatzeko?

E. Ez orrelakorik. Ori litzake doktrina txit txarra. Jangoikoaren beldurra ta Zeruaren Esperanza dira Espiritu Santuak ematen dizkigun doe ta mesede andiak; ta ez dute eragozten Jangoikoaren amorerik andiena. Gutxi izan dira San Agustinek baño amorio andiagoko Jangoikoari izan dionik. Orregatik ere esaten zuen *Ignem aeternum timeo*. San Franzisko Borjakok amorio andi ta garbi garbia zion Jangoikoari; orregatik ere ordu osoak igarotzen zituen egunoro Infernuaren gañeko konsiderazioan. Ala San Ignazio Loiolakok, ala San Luis Beltrangkok, ala beste Santu ta Santak amorio ta Jaunaren beldurraren ego biakin igo zuten perfekzio mendi goratura. Zertako dira besteen ejemploak gure Salbagille ta Maisu Jesu-Kristorenak iduki ezkerok? Bere Legea amore legea da; predikatzen zituen amore lege bi oek, zeintzuetan sartutzen diran beste mandamentu guziak; amatuko dezu zere Jaun ta Jangoikoa biotz, anima, ta indar guziakin, ta zere projimoa zere burua bezela. Orregatik ere, esaten zuen, ez beldurtu munduko bizitza galdu dezakenak gatik. Beldur izan zaitezte bai anima ta gorputza Infernura bota dezakeanaren. Beraz beldur au da txit ona, ta Jaunaren aginduak gordetzeko bidea.

G. Eta Zeruko Gloriaren esperanzatik bekatuak ez egitea ote da gauza ona?

E. Nola ere dan, ta Infernuko beldurratik Jangoikoa ez ofenditzea baño ere ohea.

G. Zergatik ala?

E. Zerren Jangoikoaren amoriora biotza eramateko dan gai obeagoa. Gizonak guzienez ezin ezagutu lezakete zein ona ta maitagarria dan Jangoikoa, baizik bere begirada edo obra miserikordiaz beteetik. Ekusten diran gauzeetik aditzen ere dira ekusten ez diranak. Erraz dijoa biotza amatzera Ongillea. Zenbat Santu ta Santak konsideratzen zituzten sarri Jangoikoaren mesede ta ontarteak, ta emendik iriziki beren biotzak amorio txit garbi ta andira? Ekusten dituenak fedeko bekiakin Jesu-Kristok gizonen amarez egin dituen gauza andiak nola bere eriotzarekin urratu dizkigun bekatuko kateak, nola Infernutik libratzeko bideak idiki dituen, baita ere Zerurako ateak, nola piztuko ezta amatzera Salbagille ain maitagarria? Santu ta Santak gogoratuaz Zeruan Jangoikoak bere maiteentzat prestatuak dauzkan atsegin neurri gabeak, azkortzen edo animatzen ziran igarotzera persekuzio ta martirioak poz andi batekin. Beraz Jangoikoak



agertzen dizkigun bere Ontasunaren señaleark dira bide ta gai egokiak amorio eder ta garbi batera eldutzeko. Au ez da amatzea bakarrik Jangoikoa guretzat ona dalako, baita ere amatzea bere ontasunagatik. Infernuko pena ta Jangoikoaren kastiguen beldurrak ere presta lezake biotza Kontrizio oso edo amoriozko damura. Jonas Profetak esan zien Ninibetarrai, *berrogei egunen buruan ondatuko da Ninibe*. Beldurtu ziran; beldur onekin egin zuten penitentzia egiazkoa edo paketu zituana Jangoikoarekin. Etzegoan orduan Konfesiorik, ta bekatuaren barkazioa iristeko bear zan Kontrizio oso edo amoriotik sortua. Ezagutu zuen Jangoikoa zala Jueza, ta Aita; ta bere aserrea palagatzeko joan ziran Aitaren erruki ta Ontasunaren billa. Beldur santu batek eraman zituban Aitagana, prestatu amatzera ta penitentzia egiazkoa egitera. Orregatik dio Espiritu Santuak amorioaren asiera dala Jaunaren beldurra. *Timor Domini initum dillectionis*. Ala bada Zerua izaiteko esperantzatik sortutzen da Jangoiko emallearen amorioa, ta amorio onek prestatzen du ederki biotza amatzera Jangoikoa bere Ontasunagatik; zeñi deitzen dien Jakitunak onginaiko amorioa. *Amor benevolentiae*.

G. Beraz Jangoikoaren amorio garbia eztu eragozten Esperanzako birtute, ta emendik sortutzen dan amorio Santuak?

E. Ala da; ta Esperanzako birtutea bear bearra da birtute guzietarako. Amateak Jangoikoa guretzat dauzan sari Zerukoak gatik, ez du eragozten amatzea Jauna sari gabe ere. Seme on batek artzen ditu amorezko ezagueraz. Aitak ematen diozkan sariak ondo serbitzen duelako; amaten du Aita, agertzen dion amorioagatik ematean sari edo erregaloak. Ordea pobretzen bada Aita ura, ezpadu zer eman, Seme onak jarraitzen dio serbitzeari len bezela sariaren ustegabe.

Au da amorio garbi sari utsagatik sortutzen ez dana.

G. Nola Zeruko deseotik igaroko gera erraz Jangoikoaren amorio garbi garbira?

E. Zerua deseatzten degunean ez bakarrik gure korpurz ta animak an iduki dezakeen gozamentu ta atsegin andiak gatik, baita ere an amatuko degulako Jauna amorio txit andi ta guziz garbiarekin; an ofendituko ezin degulako deseo biziarekin; an bedinkatu ta alabatuko degulako amorearekin. Au da nai izatea Jangoikoaren onra ta ona, ta amatzea bere ontasunagatik. Orobat damutzen duena Infernuak, ez bakarrik an gorputz ta animak emango dituzten tormentu ta naigabe ikaragarriak gatik, baita ere an amatuko ezin dalako Jangoiko maitagarria, ta bai gorrotatu, ta bere Justiziaren kontra birago andiak egotzi, ta emendik damutzen bagaitu bekatuak galerazitzen duelako betiko Jangoiko amatzea, da idukitzea bekatuaren damu amorio garbitik datorrena: Egia esateko, Infernuko penarik, edo

zorigaitziz andiena da Jangoikoa an inoiz amatu ezina, ta Jangoikoaren kontra madarikazioak egozte; eta Jangoikoa an amatu al baliteke, guziz laburtuko litzake ango pena. Ala bada alegiaz dendatu bear gera, ala Zeruko gloria, nola Infernuko tormentuen konsideraziotik egitera amorezko aktoak ta pekatuari gorroto artzera Kontrizio osoarekin.

G. Zer da beldur-damu edo Atrizioa?

E. Da artzea gorrotoa bekatuari edo Jangoikoak gaitzontzat prestatuak dauzkan kastiguak gatik, edo galerazitzen ditu alako onentzat dauzkan betiko atseginak gatik, edo bekatuaren itsusitasunagatik, Fedeko argiak laguntzen digunean. Damu au dator Jangoikoaren beldur santutik.

G. Eta Infernuaren beldur guzia da Atrizio ta damu santua?

E. Ez: Gauza bat da Infernuaren beldurra, ta beste bat bekatuaren damua Infernuaren beldurrez. Beldurtzen zaitu Infernuko suak, ta ez bekatuak, dio San Agustinek bekatari askoren beldur utsagatik. Iru beldur gisa edo modu ezagutzen dituzte Jakitunak; bata da Jangoikoaren Semeen beldurra, bigarrena bere serbitzariena, ta irugarrena Esklabuena. Semeen beldurra da beldurtzea bekatuak dalako Jangoiko Aitarik onen ofensa bekatuaren kastiguai begiratu gabe. Serbitzarien beldurra, da damu ematea bekatuak animako kalteak gatik; oek dira Zeruko gloria galtzea, ta Infernurako bidean ipintzea. Esklaboen beldurra da batek gordetzen duenean bere burua bekatu egitetik Infernuaren edo beste kastigen beldurrez, kastigurik ezpalego bekatu egiteko borondatearekin. Seme on batek egiten ditu Aitaren esanak Aitak kastigatzen ezpadaki ere pobre izan ta herenziarik itxaraten ezpadu ere. Au da amorio garbia. Serbitzari onak egiten ditu borondate onarekin etxeko Jaunaren esanak, ta bearrak, ala aserratu ez didin, nola ematen dion ogi ta alogeragatik, ta ez dabil bearrak egin nai ezta etxeko Jauna kanpoan danean edo ekusten ez duenean: begiraten dio etxeari amorio moduaraz, ta egiten du bearra borondate onarekin. Esklaboak geienez egiten dituzte Jaunaren esanak ezinbestez, damuz bezela; beti dute gogoan azote edo makilla, ez die begiraten Jaunaren aurrera penai borondate garbiaz, ta iges egin al badue kastigutik, uzten dute bearra. Oen serbitzea da borondate gaitzokoa. Mutil jokolari baten jarduten du karta jokoan bere lagunekin. Ekusten du datorrela bere billa Maisua. Ezkututzen ditu bereala karta ta joko diruak, ta asitzen dira itz egiten modu onean. Esango degu mutil ark gorroto diela karta ta joko txaarri? Ez. Beldurtzen dute Maisuaren agiraka ta kastiguak. Otso gosesto batek irtetzen du basotik ardiren bat arrapatzeko, ta artaldera urreratzean, enzuten ditu zakur zaukak, ta ekusten du aga bat eskuetan duela. Beldurrak gelditzen du; ez dio ardiari gaitzik egiten, ta biurtzen da



bere basora. Otso au aldatu da bildots izatera? Ez, dio San Agustinek. Bere gogoa ta ardia arrapatu naia leengoa da. *Lupus fremens, lupus tremens, sed semper lupus*. Etorri zan arrapatzera, orroaz, buirtu zan beldurrez, baña beti da otsoa. Onelakoak dira bekatari txit asko. Enzuten edo erakurtzen dituzte Infernuko tormentu inoiz bukatuko ez diranak. Beldurrak atzeratzen ditu zerbait beren bide gaiztoetatik. Ordea ez dute gorrotatzen bekatuaren gaiztotasuna, *malitiam autem non odivit*. Poztuko lirake ezpalego Jangoikoaren Justiziako zigorrik, ezpalego Infernuri, ezpaleude zauka bezela Jangoikoaren Ministroak beldur gabe bekatu egiteko. A anima zorigaiztoko Jangoikoari ematen ez dienak biotza, ez biotz onetik utzi bekatua? Lapur batek bidera irtenda eskatzen du bolsa: beldurrak eman erazitzen du dirua; ordea dio bakoitzak bere artean, iges egin al baneza, banu lagun sendo ta armaduna ukatzeko bolsa eskatu didana. Ematen diozuenan ematen diozu borondate onez? Ez; ta bai damuz ta ezinbestez. Ala dira kristau asko; ematen die Jangoikoari biotza, biotz ta borondate gabe; ezpalego eriotzarik, ezpalego Infernuri, iraungo lukee bekatuan. Eta artuko du Jangoikoak onelakoen biotz gaiztoa? Ez, ta bai geiago kastigatu bekatua, geitzen dutelako beren biotzeko prestaera txarrarekin.

G. Zer bear da bada Atrizio edo beldur santu edo bide onekoa idukitzeko?

E. Bekatuarentzat borondate guzia kentzea, dio Trentoko Konzilio Santuak, naiago galdu honra, bizitza ta gauza guziak Jangoikoa ofenditu baño, artu asmo sendo bat aldegitoko bekatuko okasio, lagun ta ebillune urreko guzietatik, ta biotza jiratzea benetan ta osoro Jangoikoagana; otso zana bildots egin. Artu bear da beldur santuaren bidez bada ere biotz ta espiritu berri bat, ta damu emanez Infernu utsak, eta bai bekatuak berak Jangoikoaren ofensa dalako. Beldur santu ta bide oneko au da amorio garbiaren asiera, ta irauten badegu Jangoikoa serbitzen, geituaz joango gera Jangoikoaren amorioan. Juez Jangoikoaren beldur onak eramango gaitu eskatzera barkazioa ontasunez betea dan Aita Jangoiko beragana: Ebanjelioko Seme ondatzalla ta Aitaren etxetik iges egin zuenak ekusi zuanean gosea, premia, ta gauza guzien palta, zer egin zuen? Joango naiz, zion, nere Aitagana. Uste zezakean goseak, premiak, ta interesak zeramala Aitagana. Ordea beldurrak, ta miseriak ezagutu erazi zion, nor galdu zuen; nor ofenditu zuen, ta norgana biurta bear zuen; eta au zala bere Aita maitagarri ta biotz biguñekoa. Ala bada Jangoikoaren beldur santuak ezagutu eraziko digu, nor ofenditu degun, zein ona ta maitagarria dan Jangoiko, kastigatu gintzakeala pekatu egin genuanean asko bezela, kastigatu ez gaituena,

bedeikatu ta alabatuko degu bere ontasun ta miserikordia andiak gatik, ta serbituko degu aurrerakoan Seme esker onekoak bere Aita bezela.

G.. Baña bear ote da Konfesio ona egiteko Kontrizio oso edo amorio garbitik jaioa?

E. Da txit ona, ez premiazkoa, edo bear bearra.

G. Zergatik ez da bear bearra?

E. Zerren Kontrizio oso ta amore damu garbitik irtenak, beti ipintzen duen anima Jangoikoaren grazian, ta Sakramentu penitenziakoan Konfesoaren absoluzioaren bidez jartzen dira asko bekatari Jangoikoaren grazian, ta an ez litzake gertatuko bear bearra balitza Kontrizio oso edo amorio garbiko damutik jaioa.

G. Beraz asko izango da ondo konfesatzeko Atrizioa, edo beldur santutik sortu dan bekatuaren damu egiazkoa?

E. Atrizio edo beldur damu onek ez du amorio garbiko damuak bezela konfesioko sakramentu gabe grazian ipintzeko birtuterik; baña bekatuaren borondatea iltzen badu, prestatzen du anima Konfesioko Sakramentuan grazia artutzeko. Au dio Trentoko Konzilio Santuak. Eta Teologorik geienak dioe asko dala Konfesoan grazia artutzeko Atrizio edo beldurdamu esan dan bezelakoa. Beste batzuek eskatzen dute Jangoikoaren amorioaren asiera bat. Zertan dagoan amorioko asiera au, ez da guzien iritzi berdina. Trentoko Konzilio Santuak bautismoan, arrazoi-ra eldu diranak grazia artutzeko, eskatzen du asi ditezela maitatzen Jangoikoa Justizia guziaren Iturburua bezela. *Incipiat diligere Deum tanquam omnis justitia fontem*. Ez dio, asi bear duela maitatzen Ontasun guziaren Iturria bezela, baizik Justizia guziaren iturria bezela. Ala ezin esan diteke eskatzen duela Jangoikoaren amorio garbi edo karidadea, zein dagoan maitatzean Jauna dana dalako, edo berez duen ontasunagatik. Esan degu len Espiritu Santuak dioala, Jangoikoaren beldur santua dala amorioaren asipena. *Timor Domini initium dilectionis*. Beraz atrizio egiazkoa bera da amorio santuaren asipena. Atrizioak eskatzen du asmo sendoa, gordetzeko Jangoikoaren legeko amar mandamentuak; beraz bai gogo sendoa amatzeko Jangoikoa gauza guzietz gañean, zein dan lenbiziko mandamentua. Jangoikoaren mandamentuak gordetzen dituenak, maite nau ni, dio Kristok. Beraz mandamentu guziak gorde ez dituelako damu duenak, gogo edo borondate sendo batekin gordetzeko aurrerakoan guziak, iduki bear du amorio santuaren asipenen bat. Ala bada Jangoikozko damu egiazkoaz konfesatzen diranak ez dute estutu ta larritu bear amorioz damutu baziran edo ez. Biotza aldatzen ezpada, eztago egiazko atriziorik; aldatzen edo konbertitzen bada, Konfesoia ona izango da. Egin dezagun



alegina bekatuaren damua artzeko kon siderazio beldurgarri, ta amoregarriakin. Konseju au txit ona ta guziak ematen dutena da.

G. Nai nuke enzun berdintza edo konparazio on bat Kontrizio oso ta Atrizioa adituta ezagutzeko.

E. Ona emen. Seme batek bere aserreen ematen dio Aitari kolpe andi bat. Jakiten du Justiziak. Seme gaizto ura darame karzelara; ezarten diez grillo edo kateak, ematen die gutxi jaaten. Artzen dute Informazioa, ta kentzen die Seme oni Aitaren ondasunetarako eskubide guzia. Seme onek ezagutzen du bere gaizki egina. Deitzen dio Karzelara bere Gurasoari, ta ekusirik onen aurpegia zauritu edo banatua, asitzen da negarrez, erdibitzen zaio biotza, ta esaten dio damu andi batekin, Ai nere Aita ona! Zer egin det nik nere itxutasun gogorrean? Zuk agiraka egin bazindan, izan zan nere amarez. Zuri zor dizut Jangoikoaz bean nere izatea; zuk ni mantentzeko artu dituzu neke andiak. Eta nik eskuak ezarriko nizkitzula zuri? Nik zu banatu? Ez naute penatzen, ez dauzkadan kateak, ez leku loi onek, ez goseak, ez nere gaizki egiñagatik Justiziak kendu didan zure ondasunetara eskubidea. Oek ta geiago merezi ditut: bakarrik damu ematen dit zuri egin dizudan bidegabe ta injuria ain andia; zuri, zein zeran nere Aita, ta Aita nere ona billatu dezuna agiraka egiten zindanean ere. Ona emen Kontrizio oso edo amorezko damu garbiaren irudi edo pintura eder bat. Bekatariak fedeko argiarekin ezagutzen duenean bekatu mortal batekin. Aita baño Aitaago dan Jangoikoari egin dion ofensa itxusia, ez bakarrik kolpetu, baita ere berriz kruzifikatzen duela Jangoikoaren Semea, ta artzen duenean damu txit andia, ez galdu duelako Zerurako eskubidea, ez Infernuko pena ikaragarrien beldurrez baizikan bere Aita ain on ta ain maitagarriari egin dion bidegabeagatik, artzen du amore garbi ta interes gabeko damua; ta au da Kontrizio oso animaren santifikagarria. Ordea esan degun Seme ark ezaguturik zenbat kalte ekarri diozkan bere buruari. Aitari eskua ezarriaz, damuturik egiaz bere gaizki eginaz erregutuko balio biotz humillaz Gurasoari, enpeña didilla Justiziako buruarekin libra dezan Karzelatik, ta biur dezon heredatzeko kendu zion eskubidea, ematen diola itz sendoa ez diola geiago injuriarik emango, erregu au egiten diola ezaguturik bere Aita dala errukiorra, ta konfianza oso batekin, damu ematen diola ez bakarrik kastigu daramanak, baita ere Aitari egin dion ofensak, au litzake Atrizio edo beldur damu santuaren irudia. Emen ondo egiten du Semeak humildade osoarekin barkazioa eskatuaz gañetik, billatzea bere bitartetasuna iibratzeko Karzelatik, ta biurtzeko Semeen eskubidera. Ala bada ekusten duenean kristauak bekatu mortalaren bidez ekarri diozkola bere animari kalte andiak, galdu duela

Zerurako deretxo edo eskubidea, jarri dala kondenzioko peligroan, anima itxusitu dala bekatuaz galdu dituela lengo obra onen irabazi ta merezimentuak, dadukala deabruak lotuta bezela, ondo egiten du zuzentzeaz Jangoiko ofendituagana konfianza oso batekin artzen duela egiazko damua aserraerazia diolako Jangoikoaren Justiziari. Emendik datorkio Jangoikoaren miserikordiaren ezauera osoa, zeñen besoetan ezarten dan humil humillik, ta amatzen du Jauna, edolaere ain ona izan dalako bereztat kastigatu zezakeala kastigatu ezuelako, ta bai itxaran penitentzia egiteko. Prestaera onekin eldu ezkerko Konfesiara, iritxiko du bekatuaren barkazioa.

G. Nai nuke enzun gertaera edo ejemplo zuzen bat ezagutzeko nola-koa da Kontrizio oso, edo amore damuaren indarra edo birtutea.

E. Ona San Bizente Ferrerkerori gertatuta zitzaiena, ta berak kontatzen duena, ta ezte uste gezurrak eskribitzen zituela Santu ain miragilla onek. Zegoan predikatzen gure Españako erri baten. Joan zan Sermoira besteen artean emakume mundutar, lasai, ta lujuriako pasio gaiztoan sartua. Adirazo zituen Santu onek aragiaren bizio onen itxusitasuna, ta Jangoikoak prestaturik zeuzkan kastiguak. Gero asi zan pintatzen Jaunaren ontasuna, ta nola Magdalenak artuko zituen amorerik andienarekin. O anima deabruak lotuta zaudenak! Esaten zien. Atozte, atozte Kristoren oñetara. Ezaguzazute nolako injuria ematen diezun zuen amarez ill zan Jangoikoaren Semeari. Biur zaitezte nigana maitatzalle askorekin enredatu zeranak, esazen dizue Jaunak. *Fornicata es cum amatoribus multis, tamen revertere adme.* Zeren zai zaude anima gaisoa? Zergatik eman nai diozu biotza kreatura ustelkor ta gaizto bati, ta ukatu Jangoiko ain on ta maitagarriari? Itz oek igaro ziran emakumearen biotzera; ezagutu zuen bekatua Zeruko argi andi batekin, ta ain andia izan zan artu zuen Kontrizio, edo amore damua, ezen gelditu zan bertan illda penaren penaz. Jende guzia ikaratu zan Sakramentu gabe zalako bizitza gaiztoa eraman zuen emakume ura. Orduan Predikadore Santu ari agertu zion Jangoikoak, nola ill zan damuaren anditasunaz, ta enzun ere zan Eliza guzian itzaro edo boz zoli bat; *Ez ezazute erregetu onen animagatik, zerren dagoan Zeruan.* O Kontrizio andiaren frutua! Deabruaren esklaba zana, egin zuen Jangoikoaren alaba. Ai nork eman lezakean bere bizitza Jaunari ona ofenditu duelako amore bizio damuaz! Ai jetsiko balitza gure biotzetara Espiritu Santuaren su andi bat garbitzeko gure animetako bazterrak, ta erreak bezela gelditzeko su eder onetan! Ordea, zenbat dira benetan damutzen diranak? Zenbat ondo prestatzen diranak Konfesiota santurako? Au ekusi bear degu datorren doktrinan.



ERAKASTE V.

Konfesorako bear dan Damuaren gañean bigarren doktrina

Ikusi degu igaro dan doktrinan, zer dan dolore edo damu Konfesio onari lagundu bear diona, zein bear dan, zeinbat modutakoa dan. Orain ekusi bear deguna da, zenbat penitente gezurti diran, edo zein gutxi, bekatarien artean, daramen egiazko damua.

G. Nondik jakin lezake ori, baldin damua badago biotzean, ta biotzeko berri Jangoikoak bakarrik badaki?

E. Badira señale edo ezaubide argiak igarteko. Ona batzuek. Damuak egiazkoa izateko, bear du jaio Espiritu Santuaren kolpetik, ez munduko motibotik. Izan bear du sendoak, au da naigabe geiago eman bear du bekatu mortal batekin Jangoikoa ofendituak onra, osasuna, ta lurreko gauzarik estimagarrienak galtzeak baño. Izan bear du guziena, edo ez didilla bekatu mortal motarik izan, zeini gorroto artzen etzaion. Orain bada ekusi bear degu nork ez daraman egiazko damurik.

Lenbiziko zirkunstanziaren aldetik, ez darame egiazko damurik munduko kalteak gatik bakarrik damutzen diranak. Ekusiko da jokolari txar bat bere animaren kaltean jokatzen duena, edo joko debekatueta, edo bear baño geiago ornitzen dala, edo birao ta aserre andiak eragiten diozkana. Galtzen ditu batek diru asko; amorratzen zaio, egiten ditu birao andiak, urratzen ditu Kartaak, ta egiten du promes bezela karta geiago ez eskuetan artzeko. O nolako damua! Nolako propositoa! Ordea mundukoa. Diru galduak min ematen dio; galdu zituen bezela irabazi balitu, bedekatuکو zituen kartak, ta jokatu ere zuen orduan. Munduko kalteak ere atzeratu bear gaituzte gauza gaiztoetatik; ordea askoz geiago animako kalteak; Jangoikoaren grazia galduak, zeinek geiago balio duen lurreko ondasunak baño, ta fedeko argiaren bidez ezagutzen ditugun bekatuaren ondoren gaiztoak. Orditzen edo moskortzen da beste bat, ta kolpe andi bat artuta banatzen du burua, ta osatzeko egiten ditu kastuak, ta igaro min portitzak. Madarikatzen du Taberna, edan zuen ardoa, tentatu zuten lagunak, ta damu du ala orditua. Ongi da. Ordea, zerk ematen dio ardo edan zuenaren anbeste gorroto? Ematen duen eskandaluak etxean ta errian? Jangoikoari egin dion injuriak, izanik bere Irudi edo imajinara egina berdindu duelako abere arrazoi gabekoekin? Ez. Damu ematen die korputzeko miñak, ta dauzkan kastuak osatzen. Damu alperrea, konfesio-

rako ezer balio eztena. Erorten da Gizaseme edo emakume bat bekatu loi baten, ta erasten zaio gaitz lotsagarri ta min andietakoa. Bere korputza galdu ta erituta ekustean, asitzen da madarikatzen bekatu lagundu ziona, edo tentatu zuena. Damu du bekatuan eroria. Baña zergatik? Zerren korputzari ekarri dion kalte andia, igaro bear dituen min edo oñaza portitzak, osatuko bada agertu bear duen bere gaitza, farre egingo dien dakitenak. Eta Jangoikoari egin dion injuria andia gauza ain zikiñean erorita? Eta animari ekarri dion kaltea? Ez da anzi. Jangoikoa ixillik dago; ezdu kejarik ematen. Mutil, edo gizon lotsagabe batek milla eregu palagu, ta eskintzarekin dakar bekatuari leku ematera Emakume bat. Agertzen da bekatuaren frutua. Artzen die kargu mutil edo gizonari. Onek garbitzen du burua: Gezur andi bat egotzen dit, dio, neskatz traidore orrek, ez du nerekin konturik izan, billa dezala bere adiskide galanta. Ekusten duenean neskatzak bere burua lotsari ain andian, bere onra guzia galduta, arpegi-rik eman ezin duela, senideen naigabeak, ta anbat burukomin, asitzen da madarikatzen jaio zan eguna, tentatu zuen mutilla: Ai, dio, nik sinistu ezpanie Gizon gaztearen itz labañai, arpegia ausi banio bekatu bidea eman zidanean... Zer egin nuen? Zer egingo det? O nolako damua atsegin zital bategatik anbat naigabe bere buruari ekarri diozkalako? Ordea damu alperrea, mundukua, Judasena bezelakoa. Saldu zuen Apostolo traidore onek bere Maisua. Egin det pekatu dio. Botatzen ditu diru bekatu eragin zienak Kristoren etsaien aurrean. Zer eranzun zien oek? Or konpon, Judas or konpon. Orain ez degu zure bearrik, len bai. Ala bada esaten dute mutil edo gizon gaiztoak, berena egin da. Or konpon, or konpon, ta uzten dute neskatz ernegu ta biraoz aizea betetzen. O negar alper-rrak! Zenbat andiakoak dira bere bekatuti etorri diran animako kalteak! Nolako eskandaluak zabaldu ez dira? Zenbat pekatu bidea eman ez die? Non da Jangoikoaren grazia galdu dana? Non Infernu irabazi dana! Non Zerua? Oek ez dute negarrik ateratzen. Agertu ezpalitza bekatu munduan agertuta ere logratu balitza dote andi bat, edo ezkontza, etzan negarrik ekusiko, ez malko bat emango, ez bekatu madarikatuko. Esango zan bear bada biotzeko gelan. O Zorioneko bekatu anbeste on ekarri didana! *O felix culpa!* Ala bada askoren bekatu damuak dira mundukoak, Jangoikoagandik sortzen ez diranak, Jentil Jauna ezagutzen ez dutenak ere izan oi dituztenak. Egia da, dala guziz gaitzako bekatuaren damu egiazkoa artzea, bekatutik mundurako onak atera diranean, kalteak atera diranean baño. Baña fedeko begiak jasotzen ez badira Jangoiko ofendituagana, ta animako kalteak geiago sentitzea ezpadira lurreko edo korputzekoak baño, ez du alako damuak ezer balio Konfesio santurako. Saulek, nolako



damua Jangoikoari obediencia ekarri etziolako? Nolako esatea Samuel Santuari, *egin det bekatu! Peccavi*. Ordea zergatik? Despreziatu etzezen bere mendeko edo basalloak. *Sed nunc honora me curant Israel*. Egin det gaizki baña onra nazazu Israelen begietan. Zein bestera gertatu zan. *Dabiden bekatu egin det!* esatearekin Errege Penitente onek artu zituen borondate osoarekin Jangoikoaren kastigu Natanek adirazoak. Etzion erregutu libra zezala kastiguetatik, ta bai negar egin aldendu zalako ardi galdu bat bezela bere Jaun ta Arzai amorosoagandik. *Erravi sicut Ovis quae pervit*.

G. Eta asko ote dira damu laburra edo estalkiarekin konfesatzen diranak, damu sendo, portitz, ta eragille gabe?

E. Txit asko, txit asko, ta emendik dator anbeste Kristauren galtzapen edo kondenazioa. Egia da inork uste baño konfesio gaizto geiago egiten dirala minaren, edo itzaren faltaz, ordea geiago biotzaren faltaz. Esan nai det, asko konfesatzen dirala gaizki beldurrez ixildu, gutxitu, edo edertzen dituztelako beren bekatuak; baña geiago biotzeko damu zoli, sendo edo egiazkoarik ez daramalako konfesiara, ta damu onelako gabe ez dago barkaziorik. Anzinatik esan zuen Tertulianok, Konfesioa dala lurreko Komerzio edo artuemanetan dirua bezela. Zerbait erosteko bear da dirua, baña diru legekua, benetakoa, ez etxura utsekoa ta falsoa. Zoaz merkatarri bategana diru oker batekin. Badirudi urrea azaletik; urrea ezpada botako zaitu ordu gaiztoan. Nolako kastigu barkazio gabeak eztaude dirugin falsoentzat? Orain bada, dio jakitzen andi onek, nola dan bearra dirua ta ona, edo zindoa zerbait erosteko, ala ere bear bearra da Zerua erosteko bekatuaren damua, ta damu egiazkoa, damu bide onekoa, zindoa, edo piñpina, ez falsoa ta onirudi utsekoa; urrezkoa; ez metal basto urre estalkiz bezela egiña. Damu sendo onek biotz guzia jiratu edo aldatu bear du, barrena moldatu, ta ez bakarrik aurpegia. Espiritu Santuak dio penitente txar batzuek adierazteko esaera eder au; emango du biotza pintura moduan. *Cor suum dabit in similitudinem picturae*. Pintore batek, ta orobat Santugin edo Eskultoreak egin nai duenean Irudi edo Imajinaren bat, ezta nekatzen barrena apaintzen edo edertzen. Bear egiten du bai moldatzen ta edertzen agirian ta begien aurrean egon bear duena, arpegia, eskuak, bularra ta oñak. Gibel alde ekusten ez dana gelditzen da zatarra, ta molde txarrekoa. Ala egiten dute kristau askok; uste dute malko batuek begietatik ematen badituzte, kolpe batzuek bularrari emanda lepoa makurtuta, itz zoli batekin esaten badute *damu det, Jauna*, guzia dagoala egiña barrena, ego biotza aldatu gabe. A bai, nola esan bear zaien onelako Penitente azalekoai Fariseo arroai esaten ziena Jesu-Kristok, Ai zuek Fariseo garbitzen dituzutenak baso edo onziak kanpotik barrunbea garbitu gabe, biotzean

tranpa ta lapurreta gaiztoak kendu gabe zaudeia. Sepultura zuritoak barrunbean ezur ustelez beteak. Itz ederrak gizonak engañatzeko, ordea ez Jangoiko dakusana biotzean dagoana. Ala bada eztago barkaziorik, ezpatera buirtzen Jaunagana biotz guzitik. Biur zaitezte nigana, dio Jangoikoak, biotz guzi guziarekin, baraur ta malkoekin. Da esatea baraurrak ta malkoak irten bear dutela biotz konbertitutik. Ausi ezazuez damuz zuen biotzak, ta ez zuen soñokoak. *Scindite corda vestra, et non vestimenta vestra*.

G. Eta egon liteke damu sendo ta zoli bat biotz siku edo agor batean?

E. Nola ere egon litekean. Gauza arrigarria! anima txit onak estutzen dira damu gabe konfesatzen diralako beldurrez, ta bizitza gaiztoko asko bizi dira ardura gabe ta damuarekin konfesatzen diralako uste edo iritu betean? Zerk egiten du? Onak beldurtzen ditu Jangoikoaren juizioak, betiko kondenazioak, maite dute Jauna, ta eldu nai lukee garbiro Sakramentu-santu aldarakora. Bearra geiztoak ez ditu ezerk beldurtzen bear bezela, ez die amoriorik Jangoikoari, ta ez dira batere estutzen damuaren gañean.

Jauna, dio kristau on batek. Konfesatzera noanean nai nuke damu andi bat iduki, nai nituzke Magdalena baten negarrak; ordea nere biotza dago gogorra, ezin eman det malko bat. Nola egon liteke dolore edo damu egiazkoa sentimentu geiago gabe? Beldur naiz nere konfesioekin.

Oen konsolaziorako jakin bear da dolore moduo dirala, bata barren barrenekoa, biotzean gordea, agertzen ez dana sentimentu samurrekin. Bestea da agertzen dana biotzeko samurtasun, ta sentimentu agirikoekin. Samurtasun oek, zizpuru ta negarrak irtetzen badute biotz damuz ausitzetik, dira txik onak, ta estimagarriak. Ala San Pedrok eman zituen malko ugari, ta samiñak bere Maisua ukatu ondoan, biotzeko damu andiak laguntzen ziola. Ala Magdalenak busti zituen Jesusen oñak amorez ta damuzko negar ugariakin. Ala Dabidek bustitzen zuen bere oea malko askorekin. Ordea badira animaren batzuek sarri konfesatzen diranak, txit kontu andiarekin bizi diranak, ta malkorik egozten ez dutenak. Egia esateko, anima gutxi dira bekatuetatik irten berri diranak ta Jangoikoaren graziak ondo ikustuak beren konfesio jeneral lenengoetan samurtzen ez diranak. Agortasunak ta sentimenturik ezak izan oi dira urteren batzuek bizitza onean igarota. Orain bada jakin bear da egiazko damua dagoala bekatuaren gorroto, ta ekusi naiz ez sendo baten Jangoikoaren ofensa dan aldetik gorroto andi oni laguntzen diola propositu edo gogo biotz biotzeko batek ez geiagoren geiago bekatu mortalean erorteko, ta aldegitoko bekatuko bide, lagun ta ebillune urreko guzietatik; eta onelako damua



egon liteke negar malko gabe. Zenbat alditan munduko naigaberik andienetan batzuek penaren penaz malkorik ere eman ezin dute? Errege bati ematen die berria gerra baten bere Exerzitua desegin dutela etsaiak. Nola damua artzen ez du? Ordea ez da geienez negarrez ekusiko. Illko zaie Gurazo batzuei Seme maite bat; Amak ematen ditu illeta andiak, atera bear ditu bere buruko illeak deadarrez ta arrantzaz. Berriz Aitak ez du alako damostraziorik agertzen, bere naigabea, ta Semea ill zaiolako damua izanagatik ain sendoa, nola Amarena. Ori baño geiago, Persona birtute andikoak konfesatzen diranean, egoten dira biotz agor ta sikuarekin gogora dakarzentean anzinako beren bekatuak, ta birtute txikiko batek emango ditu malko asko. Ala ere birtute andikoak bekatuai dien damua da askoz andiagoa, sendoagoa, zoli ta zalagoa birtute txikikoena baño. Emendik ateratzen da, damuaren sendotasuna eztagoala negarretan, baizikan bekatuari zaion gorrotoaren anditasunean. Norbaitek ezarriko balizu kolkora suge andi bat nolako damua negarrik gabe ere? Bada bekatuari izan bear zaio gorroto andiagoa.

Orain bada, eld'u oi dira konfes5tzera damu gabe, mirabe etxean bekaturako okasio gaiztoa daukatenak. Konteaatzean egiten dute negar bizia: Ordea zertako dira aegar alperrak, nolakoak diran bekatuko okasioan dagnala ematen diranak? Ai Jauna! esango die Konfesoreari; nai nuke teetatuko ezpanendu, erori banaiz geiago izanda Etxeko Jaunaren lotsaz ta beldurrez aragiaren atsegin gaiztoagatik baño. Iges zazu etxe orretatik estalki onen batekin, esaten dio Konfesoreak; eztago absolbitzeko eskubiderik okasio borondatezkoetan daudenentzat. Biok kondatuko gera zu absolbitzen bazaitut; zu, gaizki prestatuta artu nai dezulako absolbizio ezer balioko ez dizuna kalte andirako baño; ta ni, zure pretaera txarra ekusita zuri ematen badizut absoluzioa. Jauna, ez naiz eroriko geiago; ausiko diet aurpegiaren bide gaiztorik berriz ematen badit. Irte ten badet etxe artatik murmuratuko naute, izango da zer esan; edolaere urtea osotu bear det. Utziko balit pakean, ez nuke nik bekatuak egingo. Itz ederrak, Konfesore asko engañatzen dituztenak. Ordea, ona Kristoren doktrina desegingo ez dana. Begiak ematen badizu bekatuak bidea, aterazazu, ta oñak bekatuak bazaramaz ebakizazu: Obe da Zerura joan begi ta oin bakoitzakin, biakin Infernura baño. Itz oek esan nai dute, begia, ta oñak baño bearrago bada ere bekatuak bidea ematen duen lekua, laguna, edo gauzaren bat, utzi bear dala. Orain bada, atoz ona etxe bekatuak zaudena irtetzeko anbeste atzerapen ta nagitasunekin, bazi naki zeure etxeko Jaun, edo bere Seme bekatuak zaituenak aterako dizula begiren bat, edo ebaki oña, egongo ziñake alako etxean? Esango zenuke

emango dala zer esan?... Zein gutxi! Badakit laster igesko zenukeala zer esanai, irabaziari, edo lotsari begiratu gabe. Eta zure anima galtzeak gutxiago merezi du begi edo oñak galtzeak baño? Ezetz dio Kristok berak, baita fede apur bat duen edozein kristauk ere. Eroriko etzerala? Ausiko diozula aurpegia tentatzen bazaitu geiago? Ala diozu orain estuan absoluzioa ateratzeagatik. Zer? Pekatuan erori baño leenago etzenuen orrelakorik egin ta orain egingo dezula? Ez dakizu zuek naieza ta arpegi astuna lenengoan agertzen badiozu, berak guzituko ditueia eskintzak, sariak, palaguak, indarrak ta zer ez? Uste dezu gorde ditekeala bat tentazio partitzetan Jangoikoaren laguntasun andi gabe? Eta lagunduko die Jaunak tentazioak garaitzen beren naiz daudenai bekatuko etxean? Erakerria andia. Beraz ez dago bekatuaren damurik aldegiten ezpada borondatezko okasiotik. Beren bekatuen damua, edo naieza da argala, ta ez sendoa negarren artean: bear da egin alegiña bekatuko okasiotik irtetzeko. Orobat esan bear da bekatuko okasio artuak etxez kanpora dauzkenen gañean. Utzi nai ezpadute sarrera okasio gaiztoa daukaten beste etxean, ez darame damurik, ta ematea dituzten asesio edo eskusak dira damu gabeko biotzetik irtenak, ta igaroko ez diranak Kristoren Tribunale Santuan. Onelakoak, dio San Fuljenziok, ez dituzte inoiz garbituko bekatuak beren malkoekin, zeren laster biurtzen dira bekatuak negar egin ondoan. Bekatu guztien iturburua da Fedearen iltasuna, edo nola ere bait ez sinistea Fedeko doktrina Kristo ber berak dio utzi bear dala bekatuko edozein leku ta gauza begia, eta oñak baño bearrago bada ere. Au sinistuko balitza, nola animako salbazioagatik utzi ez, edo etxe, edo lagun, edo dibersio bekatuak eraman gaitustenak, ta peligru urkoan gauzkeenak? Nola eman anbeste atzerapen, esesio, edo aitzaki? Sinisten ez dalako Kristoren esana.

Etorriko da konfesatzera gazte danzazale bat. Arkituko du ondo aztertzen dituen Konfesoreak, nola danza nastuetan egin edo konsentitu dituen sarri akzio txarrak, itz amoragarri edo desonestoak. An igaro dira pozik esku estutze amorezkoak, an esku ezarte tentagarriak, an begiraune eraskor ta kariñozkoak, an itz samur maitagarri, ta txit peligrusoak. Au zer ez?... Musu emate, edo eman naiak, magal erabilteak, arpegia arpegiari arrimatzeak, ta danzan eraman duelako gerorako gelditu diran estimazio kalte andikoak. Eta danza ostean, kale, bide, ta lagun zoro nasaien artean zer igarotzen ez da? Jangoikoak agertuko ditu egun baten. Diaz onelakoak konfesatzera; ta burura ere etortzen ez zaie akusatu bear dutela alako danza ebilerik, zeren egiten diran agirian, askorekin, ta lotsagabe. Konfesio ederra! Konfesoreak ateratzen diez gauza txatar asko; esaten dio, zure-



tzat danza ori da bekaturako okasioa, bekatu askoren iturburu, nasaitzen zera, ematen diezu leku akzio txarra, irikikitzen dezu lujuriako sua, azitzen dituzu amore gaiztoaren sustraia, ta jartzen zera bekatu gauza berriz ere leku emateko peligran. Utzi bada betiko olganza edo dibersio ain galgarriak. Jauna, zer dio? Badabiltza beste asko ere, konfesatzen dira ni bezela. Zer esango dute ezpanoa? Farra ta burla egingo didate. Kontuz ebilliko naiz emendik aurrera; baña ez joan? Ori ezin dezaket. Ez? Beraz ez diozu sinistzen Espiritu Santuari dionean, *peligroa maitatzen duena, bertan galduko dala*. Edo jarrea peligran ain ezagutuan len igaro zatzenaz, da bera bekatua. Ez diozu sinisten Kristori begia baño maitteago edo bearrago dan gauza ere utzi bear dala gure animako kaltean bada. Eta bearrago da danza zatarretako dibersio edo olganza begia baño? Eta eztago peligrorik len anbeste bekatu egin dituzun ebillera zoroetan? Illko zatzu aragia? Egongo dira santuak bezela geldi zu tentatu gabe albo bietan edo eskubietatik oratuta ebilliko diran gizon edo mutil gaiztoak? O itxutasun andia! Ez da sinisten ez Kristoren esanik gure pasioen kontra diranean, sinisten dira entendimentuan gelditzen diran egiak. Eztago damurik ez, utzi nai ezpadira bekatuko okasio ain ezagunak. Sarna gaiztoz beterik baleude danzan dabiltzanen eskuak, gordeko ziñake alakoan arte ebilteaz; arkituko zenuke estalki edo eskusa bat. Sarna eraitsi ez dakizun beldurrak garaituko luke danzarako zure pasioa. Eta animan eratsi ez ditezen bekatu mortalak len eratsi zitazun bezela, ez zaituela atzeratzeko? Eta uste dezu damu dezula bekatua, ta gorroto geiago diozula beste gaitz guziei baño? Gezurra, gezurra.

Ez darame damurik Konfesiara alkarren gorrotoan bizi diranak, ta gorrotoa kendu gabe konfesatzera dijozanak. Ona emen beste soñu ederri. Egin zidan bidegabe edo injuria txit andi bat; ezin aztu zat; odola irakiten zait nere etsaia ekusita beste gabe. Ala ere barkatzen diot: ez diot gaitzik nai. Nork eduki pazienza alako ofensaren ondoren? Nik gaitzik egin ez nion. Zergarik egin bear zidan berak? Damu ederra kristauak. Konfesiara beretan ere buruak garbitzen dituzte; aserrea aldean dakarte, akusatzen duze projimo gaisoa ta bere burua ez. Barkatzen diot. Gezurra gezurra. Ezpada atoz. Poztutzen zera bere kontra itz egiten duenean besteren batek? Bere kontra etortzen zaituen aserre, edo deseo txarra ezagututa bereala kentzen dezu gogotik? Ukatzen diozu agur ona? Ematen dezu zer esanik auzoeran tratatzen ez dezulako auzo onak bezela? Ezarren engañatu zere burua, ez Konfesiorearena. Damu bazina iduki dezulako aserre bide gabea, benganza gaiztoa, ta gorroto biotzekoa, egongo ziñake prest eskatzeko Jangoikoari zere etsai ustekoagatik, bedekatu

zenuke madarikatu zaituena; ezagutuko zenuke zuri lagunak egin dizun ofensa dala zer ez bat zuk Jangoikoari egin diozun ofensaren aldean edozein bekatuarekin, baita iduki diozun gorrotoarekin ofenditu zaitzianari. Ezaguera onek ekarriko zaitu biotz guziarekin barkatzera, ta ez ezpain gezurrezkoekin, barkatu dagizun dagizun Jangoikoak. Etzenuke alako kejarik emango Konfesiorearen ofetan, ta ez esango, ez nion nik gaitzik egin, zergatik berak egin bear zidan! O itz arro bide gaizkokoa? Egin dizu zuri Jangoikoak gaitzik? Zergatik zuk ofenditu dezu? Eta zuk bera ofendiduta berak zu ofenditu gabe, zergatik dabil Jangoikoa bera zurekin pakeak egin nairik, zure billa zuri barkatzeko, zure biotza bereganatzeko? Ala bada urbiltzen dana konfesiara Projimoari biotz on onez, ta garbi garbi barkatu gabea dijba damu gabe, ta bere anima galtzera. Zer esan? Sinisten duela Kristoren doktrina? Ez ez.

Dijoaz damu egiazko gabe konfesatzera Ofizio askotakoak irabazi txarrak egin ta dirautenak urte osoetan ondu gabe ta bear bada konfesatu gabe. Zenbat dendera edo tratulari gutxika gutxika lapurreta zitalak egiten dituztenak, edo neurri txikiagoa emanaz, edo gauza txatarra edo erdi galdua ontzat salduaz, edo bear baño geiago emanaz? Zenbat Langillak aloger osoa artuta, neke osoa artu nai ez dutenak, Jaubea begira ezpada alperrik denporan igarotzen dituztenak! Diru ona artu, ta bear txarra eman.

Zenbat lapurreta txikitik askorakoak egiten ez dituzte errietako Saltzallak; puskaka puskaka gauza andietara igoten dutela? Bitartean konfesatzen dira. Nolako dolorearekin? Damu dute gutiengo ezin ostua justiziarren beldurrez. Olio, aragia, ogia, ardoa ta beste janaria saltzean, zenbat ostutzen ez da Jendeak ezagutzen du, kejarren da, ta esan oi dute ez dakizela nola konfesatzen diran. Nola? Gaizki damu gabe, konzienzia debruari emanda. Oek pensatzen dute zer dan anima galtzea lurreko gauza ta irabazte laburrak gatik? Zer dan saltzea Zerua erreal, ta ezkutu batzuek gatik? Amatzen dute ezkutu bat geiago Jangoikoa baño. Nolako damu darame? Berriz esango det geiago ezin ostuatena. Konfesio ederrak!

Ez darame egiazko damurik Konfesiara dijozanak konfesatzera restituzioak egin gabe inola ere egin dezakela. O zenbat konfesio gaizto alde onetatik! Beti esan oi dute, *egingo det, egingo det*. Oei esan bear die Konfesioreak, eginzazu eginzazu ta absolbituko zaitut egiten dezuenean. Sinisten ote dute barkatzen dala bekatua biurtu gabe ostua, kendua, edo egiten dan kaltea, biurtu al dutela? Eztet usze. Eta Konfesioreako prestaera damu andikoa da joatea obligazio ain estua kunplitu gabe? Zakeo zeritzon tratulari batek konbidatu zuen bein Jesus maitea bere etxerako. Eta zer



esan zion Jaunari? Nere ondasun guztien erdiak ematen dizkiedaz pobreaki, ta kalte egin diedenai, ematen diet lau bider geiago. *De pauperibus, reddo quadruplum*. Eta zer eranzun zion Jesu-Kristok *Gaur sartu da osasuna (animakoa) etxe onetan*. Buirtu kendua baño geiago, ta bere ondasun garbietatik eman anbeste limosna? O Penitentzia ederra! O damu sendo negar gabe ere obraz agertzen dana! Etzion Zakeok Kristori esan, buirtuko diet Jauna kendu diedenai, egingo ditut limosnak. *Non dixit dabo, reddam*; ezpada ematen diet, biurtzen diet, edo eman ta buirtu ditut. Ala sartu zan grazia edo animako osasuna bertatik. *Hodie huic domini salus á Deo facta est*. Ala sartu zan Kristo Zakeoren etxean borondate andiarekin. Esan balio Kristori buirtuko det biurtuko det, eltzen ez dala inoiz buirtzea: eduki balu Zakeok bere biotza lotuta inoren ondasunetan, atera ezinik bezela bere etxeti ostua edo irabazi geiegí ta bide gaiztokoa, sartuko zan Zakeoren animan grazia, ta gero Kristo bere etxean? Zein gutxi! Bada nola uste dute eraman Konfesiara egiazko damua buirtzen ez dituztenak ostu edo irabazi gaiztoak, egin dezakeela? Zer balioko du esatea, buirtuko det gero al dedanean, abustuan garia salduta, edo urrian artorekin? Ez ote dira igaro Abustu bat baño geiago itz edo eskintza ederrekin? Etorkizunak noiz egingo dira erorriak? Ez dezu len orrenbeste esan Konfesoaren onetan? Ez daukat orain zer buirtu, gastatu nuen ostua.... Ala gertatuko da, anima galdu ta pobrezta geitu. Ez ote dago zer saldu biurteko bear dana bestela ezin danean zatika bada ere?

Eztira Jangoikoaren aurrean igaroko ezin egiñak egiazkoak ezpadira; ta ezin egin egiazkoa dagoanean ere bear da bekatuaren damu andi bat, asmo sendo batekin ez geiago ezer ostutzeko, ta buirtzeko anbat lasterren al duanean.

Asko ostu, gutxi buirtu; ta bekatua ez damutus.

Ala galtzen dira anbeste anima.

A! Eta zenbat kristau bizi diran uste gaiztoan, damu itxurapen batekin bekatua egiaz, edo bear beste gorrotatu gabe eltzen dirala konfesatzeraz Oen artekoak dira oitura gaiztoetan sarturik daodenak konfesio batetik ta besteetara ondu gabe. Eta zenbat onelako? Arkituko da emakune aserrakor, bizi, edo kolera andiko bat umeai, edo senarrari noizian bein birao edo maldizio gogorak ezarri ta doktrina gaiztoa ematen dutenak etxean ta auzoetan; Konfesoarek konseju ta penitentziak eman arren, beti leenak, aurrera esateari, *illko al aiz, itoko al aiz, eztanda egingo al dek, bizerik etorriko ez al aiz*, ta zer ez? Oek absolutzia itz gezurrezkoekin Konfesoare siniskor bati aterata diaz komulgatzera, ta artzera Jesu-Kristoren aragi ederra beren mingain madarikatueta. Oen artekoak dira jaiegun santue-

tan bear eragotzi ta luzeak beren kutiziaz ta maña txaarrez egiten dituztenak Konfesoarek sarri debekatuagatik. Oen artekoak dira Amarren ta Primiziak gaizki pagaturik buirtu gabe kendua konfesatzen diranak. Oen artekoak dira txit asko aragiaren bizio ezkutukoetan sarturik daodenak beren artean pensamentu loiak borondatez ta ezagueraz konfesio askotan iduki dituztenak; beren buruekin egoin oi dituztenak akzio lotsagarri, zikin, ta Jentil bati gaizki iritziko likeenak. Oen artekoak dira Konfesoare nasai ta kontu gutxikoen atzean dabilzanak estutu ez ditzan uztera bekatuko lagun, edo okasioak Konfesoare jakitun, begiratu, ta Jangoikoaren beldurreko batek. Itxuak billatu itxua gidari edo itxumultizat? Biak erori ta banatuko dira. Deitu gaitz asko ta andietan Mediku edo Osagilla gutxi jakin, ardura gabeko, ta gaisoaren gusto edo gogoko osakarriak emango dituenaz? Ez die gaitzak damu andirik ematen, ez dute osasuna egiaz nai. Ala bada billatzen dituztenak animako gaitzetan guzia igaroko dien Konfesoarek, obligatuko ez dituenak obligazioak kunplitzera, uztera ukasio gaiztoak, ez dute bekatuaren Jangoikozko damurik: nai dute ezarri karga, berriz beste bat egiteko, ezarri al baleze bezela Konfesio gaiztoarekin.

Badira beste batzuek, edo Justiziaren, edo Gurasoen beldurrez utzi zutenak trato gaiztoa, baita ere Konfesoarek absolbitu nai ezda bota edo kendu duteenak Okasio bekatukoa. Badirudite ondu dirala, bekatu gabe gelditu dirala, ta daramela damua Konfesiara. Ordea ez dute damurik, zeren osatu ez dan biotza; gordetzen dute amorio gaiztoa borondatean, Loten emazteak bezela ezarten dituzte pensamentuko begiak beren Sodomamaitera, au da gozatzen dira, agirian utzi zuten adiskide txaarren oniritzi edo kariño galgarrian. Ipituko kipula porroak dauzke biotzean Ijitutik irten arren. Au da gordetzea okasioa borondatean ta iraunerazitzea biotzean leengo bizitza gaiztoari, ta damurik ez idukitzea, ta bai atsegin ta poza. Ez dio Medikuek utzi nai eri edo gaiso dan bati ur preskorik edaten ill ez didin. Gaixo dana beldurrak atzeratzen du edatetik; baña geitzen da egarria, kalenturaren berotasunarekin; sikatzen zaio mingaña. Gogoratzen zaioz erriko Iturrietako ur eder ta preskoak; borondatea aietan ipintzen du, biotzarekin asetzen da aoarekin edan ezin duenean. Onek gorrotorik artzen dio urari! Zein gutxi! Anzina edo edaten zuenean baño ere maitago du. Ala dira kristau gaizki bizi izan diran asko. Animako Medikuearen agintzaz, edo lurreko beste atzeragarriren bategatik kendu dute tratatze gaiztoa, ez dira alkar ekusten, edo beintzat itz egiteko eran adiskide biak. Ordea egarri andia dute ez alkarrekin edateko lujuriako ardao gozo irudiko, baña pozoiz betea. Edaten dute gogoz ta biotzez, borondatea leena da, itza dirudi Jakob onarena, ordea borondateko obra, edo



eskuak. Esan gaiztoarenak. Biotza erituta daukan gizonak beste korputz guzia sendo badu ere, galdua da. Ala ere borondatea bekatuari eraatsita daukana, galduko da itzez, ta sendidu azalekoekin bekatuak egin ezagatik. Osatu bear da biotza: kendu borondateti bekatuak lagungarriak, artu gorroto santu bat okasio gaiztorako izanu ditugun personai, kendu bere-na oniritzi edo kariño guzia, iges biotzez ere; bestela ez dago damurik, ez Konfesio onik, ta bai Sakrilejio garbi garbiak.

Eta zer esan, nai bezela urtean bizi, ta konfesatzen ez diranen gañean Pazkoako egunen baten baño? Oek dute bekatuen damua? Non-dik igarri? Zerk daramaz Konfesiara? Oniritzi utsak, edo Txartela erakutsi bearrak. Au da bekatuen damuz eltzea Konfesoaren oñetara? Urte guzian lo galanki ta beldur gabe bekaku mortalekin. Ez ikaratu, ez erioztaz, edo Infemuaren pensamentuz. Garizuman enzun Sermoi batzuek gogo andi gabe. Dator konfesatzeko epea. Nori, dio, ezarriko diot male-ta au? Alkartzen dira lagun ederrak, aitatzen dute Konfesioa, ta Konfeso-rea. Norekin konfesatuko aiz, dio batak? Ni dio urlia Fraile edo Apaizarekin. A txoroa! eranzuten du lenengoak; ori estua dek, farregarri erabilliko au; bein konfesatu nintzoan orrekin; baño ez nu beste bein arrapatuko. Simple bat dek, galdatzen zituk milla gauza, baita len konfesatuak ere, noizkoa dan oikuta txarra jakiteko asmoarekin. Ala dabilta tratatzen nola igaro denpora konfesio arin batekin. Komulgatzen dira gero, artzen dute txartela, ta urrengo arteraño pakea bizi izateko libertade osoarekin leenagoko urtean bezela. O zorigaiztoko jende moduak! Zoazte, zoazte Infernua, edolaere Sakrilejio gabe. Ez diozu farrarik edo burlarik egingo Jangoikoari. Ezagutzen zaitu munduak baño obeto, loitzen zera leenaren gañera Konfesioko Iturrian, ta biltzen dezu bere aserre santuaren tesoroa bere egunerako.

Beste tranposo edo mausari batzuek dira konfesatu baño leenago amabost egun edo iru astean bekatuak egin gabe egoten diranak, pensa dezan Konfesoarek emendatzen asi dirala; konfesatu ere egun batzuetan deboto dabilta. Ordea gero? Errekatxoa igarotzeko bota dan alforja, artu berriz. *Non rumpunt sed interrumpunt peccata*. Ez dituzte urratzen bekatuak, dio Elizako Erakasla santu batek, baizikan atseren, arnasa artu gogo geiagorekin ta ariño ebiltzeko bekatuko bide gogorretan. O errukarriak! Nola ezkutatu Jangoikoari tranpa edo mausa oiek? Ori da bekatuaren damua? O Penitente ederrak! Zertako da zuzen ez ebiltea Jangoikoaren begietan? Zertako engañatu edo pake gaiztoan ipiñi nai izatea zuen konfesiaria. O Penitenziaren burlariak! Gaur Konfesioren bularra jootzen, negarrez bezela damu det esaten lepo makurrarekin; andik laster bekatu

billa, kale ta bazterretan okasioak billatzen edo ematen; bekatutik Konfesiara, konfesiota bekatu ondu gabe zabilzatela. Sinisten dezute ondu damuturik zaudetela lengo bizitza gaiztoaz buirtzen zeratenok ain erraz, ain laster lengo bekatuetara? Zertan dago geienez damurik eza? Ona zertan. Ebakitzen ez dira sustraiak, artzen ez da ontzeko bear bezelako gai edo biderik, ezagutzen ez da zer dan bekatu. Bizargilla edo Barberak ebakitzen du bizarra, apaintzen du arpegia; ordea laster beltitzen da, jaiotzen da berri bizarra. Zergatik? Sustraiak atera ez dituelako. Garbitzen da baratza bat atxurrarekin lurra saratuaz; baño laster betetzen da belarrez, sustraiak kendu etziralako. Nola bada jaioko ez dira berriz ta berriz bekatuak ebakitzen ezpadira sustraitik? Zer? Begitandu daramala batek bekatuen damu egiazkoa, gorroto artu gabe bekatuen okasio, ebillera, ta lagun txarra? Ezi gabe aragi gaizkira makurtua bekatuen pisua? Munduko ospe, baralla, iskanbilla, ta olgantzta ero ta kaltegarrietan ebilliko dala Penitente egiazko ta damu andi bat biotzean duena? Au da negar egitea? Au ezagutzea nor ofenditu duen; zer merezi izan duen, zer galdu duen? Egiazko penitentiak eskatzen du berriz, ez bakarrik aldegea bekatuetatik, baita ere bizitza on bat aurrera eramatea. *Declina á malo, et fac bonum*. Bizitza on batek zer eskatzen ez du? Sakramentuetara sarri ta prestaera onakin eltzea, orazio zalea izatea, korputza ilduratzeta edo mortifikazioekin bezatu, edo ezitzea, obra miserikordiazoetan jardutea bakoitzak al duen bestena. Ez da asko belar txarrek kentzea sorozetatik; bear dira ereinazi onak frutu onak artu nai badira. A? Kristauak! Zenbat arkitzen dira gaurko penitente izenekoen artean kontu onekin bizi diranak? Gutxi: Zer egiten dute geienak? Konfesio iski batzuek egin jira ta bira bekatuetan dabiltzala; munduaren, deabruaren, ta aragiaren legeak gero jarraitu bizi-ro ta gogoki; animako etsaiztat mamia, Jangoikoarentzat azala. Meza bat edo beste enzun debozio gabe, errosarioak esan itoka bekatuekin pakean daudela. Ala daramaz deabruak geldika kristau estalkiaz eriotzako peligroraño. Iltzen ezpadira beingoan, edo ezaguera guzia galdu ta konkortuta, egiten dute beldurrezko Konfesio estu bat, daramaz Sepulturara ez urbekatuetan koipetuak ustelduak izatera. Eta anima gaisoak? Jesu-Kristoren Tribunalera onera edo probetxu gabeko Konfesio jeneral bat egitera deabru ta Konfesiaria akusatze dirala. A, Kristauak! Ez da au begitazio, edo beldurtzeko geitzeaz esaten dana. Da egia garbi garbia. Orain egiten dira damu gabe Konfesio asko, ta Infernuan gero konfesatuko dira betiko damuarekin ezer aterako ez dan denporan. Pensatu ondu.



ERAKASTE VI.

Nola Konfesio onak eskatzen duen Gogo berri edo Proposito sendoa ez geiago bekaturik egiteko

Ekusi degu doktrina bitan, zer dan bekatuen damua, nolakoak izan bear duen, ta zein diran damuaren señaile ta ezaubideak. Ordea damu oni lagundu bear dio Proposito Jangoikozko, sendo ta guzienak Konfesioa ona izango bada.

G. Jakin nai nuke zer dan Proposito ori?

E. Da bada bekatuaz ondo damutua dagoan kristauak, artzen duen biotzeko erabakimendu, edo gogo sendo bat ez gutiago bekatu edolaere mortalik egiteko, aldegitiko bekatuaren peligro urreko, ta ezagunetatik.

G. Egon liteke egiazko damurik proposito sendo gabe?

E. Ez iñola ere; zeren, nola damu izan bekatua berri ez egiteko gogo gabe? Bekatuari eratsita dagoan biotzak ez du damurik. Ordea, damuan sarturik badago ere bekatuari borondaterik ez idukitzea, baña Proposito formal (izen au ematen die Jakitunak) edo berezkoak, eskatzen du gogo bana banako bat ez geiago bekaturik egiteko. Jangoikoaren amorezko akto edo egikarietan sarturik daude Fede, ta Esperanzakoak, amatu ezin genzakealako Jangoikoa beragan sinistu ta espera edo itxaron gabe. Lau errealeko baten sarturik daude ogeta amalau lauko edo kuarto. Orobat balio dute zein batak, zein besteak. Baña zillarra kobrea ez da bere izatean. Ala bada Propositoa sarturik badago ere Dolore, edo damuan, badute beren desberdintasun edo diferenzia. Damua zuzentzen da leenagoko, edo igaro ziran bekatuetara; berriz propositoa etorkizunetara. Batarekin damu da egiña, bestearekin gogo da aurrera ez egiteko.

G. Eta Konfesorako bear bearra da proposito argi berezko edo banakoa? Askot ote da damu egiazkoan sarturik dagoana?

E. Trentoko Konzilio Santuak dio, Kontrizioa dala animako damu bekatu egiñarera, aurrera ez egiteko proposito edo gogoaz. Eta dirudi eskatzen duela aparteko edo berezko Propositoa, ta ez bakarrik damuan sarturik dagoana. Ordea, beste leku baten aditzen du Proposito onen izeenez, kentzea, edo ez idukitzea bekatuaren borondatea. *Si voluntatem peccandi excludat*. Eta egiazko damuak kentzen du bekatuaren borondatea. Beti da txit ondo, egitea proposito argi ta banakoak; baña kristau onak, bekatuari gorroto dienak, ez dute larritu bear absoluzioa Sazerdoteak eza-

rri badie *Jauna proponitzen det* akto Kontrizioko an esan baño leenago, ta orobat oroitzen ezpadira proposita ezagun, argi edo berezeorik egin zutela. Bekatuaren gorroto andi, ta sendoa dagoan biotzean, nola ez dakiala egoten dira gogo onak, edo propositoaren aktoak. Jangoikoaren amorezko akto egiazkoak egiten dituztenak, ez dute zer larritu Fedeko ta Esperanzakoak egin ote dituzten, berak ez igarriatik; zerren amore egiazkoak berekin ditu lagun Fedea, ta Esperanza. Ala bada bekatuaren gorroto bide onekoak bere lagun du proposita, edo ez bekaturik egiteko gogo.

G. Eta egon liteke egiazko Propositorik bekatuaren baten erori ditekealako beldurraz?

E. Badu zer ekusi galdetze onek bear bezela eranzuteko. Batek beldur on bat iduki lezake Infernuko etsaiak garaitu ta bekatuaren bat egin ez dezan. Baña beldur oni lagundu bear dio Esperanzako birtuteak, itxaroten degun Jaunaren grazia, zeñekin garaitzen diran tentazioak, ta iraun asi dan sail edo bide onean. Asi duenak obra ona berak bukatu ta sendotuko du. *Qui cepit opus bonum ipse perficiet, solidabit que*. *Guzia dezaket indarra ematen duenagan*, dio San Pablo Apostoluak. Gerez argal ta erorkorrek gera, ta ezin esan dezakegu Jesusen izena ere Jaunaren laguntza gabe. Nondik etorri da bekatuaren damua ta Konfesio ona? Jangoikoaren miserikordiak bere graziarekin gure biotza trukatu duelako. Eta nondik etorri bear du irauteak bizitza ona asi danean? Jangoikoagandik. Eta ez ote digu lagun du nai? Ez dio ber berak, nai duela gure bizitza ona, ta azkeneraño irautea grazian? Zertan dago ez irautea? Zertan propositorik sendoenak ausitza? Eskatzen ez diogulako Jangoikoari bere laguntasuna orazio bero ta gogotsuarekin. Sartzen diralako asko beren naiz bekatuaren peligro jakiñetan, nora lagunduko ez digun Jangoikoaren grazia bekatutik gordeko gaituenak. Ala bada guk egin bear deguna da, artzea asmo ta gogo sendo bat aldegitiko peligro ezagunetatik, ta eskatu sarri Zeruko laguntasuna; au egin ezker, idukiagatik batek beldurra iraungo ote duen artzen duen proposita sendoan, izan diteke Kontrizio ona idukitzea. Ona emen adigarri batzuek.

Pillota jokoan apostatzen bada jokolariak amar ezkutuko bat, beldur da galdu ez dezan. Ordea badu proposita edo gogo sendoa irabazteko. Beldurrak ez du nagitzen, ta bai dendatzen edo bizkortzen egiteko alegina irabazteko. Eta zenbat eta geiago balio duen jokoak, anbat eta andi goa da galtzeko beldurra, baita ere irabazteko dilijenziak. Gerra andi baten sartu bear duen Soldaduen Agintaria, beldur da galdu ez dezan batalla edo Guda. Baña badu gogo ta borondate sendo sendoa irabazteko ta garaitzeko etsaia: beldurrak ez du nagitzen eta bai animatzen irme,



edo portizki peleztera. Ala bada kristauak ere iduki lezake beldurra bekatu berrinen batekin anima galdu ez dezan, ta iduki gogo ta borondate sendoa ez bekatuan erorteko, nagitzen ez dala beldurrarekin, ta bai portiztu, dendatu, azkortu, ta animatu egiteko alegin guzia animako etsaiak garaitzeko. Ordea beldurra badator gogo ta borondate illetik, esaten bada bakarrik, nai nuke ondu, ezagutzen duela berekiko ez duela animorik uzteko okasio gaiztoak, egiteko Konfesoreak agintzen diona; nagitzen bada artezera bitarteko onak irauteko bizitza onean, ez dago proposito egiazkorik, baizikan nai erdi argal ezer balio ez duenak. Beldurra dago entendimentuan, proposito ona borondatean; baña borondateak artzen ezpadio bekatuari gorroto andi bat, aurrera ez egiteko gogo sendo ta zoli batekin, ezin iduki lezake proposito bear bezelakorik Konfesioak onak izateko. Beldur on ta zuzena dator humiltasunetik. Santuak bizi ziran beldur santu baten bekatuak egin etzezen. Nolako etzan beren borondatean on izateko? Ordea arroak, beren buruen konfianza geiegi zeukatenak Jangoikoaen graziarekin konturik atera gabe, erori ziran lotsagarritzko bekatuetan. Orra bada nola beldurra ta Esperanza ondo alkartzen, edo laguntzen diran.

G. Nolakoak izan bear du bada Propositoak?

E. Izan bear du piñak edo zindoak, ez palsoak; biotzaren barrenetik irtenak, ez bakarrik aoan ta ezpañetan dagoanak. Konfesatzera dijoan edozeñi galdetzen bazaio, duen ontzeko edo emendatzeko gogorik? Eranzungo du trikatu, ta gelditu gabe, bai Jauna, badet, ta ala usteko du. Baña zer esango dio Konzienziak ondo aztertzen badu? Ez dakiala nola urratuko dituen bekatuaren lokaarri ta kateak, nola utzi lagun ta ebillera len pekaturako bidea eman zienak. Gaitz deritzo; ez du biotzik urratzeko katea oriek. Iñork ez du bekatua nai bekatuaren izenarekin; bai ordea izanarekin. Nai luke nolabait Jangoikoa ez ofenditu, baña ez die utzi nai Jangoikoaen ofensa gabe izan ezin ditezkean gauzai. Gogo ederra ta Jangoikoaen legearen onra garria! Da nai izatea Jangoikoa debekatu ez baliu debekatu dituenak beldur gabe bekatu egiteko.

G. Orren bearra ote da Propositoaren sendotasuna?

E. Bai, ta berdintza, edo konparazio onekin adirazitzen du San Agustinek. Arzazu eskuetan adrillu ondo gogortu ta errea, ta garbizazu urarekin. Ekusiko dezu nola eder garbia gelditu ta argi egingo duen.

Ordea artzen badezu adrillu biguñ, egin berria, ta su onetik igaro gabea, zenbat geiago garbitu nai dezun anbat geiago zikinduago ta galduago geldituko da. Ala bada Anima damuaren su gabe, ta Propositoaren

gogortasun edo sendotasun gabe, zenbat garbituago egin nai dan Konfesioako Iturrian, anbat zikiñago, ta galduago gelditzen da.

G. Esan beza bada, nolakoak izan bear du Propositoaren benetasun, ta Sendotasunak?

E. Iduki bear da borondate edo gogo zoli zoli, ta zailla ez inoiz bekatu mortalik egiteko. Ez aidetasun, adiskidetasun, ez lurreko esakizun, edo eginkizunegatik urratzeko Jangoikoaen Legea. Ni baño beste gauzarik geiago maite duena, ez da neretzat gauza, dio Kristoak. Gorroto artzen ez dienak Guraso ta beste senideai Jangoikoaen gauzeetan atzeratzen gaituztenean, ez da izango Kristoren jarratzalle. Ala daduka esanda ber berak. Gorrotoa agintzen duenean ez du agintzen gaizki nai izatea Guraso ta besteai, baña bai ez egitea beren esanik Jangoikoaen onraren kontra danean. Emendik dator eztaukanak Proposito ain sendoa, non galduko ez lukean leenago onra, bizitza, ta edozein ondasun Jangoikoaen grazia baño, ez du egiazko propositorekin ta dago bekatu mortalean. Atoz ona kristaua. Etorriko balitza Fedeaen kontrako Persekuzio gogor bat eman bearke zenuke bizitza, ta galdu onra, ta ondasun guziak Fedeko artikuloren bat ukatu baño leenago? Baietz dio edozein kristauak. Bada Jangoikoaen graziak gutxiago balio du? Fedea bezela bear bearra ez da Grazia salbatzeko? Nola bada ezagutzen da ain argiro, fedea galdu baño leenago galdu bear dirala bizitza, onra, ta ondasunak, ta ez da ala ezagutzen geienen artean beste anbeste egin bear dala Jangoikoaen Legea ausi baño leenago? Zertan Fedea gordetzea Persekuziorik ez dagoanean gaitz egiten ez dan, ta urrutitik ekusten diran etsaiak. Ordea egunoro daude mandamentuak ausiarazitzeko persegitzallak. Persegitzen gaitu aragiak, ta au garaitzeko peleatu bear da. Persegitzen gaituzte mundutar gaiztoak, ta oetatik ere gorde bear da burua. Persegitzen gaitu deabruak milla aldetera, ta eman bear zaio arpegi etsai oni fede bizi batekin. Ala bada erorten dira asko etsai oen persekuzioetan, uzten da Jangoikoaen legea. Zergatik? Zerren maiteago duten alakoak beren onra falsoa, beren bizitza, ta ondasunak, Jangoikoaen grazia baño. Ekusten ziranean kristau argalen batzuek inzensoak eskintzen Idoloai, ta itz gaiztoren bat esaten Kristoren kontra bizitza ez galtzeagatik ta tormentuen beldurrez, nola begiratzen zien beste Kristauak alako kristau ikarakor ta beldurtiai? Asko malgatzen zituzten, ta gero persekuzioa igarota etortzen baziran barkazioa eskatzen, zenbat urteko negar ta penitenziak egin bear zituzten absoluzio osoa artu orduko? Ta beti gero ere begiratuak ziran Soldadu gerra denporan beldurrez iges egiñak bezela. Eta bigarreanean penitentzia eginda erorten baziran fedea ukatzera munduko tormentuen beldurrez? Nolako kastiguak?



Zein nekez sinistu beren negar ta barkazio eskatzeai? Au da kristau bat, esaten zuten, bere bizitza maiteago duena Jesu-Kristo baño. Eta zer esango zan amar ta ogei bider ukatu balu Fedea tormentuen beldurrez? Esango zuten alakoak ematen zituari itzak zirala sendoak, zallak, ta eragillak? Ez; ta bai epelak, ta indar gabeak. Orain bada, nola esan diteke dirala proposito egiazko ta sendoa anbeste bider ausitzen diranak konfesio ondoran? Nork sinistu prest daudela onra, ondasun, ta bizitza galtzera bekatu mortal bat egin gabe leenago edozein tentazio ta okasiok ezarten dituenak, persekuzio gogor ta andi gabe? Nola eduki gogo sendoa igarotzeko martirioak, onra apur bategatik, erregu ta palagu batzuek gatik bekatutzan diranak? Zenbat kristau dira Konfesoaren oñetan itz ederrak eman, ta andikan laster jaten dituztenak persekuzio gabe beren borontate osoz, ta atsegin ustel batzuek gatik?

Batek eskatzen ditu prestatzez lau anega gari eskintzen diola pagua illabeteren banian. Eltzen da denpora, igarotzen dira ill bi ta pagua atzera. Pagatu gabe datorkia eskatzera beste lau anega. Erantzuten zaio; ez dezu lengo zoorra pagatu, ta nola sinistuko det nik pagatuko didazula guzia. Bai, dio eskaleak, Guzi guzia, lengoa ta oraingoa pagatuko det illa birene pean. Zaude beldur gabe; gizon prestua naiz. Itz onakin ateratzen diozeaz beste lau anega. Beretzen da epea; igarotzen dira ill biak, ta pagatzalle gaiztoa dator irugarren aldirian diru gabe eskatzera beste aneste gari, esaten diola, lotsa naizala nago, baño ekusirik zure ontasuna, nator zuri eskatzera beste lau anega. Ez det egingo len egin dedanik, itza eman, ta kunplitu ez. Baditut artzeeko asko, ta denpora gutxiren buruan etorriko naitzatu amabi anegaren diruarekin. Sinis nazazu; ematen dizut itz sendoa. Zer esango ziñoke onelako pagatzalle txarrari? Eman eskatzen dizun guzia ekusi ezkeren zeinbat bider engañatu zaiten? Zein gutxi! Esango ziñoke, zure itzak ta utsa, guzia da bat. Itz ederrak eskatzeko, ta pagatzeko modurik ez. Zuaz ordu gaitztoan; ekartzen ezpadidozu laster eramaen pagua, egingo dizut justizia: Ala ez da? Bekatuakin konfesatzera dijoanek eskatzen dio Jangoiko ofendituari barkazio osoa. Nola Konfesoaren ez dakian biotzaren berri, ematen dio Jaunaren partez absoluzioa sinisturik ematen ditzuen itzai; ondoko naiz dio penitentek, ez naiz berriz eroriko, aldegingo det erorteko okasioetatik. Zoaz pakean, dio bere aldetik Konfesoaren; kontu ez geiagoren geiago bekatutzetik. Dator berri ondu gabe. Ematen dituitz berriak. Dator ta dator irugarren ta laugarren aldirian emendatu gabe, ta beti eskintzen duela emendatzea. Onelakoen proposito ta itzai nork sinistea eman? Nork esan gezurti falso batzuek ez dirala? Ala dabilta bekatari asko bekatuen inguruan, jira ta jira

beti baten, geroago ta gaiztoago egiten ezpadira. Zakur janak atera edo trokatzen dituztenak bezela dio San Pedro Apostoloak, berriz jaateko. O Proposito ederrak! Zein ederki dion Dabid Erregeak onelakoak gatik; *mingañean gezurra dute, itz onak; ordea beren biotza urrutit dago, edo ez zuzena Jangoikoarekika*. Eta gezurtiak engaña lezakte Jauna? Eta arteko ote ditu biotz gaizto ta okerratik irtetzen den itzak? Eta iritxi barkazioa proposito geuzrezkoekin?

Jauna, nik ondu nai nuen Konfesoan itzak ematen nituenean. Neritzon neramala proposito, ta borondate ona.

Ona zer dion Espiritu Santuak; *Alperrak nai du ta nai ez du. Vult et non vult piger*: Nai du jan, ordea ez erein, ez sorroan nekatu, ez laurrak kendu ez otzik ta berorik igaro atxurlari beargain onak bezela. Nekeak atzeratzen du. Alperraren jannaia ez da sendoa, zindoa edo piña. Ala dira nagai alperrak kristau asko anzinako gauzeetan. Nai dute Zeruko; baño ez egin Zerurako bear danik ez nekerik artu. Nai dute bekatuen barkazioa ta dirudite nai dutela ondu, ordea ez dute ez ondutzeko ez barkazioa iristeko bear dan gauzarik egin nai.

Dira bada alperrak, ta nagaiak, ta beren nai izatea ez da zindoa edo piña, ta bai azal azalekoa. Ala Jangoikoak madarikatzen ditu, alper nagai egiten dituztenak bere obrak. *Maledictus qui opus Dei fecerit negligenter*. Au da borondatea osoz ez ematea Jangoikoari, ta irastea geiena bakatuari; itzak Jangoikoarentzat, biotza deabruarentzat. Da naiera on irudikoekin itxutzea beren animak, ta Infernura erortea ezagutu gabe bezela. Konfesatzen diranak gaizki ezaguera oso osoaz, beldurtzen dira badakite beren estadu gaiztoa, ta ezaguera onekin errazago da ondutzea, ta Konfesio berri ta damuzkoarekin biurtzea Jangoikoaren graziara. Baño ondo konfesatzen diralako begitazio, ta irritzi bidegabekoekin urbiltzen diradenak Komunio santura bein baño sarriago, ta bear bada urte osoetan, jaaten dute itxutxuan Jangoikoaren juizioa; ta nola jiratu beren biotza ondo konfesatzera? Ezagutzen ez dan gaitza, nola osatu? Bada bide bat, dio Jangoikoak, ona diru diana baño azken txarra duena. Onak diruditez askoren Konfesio oso ta ezar utzi gabeak; onak alakoen Komunioak, baño azken txarra dute, zeren Santo Tomas andiak dion bezela, proposito ta damu egiazko gabe egiten diran konfesio ta ondorengo komunioak dira sakrilejioak ezagutu dezakeanean bakoitzak ez daramala prestaera bear danik; ez ezagutzea bera dalako bekatu berria. Ordea zer gertatzen da? Bizitza onean ta bekatu mortalik egin gabe urte osoak igarotzen dituztenak beldurtzen dira; beti daude ikara bezela ote daramen egiasko Propositorik; eta bekatuen ertuedan jira ta bira dabilzanak gaur konfesatu, laster bekatuatu



konfesio baño bekatu geiago egiten dituztenak, ez dira beldurtzen, ez dute lorik galdutzen, bizi dira konfianza ederrean. O itxutaxun kaltegarri anima asko Infernura daramazana!

Ona emen argibide zuzena ekusteko, nola alako jaiki ta erori, konfesio ta pekatu dabilatzatenean propositoak diran argal, ta ez sendo benetakoak. Gauza bat biotz onez edo sendo nai danean nekatzen da burua, ta egiten dira dilijenzia andiak alkanzatzeko. Zer egiten ez dute ogia ta dirua irabazi nai dutenak? Largatzen dituzte aide ezagunak erriak; sartutzen dira Onzi baten Itxaso luzeak igarotzeko bizitzako arriskoarekin. Jaana laburra, lo gutxi ta beldurrezkoa, otza ta beroa aldizka txit andiak. Oroituko dira; Itxasoak zenbat irenzi dituen arraitzarren janari izateko. Azkenean Indietara elduta, ez dute an pilloka dirua arkitzen. Nekatu bear dute tratu andietan ta asko gelditzen dira ezer irabazi gabe, edo onik onean guziak galduta. Zerk egiten du ainbeste burukomin ta neke artzea? Dirunai sendoak; borondate benetakoak. Gaisotzen diranak artzen dituzte edaari mingoitza ta iguigarriak ta bein baño geiagotan barberen eskuetatik aragiak ebakitzea. Osatu nai, ta osagarririk artu nai ez duenak garratz ta mingoitza diralako esesioz, ez du benetan osasunik nai. Nekazaleak, zenbat arazo ta lan ogia irabazteko? Olagizonak surtan erretzen bezela dabilza; lo gozo gabea, gaua ta eguna orobatekoak, nolako izerdia ematen ez dute? Atxurlariak, Ikatzgiñak zenbat zer egin neke andiko? Zerk egiten du? Borondate sendoa dutelako ogia billatzeko. Orain bada, zer da gauza bearragoa lurreko diruak, edo Zeruko aberastasun betikoak? Korputzeko osasuna edo animakoa? Emengo ogia, edo Jankoikoa bera gozatzea? Nola dira bada lurrean gizonak ain begiratuak, nola ain sendoak beren bizimodu ateratzeko; ta ain epel, nagi ta arretagabeak animako gauza ain pisukoetan? Nola bekatuan ez erorteko ain otzak, ta kontu gutxikoak? Nola? Ez da bururik ausi bear igarteko. Ez dute proposito sendo ondutzeko ta onean irauteko ta onean gogo bizirik artutzen. Au da guzia. O lotzatzeko gauza! Milla bider neke geiago artu bearrean animako osasun ta betiko salbazioagatik korputzekoagatik baño, askoz gutxiago egiten da. Nai dezu enzun Eskritura Santako gertaera bat? Ona amen. Arkitzen zan Naaman zeritzon Jaun andi bat ezkabi loi ta gorputz guziko batekin inola ere osatu ezin zutela Medikuriak jakitunenak. Esan zien osatzen zituela txiterraz gaitzmota guziak Elisea Profeta Santuak. Osatu naiz jarri zan bidean ta bide luzeak eginda, eldu zan Profeta andi miragilla au zegoon errira. Eskatu zion osa zezala. Zoaz bada, eranzun zion Eliseok, Jordango Ibai-
ra, ta garbi zaite zazpi aldiz. Enzun zuen agintza an bekoki ilunnarekin, esaten zuela; zer? Eztaude gure errian edo inguruan emen baño Itai ur

obeugokoak? Zertako egin ditut nik anbeste bide? Ta zijoan Profetak agindu ziona egiteko gogo gabe. Esan zion bere morroe batek, Jauna, gauza andi, neketsu, ta gogorren bat agindu balio Jankoikoaren gizon ark, egin bear luke berorren osasunagatik. Ordea agintzen badio gauza ain erraza; nola dan garbitzea korputz eritua zazpi bider, zergatik egin ez? Ezagutu zuen arrazoa Naaman Jaunak, garbitu zan Profeta Santuak agindu zion bezela, osatu zan, korputz guzia garbi garbi gelditzen zitzaioa. Nolako erakeria izango zan neke apur bat ez arteagatik biurtu balitza bere errira osatu gabe? Orain bada edozein kristau animako osasuna billatu nai duenari esan bear zaio arrazoi ber bera; Jesu-Kristok aginduko baligu gauza guziz gaiz ta gogorra animako ezkabi gaitzotik garbitua gelditzeko; agindu baligu esatea bekatuak itxusunak Eliza baten jende askoren aurrean, urte guzian ur ta ogi utsekin barautzea, korputz guzia zilizi inguratzea, lur gogorraren gañean lo apur bat egin, ta gaua gero orazioan igarotzea, egin bear geneke animako osasun, ta betiko salbazioagatik. Santu askok egin duten bezela. *Si rem grandem praecepisset tibi Propheta &c.* Baña gauza errazagoak agintzen badizkiguz, zergatik egin ez? Ez digu agintzen agertzea bekatuak, baizikan ezkutuan gordeko dituen Sazerdoti bati; ez digu agintzen urte guzian barautzea ur ta ogi, baizikan urteko egunen batzuetan orrelako gogortasun gabe; ez digu agintzen lur gotgorraren gañean ta ordu gutxian lo egitea. Zer bada? Negar egitea Jangoiko ona ofenditua, ez aurrerakoan bere lege santua ausitzea, ta ausi ez dezagun larragatzea bekatuko lagunak, okasio gaiztoak, ta kontu idukitzea gere animarekin; eta ez egin? Animak orren gutxi balio du? Gure salbazio, edo kondenzio betikoa ardura gutxiko gauza da? Bekatu bakar bat baño egin ezpagendu ere, biritza guziko damu ta negarrekin barkazioa eskatu bear genuke; dio San Agustinek. Nola bada uste degu propositu argal, igarokor, frutu onik ez dakarrenarekin iritxi parkazioa, edo egin konfesio ona? Nondik dator berriz sinistea nolanaiko propositoa asko dala ona egiteko?

Ezagutzen ez dalako bekatuaren pisua, ta zer dan konbersio edo biotzeko aldatze osoa.

Santo Tomasek dio bekatari bat graziako bizitzara igarotzea obra andiagoa dala Zeruak ta Lurrak egitea baño, ta Jangoikoarentzat gauza gaitzik ezpadago ere, dirudi gure aditzeko moduan, geiago kostatzen zaiola bekatuko eriotzatik graziako bizitzara aldatzea gizona, beste gauza guziak egitea baño. Jangoikoak egin zituen gauza guziak bere esan edo aginduz beste gabe. Esan zuen, egin bidi Zerua, egin bidi lurra, egin bidi argia, ta beste gabe Zerua, Lurra, ta argia egin ziran. Zenbat bider esaten du Jankoikoak, biur zaitezte nigana biotz guziarekin, ta gizon gogorra gel-



ditzen da bekatuan? Zenbat inspirazio ta argi ematen diozka bekatari askoai, ta orregatikan au beti lengoa?

Jesu-Kristok txit erraz piztu zezakean Lazaro difuntua; ordea zenbat demonstrazio agertu zituen piztu baño lenago? Egin zion orazio bero beroa Aita Eternoari, eman zituen bere begietatik negar malkoak askaezazi zituen difuntuaren lokaarriak, artu zuen espiritu edo biotzeko ikara andi batek, ta esan zion ez edonola, ta bai deadarrez *Lazaro, irten kanpora*. Onenbeste demonstazioren ondoan piztu zan Lazaro. Elizako Erakasla Santuak ekusten due Lazaro difuntu atsituian bekatu mortalarekin illda dagoan anima, zeñek ematen dion Kristori ikara andi bat, atera erazitzen diozka negarrak, ta konbertitu edo piztutzeko graziako bizitzara egiten diozka bere Aitari erregu, edo eskaariak. *Ipse interpellat pro peccatis nostris*. Jesu-Kristok beste mirari andiak zein erraz egiten zituen! Orain bada, nola sinistu dezakegu bekatuetatik konfesiara, konfesiotik bekatuetara, edo oitura txaarretan sarturik daudenak piztu ta ill, ill ta piztu dabiltzala, edo konbertitzen dirala egia Jankoikoagana beren konfesio ondutze gabeztan? Zer? Kristauaren anima izango da hostatu idiki bat gaur deabrua artekeko, biar Jankoikoa; etzi berriz deabrua etzi damu Jankoikoa, urte guzian, edo osoetan aldizea dabiltzala deabrua ta Jankoikoa? Nork sinistu naaste betiko au? Ala bada proposito iraute laburrekoak, ta sarri utsematen dutenak ez daude anima barrenean, ez dira sendo ta eragillak, ez zindo edo piñak; ta bai ezpañ utzekoak, edo biotz gañekoak, eta falsoak. San Agustinek dio, proposito ezta-baidakoak, gaiso, argal, edo indargabeak, ta batera ta bestera dabillen borondatik irtenak, ez dirala penitente egiazkoarenak. Bear dala nai izan sendo ta osoro. *Velle fortiter, et integre*: bear dirala urratu eragozpen ta katea guziak irtengo bada deabruaren Karzela, edo Presondegitik.

G. A Jauna! Gizona da erorkorra, argala, ta milla etsaiz inguratua. Nai izanagatik, proposito sendoa idukiagatik buirtu liteke bekatara. Ala bada egon diteke proposito sendoa, ta egin gero barkatu.

E. Egia batekin estaldu nai dituzte kristau askok beren bekatu ta konfesio gaiztoak. Gizona erorkorra da, argala da, milla etsaiz inguratua. Ordea Jangoikoaren grazian jarri danean konfesio onarekin ta alde egiten bada bekatuaren okasio gaiztoetatik, nolako indarra artutzen ez du animak garaitzeko etsaiak? Nola kristau berez argal askok irauten dute bizitza onean urte osoetan, ta egin obra on asko? Zeren indartzen dituen Jangoikoaren graziak, ta grazia artu zutena geitzeko, egiten dituzten gauza on asko. Ordea, zer egiten dute proposito argalekin konfesatzen diranak? Egin bearrean gero alegin guzia irauteko bide onean, ebaki bearrean pasio

gaiztoen sustraiak, egin bearrean orazio jarraitua tentazioan berriz erori ez ditezen, bizi dira lasai lasai munduko atseginen atzean, etsai gaizto oni beldurrik izan gabe. Len bezela dijoaz bulla guzietara, lengoak adiskideak, konbersazioak, ta ebilmoduak. Artu balio gorruto bekatuari, artuko zien bekatara eraman dezakeen okasio guziaz ere, ta gordeko lirake oetan sarzteetik. Magdalenaren Propositoa sendoa zala nondik dakigu? Larga zituelako bekatu bide ta lagun guziak, ta leen amoreta zien gauza guziaz gorroto artu zielako. Eta iraungo zuen luzaro Jangoikoaren amorioan biurtu balitza negar egin ondoan bere lengo lagun, adiskide, ta munduko nasaibideetara? Laster galduko zuten ta sartuko zan bekatuen zikintzan. Berriz buirtu balitza Jesu-Kristogana bekatu eginda, ta urte guzian ebilli, batzan munduko adiskideetera, bestean Kristoren oñetara negarrez, zer esango zan? Bere negarrak, ta bere propositoak zirala sendoak? Zein gutxi! Jesu-Kristok amorez artu zituen bakatariai ematen zien enkargua zan ez berriz bekatu egiteko. *Noli amplius peccare*. Ala esan zion Adultera kastigutik libratu zuenari eta gaitz andietatik osatu zuen bati ere esan zion; ez ezazu geiago bekatu egiteko, gerta ez dakizun gauza gaiztoagoren bat.

G. Zein da bada Proposito egiazkoaren ezaubide, izargarri edo seña-lerik onena?

E. Aurrera eramatea bizitza ona, ta au eramateko edo onean irauteko artzea bitarteko sendoak. Propositoaren ontasuna ezagutzen da, dio Santo Tomasek, egite edo obra onetatik. Zertako dira Santuen esanak, estalki gabe badio Kristok, ezagutuko dituzu beren fruetatik? *Ex fructibus eorum cognoscetis eos*. Nondik ezagutzen da Arbola bat ona edo txatarra dan? Arbola onak ematen ditu fruta onak; txatarrak, txatarrak. Konfesio asko egiten dira, ta urte bata beste dirudi. Zenbat gaiztakeria ekusten ta enzuten diranak? Eta zenbat geiago ekusten ez diranak? Zer esan bada frutu ain gaiztoak ekusita? Proposito gezurrezko asko dala.

Proposito egiazkoa izan duenaren seña-leak dira konfesio ondoan ta geroko denporetan ere egotea beti ikara ta beldur santu baten; gau ta egun Dabidek bezela negarrekin animako bazkari ta afaria billatzea; lotsatu ta buruz bera bezela ebiltea Jangoikoaren aurrean bere bekatuen belztasuna ekusita fedeko begiekin, ta damu ematea besteen bekatuak ere; eman nai izatea Jangoikoaren Justiziari bere gaizki egiñen ta animako zoorren satisfakzio, edo lema osoa.

Proposito onaren seña-lea da irauteko bide onean artzea Konfessorerik onena, bere esan edo obediendiaren bean jarraitzeko sarri konfesatzeari, orazioko lan santuari, korputzeko penitentiari aragiari indarrak



kentzeko: Jangoikoak bialtzen diozkanean atsakabe, edo gaitzen batzuek, Job santuak, birtute andien arteko bekatu txiki txixi batzuek gatik bezela esatea. *Egin det bekatu, ta artu ez det bear nuan besteko kastigua.*

Proposito onaren señailea da bekatu txikietan ez erorteko kontu edo ardura, ta erorten danean bereala damutzea, ta penitentiakoren bat laster egitea; da Jangoikoaren amorean aurrerau nai sendoa, ta sugearen arpegitik bezela iges egitea bekatuko okasio, lagun ta bide guzietatik. Oek dira frutu onak. Baña bekatuen konfesioa eginda ebiltea munduko alegriarekin beldur santuak irauten ez duela; ebiltea Konfessore lasai ta guzia igaroko dutenen billa, edo batetik ta bestera oitura zaarren barri jakin ez dezen; Jangoikoaren amorearen atzean ez ebiltea, ta bizi izatea pena gabe egin zituen bekatuak gatik? oitura txarrak kendutzeko bitartekoak ez artzea, ta eramatea bizitza aragiaren eregatzalea jan edan, ta dibersioetan biotza ipiñita dadukala, da proposito itxura utz edo zirimoniazkoaren señailea. Oek dira frutu gaiztoak. Beraz arbola txatarretik irtenak.

G. Eta zer egin bear du señaile txarreko proposituekin konfesatu danak salbatu nai badu?

E. Egin konfesio gaiztoen señaileak dauzkeen berristazio edo konfesio jeneral garbi ta damu andiko bat, ta aurrera eraman bizitza frutu onak dakarzkiana. Ala izan didilla.

ERAKASTE VII.

Nola egiazko Propositoa dan guziz gaitza ala bizitza, nola eriotzako egunetan oitura txarretan sarturik daudenetan

Erakatsi da igaro dan doktrinak zer dan Propositoa, ta nondik igarriko dan bere sendotasun, ta argaltasuna; ordea ekusi bear da, zein gauza gaitza dan bizio edo oitura gaiztoetan sarturik daudenetan.

G. Nondik dator bekatariak egotea beldur gabe beren bizitza gaizto ta guzti ere?

E. Dator begitantzen zaielako Konfesio on batekin noiz edo noiz irixiko dutela bekatu guzien barkazioa, ezagutu bearrean geroago ta gaitzago egingo zatezela biotza onera jiratzera.

G. Beraz erakeria andia da asmo onelakoa?

E. Bai ta nola ere dan. Nor da bere bizitzaren jabe? Nork dauzkaz eriotzaren giltzak? Jangoikoak. Nork neurrian ta mugatuta ipiñi ditu egunak? Nori ematen dio Jaunak kontu, noiz izango dan bizitzaren azkena? Eta artzen bagaitu eriotzak uste ustekabe beingo batean ondutzeko asmo soil ta eroekin? Geroko Penitenziako Propositoak salbatuko ote gaitu? Datorren urtean bilduko dan gariarekin jango degu aurtan? Infernua beteta dago Proposito onez, dio San Bernardok. Kristau gutxi dira Judas bezela ernegatuta galdu diranak betiko: geienak kondenatzen dira salbatzeko esperanza bidegabeekin. Geiago. Espiritu Santuak estalki gabe dio, gaiztoen egunak laburtuko dirala; gabaz lapurra bezela etorriko dala eriotza. Beraz luzabide eroekin ta bekatuak bekatuei geituz ipinten dute kristauak anima inoiz Penitenziarik ez egiteko arrisku edo peligro ezagunean; ta Proposito utsekin salbatuko ez da.

G. Baña osasuna ta entendimentuko argia egon ezkerro noiz nai jiratu edo biurtu diteke bekatariak gogorrena, ta nola guziak iltzen ez diran itoka ta beingoan, uste det salbatu.

E. Arrazoi eroa bailo gaiztoagoa eman dezu. Baziñaki zein gaitza dan oitura gaiztoan sartuta daudenen egiazko biurrera edo konbersioa, etzenuke alako gauzarik esango. Osasun onak ez du ematen Penitentzia, ta bai geienez atzeratu gizonen gaiztakeriaz. Berriz nork esan dizu gero noiz nai zuri otu edo antojatzen zatzun egun edo orduan, nai det esan ta beste gabe zure anima jiratu ta aldatuko dala beingoan bekatutik ta graziaza?



Konbersio egiazkoa ez da gure alegin utsakin egiten; bear digu lagundu Jangoikoak bere miseriakordia ausilio santuakin. Nola ateratzen ditugu kontuak? Itxaran dezala Jangoikoak ordu onean gu bekatuz aspertu artean. Gogait egitt dezagunean bera ofenditzez, munduak ezertako nai ez gaituenean, datorrela Jangoikoa gure billa, ta nai ta ez bezela eraman gaitzala beragana; orain nai gaitu beraganatu; deitzen gaitu; guk ez degu enzun nai bere dei amorezkoa. Ordea guk nai degunean, guk deitzen degunean artu gaitzala, obligatua balego bezela guri obedezitzera, ta ez gu berari. O itxutasun galgarria! Atoz ona. Oituta ez dagoan bati erloju bat egitera obligatu nai bazenu beingo baten, zer eranzungo lizuke? Ikasi ez duela ofizio gaitz ori, ta eskatzen diozula ezin dezakean gauza bat. Bada nola beingoan ta noiz nai egingo ditu biotzeko akto kontrizioak egitera oituta ez dagoanak? Nola ondo egin orazioa oitu ez danak? Eta nola, eskatu gabe bear bezela, iritxi Jangoikoaren laguntasun sendo, ta portitzak aldatzeko bekatutik graziara, edo animako eriotzatik bizitzara? Bekatuak geitzea, konfesio txarrak egitea, da merezimentu ederra biguntzeko Jangoikoa? Non ikasi dezu onelako doktrina? Baña demagun etzaituela largatzen Jangoikoak zure borondate gaiztoaren atzaparretan; gero ta gero ere deitzen zaituela grazia edo auxilio pizkorrekin, bakerik arkitzen ez dezula zere bekatuetan konzienziako ikara ta kezka andiekin eman nai dizula Jaunak beraganako bidea bekatuena utzita. Jarraituko diozu bere deiari? Elduko zera bere besoetara bekatuen damu andi batekin! A, ta nola beldur izateko dan gogortuko zerala, ekusi naiko ez dezula argi santua, ta despreziatuko dituzula Jangoikoaren dei amorosoak, ta illko zerala bekatuan beti konbertitzeko Proposito argalekin. Ez orain, ez orain, eranzungo diozu; bai gero. Eta gero au noiz elduko da? Geroago gogorrigo, ta azkenik paketuko zera konzienziako arrarekin, ta iges eginik Jangoikoaren argiari, ebilliko zera bekatuaren pean, ta joko dezu Infernuko Leizan, nondik irtengo ezin dezun. Sutegitik aten berria dan burnia, biguna dago: mallukarekin dator edozein molde artzera. Ordea oztu ezker, gogortzen da, ta mallukariak ezin du besterik, ezpada nekaku alperrik burua. Bekatuan berriak diranak beldur errazak dira geienez, ekarri ditezke gauza onetara, artu oi dute txit sarri proposito sendo ta egiazkoa. Ordea bekatuetan zartu danak, urteetan gaztea izanagatik, oitura egin danean bekatua, alako moduz gogortzen dira, ezen galtzen dute Jangoikoaren gauzeetarako gogo guzia, ta ontzeko beren Propositoak dira gezur garbiak. Baratz zaitzen duen Zakur andiak, ekusten badu urrutitik ezaguna ez duena, irentse nai du; ordea etzeko ezagun, edo kanpoko sarri ekusten dituztenai, ez die gaitzik egiten, ez da zauka bat ere, bai jolas ta jostatzeak. Ala

bada lenbiziko bekatuetan konzienziak egiten die zauka, ito nai ditu, ez du pakerik arkitzen. Konfesatu bear det bereala, dio animak bere artean, txikitzen du burua negarrez. Baña bekatuekin ezagun egiten dana, etxekotu dana, maiz edo sarri konfesatu dana ondu gabe, bekatuekin dabill gero pestan, jolasetan; ta beldur guzia galdurik ez du proposito egiazkorik, zeren ondutzeko asmo ta gogo guzia galdu zaion. Espiritu Santuak lujuria edo aragiaren bekatuetara oitu diranak gatik argiro dio; Ez dute Jangoikoagana buirtzeko gogorik edo proposito egiazkorik artuko, zeren beren erdian edo anina barrenean, sarturik dautaten lujuriako espiritua. *Non dabunt cogitationes suas, ut revertantur ad Dominum, quia Spiritus fornicationis in medio eorum.*

Eta egia esateko, nola Jangoikoaren mirari andi gabe ezi aragi atsegin gaiztoetara emanik dagoana? Tabakoa artuttera oiturik dagoanari, guziz gaitz egiten zaio ez artzea. Berez tabakoa artzeko inklinazio, edo griña ez dator gere naturalezatik. Ekusten dira txit asko artu nai ez dutenak, ta gorroto ere ematen dienak: tabakoa artzen dutenak lenbiziko aldietan, ez die atseginik artzen, ta erraz utziko luke; ordea artara oitu danak, urte osoetan sudurrak autstu dituenak, nekez utziko du, ta egun baten palta bazaio, biotz triste edo illunarekin ebilliko da beti bere Tabakera, ta tabakoa gogoan dituela. Nork esan lezake ain kendu gaitza dala bizio arin au, ta zeñetarako ez duen berez gizonak inklinaziorik? Baña ala da. Zerk egiten du au? Egiñak, edo artara oituak. Orain bada, zenbat eragozpen izango ez ditu gizonak kendutzeko aragiaren bizio eraskor, ta naturaleza gaiztotik datorrena artara emana bada? Nola erraz ezi edo bezata aragi bekatuekin uzutua? Nola lotu begi oitu diranak ekustera amore gaiztoz adiskide bekatukoak? Nola mingain noizetik noizera, ta sarri gozatu diranak esatera itz ta kanta loi zatarrak, egongo dira izkune txatarrak atera gabe? Nola beste atseginik iduki ez duenak baizik ebiltzea danza gaiztoetan, artu gorroto olgantza kaltegarriak? Nola eduki geldi oratze ta tokamentu loietara ekandu edo oiturik egon diran eskuak? Pasio oiturazko gaizto bat garaitzea bada ain gauza gaitza, nola garaitu sentidu guziekin egin dituen oitura edo usuario txatarrak? Nola garaitu anbeste etsai gaizto? Orazio bero, negarrezko eskaari Jangoikoari egindakoakin? Ordea ezta anima gaizkira obendu edo oituak atseginik orazioa egiteko. Gorputza ezi ta mankatuaz penitenziakin? Baña gorputz atsegin gaiztoetara emanak, gorroto dio penitenziari. Erakurriaz libru Santu ta egia beldur gabe esango dienak? Baña ezta gusto edo gozorik alako libruetarako, ta ezin bestez. Ala arkitzen da anima abere bat eginda gauza on guzietarako atzeratua, bakarrik arkitzen duela atsegiña aragiaren gusto zikiñetan,



bekatuena pisuaz obendu ta makurtua, begiak Zerura gogoz erakoritzen ez dituela. Nolakoak izango dira onelakoen propositoak? Nolakoak oen Konfesioak?

G. Dirudi eztagoala zer eranzun arrazoi ain argietara; ordea ekusten dira bekatueta oituak ere, denpora apur baten zerbait onduak. Pazkoaz konfesatu, misio bat enzun, ejerzizio batzuek eginda, egon oi dira bizitza on bat daramelako estalkiaz.

E. Ongi diozu. Badirudite zerbait onduak; ordea ez dira animan obeagoak. Ez dituzte urratzen bekatuena sustraiak, ez ebaki arbola gaitztoa, ta bai adarren batzuek inausi. Egun gutxiren ondoan ekusiko dira erro berriak, janziko da arbola bear bada adar andi ta sendoagoakin. Bide luze baten sartu danak, atseren bear du zerbait; ta atseren an ez da bidea largetzea, ta bai indarrak ta arnasa artea aurrera ibiltzeko gogo sendoarenkin. Ala bada ekusten balira bekataria zaartu asko garizumako, ekerzizio ondoko, edo misio osteko egunetan buruz beera bezela, bekatuko bidean aurrera ez dijoazela, ez sinistu utzi diela guziz bekatuko bideari; arnasa artzen dute, atserretzen daude ta jaikiko dira fite edo laster jarraitzeko gogo berri ta sendoakin leengo bide gaitztoari. Amabost egunean bekaturik egin gabe, gogait bezela egin dutelako bekatuko bidean, *lassati sumus in via iniquitatis*, ta gero urte guzia Jangoikoa ofenditzen. Jangoikoari zor die-nak bizitza guzia, daramez egunak asteak, illak ta urteak bekatuari egun baten ere guziz larga gabe, oñean sendo dadukelako bekatuaren iturburu. O negar egiteko gauza! Eta zer gertatuko zaie? Indartuko dira pasio gaitztoak, gogortuko da biotza, ta geroago ta gaitzago Jangoikoagana biur-tzeko proposito edo gogo egiazkoa.

G. Nai nituke enzun irudi edo konparazio onen gañekoak.

E. Ona amen. Aurtxoak, edo jende gazteak txit erraz, ta ederki ikas-ten dituzte itzkerak. Lau edo bost urteko mutiltxo bat badator Gaztelatik Euskalerrira, laster ikasiko du euskera, ta ebakiko ditu itzak guk bezela, ta aztuko zaio erdera baserri baten azitzen bada. Baña badator berrogei urteko bat, bearko du denpora luzea, ta ikasten duena ere, ez ondo. Beti izango da ezaguna. Ekusi ditut nik erdaldun andi urte asko eginda ere, ezer ikasi ez dutenak. Mingaña egiten da molda gaitza ta gogorra betiko erderarekin. Landaratxo gazteak oker badatoz ere, zuzen errazak dira, ordea arbola lurrean lodituak, ausi ditezkez, baña ez zuzendu okerrean ondo azi ta sustraitu badira. Ibai txikitxo bat igarotzen erraza-da, berriz ez ujolak jaiki badira. Ala bada, nola uste dute ikasi ta artu birtuteko bidea, bekatueta zaartu diranak? Nola zuzendu konfesio proposito egiazkora

urte osoetan bekatuena gogortu ta sustraitu diranak? Nola igaro erraz Penitenziako Ibaia bekatuena ujol andiekin azi bada?

Bai kristaua bai; bekatuena iltze sartu berria atera diteke erraz, ez ordea bekatuakin mallukatzen badezu, dio San Krisostomo andiak. Peka-tu egin berri bat konfasatzean lotsatzen dira asko. Baña nolakoa izango ez da lotsaren indarra Konfesio gaitzto asko egin badira beldurrez estalduta? Nork atera iltze ain mallukatua? Lenbizikoa bekatuena bera agertzea asko zan, baña gero agertu bear da bekatuena bera, ta lotsazko konfesio gaitzto guziak. Eta zenbat gaitzako da au? Maldizio edo birao astunak asieran kentzea etzan gauza orren gaitza; baña itzkeria infernuko onetara oitu diranak, ez dute beste doktrinarik beren esturasun guztietan, ta nola ezta-kitela ere irtetzen die aotik. Gorrotoa kentzea, ta etsaiarekin bakean jar-tzea, ez ta orren gauza gaitza lenengo asieran edo aserre ondoan. Baña gorrotoak sustrai andiak bota baditu, milla benganza nairekin naastu bada, nork atera iltze ain sartua? Gauzaren bat ostu danean, kalteren bat egin danean, edo irabazi txaarren bat, erraz da buirtzea; baña iñoren gauza aragitu bada, ta etxekotu, nork atera iltze gogortua. Nola min andi gabe atera? Amorio loi bat urratzea asi ta bereala, ez da gauza txit gaitza: baña amorio ura luzatu bada, nork atera? Nola bigundu alako biotza amo-rio gaitzotik Jangoikoaren amorio ederrera? Ez milagro txit andi gabe.

G. Baña gezur andia da deabruak kristau askori siniserazitzen diena; au da gerora aldatuko zaiela biotza onerako, proposito sendoak egingo dituztela aragia makaldu ta indargabetu didinean?

E. Bai bai, ta nola dan gezur andia. Ona zer dion Jeremias Profeta Santuaren aoz gezurrik esan ezin dezakean Jangoiko ber berak. Gaina eraatsirik dadukana, noiz osatuko da! Noiz largako dio gaizki egiteari? Etiopie beltzak narrua, edo azala zuritzen edo aldatzen duenean; edo Leoipardo edo arreak aldatzen dituean bere kolore edo mantxak. Mauru beltz batek nola zuritu bere arpegnia milla urekin ere? Nola katu arrea txuritu? Ez Jangoikoaren milagro andi gabe. Ona bada, zein gauza gaitza dan zuritzea bekatu asko ta oiturazkoakin beltzitu dan anima. Bear da Jangoikoaren milagro andi bat, ta milagroak gutxienak dira. Zori gaiz-tokoak milagroetan salbazioa ipiñi nai dutenak. O itxutasun ezin esane-koa! Beste gauza guztietan ezagutzen da asieran erraza dana, gaitza dala gerorakoan. Gorputzeko gaitzetan esaten da, asieran bear dala erremedio, edo osakarria, berandu etorriko dala gaitzak indarrak artzen badira. *Iru soka alkarrekin buirtuak nekez urratzen dira*, dio Espiritu Santuak. *Funiculus triplex difficile solvitur*. Zenbat nekezago amar edo amabi orapillotuak? Zenbat gaitzago izango da bada bekatuena orapillo lodi bat urratzea? O



zein nekez datozen Jangoikoaren bidera biotz berri batekin, bekatuetan urteetan irauten dutenak! *Gazteak geinez ez dio zartuta ere utziko bere bidea-ri.* Oek dira Espiritu Santuaren itzak. Borondatea lengoa izango du agerian agertzen ezpada ere, gaztetan bezelakoa. Ezpadiaz pesta ta danza gaizto edo peligrasoetara, emango die aurrera pena gazteai joan ditezen, ta egongo dira parrez gazteen nasaitasunak ekusita. Ezpadabiltza eskuka loietan, esango dituzte itz berde, zatar ta anima askoren galgarriak. Egongo da buru ille murrutu edo zurituarekin, ta porrua baño ezeago ta berdeago biotza ta ezpañak. Ala enzuten zaie esaten, gazteak berenak dituztela egunak; berak ere ala oi zirala ta ez diela jaramon bear Sermonginen deadarrai; jarraitu bear dirala anzinakoen olganza edo dibersioak. Zertan dago au? Gaztetan uste da zaartzako egunetan artuko dala birtuteko bidea, ta zaartzako dabilta nasaitasunak alabatzen. Baña zer izango da? Azeri gaizto oek beti dute berekin usai txaar edo kiratsa, ta zaarrago geiago.

G. Ez nuen sinistuko orren gaitza zala Jangoikoagana biurtzea amildu ta jaiki, ta bizia gaiztoetan sartuta daudenak.

E. Ona bada sinisgarri geiago. Eldu zan bein Jesu-Kristogana txit estu ta larri gizon bat, zeñek eldu zan bere Semea gaizkindua, ta esaten dio; Jauna, eraman det nere Seme au zure diszipuluak gana osatuko dutelako ustearekin, ta beren konjuru guziekin ez dute ezer egin; sendo daude espiritu gaizkiñak, ta ez dute irten nai izan. Atoz ona, esan zion Jesu-Kristok, ta noiztik onakoa du gaitz ori? Noizkoak ditu berekin gaizkinak? Aurra zanetik onakoa, Jauna, eranzun zion gizonak. Zertako zan galdezte ura? Ezaguerazitzeko, gaitz zaarrak ez dirala osatzen edonola: bear dala Jesu-Kristoren konjuroa; bear dala milagro andi bat. Galdetzen bazaie konfesatzera datozen kristau askori, noizkoa dan itz gaiztoak esateko oitura: noizkoa gogorazio zatarretan gozatzeko kostunbre edo ekan-du galdua; noiz asi zan zikinkerriako bekatuak egiten? Eranzungo dute egia esatera, umetatik asi zirala eskola gaizto artan; zazpigarren urtean sartu orduko asi zirala loikerriako bekatuak egiten, zaitzen, edo beintzat bai egin nai izaten. Gero zerbait azita ere jarraitu ziela oitura gaizto aurtezako egunetan artuak, ta buruko illeak adiña bekatu egin dutela pensamentuz, itzez, ta akzioz. O zein gaitz zaarra! Nola osatu? Nola egiazko proposito sendoa artu birtutea amatzeko ta gorrotatzeko bekatua! Asko dira Sermoigilla, ta Konfesoren konsejuak, edo konjuroak? Arrizkoak dira beren biotzak, deabruak posesio luzea du, ta Jesu-Kristok mirari andi bat ez egitera, biotza lengoa izango da, ta iraungo du borondatea aldatu gabe eriotzaraño.

Baña ona Ebenjelioko bigarren ejemplo izugarriagoa. Gizon bat libratu zan Infernuko gaizkin loi edo txikinetik. Ekusi zanean Infernuko etsai loi ura bere etxetik aterata, zebillen basamortuan atseren edo deskansurik arkitu ezinda. Esan zuen alako baten, biurtuko naiz irten dedan etxera. Buirtu zan, baño nola arkitu zuen grazias apaindua, etzuan sarre-rarik izan. Zer asmatu zuen? Joan zan lagun billa, ekarri zituen berekin bera baño gaiztoagoak ziran beste zazpi Espiritu infernuko. Egin zien guziak gizon ari batak batetik besteak bestatik; garaitu zuten, eragin zien bekatu, ta galdu erazi grazia; sartu ziran zortzirak gizon triste aren animan, ta gelditu zan lenengoan baño gaizkiago; len infernuko batekin; ta bigarren bekatu aldian zortzirekin. Orain bada, nola atera zortzi espiritu gaiztoak? Non da gure fedea? Oek ote dira ipui engañatzeko asmatuak, edo Kristoren esanak? Nola geldituko da bada anima bekataria urte osoetako konfesio ta bekatuen nasteakin, bigarren bekatu edo erori aldian anbeste Infernukorekin arkitu bazan aitatu degun gizona? Nola sendotuko ez dira? Nola gogortu ez, irauteko beren etxean anbeste denporako posesioa iduki ezker? A, ta nola dan gezur andia geroago ta errazago dala artzea proposito egiazkoa, edo Jangoikoagana biurtzea. Bekatuak bekatuak geituta egiten da katea lodiago ta sendoagoa, ta anbeste neke ematen dienai bekatu bat edo besteren kate mea urratzeak, nolakoa emango ez die kate lodi lodia urratzea? Geroago ta borondatea gogorrigo, geroago ta Jangoikoa aserreago, geroago ta deabrua indartsuago. Nola bada buirtu egiaz uste dan bezein erraz? Baña ez naiz aspertuko eguzkia bezein argia ipiñi artean egia au, San Jeronimok kontatzen digun gertaera onekin. Zegoan bein Arsenio zeritzon Anakoreta edo Erumutar santu askoren Maisua zana mendi gelan, ta esan zion Aingeruak, irten ezazu, Arsenio, ortik kanpora, ta nik erakutsiko dizut gizonekin gertatzen dana. Irten zuen, ta bai ekusi ere gizon bat basoan egurra egiten. Egin zuen karga galanta, ta asi zan lepura jaso nairik; ordea nola egur karga bere indarrak baño andiagoa zan, ezin jaso zuen. Ezarri ziozkan egur berriak len jaso ezin zuen kargari, leiatzen edo dendatzen zan berriz karga lepura jasotzen; ordea alperrik. Zegoan Arsenio arrituta esaten zuela, gizonaren eroa, jaso ezin egur karga, ta ezarri egur berriak? Geitu, asi ta astundu geiago, ta tematu jasotzen karga? Etxekian Arseniok zer esan nai zuen ekusmen ark, ta esan zion Aingeruak. Orra gizonen erakeria. Dabilta Infernurako egur kargak egiten bekatuekin, batzuek lujuriako basoan, beste batzuek iñoren ondasunekoan, asko honra txarra deritzekoan, ta txit asko beste baso bekatuzkoetan. Nekatzen dira jaso ezinik karga gaizto ura. Zer egiten dute? Azi karga, astundu, bekatu berriak leengoai eza-



rrita. Abiatzen dira bekatu bati bestea geitzen, amarri ogei, ogeiri berrogei. Arnasa apur bat artzen dute bekatuen bekatuz gogait egin, adikatu edo kansatuta. Berriz abiatzen dira bekatuen karga geitzen. O nolako karga! Zein astuna. Indarrak gitxitzen dira, ta geitu karga? Nola erraz jaso? Len bekatu gutxirekin artzen ezpazuen konfesatzeko proposito sendorik, nola bekatu askorekin errazago artuko du? Ikaratu zan kristau bat pensamentu gaizto zatar leku eman bat agertzen; zebillen nola esan etze-kiela, bear bada billatzen apaindurik edertzeko ta utsera joerazitzeko. Nolako ikarak artuko ez du pensamentu bati geitu badiozka deseo edo naikunde loi, ta itz lotsagarriak? Nolako kolore gorriak irtengo ez die bere bakarrean egin baditu eskuka zikiñak ta aragiari atsegin gaiztoa ematekoak? Nola erraz konfesatu amorio gaiztoan sartu bada, ta egin bere bakarrean ere lotsatzeko asko diran akzio torpeak? Nola konfesatu bein itxutu dan animak egiten edo konsentitzen dituen zatarkeria itxusiak? Larrituko da, baña bere kezka guziekin ere gordeko ditu bekatuak, agertuko ez ditu bear bezela, ta joango da Infernura konfesatzera estalki ta probetxo gabe. Ala bada gertatuko zaie beste bizioetan ere. Bai dio San Buenabenturak, lenengoan osatzen erraza zan gaitza, osatu nai etzuelako, kangrenatzen da azkenean. Nola osatu milagro andi, edo aragi zati andiak ebaki gabe? Aragia lizundu, ta atsitu bada, nola gatzarekin gorde? Jakin ta sinistutu bada, mugonez edo lenengoan bear dala artu Propositoa, gerorako larga gabe.

ERAKASTE VIII.

Nola egiazko Propositoa ez dagoan bekatuen okasio urreko, eta borondatezkoan arkitzen diran kristauetan

G. Zeren gañean izango da gaurko irasbide edo doktrina adirazo bear deguna?

E. Gauza premia txit andiko baten gañean, eta da agertzea ez dagoala egiazko ondu-nai edo propositorik larga nai ezpadira bekatuen okasio jakin, urreko ta borondatezkoak; ta emendik aterako da zergatik egiten diran konfesio gaizto asko, ta irauten duten ain gutxik artu duten on izateko gogoan.

G. Zein da egiazko Propositoaren leta edo kondizio bear bearra?

E. Idukitzea borondate sendo bat kendutzeko oitura gaiztoak, ta largatzeko bekatuen okasio ezagun ta urrekoak.

G. Zer aditzen dezu bekatuen okasio ezagunaren izenez?

E. Aditzen det bekatua eramaten duen gauzaren bat, dala bere naturalezaren indarrez, dala jarraitzen dion zirkunstanziaren bategatik.

G. Ez det ondo aditzen eranzute au, zeago edo argiroago esaten ezpadit.

E. Adizazu bada. Okasio batzuek izatea ezagunak urrekoak, ta borondatezkoak berenez, dator dadukelako peligra jakiña, zeñean jarri ezkerok ezagutu bear dan geienez galduko dala, berez duen birtute galgarriagatik. Onela libru desonesto, ta kontu loietakoak erakurtea premia gabe, ta gazteak, da bide ezaguna ta urrekoa, zerren txit asko galdu diran alako erakurtearekin. Onela beste gauza ta ebillune asko gero astiroago aitatuko ditugunak. Beste okasio batzuek dira berenez ez dutenak gaitzerako lagungarri ezagunik; ordea zirkunstanziaren bategatik galgarriak diranak. Kale batera joatea, etxe auzokura joatea, berez gauza gaiztoa ez da; ordea kale ta etxe artan badaude tentatzalle gaiztoak, edo lengo adiskide bekatuzkoak, izango litzake okasio benetako alako lekuetara joatea. Orobat itz egitea personaren batekin, berez bekatu ez da; baña itz egitera dijoanak badaki emango diola bekatu bidea, orduan itz egitea da bekatu bidea, ta bere borondatez badia itz egitea izango da okasioa billatzea. Okasioa da ezagun ezaguna, urrekoa, edo jakina, zeñean, jarri ezkerok jartzen dan bat bekatuan erorteko arriskuan gizon aitu edo



jakitunen iritzian, edo nork berak leenago igaro zanetik ezagutu bear due-
nean. Badira ere, munduan okasio txik asko urrutikoak, edo bekaturako
ez dutenak birtute jakin ta urrekorik noiz edo berriz kristauak bekaturatu
badituzte ere. Mundua peligroz beterik dago, ta lurrean gauden artean ez
gera gordeko onelako peligriguzietatik. Relijio estu baten sartuta ere ez
dago anima gerra gabe. Ala bada bakarrik gaude oblibatuak aldegitera
peligro banaan jakin, ezagun edo urrekoetatik.

Okasio ezagun edo urrekoa izan liteke, edo borondatezkoa, edo
nora ezekoa ta borondategabea. Okasio borondatezkoa da, zeñetatik
aldeegitea dagoan bakoitzaren eskuan, ta onelakoak dira geien geienak.
Noraezko edo borondatezko okasioa da, zeñetatik aldeegitea eztagoan
bakoitzaren eskuan, ta onelakoak dira txit gutxi edo ez askok uste oi
duten beste, gero agertuko degun bezela. Deabruak asmaerazitzen dizte
askori zeresanak, eskandaluak, desonrak, ta ala dauzka beti okasioko gri-
llo edo katea gogorretatik irten gabe. Artu bear dira artu al ditezken bide
ta neurri on guziak irteteko okasio gaizto ta ezagunetatik. Egin dezagun
kontu gurasoakin bizi dan seme bat bizi izan dala amorio loian etxeko ser-
bitzari neskame batekin. Usteko da, ez dala borondatezkoa okasio alakoa,
ez dagoala seme aren eskuan neskaxa etxetik ateratzea. Au siniserazitzen
badio Konfesoreari milla itz emanda geiago eroriko ez dala, aterako dio
absuluzioa. Ordea etzaie sinistu bear beren eskuan ez dutela alako Perso-
nak okasioa kentzea. Esan ta erregutu bear dio seme ark etxeko neskaxari
irten dezala aitzakia edo estalkiren batekin; ta nai ezpadu, esan isiltxorik
Aitari edo Amari, ezarian edo modu on batekin atera dezela etxetik nes-
katx ura arkitzen dalako bere anima galtzeko arrisku edo peligriguan geia-
go adierako gabe, onenbesterekin egin al badidi okasioa kentzea. Zer
honra galduko du Seme batek Gurasoari agertzeaz bere animako peligrigroa
neskatx ura etxean dagoan artean? Zein da Guraso estimatuko ez duena
alako abisua, ta egingo ez duena al duena modurik onenean ta ospe andi
gabetik ateratzeko neskamea? Oni berriz kalterik egiten ez die etxe-
tik ateratzeko ta bai mesede andi bat. Ala benetan nai balitza okasio gutxi
dira borondatezkoak ez diranak.

Okasio batzuek dira, dio San Karlos Borromeok, oñean edo izatean
daudenak, ta beste batzuek ala ez daudenak. Okasio oñean daudenak dira,
batek idukitzea bere etxean, edo auzu baten etxean bezela, amore laguna;
bai eta neskame serbitzaria arkitzen danean bekatuko okasioan bere etxe-
ko Jaun edo Ugazabarekin. Onelako okasioak dira guzien artean gaiztoe-
nak. Beste okasio oñean edo izatean ez daudenak dira, dio Santu aitatu
degunak, karta jokoak, dakianarentzat ezarri dituela sarri blasfemia, edo

birao astunak, edo geiegi jokatuta ondatzen duela bere bizi modu ona,
edo besteena. Da Ardantegi edo Taberna, dakianarentzat leenago igaro
zaionetik, an sartu ezker jartzen dala moskortzeko okasioan, edo gasta-
tzeko etxeko kaltean. Da onelako ta alako Konbite edo olgantzara joan
ezker jartzen dala itz gaiztoak esan edo atseginez enzuteko peligro
andian, ta bai beste edozein bekatu mortal konsentitzeko okasioan, bil-
tzen diralako jente modu gaiztoak, edo leenago joan dan guzienetan, ala
gertatu zalako.

G. Baña bekatu egin ta konsentitu gabe egon liteke okasio urreko
ta andia?

E. Bai bai. Demagun neskax bat arkitzen dala serbitzen etxeren
baten; ta etxeko Jaunak, edo bere Semeak, edo morroe bertakoak ematen
diola bekatu bidea itz gaizto, akzio edo eskuka zatar, edo tentazio
loiekin; ez bein edo beste, baizik sarri. Neskax onek ezer konsentitu
ezpadu ere, arkitzen da konsentitzeko peligro txit andian, eta ez dago
gizon aitu edo prudente esango ez duenik alako neskaxarentzat dala oka-
sio urrekoa etxeko persekuzio edo tentazio ain estua. Onelako neskameak
ekusi duenean bere arpegi astun ta agirakakin largatzen ez diola tentatza-
lleak lan gaiztoari, irten bear du etxe artati, ta iges beste leku on batera, ta
ipiñi Jangoikoagan konfianza osoa, ta ez dio paltako, ogia animaren amo-
rez bide au artu duelako.

G. Baña obra osoko bekatuan erori ez danak konsentituagatik pen-
samentu, itz ta akzio gaiztoak etxeko okasioetan, zergarik irten bear du?

E. Au da askoren utsegite ta engañu kaltegarria: begitantzen zaie
erorten ezpadira korputzez bekatuan, ez dagoala zer irtenik. Eta zer? Ez
dira bekatu mortalak pensamentu, itz, akzio torpe konsentitu edo boron-
datezkoak? Bai. Bada bekatu mortaleko okasio jakin edo urrekoan dago-
anak borondatez, ezin eraman lezake absoluziorik, ta larga nai ez dutenak
daude bekatu mortal betikoan edo jarraituan.

Eta neskame bat bein bakarrik erori balitza etxeko Jaun edo Semea-
rekin obra osoko edo korputzeko bekatuan, arkitzen ote da okasio urre-
koan? Irten bear ote du etxetik? Gauza gogorra dirudi.

Gogorra animako salbazioa baño gutxiago ez dijoana? Etxean sartu
ta laster zurra andi bat eman balio etxeko Jaunak ez luke igesa artuko ezeri
begiratu gabe? Ez luke esango bere artean, onela bein eskuak ezarri diz-
tanak, zer egingo ez dit gero? Ala bada bekatu obratzeko bein erori dan
neskatxa galdua da etxe artan: bigarren bekatua errazago egiten da ta ala
irten bear du laster kanpora, bekatua San Pedrok bezela negar egitera.
Pekatu etxeko negarrak laster leortuko ditu tentatzalleak. Onek esango



diozka milla gaura zoragarri, ta nola dakian len ekarri zuela gaitz egitera, usteko du erraz ekarriko duela berriz ta berriz ere egitera; ala sartuko lirake biak amorio itxuan ez ekusteko honra galtzea, anima galtzea, korputza galtzea, ta zer esan edo eskandalu etorri oi diranak. Ala bada irten nai ezpadu bereala bekatuko etxe artatik, dago borondatezko okasio jakinean, ta ezin absolbi lezake Konfesoareak biak galdu nai ezpadute.

G. Nola bada arkitzen dira kristau okasio gaiztoan sartuta daudenak konfesatzen ta komulgatzen?

E. Au dator edo Konfesoarearen utseginez edo konfesatzen danaren gaiztotasun edo maliziaz. Konfesoarea badabil presaka, ta ondo aztertu gabe bekatuaren sustriak, ta iturburuak, ez da ezagutuko gaitza azaletik baizik, zeren Penitente alako geienetan, ez da arkitzen zinzotasun, ta ondo explikatua nairik. Zer egiten dute okasio gaiztoan sarturik dauden askok? Akusatzen dira, nola egin dituzten eskuka torpeak edo aragiazko bekatu osoak; ordea estaltzen dute noizkoa dan oitura gaizto ura, nola len ere Konfesoareak kargatu zien eskua, nola etxean, auzoan, edo leku jakinen baten daukaten okasio jarraitua. Konfesoareak galdetzen ezpadio noiz artu zuen adiskidetasun txatarra, noiz asi zan akzio zikiñiak egiten edo konsentitzen; etxean, edo auzoan dadukan okasioa, emango dio absolutzioa, geldituko dira oñean oitura gaiztoak, oñean etxeko okasioa, ta osatu bearrean anima geldikuko da len baño gaitz andiagorekin, bada geituko dira sakrilejiok Konfesio ta Komunio gaiztoak eginda.

G. Baña jakin nai nuke, nortzuek dauden, edo bizi diran okasio gaiztoetan; zerren gutxienak dira beren etxeetan okasio txatarra dutenak?

E. Ezin izan liteke doktrina bearragorik ta ala bear du du esplikazio argi ta bana banako bat.

Lenbiziko Zuzenbidea. Jangoiok eragozten duenean bekatu gauzaren bat, eragozten ere du jaartzea borondatezko peligro jakin, edo okasio urrekoan. Emendik dator peligroa nai duenak, nai ere duela ausi Jangoikuaren agindua. Geiago. Borondatez jartzen danak bekatu mortalen baten erorteko peligro andi, ezagun edo urrekoan, gero egin ezagatik bekatua bera, zeña egiteko peligroan jarri zan, egiten du bekatu mortala, ausi duelako Jangoikoaren agintza, ez peligro borondatezko ta ezagunean jartzeko. Ala bada ezagueraz, ta borondatez jarri danak mesa ez enzuteko peligroan jaiegunen baten, gero meza enzun bazuen ere, egin zuen bekatu ntortala. Kontu dezagun jartzen dala bat jaiegunean beste erri batera joateko bidean, beldur andiarekin arkituko ote duan meza. Bere errian meza enzun zezakeala irten baño leenago, beldur andi esan degunarekin, badijoa beste errira, gero meza enzunagatik mugonez eldu zalako, egiten

du bekatu mortala bakarrik jarri zalako meza ez enzuteko peligro ezagutzean; berriz ez, antxituko zualako uste osoarekin erritik irten bazuen, uste gabe meza leenago esan zalako eldu zan errian. Orra nola peligro ezagutua bera da bekatu mortala. Orobat okasio gaiztoa iduki duenak etxeren baten, jakin bearrik jartzen dala bekatu egiteko peligroan ara badijoa, joanaz beste gabe egin du bekatu, gero bekatu loirik egin ezpadu ere. Orobat jokolari, ta moskortzeko oitura dutenak, batzuek gastu kaltegarriak jokoan egiten dituztelako, ta besteak Ardantegi, edo Tabernan ardaotan igarotzen diralako. Utzi bear die jokatzeari, utzi Tabernan sartzeari, ta joateaz bakarrik egiten dute bekatu. *Peligroa maitatzen duena, bertan galduko da*, dio Espiritu Santuak; au da peligroan bertan dauka anima galtzea; eta beste leku baten dio, *aldegiten duena lakirio, edo lazoetatik seguru ibilliko da. Qui cavet laqueos, securus erit*: Beraz aldegiten ez duena, eroriko da. Ala bada okasio gaiztoan borondatez sartzea bera da bekatu: ta sartuta egiten bada Jangoiok debekaturiko gauza, beste bekatua, dio Aita Calataiud Jesuita misionista beneragarriak.

Bigarren zuzenbidea. Gauza bat izan liteke batzuentzat ez; nola bijiliako jaateak gaitz egiten dien batzuei, besteai ez. Batzuek dira erorierrazak beren oitura lengo txarrak gatik, ta beste batzuek ez.

Irugarren zuzenbidea, ta len aitatu deguna. Okasio urreko ta borondatekoa izateko, ez da bere etxean iduki bear bekatuko bide edo laguna, ez bekatu oso edo korputzarekikoak egin; orobat dago okasioa kanpoko lagun, etxe, ta ebilleretan, pensamentuz, itzez, edo akzio txarrekin bekatu egiteko peligro andia dagoanean. Au onela izanik daude bekatuko okasio urrekoan, ez bakarrik mirabe bere etxeko Jaun onen seme, edo etxeko morroeren batekin bekatu aragizkoetan erori diranak, baita ere anbesteraño eldu gabe ebilli diranak sarri eskuka, apaka, ta beste akzio zikiñetan. Au ezagutzen erraza da. Orobat kanpokoren batek etxe artan etxeko adiskide edo ezagunak bezela sarrera badauka. Nora joango naiz? esaten dute. Nora al. Jangoiok lagunduko dio bere probidenzia ederrarekin bekatuko peligro ezagunetik aldegiten duenari. Atoz ona; norako ziñake, sarri etxekoren batek banatu edo mankatuko bazinuke? Gorputzeko kalteak beldurtzen zaituzte ta animakoak ez? Kristau ederra. Irten irten Babiloniako etxe orretatik; bestela zure konfesioa gaiztoa da.

Ezagutzen dezu onelako edo alako etxera joan zeran askotan ebilli edo konsentituko dituzula akzio gaiztoak, edo esan itz zatarrak? Ez oñik ipini etxe artan, ebaki komunikazio guzia estalkiren batekin. Aserre munduko bat izaten duenean, agur etxeak, itz egiteak: ez agur gozorik, bai bekoki iluna bidean topatuta ere. Au ezta Kristok erakusten; bai ordea



gorroto santu bat artzea ta iges egitea bekatuko okasioa dagoan lekuetatik; ez agur gozorik egitea len amore gaiztoa izan zaionari, ta agertzea bekoki illun ta astuna. Gurasoai berai ere artu bear zate gorroto santu bat, dio Jesu-Kristok, Jangoikoa ofenditzeko bidea ematen dutenean. Kenbat geiago bada gorrotatu bear ez ditugu bestelako kristau bekatuko okasioak izan diranak, infernuko etsaiak baño kaltegarriagoak! zeren infernukoak beldurtzen dira konjuro ta gurutze bat eginez; ez ordea tentatzalle lurekoak: oek batzuetan milla palagu ta eskintzarekin erraztzen dute bekatu egitea; beste batzuetan oratze ta eskuen loiakin Idisko gorituak bezela persekuzio gogorragoa ematen dute Infernuko guziak baño. Beraz iges egiten ezpada, gelditzen da anima okasio urreko ta borondatekoan. Beraz ezin kristaua joan diteke bekatu egin gabe bekatuko labanarriak dauden etxe, leku, ta dibersioetara.

Ezagutzen duenak urlia lagunaren itzketas, ta conseju txaarrekin len galdu dala, nai badu konfesatu artu bear du asmo sendoa aldegitoko, ez tratatzeko alako personarekin zeren gaizto batek erraz gaitzotzen du ondu nai duena, ta ekusten badu bizitza berri ta on baten, milla parre ta burlarekin atzeratuko du bide garbitik. San Pablo Apostoloak enkargatzen du kristau lujuriosoakin ez jaartzeko mai baten; au da beintzat, ez idukitzea adiskidetasun ta traturik.

G. Zer esan Jauna euskal errietan ekusten diran jente gazteen bilkui edo batzakuntzogatik bearren batera dijoazenean? Ote dira bekatuak okasioak?

E. Negar egiteko gauza. Erri txik asko oitura, edo usuario txaar au dagoana. Artoak zurutu bear badira biltzen dira auzoetako jente gazte neskatz ta mutillak. Bearrean daudenean, esaten dituzte batzuek itz zatar ta jentil baten ere gaizki irudituko lukeenak; beste batzuek laguntzen die itzkeria loiar zerbait aurreratuaz; neskatz eroak egiten dutuzte algara gozoak; gizon ta andra eragotzi bear lukeenak ez dute damurik artzen, ta uste dute gazteetan guzia ondo dirudiala. Ala askotan guzi guziak, zar ta gazteak betetzen dira bekatuz. Ez da alako baten palta nork itzeli edo amatatu kruseluko argia, ta gero illunean andira apaka ta akzio deshonesto nai diran bestekoak. Andik laster asmatzen da danzatzeta; an fandango mobimentu gaiztoetakoak, an bestelako danza ezin okerragoak, begiak, mingaia, ta eskuak oñakin batera dabiltzala nasaitasun guziakin. Ordu osoak pekatu asko egiten igaro dituztenean, dijoaz etxeetera illunean neskatz ta mutil, ta aitatu ere bear ez dira alkarren artean egiten dituzten gaiztake-riak, ta dijoaz oera bekatuz ase ase eginda. Gauetako dibersio oei ematen die bigiraren izena. Oek ekusten dira kristau errietan, kristautzat daude-

nen artean; gurasoak largatzen die seme alaba joaten alako bigira etxeetera, ala artoak zuritzeko, nola linoak apainzeko estalkiaz, ta beren etxeetara ere artzen dituzte beste aldietan. O ejemplo ederra! Oek dira bekatuko okasio ur errekoak, ta bekatu andi ta askoren iturburu. Zorigaitzoko Guraso sema alabai largatzen dienak alako bigira etxeetara joaten, ta beren etxeetan dauzkeenak onelako bulla ta batzakuntzak. Zer uste dute gertatuko dala azkenean? Jangoikoa alabatu bearrean, gari, arto, ta linoak eman diztelako, artzen dute bidea oetatik bera ofenditzeko bekatu itxusiekin. Okasio oei larga nai ez dienak, ezin absolbi litzakez Aita Santu Erromakoak ere. Agertzen ezpadute konfesioan nola joan ziran, ta zer egin duten, gaizki konfesatzen dira; agertzen badituzte ta larga nai ez alako leku ta lagun artera joateari, konfesatzen dira proposito gabe ta gaizki. Animarik onena iru edo lau zilizio aragian dituela badijoa, galduko da bereela alako nasaitasunetan. Zenbat geiago bestelakoak?

A Jauna! esaten dute; nola bidalduko ez ditugu seme alaba, morroe edo mirabeak aukoko etxeetara laguntzeko artoak zuritzen, edo linoak apaintzen. Zer esango dute? Aserratu dira. Aserratu ditezela nai badute, esan dezela nai duten guzia. Obe da gizonak aserratzea Jangoikoa aserratzea baño. O munduko esamesak! Eta zenbat anima galdutzen dituzun! Bakoitzak bere etxean zurutu dezakez artoak, baitaere apaindu linoak onelako bullak dauden errietan. Ebakitzen ezpadituzte bekatu bideak, ezin lezakete konfesio onik, ta bizi dira betiko bekatu mortalean.

G. Eta zer esan bear da hermita ta erri albokokoetako pestetara dijoazanak gatik? Arkitzen ote da ebillera oetan bekatuko okasio ezagun eta andirik?

E. Galdetze oni eranzutea erraza da askori min emango badie ere. Zertako da egia estaltzea? Sinistu nai ez dutenak, ez dute esesioa baizik ateratzen. Atoz ona. Zer gauza on ekusten da bide orietan? Mutillak ta neskatzak nola oi dabiltza? Zer itz egiten duze? Zenbat eskuka zatar, ta musuka? Zenbat kanta edo itz desonesta? Gelditzen badira edaten, edan lekuetan neskatzak ta mutillak, nolako modestia agertzen dute? Zenbat konbersazio lotsagarri! Zenbat algara gozo oek enzunda? Pestako danzeetan gauza txatarrik egingo ezpalute ere, bai asko ta asko bideetako egoera ta joan-etorrietan. Santa Teresak adiña birtute balute ere, galduko lirake denpora gutxiren buruan alako pesteetan dabiltzan neskatzak. Aztertu konzienziak, peza zaleak. Zer gertatu zatu alako ebilleretan? Arkitu dezute ejemplo onik? Iriziki zerate debozio santuan? Galdu dezute bai modestia guzia. Saltoka, brinkoka ajui edo deadarka eskuak alkar emanda, orain itz berdeak esan ta enzuten, gero eskuka zikinak egiten,



gaba eginda ere leku bakarretan... O kristautasuna! Oek ezpadira bekatuko okasioak ta bekatu garbiak, non dago munduan okasioa? Itz egizute. Ala da? Bai Jauna, esango dute; ordea ez degu intenzio gaiztorik, ala da usu, ala izan dira lengoak ere. Zer? Intenzio txarrik ez dagoala bekatu mortal andietan ebillita? Esan dezake kristau izena duenak, ez dirala bekatuak musuka ta eskuka desonestaok, eta itz edo konbersazio lujuria zabal-tzen dutenak? Zer eranzungo dute Jangotkoaren Juizio zuzenean? Nola pensatuko dute eriotzako esturasunean? Ala bada ezin dezakete konfesio onik aldegin naiz ez dutenak onelako ebillera nasai ta bekatuzkoetatik. Ez daramate proposito egiazkorik ta bizi dira kondenazioko bidean. Ala da usu. Ez gera juzgatuak izango munduko lege ta usu txatarretatik, ta bai Jangoikoaren Legeti, dio Santu andi bat. Asko dabilta. Anbat gaiztoago. Askoren bekatuak geiago azerraten dute Jangoikoa gutxirenak baño, ta ez dira infernuan gutxiago erreko, dio San Agustinek, askorekin erreko diralako.

G. Eta utzi nai ez dituztenak danza modu gaiztokoak? Bizi dira okasio errekoan?

E. Edozeñek esango du danzako olganza edo bidetsioetan egiten badira mobintentu loiak, esan amore itzak, ta ebilli eskuka tentagarri indezenteetan, dagoala okasio erreko ta gaiztoa. Ez det nik nai alakorik egin ezen, esan oi dute emakume askoak; dibertitu edo olgatu bai. Baña badakite egingo diozkeela, ala egin oi dutelako danza modu askotan, zertako jarri anima galtzeko peligroan? Zer? Olgatu, edo dibertitu itz desonesto, ta eskuka zikiñak ekusten diran dibersioetan? Oek die gorroto bekatuari? Ematen die damu andia Jangoikoaren ofensak? Ez ote dira peligro andian jartzen konsentitzeko akzio gaiztoren baten? Orren sendoak dira? Orren birtutetsuak bekatu askoren artean dibersioa arkitzen dutenak? Nork itxutzen ditu onela pensatzeko? Badira berriz danza onelakoak pandangoetan, ta gutxi batzuen artean mutil ta neskatxak egiten dituztenetan. Pandangoetan oñekin magalak erabiltzea arinka aurrera etorri ta egitea demostrazio bekatukoak ta mobimentu intenzio gaiztokoak ekusten daudenai ere ematen diela okasioa pensamentu loietarako, ta musukak baño ere malizia geiago erakusten dutenak. Ez dago akzio oek nork libra ditzakean bekatutik, ala ematen dielako bekatu bidea danza lagunari, nola ekusten daudenai. Egiten ere dira danza modu gaiztokoak inoren beldur gabe neskatx ta mutillak bazterretan bildurik, edo etxe barruetan egiten dituztenean. Mingaña ta eskuak ebiltzen dira askatuak edozen gauzatarako. Onelako danzeetatik guziz aldegin nai ez dutenak

bizi dira bekatuko okasio ezagun ta andian, ta ezin egin dezakete konfesio onik.

G. Zer esan baña Plaza agiritan Tanboril soñuekin Justiziak dakiala usatzen diran danzeen gañean? Ote dira okasio errekoak?

E. Oni eranzuteko asko esan bear litzake, ta bear bada egingo det berriazko doktrina euskal erriko danza oen gañean. Orain bakarrik esango det, danza oek askorentzat dirala bekatuak okasio andiak. Sarri ta afizioz onelako danzeetan dabilzinak daudela okasio andian, ta animarik onena ere galduko dala ta guziz nasaitu urte bete baño leenago. Beñ edo berriz gutxi gutxitan afizio gabe, lotsaz, edo obedienciaz kontu andiarekin ebiltzeko gogoz danzaten dutenak, bekatu loiar gorroto diela, libra litzake bekatutik, ta onelakoentzat ez da izango okasio errekoa. Bein edo berriz afizio amorezko gabe neskatx batek itzegitea mutil batekin bakarrik ere ta arrazoi onarekin, ez da bekatuak okasioa; ordea afizioz, inklinazioz, gogoz sarri alkarrekin egon ta itzegitea neskatxa mutillak, da amore gaiztoa artzeko, ta gauza txarretara igarotzeko okasio andia, ta utzi nai ezpadute tratu alakoa, ezin ondo konfesatuko dira; zerren alako okasioetan galtzen dira geienak, ta len onak ziranak ere. Ala bada orobat, gutxi gutxitan, munduko beldurrez, ta asmo txar gabe danza agiri edo plazakora joatea, gorroto dionak bekatu loiar, ta gogo sendoarekin ez lekuri emateko gauza gaiztori, ez da izango beintzat bekatu mortaleko okasio ezagun ta errekoa. Guziaz ere Jangoikoari emango dio atsegin txit andia inola ere ez badijoa danza nastuetara, edo gizaseme, ta emakumeak batera egiten dituztenetara, ez da ekustera ere; ta ez dute Seme-alabak obligaziorik obedezitzeko Gurasoari agintzen badie pestara joan, edo ala danzatzeko. Persona edo kristau onak ekusten badituzte danza lekuetan, nola siniserazi nasai, ta Jangoikoaren beldurgabeai ez dutela alako danzeetara joan bear? Gauza bat da ez izatea bekatu mortala bakan edo gutxi gutxitan, ta kontuz ibiltzeko asmoz, ta afizio gabe danzatzea, beste bat askoz obe izatea ez inoiz ere joatea. Baña bein edo berriz, ta bein bakarrik ere joatea danza angiro gaiztoetara da bekatu mortala. Berriz Jangoikoaren bidean aurrerapenak egin nai dituztenak, utzi bear die guziz munduko bulla guziaz.

Gauza gogorra, Jauna, esan oi dute kristau askok, urte guzian egoitea pesta ta danzeetara joan gabe. Zer esango dute nigatik? Txaldan, gatzgabea, edo lelo bat naizala. Erotu zatala. Besteak ere salbatu uste dutela... Gauza gogorra dala animagatik orrenbat egitea? Atoz ona, esan oi diet, Gurasoak eskiniko balizu amar bat erreal pesta edo danzara etzoazin egun bakoitzean, egongo ziñake etxean joan gabe? Bai Jauna esan oi dute.



Auzoko lagun batek errgutuko balizu berekin joateko, joango zinake? Zein gutxi? Amar errealekoak garaituko luke pasio guzia. Jangoikoaren amorez, ta animako salbazioagatik egingo ez ote da erreale batzuek gatik egingo litzakeana? Zenbat andiagok dira Jangoikoak eskintzen dituen sariak bere amorez urrutiko okasio urrekoak laster egiten diranetatik aldegiten dutenai? Nork iduki lezake gogoa, ta nork gorroto artuez ebillera, ta olgantza nasai ai, zeintzuetan anbeste anima galtzen diran, ta egin Jangoikoaren ofensa asko? Parre egingo didate ezpanoa. Eta lotsatuko zera Jesu-Kristoren dizipulu izaten? Bera ere lotsatuko da onelako lotsoor ta beldurtiak bere dizipulutzat ezagutzeaz. Larga bada larga, munduko legeai, askoren egite eroaiz, ta bizi beti irartzartuta tentazioko lekuetara joan gabe. Berriz leenago animako kalteak atera dituztenak, besteak baño arrazoi geiagorekin.

Ez det nik inoiz gauza txarrrik egin Plazako danzeetan; au da betiko leloa edo soñua. Izan liteke zuk bear bezela ez ezagutzea, ez sentitzea usai gaiztoa, nola Gaisotegi edo Hospitaletan gaisoen artean sarri dabil-tzanak sentitzen ez tuten usai txarrrik, ta bai banaka batzuetan baizik ez diazanak. Atoz ona. Eztiozu oniritzi edo berezko kariñorik artu danzara eraman zaituenari? Ez dizute esan itzketa labañ, ta amorezkoren bat ixil-txorik belarrian? Ez dira igaro esku estutze maliziazkoak, ta beso tximurtzak? Eta noizbait geiago ere? Eta artu diezu gorroto andirik onelako akzio txarra? Esana esan. Peligrosoak dira gazte guzientzat euskalerriko danza agirikoak; ta askorentzat okasio oso, ezagun ta bekatubide garbiak.

Gaiztoago da ebiltza bazterretan pandango ta danza lotsagabeetan edo konbersazio txatarretan agirian edo lotsa dagoan lekuan baño. Au da beste soñua. Kontu ederra. Eta egin lezake kristau batek ondo ez dan gauzaren bat onandiak baleroz ere gaitz egitetik? Ezetz dio San Pablo Apostoluak. O arrazoi sustrai gabea! Gaiztoagoa da gizon bat iltzea, makillaka banatzea baño. Eta makillaka bana lezake? Ez: zeren biak eragotzen ditu Jangoikoak. Gaiztoagoa da, ogei ezkutuko bat ostutzea ezku-tu bat baño. Eta ostu dezakegu ezkutu bat? Zer balioko dute Jangoikoaren juizioan apainduria ta esio txatarrak! Gauza on ez diran guziak eragotzen ditu Jangoikoak. Bekatu arin ta benial batere ezin genzake mundura mesederik andienak etortzeagatik. *Gorde buruak* dio Apostolu tatek, *gauza txarraren irudia duten guzitik. Ab omni specie mali abstinete*. Ez aaztu bada esan dedan egia au; ez dagoala konfesio onik Proposito egiazkoren paltaz, bekatuko laban-arri, edo okasio ezagunetatik irten nai ezpada. Au da Elizako doktrina. Sinisten ez diozu Elizari? Jentilen artean kontatua zera.

G. Gaitz egiten zaie okasio gaiztoak dauzkeenai largatzea edo urratzea?

E. Bai; bada lotuta dauzka deabruak amorio loiares katea gogorrek-in, ta urratu ez ditzen, ta iges ez dezen astuntzen diztez grilloak. *Agravabit compedent vestrum ut non egrediamini*. Zenbat asmazio ta aitzakia ematen ez dute? Ateratzen badet etxetik, edo irtetzen badet urtea bukatu baño leenago, gaizki esango da. Agur nere honra: agur nere ogia: non arkituko det beste etxe bat; non onelako serbitzaria? Zer da au? Bekatuan barrun-berago sartzea, kateak astunago egitea, edertu naia beren bekatua. Baña zer eranzuten die Jesu-Kristok? *Baldin eskuak, eda oñak ematen badizu anima galtzeko bidea, ebaki itzazu: begiak eraman nai bazaitu bekatua, aterazazu: obe da begi, esku ta oin bakoitzakin sartu Zeruan, begi, esku ta oin binaakin Infernua baño*. Nai dezu geiago? Ona zer esan dizun Jesu-Kristok: begia, eskua, ta oiña bera baño ere bearragotzat badaukatzu bekatua eramaten zaituen persona, leku, etxe, edo gauzak larga, iges-bota ta urratu. Infernura bazo-az, zer aterako dezu? Aterako zaitu andik zure etxo Jaun, edo bekatua eramaten zaituen Persona gorreto santua eman bear dizun orrek? Zer honra edo honra oste? Jendeak leenago ezer ezpadaki, ezin ezer esan lezake; badaki, beragatik kendu bear dezu zer esana. Arkitzen bada gosea ematen duen etxea, edo etxeke-andra erriertari eta ernegatu bat, irteten da ezeri begiratu gabe. Neskame edo mirabeak zerbait ostutzen badu, botatzen da etxetik, beinzat emendatzen ezpada agirakarekin. Ezin irte-nak dira berriz anima galtzeko peligroaz daudenean. Orduan milla apain-duria, ese sio, asmazio ta aitzakea. Edo larga okasio gaiztoa, edo larga konfesioa, ta joan infernura sakrilejioak egin gabe. Elizak debekatu edo eragotzen die Konfesoari onelakoak absolbitzea; ordea zer egiten dute ala bizi diranak? Billatu Konfesoari jakituria edo konzienzia gabeak, dio San Antonino Florenzioakoak.

Jauna joango naiz len gaizki bizitu izan naizan etxera, itz egingo ez det etxe artan dagoan bekatu lagunarekin. Len erorten banintzan ere pen-samentu, itz ta eskuka gaiztoetan, orain artu det proposito andi bat. Gezu-rra diozu. Ez da proposito bear bezelakoak maita danean okasioa. Gorro-to andia baeingo bekatuari, izango ziñake peligroari ere. Lenengo sarreran egongo zera beldur apur batekin; nondik edo andik agertuko da persona bekatukoa. Au bear bada egongo da lengo gogortan, ta ezpadago ere, begiak ez dituzu idukiko lurrean beti josita: elduko zatu ekusinaia, ekustek piztuko du kariñoa geldika, geituko da tentazioa, ta denpora gutxiere buruan asiko dira irri-parreak, begiak katigatzeak, itz egitea, bakar egoteak, ta orra berriz preso lenengoan baño ere katea gogorrakoakin. Jangoikoan laguntasun berezko gabe nola iraun on asi danean? Nola Jangoikoak



lagundu bere naiz okasioan jartzen danari? A, kristau deabruak loturik zaudena! Nora eramango zaitu etsai zure anima goseak? Infernura. Eta an, etxe artan bekatu lagunarekin bazaude, zer atsegin emango dizu?

Nola Jauna igaroko naiz agur edo itzik egin gabe edola are bide baten arkitzen banaiz adiskide izan dedan personarekin? Adiskidetasun ori izanda etsaitasunik andiena; alkarri egin zingen kalterik andiena, zeña da animak galtzea. Gorroto baziño bekatuari, egingo zenduke etsaitasun edo gorroto diran personak egiten dutena; iges egin bidean alkar ekusi ez dezen, ta jatzen badira igaro edo agurrik egin gabe, edo agur otz bat egin da bekoki illun batekin. Ala bada egin bear dute gaizki bizi izan diran personak; egin alegin guzia ez ekusteko: ekusten bada uste gabe edo bideren baten arkitu, igaro aurrera itz egiten gelditu gabe bekoki illun batekin. Bestela itzak dakar ekusi naia, onek piztzen du kariño, edo oniritzia, ta sartuko ditu laster deabruak lengo sarrean. Eta berriz arrapatzen baditu, ez dute beingoan igesik egingo: gogortuko zate biotza ta parre egingo die len biotza bigundu zien Sermoi edo Konfesoren itzai. Zertako da kontatzea onen gañeko milla ejemplo izugarri? Zenbat galdu dira eriotzako peligran ere negar andiakin konfesatu ziranak, etorri zitzatelako gelara, edo oe aurrera amore gaiztoko persona, ekusiaz beste gabe biotza samurtu ta amorea berrituta? Zenbat il dira laztan andi bat ematean oe ondoan zegoanari? San Juan Bautista, munduan Jesu-Kristoren bean izan dan Predikadorerik santuenari ez dio enzuterik ematen Herodesek. Beldurtzen da, beste gauza onak egiten ditu San Juanen konsejuz; ez ordea larga Herodiana gaiztoarekin zedukan okasioa. Ez ez: loturik dauzka deabruak, sartu ditu butroe barruan; ebilliko dira jira ta bira, baña irtengabe. Beti ezin egiñak, murmurazio beldurrak, ondunaiak, proposito ederrak; baña beti sare barruan, preso okasioaren grilluakin. Igaro Ejerzizio santuak, igaro misioak, negar egin, konfesio jeneralen ondoren. Ordea egun gutxiren buruan lengo okasioetara, etxeetara, pestetara, lagunetara. Bizarra egin, apaindu arpegia, baña sustraiak kendu gabe berriz bizartu. Nora dira negarrak? Nora proposito ain sendoak? Nora Konfesoreari esateak, ekusiko du, emendik aurrera beste bat izango naiz? Eraman ditu aizeak, deabruak sartu ditu idikita zedukan okasioko sarrean. O anima errukarriak! O zakur, trokatu dituzun, lengo jaanak berriz eztarriraten dituzunak! Zer aterako dezute aberetzarren bizi moduan iraunda? Norako zerate azkeanean atsegin zatarrez aseta? Badaramez beren egunak, esaten dizute Isaia-sek, atsegin edo kontentuetan, ta beingo baten uste gabe bezela jesten dira Infernura. Azkean ederra.

ERAKASTE IX.

Aozko Konfesioa

Erakatsi degu doktrina batzuetan, zer dan Biotzeko Damu edo Kontrizio Konfesioari lagundu bear diona, zein bearra dan, zeintzuek ez daramen, baita zer dan ta zertan dagoan egiazko Propositoa. Orain ekusi bear degu zer dan Aozkoko Konfesioa, ta oni dagozkion gauza bear andikoak.

G. Asko ote da bekatuen barkazioa iristeko biotzeko damua idukitzea, edo bear dira agertu Konfesorearen oiñetan.

E. Ez da asko Magdalenaren damua bestekoa ere, agertzen ezpadira al didilla. Ona zein argiro erabaki zuen Trentoko Konzilio Santuak. Iñork esaten badu Konfesioko Sakramentu Santua ez dala Jangoikoak agindua, ez da bere aginduz bearra salbatzeko, izan didilla deskomulgatua. Jesu-Kristo Jangoiko ta gizonak illen artetik piztu ezker ta Zerura igo baño leenago arnasa ezarririk Apostoloen gañera, eman zien Espiritu Santua esanaz: Zuek barkatzen diztezun bekatuak, barkatuak izango dira, ta barkatu gabe largatzen diztezunai, etzaiez barkatuko. Onela egin zituen animetako Juez, ta eskubide osoarekin barkatzeko edo ez barkatzeko; ta nola Juez batek sententzia emateko jakin bear duen kausaren berria argiro, ala bekatu egin duenak agertu bear dio animako Juezari, zein dan Konfesorea, zer egin duen ezer estaldu gabe. Lurreko Juezak bear dituzte probantzak; ordea nola Konfesioko Juizioa dan ezkutukoa, iñoren aurrean egiten ez dana, baizik Penitente ta Konfesorearen artean, aitortu edo agertu bear du konfesatuko danak, zer eginduen, edo eman deklarazio oso, zuzen, ta egiazkoa, ta ala ematen ezpadu, ez du balioko Sazerdoteak ematen duen sentenziak. Nola doktrina oek egiñak diran kristau fede osoa dutenen arterako, ez naiz luzatzen, ezaguerazitzeko, denpora guzietan izan dala Elizan Konfesioa Jesu-Kristoren ordenanzaz, ta nola bekatuak ezkutuenak, ta biotzetik irten ez dutenak ere, bear diran agertu bakoitzak bere konzienzian dauzkan bezela.

G. Ala ere gauza gaitza ta gogorra dirudi agertu bearra bekatu inork ez dakizkionak, itsusi, eta lotsagarrienak badira ere. Ala lege astuna dala esan diteke Konfesioko legea.

E. Ez da ordea ala. Jesu-Kristok berak dio bere uztarria samur, biguñ edo eramanez erraza dala, ta arina bere karga. Anziñako Legean zeuden bekatuen kastiguak, arrika iltzeak, ta anbeste kostatzen ziran sakrifizioak, kendu zituen Kristok, ta larga Konfesioa. Zer da gauza gogorragoa, edo



esatea isillik emakume ezkondu batek egin duen bekatua edo arrika illa izatea erri guzkoen aurrean? Zer da errazago? Edo agertzea Konfessore bati isillik ganadu edo animaliarene batekin egin dan bekatua, edo animaliarekin batera erre izatea askoren aurrean? ala agintzen zuen bada Jangoikoak lege zaarrea. Geiago. Anziñako legean bekatuen barkazioa iristeko bear zan Kontrizio oso edo amorio-damua, ta etzan asko Atrizio, on ta garbia ere. Eta nork nai daki errazago dala beldur-damu, edo Atrizioa, amorio damu edo Kontrizio osoa baño. Ez da bada arkitzen gaurko egunean Teologo erakasten duenik, bearra dala konfesioan Kontrizio osa; ta egia da, asko dala, ta bear bestekoa Atrizioa edo Jangoikoaren amore apurren batek laguntzen diola, batzuek eskatzen duten bezela, edo amore garbi karidadetik irtenak lagundu gabe, zeñia dan geienen iritzia. Beraz Konfesioko bidea ta legea biguñagoa, ta salbatzeko errazagoa da, Konfesioko gabe anziñako legean zegoana baño.

G. Zergatik ordea anziñako legean, edo Jesu-Kristo etorri baño leenago bear etzan aozko Konfesioko bana banakoa, edo bekatu guziena, ta bai Kristok ipiñi zuen lege berrian?

E. Jangoikoak egiten dituen gauzeetan ez ditu gizonak arrazoiak geiegi aztertu bear, ta bai adoratu isillik bere obra edo egitada guziak. Ala ere ona emen arrazoi ona. Jangoikoa gizon egin baño leenago, asko zan animako edo espirituko konfesioa, au da Jangoikoari biotzarekin konfesatzea, zerren Jangoikoa zan Jueza, ta korputzgabea, edo Espiritu utsa. Baña Jangoikoa egin zanean gizon, korputztu zan bere Espiritutasuna, galdu gabe. Jangoiko gizon egin au da Jesu-Kristo, edo Aita Eternoaren Seme Ama Birjinaren sabel garbian korputztua. Aita Eternoak eman zion bere Seme gizon eginari Gizonen juzgatze osoa. *Omne Judicium dedit Filio*. Bada juzgatu bear ditu Jesu-Kristok gizonak, ez bakarrik Jangoikoa dan aldetik, baita gizona danetik ere, ta ala ez da asko espiritu ta biotzeko konfesio utsa, bear ere da al didilla, aozko Konfesioko osoa. Jesu Kristok bada nola Eliza berak fundatzen zuenak iraun bear zuen munduaren azkeraño, ta ez bukatu bere eriotza santuarekin, eman zien Apostoluei gizonak juzgatzeko eskubidea Konfesioko Sakramentuan; Apostoluak berriz konsagratu zituzten Obispo ta Sazerdoteak, ta konsagrazio santuan artzen zuten eskubide bera; ta ala beti konsagratu dira Elizan Sazerdoteak Apostoluen ondorengo edo Obispo Jaunen eskuz; iraun du ta iraungo ere bai Konfesioko Sakramentuak, bekatuak agertzen dirala bear dan espirituko penitentzia edo damuarekin, ta ala eginda, Sazerdote Konfessoreak parkatzen dituen bekatuak barkatuak izango dira.

G. Txit argiro aditu det nondik datorren Konfesioa; baña jakin nai nuke, zer ta nola egin bear dan bekatuen agertamen edo deklarazioa.

E. Ongi galdetzen dezu. Konfesatu bear dira bada esamina kontuzko baten bidez gogoan edo konzienzian dauden bezela bekatu mortal guziak beren zirkunstantzia, bekatu beste bat egiten dutenekin. Au da Elizako doktrina Trentoko Konzilio Santuan erabakia, betikoa izan bada ere doktrina au Konfesioko Sakramentua egin zanetik.

G. Beraz bekatu benial, edo arinak konfesatzeko obligaziorik ez dago?

E. Ala da; ordea orretako jakin bear da ziurki bekatu beniala baño ez dala batek egin duen utsegiña, edo falta. Bada zenbat engaño arkitzen da gauza onetan? Zenbatek daukate bekatu benial edo arintzat bekatu astun edo mortalak diranak? Zenbatek berriz bekatu batere ez diranak, artutzen dituzte bekatu itsusi, ta anditzat, ta gero lotsaz agertu ezinda kondenatzen diranak sustraian bekatu etziranak gatik?

G. Nola izan diteke ori? Esplika beza argiro ta ejemploekin, bada bestela ezin ondo adi nezake.

E. Esan det bada jakin bear dala ziurki bekatu benialetik igarotzen ez dala egin dan utsegiña edo falta, konfesatzeko obligaziorik ez idukitzeko. Edozeñek daki gezur txiki edo kaltegabe bat ezaueraz esana ere, dala bekatu beniala; orobat gauza gutxi bat ostutzea gauza astunera eldutzeko asmo gabe, ta ala beste gauza jakin errazetan. Orain bada utziko balu batek konfesatu gabe, dan bezela dala, onelako bekatu arin edo txiki bat, ez luke alde onetatik konfesio gaiztorik egingo, zerren badira beste bideak onelako bekatuak barkatzeko konfesio gabe ere, ta ez da berez bekatu beniala kondenazio-gaia. Baña nork esan zenbat kristauk dauzkeen bekatu arintzat mortalak diranak Jangoikoaren aurrean? Badira asko, pensamentu loi borondatez ta ezaueraz idukiak ezertan ez dauzkeenak, ez badute borondate, gogo edo deseorik gauza txaarren bat egiteko. Badira bai biotzeko deseño gaizto ta borondatezkoak arintzat dauzkeenak, azalean egiten ezpadute gauza gaiztorik. Badira bai esanagatik itz zatar, lotsagarri ta animen galgarriak, uste dutenak, etzutela asmo gaiztorik, ta parre eragiteko esaten dituztelako edergarriaz, bekatu andiak ezpalira bezela konfesatzen dituztenak, edo konfesatzen ez dituztenak. Badira egiñagatik danzeetan eskuka tentagarriak, edo danzantik kanpora ibilliagatik apaka, laztanka, musuka, ta eskuka lujuriosoetan, gauza txikitat dauzkeenak, ta egiten ezpadituzte beste gauza andiagoak korputzekin, bekatu arinak bezela, edo konfesatu gabe largatzen dituztenak, edo konfesatzen badiutuzte, izan oi da damu gabe bekatu benialtzat idukita. Nork esan zenbat



ignoranzia edo ezjakin gauza askota arkitu oi dan? Ordea, ez dute eskusa edo aitzakiarik arkituko. Predikatzen da, ta Konfesoareak ere erakatsi oi dute, egiten dirala bekatu mortalak pensamentuz, deseoz, akzioz, ta obraz. Sinisten ezpadute erakasten zaiena, dira herejen gisakoak; sinisten badute, ez da eskusarik. Ez dago bekatu beldurgarriagorik borondatezko ez ezagutze itxua baño. Nola Konfesatu ta damu artu ezagutzen ez dana? Ala egiten dira konfesio gaizto txit asko ezagutu nai ez diran, ta ezagutu bear ziran bekatuak ez agertzeagatik. Guraso asko dira txit nagiak umeen aziera onean, ta gutxik ezagutzen du obligazio andiau, ta gutxik konfesatu nagitasuna. Egiten dira irabazi bidegabeak saldutzen diranean gauzak tranpak eginik, edo prezioan, edo neurrian, edo pisuan, edo gauza ontzat, galduak diranak. Eta konfesatu gabe bekatu astun oek, bizi dira konzienzia nasaiarekin. Ala bada konzienzia esaminatzen danean eskatu bear zaio Jangoikoari argi andi bat ezagutzeko bekatu ezagu-gaitzak, edo ezkutukoak. Lotsaz konfesatzen ez duenak bekatu jakin edo ezagun bat, beti dago kezka, ta larritasunean, ta arantza ura ateratzeko gogoa artu dezake pakea billatzeagatik. Ordea bekatu ezagutu dezakeana, ta ezagutu bearra ezagutzen ez duenak, ez du kezkarik, bizi da pake galantean, baño palsoan, ta ez ditu konfesatzen; damurik ere artu ez, ta dago kondenzioko peligro txit andian, zerren jakineza danean bakoitzaren erruz edo kulpaz, da bekatua dio Santo Tomasek. Onelakoai Jangoikoak ematen ezpadie argi guziz andi bat ezagutzeko beren itxutasuna, galduak dira. Argatik gau ta egun bezela esan bear ginoke Dabid penitentearekin; Jauna, libra naza bekatu estaldu edo ezkutukoetatik. Argatik da bide ta konseju txit ona osoro biotza agertzea Konfesoareari agertzen diozkala tentazioak, inklinazio, ta bekatu benialtzat dauzkanak ere; zerren askotan gertatzen da penitenteak benialtzat zeuzkanak ondo ezagutu ezaz, ezagutzea Konfesoareak zirala mortalak, ta ala argitzea konfesatzen dana.

G. Beraz tentazio utsak konfesatzeko obligazio esturik ez dago?

E. Ez, ezagutzen badu argiro bakoitzak tentazioari lekuri eman ez diola: baño txit ondo egingo da agertzea, Konfesoarearen konseju santuekin anima didin garaitzera errazago, ez geiegi larritzera, ta sariaren esperanzarekin deabruaren kontra peleztera. Kristaurik onenak dira geien tentatuak deabruaren aldetik, zerren gaiztoak arkitzen dituzte beren galbideak lagun ta ebillera txaarretan, edo beren borondate gaiztoan. Ez ala kristau onak; oek aldegiten dute lagun ta okasio txaarretatik, borondate prest daukate Jangoikoa ez ofenditzeko; ta ala Infernuko etsaiak ematen dizte tentazio portizak alde askotatik, ta bear dute Konfesoarearen laguntasuna ez garaituak izateko, ta duda andietatik irtetzeko zerren deabruak

garaitu ezin dituanean, bekatuari leku ematera, larritzen ditu erdi siniserazita bekatu egin dutela tentazioetan. Agertu bada Konfesoareari bere biotza, ta arkituko da argi ta pakea.

G. Eta batek berez bekatu ez dana bekatutzat artu badu, konfesatu bear ote da?

E. Enzun kontuz, zeren dan gauza, askorentzat premia andikoa. Bekaturik ez dago ezauera ta borondate gabe; baño badira kristau, bestetik bekaturik nai ez dutenak, artzen dituztenak bekatutzat bekatuak ez diranak Jangoikoaren aurrean. Ala ere arrazoi onarekin kendutzen ez dutenak bekatu dalako kezka, beldurra edo sinistea, bear dituzte konfesatu bekatutzat dauzkeen gauza aiek. Badira kristau errukarri batzuek uste dutenak Jangoikoaren kontrako gogorazio edo pensamentu txarren bat etorri bazaie, izan badute aragiaren gerra, berotasun, edo arrotasunen bat, edo igaro amesetan atsegin loiren batzuek, begitantzen zaienak egin dutela bekatu, ezagueraz, ta borondatez lekuri ematen ezpadie ere. Eta gero, zer gertatzen da? Uste dute bekatu herejiakoren bat egin dutela Fedearen kontrako gogorazio txatarren bat etorri zaielako, lotsatzen dira konfesatzeaz ta egiten dituzte konfesio ta komunio sakrilegoak bide-gabeko siniste ta beldurrarekin. Etorriagatik gogoraziorik itxusienak Jangoikoaren gañean, edo Jesu-Kristoren Imagiñakin, eztago bekaturik, ez konfesatzeko premiarik alako pensamentuari lekuri ezagueraz eman etzaienean, ta gutxitan ematen zaie alako gauza itsusietan.

Erakurri det emakume guziz ondo bizi zan bati etorri zitziola bein pensamentu itxusi bat Jangoikoaren kontra. Alakoa izan zan konfesatzeko beldurra, konfesakizunik egin etzuen gauza artan, ezen egon zan urte osoetan sarri konfesatu ta komulgatzen zala, Konfesoare ezagunari agertu ezinda. Etorri zan Misio bat erri artara, joan zan konfesatzera Misionista bategana ta esan zion, Ai nere Aita ona! Galdua naiz; daukat bekatu bat ain itsusi ta lotsagarria, ezen ez det konfesatu urte osoetan, ta orain ere arkitzen naiz berorri ere esateko, biotz gabe. Zer bekatu izan diteke bada, esan zion Konfesoare ark, niri esateko biotzik ez dezuna? Asi zan galdeitzen mandamentu guzietatik, ta etzuen ezer arkitzen: eldu dan seigarrenera, emen ere txit garbi arkitu zuen. Galdetu zion, izan dezu inoiz Jangoikoaren kontrako bekatu itsusirik? Ai Jauna! igarri dit, esan zion emakume gaiso ark zizpuru ta zotin andi bat emanda. Ori da guzia? Galdetu zion Konfesoareak. Bai Jauna. Eta egon ziñan gozatzen ezauera ta borondatez pensamentu itxusi orretan? Gozatu Jauna borondatez? eranzun zion emakumeak. Larritu ta ikaratu nintzan ezagutu nuenean bertatik gorroto ere artu nion alako gogorazio itsusiarri. Bada txoroa, etzenuen



batere batere bekaturik egin, etzenukan ordu artan zer konfesatu ere; baña nola urte guzi oetan egon zeran lotsaz konfesatu gabe bekatu andia zalako sinistez egin dituzu bekatu txit asko anbeste konfesio ta komunio gaizki egiñetan. Ala arrapatu zuen deabruak bestela arrapatu ezin zuena. Esana esan, eztago bekaturik pensamenturik itsusi enetan, naiz Jesu-Kristoren naiz Ama Birjinaren, naiz Santu Santen kontrako gauzetan, ez da konfesatzeko premiarik ere, ezaueraz ta borondatez lekuri ematen etzaienean, geienez ematen etzaien bezela. Baña egon danak bekatzat artuta, beldurra arrazoi onarekin kendu gabe, konfesatu ezinda, agertu bear dio Konfessoreari zer gertatu zaion, ta berriz egin konfesio gaizki egiñak. Orobat esan bear da len aitatu ditugun gauzeetan; ames loiak izaita berez bekatu ez da, esnatu ta ezagueraz lekuri eman ezpaziao amesetan igaro dan atsegin gaiztoari; ez dago konfesatzeko obligaziorik ames alakoak, ta gero konsentitu ez diranak esnatu ondoan. Eztago ere obligaziorik agerezko aragiaren arrotasun loi borondatearen kontrakoak, edo animak gorrotatzen dituenak, zeren ez dago bekaturik bakoitzak bere eskuan ez duen gauzan; ta ez dago bakoitzaren eskuan gogoraziorik gaiztoenak, amesik zatarrenak, ta aragiaren arrotasunik andienak etortzea. Baña egon danak bekatzat artu ta konfesatzeko orduan beldurrez ezin agertuta, bear ditu berriztatu ala egin dituen konfesioak. O zenbat kalte ekartzen dituen ez jakinak! Batzuek edo kondenatzen dira beren kulpaz bekatuak diranak bekatzat ezagutu gabe; ta beste gaiso ta errukarriagoak bekatu batere ez diranak bekatzat artu, ta konfesatzen ez dituztelako lotsaz ta beldurrez; batzuek ematen die leku pensamentu gaiztoei, esan ta enzuten dituzte pozik itzik zatarrenak, dabilta eskuka, ta olganza okerretan, ta oek ezer ezpalira bezela, largatzen dituzte konfesatu gabe, edo konfesatzen dituzte gauza arintzat apainduta; eta beste batzuek tentazio utsak, ta konsentitzegabeak bekatzat artuta, daude lotsaz konfesatu ezinda. O bai, ta zeinbat aldetatik arrapatzen dituen animak Infernuko etsai animazaleak. O Kristauak! Nola bizi etzerate Jangoikoaren doktrina ondo ikasteko gose andiarekin? Zergatik galdetu ez Konfessoreari etortzen zatzun edozein duda, arrazoi on bat ez dezunean zerez beldurra ta ezjakina kendutzeko? O lotsa kaltegarria! Eta zenbat anima eraman dezun Infernuko Laba gorietara.

G. Eta inork emandako tentazio edo bekaturako bideak konfesatu bear ote dira konsentimentu edo lekuri eman ez danean?

E. Ondo da konfesatzea, baña ez dago obligaziorik ezagutzen due-nean bakoitzak argiro lekuri eman etziola, zerren bekaturia ez dana, ez dago konfesatzeko obligazio, edo lotumenik. Esan det ezagutzen danean

argiro, zerren duda egiazkoren bat badu, eman ete zion tentatzeko biderik modestiaren paltaz, edo bear bezelako erreprentzio edo agirakarik egin ote zion tentazio ondoan, edo makalegi egon ote zan, agertu bear du konfesioan. Kristau onai ere askok largatzen ez die tentatu gabe, edo itzez, edo eskuz, edo kiñu gaiztoekin. Alako orduan igesa artutzen bada arpegi astuna erakutsita, edo gaizki esanda, ez dago bekaturik, ez konfesakizunik. Baña bai arpegi alegrea agertzen bazaio tentatzalleari, esanagatik, epel epel, makal makal, zaude geldirik: bai tentatzallearekin egoteari jarraitzen badio, zerren okasioan borondatez dagoanak, nai du pekatua. Nork esan zenbat gezur esaten dituzten konfesioan kristau askok? Galdetzen dio Konfessoreak emakume bati, Badezu zer akusatatu seigarren mandamentuaren kontra Konsentitu dezu gauza loiren bat? Ez Jauna, eranzuten dute; enzun ditut itz txatarrak, egin diztez mutillak eskuka ta oratze batzuek, baña nere borondatearen kontra. Galdetzen dio gauza askoren berri dakian Konfessoreak. Atoz ona, nolako bidez edo okasioz gertatu dira gauza oriek? Joan ziñan zu okasioa zegoan leku edo jende nasaien arteara? Izan zan bakarrik zeunden lekura gizasemea etorrira, bideren baten igaro bidez arkituta, edo mutil neskatoen junta, olgantza, edo batzarkuntzetan? Egiten ziñen pane ta algara gozoa itzketa zatar itsusiai? Ori bai, jauna, dio. Erakusten ziñen arpegi astun, bekoki illun, itzaltsu, ta aseraturik, ta aldegin zenduen tentatzallen ondolik? Ori ez Jauna; parre egiten nuen, dibertitzen nintzan, baña esaten nion, egoteko geldi. Ederki. Nola diozu bada zere borondatearen kontra izan zirala? Zuk nai ez dituzun gauzeetan egoten zera parrez, ta algaraz? Zerbait esaten dizutenean zere onearen kaltean, edo zerbait ostu, egoten zera makal makal, ta algaraz? Sugeran bat ekusten badezu urrean, egoten zera alde egin bage, ta ikutzen badizu arropa edo oñean esango ziñoke, suga, zaude geldi? Zein gutxi! Artuko zenuke igesa, naiko zenuke ill ta zapaldu bertan, larrituko ziñake ekusita beste gabe. Ara bada zer esaten dizun Espiritu Santuak, iges zazu bekatuagandik Sugearen arpegitik bezela. *Quasi á facie colubri fue peccatum*. Txakur amorrotua ekusten badezu, egoten zera urrera ere etorri dakizun? Nola bada diozu nai etzenuela eskuka, ta itz gaiztorik, parrez bazaude esan diran toki ta lagunaren artean? Zer? Bekatuari etzaio gorrotoko geiago bear Suge, ta Zakur amorratuari baño? Ez du estimagarriago zure anima zure honra guzia baño? Zertan dago bada parrez, algaraz, ta olgatzen egotea tentatzen zaitutenean itz, eskuka, ta oratze gaiztoekin? Dago nai izatean, edo damurik ez ematean bekatu mortalak. Ala konfesatzen dira asko jente gazte txit gaizki, ondo agertu gabe bekatuak, ta utsera joerazita gauza astunai.



Badira bai bekatu osoetan erorita ere esaten dienak Konfesoari bere borondarearen kontra izan zala. O konfesio ederrak! Zer egin zizun tentatzalleak? Lotu oin biak, lotu eskuak? Eta ori mendi bakar baten? Ala izan balitza ere, egin bear zenduen deadar Zerura; deadar Ama Birjinari, dei egin zere Aingeru Goardako, edo Zaitzalleari. Egin zenduzen ala? Ez. Jauna orrenbeste ere. Bada egin zenduen bekatu korputza emanaz anima lapurrari. Munduko beldur guziak etzaituzte libratzen bekatu mortaletik onelako gauzaan. Ezpata batekin irten, ta illko zaituelako beldurrez, gogo gabe bazan ere, uzten badiozu korputza bekatu egiteko, egingo dezu bekatu mortala, zeren leenago eman bear da bizitza bekatua egin baño. Indar egiten dizu galtzeko? Erri barruan bada egin bear dezu deadar, lagunak bildu ditezten, ta libra zaitzen. Onrarak galduko ez dezu dakitenekin ta bai irabazi. Esku, ta oñekin, atzaparka ta ostikoka ekin tentatzalleari. Zer egingo zenuke bizitza galdu nai balizute? Nolako deadar, garrasi, ta libratu naiak? Bada maiteago duenak korputzeko bizitza animakoa baño, ez da Kristoren eskolako. Erregu, sari, eskintza gezurrezko batzuekin engañatzen dira, ta gero esaten dute konfesatzean, Jauna, ez nuen nai, nere gogoaren kontra izandu zan. Gezur andia, konfesio gaiztoa. Ipiñiko balizute gaiztoak Kristoren Imajina bat, ta esan, edo illko zaitugu, edo erabillizazu oinpean Imajina santu au, zer egin bearko zenduke? Eroitzaren beldurrez erabilli oinpean? Egingo zenuke bekatu andia. Orobat bada bekatu loirako indarka, edo eriotza begien aurrean ipiñita tentatzen zaituztenean. Galdu bear dezu leenago bizitza, ta izango zera Martiri bat, ta zure izena izango da kristau errietan onra andikoa, ta zure anima zorionekoa Zeruan. Baña gutxiagorekin egiten da bekatu ta gero ez ondo konfesatu. Zein bekatu guzia ezkutatu, zein estalgarriekin eskusatu, orobat da; ta bear bada gaiztoago eskusatzea guztiz ezkutatzea baño, zerren gezur geiagorekin eskusatzen dan.

G. Eta bekatu mortal dudakoak, edo ezda-baidakoak bear dira konfesatu?

E. Berez bai. Duda izan liteke, edo eginaren, edo konfesatuaren gañean. Bata da egin dezun edo ez, konsentitu dan edo ez. Bestea bekatu egin, leenago konfesatu dezun edo ez. Duda bada arrazoi sinisgarri onekoa, konfesatu bear da; baña anima beldurti, kristau ikarakor ta eskrupulosoena, ez; ta Konfessore ondo ezagutzen duenak esaten badio, largatze-ko leengo gauzaai berriz ta berriz erabilli gabe, obeditu begi itxuekin, ta ez beldur izan gaizkitzat artuko diola Jangoikoak bere ministroari, ta bere izenean itz egiten dionean ekartzen dion obedienciaz. Zuek enzuten zaituztenak, ni enzuten nau, dio Kristok bere Ministroen gañeko esanak

egitearen gañean. Badira kristau on bein ezezen, bi ta iru bider ere Konfesio jeneralak, anbat garbiroen egin dituztenak, ta aspertu ezin diranak esaten leengoa gora ta beera. Ai ene! dioe; au konfesatu ote nuen, beste au bear bezela esaten ote nuen? Aztutzen zate zer esan zuten ta zer ez; deabruak enredatzen ditu, gozo guzia galerazitzen die Jangoikoaren gauzeatarako, beldurtzen ditu komuniorako; ta onelakoak, obediencia itxu ta oso bat ezpadie Konfesoari, geroago ta gaizkiago ebilliko dira. Gauza guzietan beti dabilta duda, edo ezta-baideetan. Tentazioetan konsentitu duten, edo ez; baña nola mundu guziagatik egin nai ez duten bekatu mortalik, oen dudak dira sustrai gabeak, despreziatu bear diranak, ta konfesatzeko obligaziorik ez dute. Bai ordea konzientzia bakezkoa dutenak, ta arrazoi onakin dudatzen diranak egin ote zuten edo ez onelako edo alako bekatu mortala, konfesatu ote zuten edo ez.

Ona bein baño sarriagotan gertatzen dan gauza. Ume denporan egiten dira loikeriak, edo motiltxoak neskatxeekin, edo aiek ta oek alkarrekin. Igarotzen dira urteak; gogoratzen zate azitxo eginda, edo bear bada zaartuta zer egin zuten, etortzen zaie lotsa andi bat konfesatzeko. Asitzen dira kontuak ateratzen, bekatu mortalak ote ziran; badakite berenez mortalak ziralako loikeria alakoak; ordea dudatzen dira ote zuten edo ez ezauera osorik bekatu mortal izaiteko. Oroitzen dira, nola ezkutatzen ziran gurasoetatik, ta bazutela malizia edo gauza gaiztoak ziralako ezagueraren bat; ala, ez dute arkitzen arrazoi argi ta osorik sinisteko etziralako bekatu mortalak. Duda edo ezdabaida oetan gelditzen dira erabaki ezinda, ta ez konfesatzegatik, dioe, bear bada etziran bekatu mortalak izango. Ala igarotzen dituzte urte osoak, ta egiten konfesio asko ezdabaida aietan konzientzia txaarrekin. Enzuten dituzte Sermoietan; nola lotsaz konfesatu ezin da, kondenatu zan bata ta bestea; larritzen dira, baña batzuek aurrera len bezela arantza ura atera gabe. O anima gaixoak! Ta nola beldur naizan doktrina au enzuten dauden batzuek arrapatzen dituela deabruak sare onetan! O gauza arritzekoa! Geiago kostatzen zaie batzuei aur denporako bekatuak konfesatzea azita malizia geiagorekin egin dituztenak baño. Onela konfesatu danak egin bear du denpora guzi orretako Konfesio jenerala, agertuaz Konfesoari, zer ta zenbat aldiz (oroitu al badidi) egin zituen loikeriak, nolako ezaguera zuen, zenbat denporan egon dan lotsaz konfesatu gabe. O zenbat kristau galdu diran umetako bekatuak, edo bekatu zirudienak lotsaz agertu ez dituztelako! Gutxi dira urte aietan Jangoikoaren beldur diranak; ez dira palta gaizto malizia goizetik izaten dutenak besteai gauza okerrak erakasteko, naturaleza berriz txikitatik makurtu edo obendua dago gaitzerako, ekusten ditzute edo gurasoetan, ta jende



nasaietan gauza edo akzio zatarrak, enzuten dituzte itz desonestoak, tximino batzuek bezela egin nai dute ekusten dutena, ta ala egiten dituzte gaizto nagusien kontuak, sinisten ere gaitzak diranak, egia ekusiak ez balira. Lotsatzen dira azita, ainbeste gauza loi egiña ain goiz, ta gero egiten dituzte konfesio txaar asko, kontura etorriarik agertzen ez dituztelako Konfesioan. Bada edo konfesatu, edo kondenatu.

Orain bada, Konfesioak onak izaiteko bear du izan egiazkoak, ta osoak. Emendik dator gezurren bat esatea edo engañoatzea Konfessorega gauza astunean dala bekatu sakrilejioko ikaragarria. Ezaueraz gauza astunen bat estaltzen badu, ez du zer itxaran barkaziorik alako konfesiotik. Kontu dezagun dagoala bat bekatuko okasio gaiztoan bere etxeko personaren batekin. Dio bere artean konfesatzen dagoanak, agertzen badiot Konfessoreari, nola nere etxean dadukadan bekatu laguna, obligatuko nau irtetzera, edo ateratzera, ta absolbituko ez nau bestela. Beldur onekin estaltzen dio zirkunstantzia esan bear ura, ta bakarrik konfesatzen ditu egin dituen bekatuak. Au da Konfessorega engañoatzea gauza astunean. Eta zer aterako du zori gaiztoko gezurtionek alako tranpa ta engañoa, sartzeaz? Zer balioko dio absoluzioak? Bere kondenazio geiagorako. Konfesatu bear da okasio gaiztoa, zenbat denporan dagoan, ta zenbat bekatu egin dituen, ta larga okasioa.

Badira beste batzuek ekandu, usuario, edo oitura gaiztoetan sarturik daudenak egiteko eskuka bekatuzkoak edo beren buruakin, edo besteekin. Bein ta berriz estutu ditu Konfessoreak kostunbre edo oitura gaizto onelakoen gañean. Zer egiten dute? Iges beste Konfessore erraz bategana, ta esan gabe lengo oitura gaiztoa edo bekaturen sustraia, bakarrik konfesatzen diozkaz Konfesio artako bekatuak, ta Konfessoreak galdetzen ezipadio, noizkoa dan oitura ura, leenagoko konfesioan, edo konfesioetan alakorik izan duen, artzen du absoluzioa, ta dia pozik tranpa andi bat eginda. Baña Jangoikoari ez die parrerik egingo, ta ez engañoarik sartuko. Au egiten dute askok, konfesatzen dira gutxitan, aldatzen dituzte Konfessoreak igarri ez dezen noizkoa dan gaitza; ezin osatuko ditu. Ala bizi dira asko milla tranparekin absoluzioak aterata sakrilejio andiak egin, eta obetu gabe. Berriz Konfessoreak galdetzen badio, leenagoko konfesioetan alakorik egin duen, dauka obligazioa agertzeko. Jauna konfesatu nituen leengoak esan oi dute. Ez da ansi; jakin bear du Konfessore edo animako medikoak, noizkoa dan gaitz ura, anziñakoa, zaarra, edo berria. Gaitz zaararak beste osakarri edo erremedioak eskatzen ditu.

Ona beste tranpa, askok egiten dutena. Ematen dioe itza konfessoreari egingo dutela gauza osturen baten biurrera, edo restituzioa onelako

edo alako denporan. Gero nagitzen dira, ta ez dute ezer aitatzen urrengo ta geroagoko konfesioetan beren nagitasuna ta biurtzeko atzerapena, edo badiaz bere berri eztaian Konfessoreagana estutu ez dezan Konfessore ezagutzen duenak bere obligazioa. Ala igarotzen dituzte urte osoak konfesio gaiztoak egiten.

Konfesatzen ere dira gaizki egia ez agertuaz tratulari asko irabazi bide gabeak egin, konzienziak kezkatu, ta galdetu nai ez dienak fede onaz Konfessore jakitun bati dan edo ez bidezkoa beren irabazia. Enzuten badute zerbait predikatzen tratu okerren kontra, itotzen dituzte biotzeko kolpeak, ta konfesatzen dira ezer aitatu gabe obliga ez dezan Konfessore jakintsuak biurtzera bide gaiztoko irabazia. Onela konfesatzen dira diruak prestatu premia eskatzen dienai, ta obligatzen dituztenak biurtzera zerbait geiago, edo dirua aurreratzeagatik obligatzen dituztela nekazari gaisoak ematera gari edo artoa txit merke, edo orobat Ikatzak prezio laburrean. Oek dira logreria garbiak; bada dirua prestatzea ta irabazia edo geiago pagaerazitza; dirua aurrez ematea kaiti, ta gari edo artoak gatik (orobat beste gauza guzietan) da berez bekatu logreria garbikoa. Bekatu au gutxik sinistu nai dute, ta gutxiagok ondo ta garbiro konfesatu, ta lapur onratu ta kastigu gabeko oek diaz beren diruak emen largata Judas diruzalea bezela Infernuko Su-lezara. Erraz ezagutzen dira eskuz egiten diran lapurretak. Oen kontra deadar egin oi dute Predikadoreak baño geiago lapur andiangoak, baña ezkutuagoak diranak, ta eztago oentzat lurrean kastigurik aientzat bezela. Konfesatzen ere dira txit gaizki egia ez agertuaz gizon aberats edo ondasundun bat baño geiago, diru gosez limosna txit gutxi egiñaz, edo pobreak bear dituztenak alperrik gastatuaz, edo jokoe-tan, edo bear eztiran gauzeetan. Esatea ez dagoala obligaziorik limosnak egiteko da Ebanjelioaren kontra doktrina berri bat erakatea. Aberatsen salbazioa, da txit gaitza, dionaz Jesu-Kristo testigo ezin obeak. Etzan lapurretako bidez aberastu Ebanjelioan kondenatu pintatzen dan aberatsa, kondenatu zan bere gogortasunagatik. Lazaro pobreak limosna eginenez. Eta zenbatak konfesatzen dituzte onelako zekentasun edo diru nai geiegiak?

Esan degu egiazkoak ez ezen, izan ere bear duela osoak konfesioak.

Ona emendik datorren zuzen bidea, ta fedeko doktrina Trentoko Konzilio Santuan erakatsi ta erabakia. Isiltzen edo gordetzen duenak Konfesioan bekatu mortal edo bere zirkunstantzia esan bearrekoren bat, egiten du sakrilejio andi bat, ta ala komulgatzen bada beste andiango bat; au aditzen da maliziaz edo ezagueraz gordetzen badu, edo beldurrez, edo



lotsaz; zeren utzi badu aztuz, edo oroitu ezaz, ta bere kulpa gabe, ez du alde onetatik bekaturik egingo.

Bigarren. Gutxitzen dituenak bekatu eginak, au da egin dituenak baño gutxiago esan lotsaz ta beldurrez, egiten du konfesio gaiztoa.

Irugarren; edertzen ta apaintzen duenak bekatu mortalen bat kentzen diola bere mortaltasuna arintzat bezela konfesatuta, egiten du bekatuzko konfesioa, ta ala jarraitu badu ezagueraz gaizki konfesatzen ta komulgatzen, egin ditu konfesio ta komunio gaizto adiña sakrilejio, ta Pazkoa kunplitzeko denporan ala konfesatu ta komulgatu danak, ez du bete edo kunplitu Pazkoako obligazioa, ta bai egin beste bekatu bi geiago. Nolako bekatu pilloak biltzen ditu bere animara.

Ekusi dezagun nola engañatzen dituen deabruak anima beldurti asko. Zenbat ote dira txikitan edo geroago ganadu edo beste animaliaeren batekin egin dituzten bekatu itsusiak dala eskuz, dala obraz, edo begiekin, daudenak urte osoetan estaltzen beldurrez, edo lotsaz? Zenbategi onelako bekatu txit asko eginda gutxitzen dituzte konfesatzeko denporan, edo bekatu oso osoak edo obrazkoak ziranak esanaz izan zirala tokamentu edo eskuka utsak? O lujuria ezeri barkatzen ez diozuna! O bekatu asperetzen ta gelditzen etzerana! San Pedro Apostoloak dion bezela, *Incessabilis delicti?* Zer asmatzen ez dezu? Bekatu au zabaltzen da sentidu guzietara, ta egiten dira ain gauza itsusiak, ezen lotsatzen da pasioa igarota egin duena bera. Nork sinis lezake ganadu ta abereai ere barkatuko ez diola? Nork sinistu kristau bat biurtuko dala gauza ain itsusiraño? Beiak, txakurrak, ardiak, ta ganadu beltzak ere izan oi dira bekatu lagunak. Bekatu andia ta ikaragarria; baña edo konfesatu, edo kondenatu; eztago beste biderik. Ona emen ejenplo sarri enzuna, baña askori konfesatu erazi diozkana onelako bekatu gorderik zeuzkeenak.

EJENPLOA

Pelaio zeritzon gizon gazte edo mutil batek egin zuen bein bekatu itsusi bat ganadu edo abere batekin. Bere konzienziak pakerik ematen etzion, baña lotsatu zan konfesatzeko. Siniserazi zion deabruak konfesatu gabe penitentzia andiak eginda salbatuko zala. Sartu zan Konbentu estu baten ta artu zuen abitua. Bere penitentzia ta azaleko bizitza santu irudikoagatik, zegoan birtute andikotzat. Ordea Sugea barruan, ta deadarrez konzienzian Aingerua; Pelagio, alperrak dira zure penitentzia guziak konfesatzen ezpadezu dakizun bekatua. Baña geroago ta gaitzago egiten zitzaion Konfessoreari agertzea, zeren zegoan Santu baten ustean. Onela ill zan. Egin zan bere enterrua, ta uste zuten bere lagunak milagro andi-

ren batzuek egingo zituela ill ondoan. Ekusi zuen Sakristauak urrengo gabean zegoala Pelagioren Korputz illa Sepulturatik aterata kanpoan, ta enterratu zuen berriz. Orobat beste goizean arkitu zuen kanpoan, ta ikaturik eman zion kontu Konbentuko Nagusi edo Abatari. Jetsi zan au beste Fraile guziekin Gorputz illa zegoan tokira, ta galdetu zion itz oekin, Pelagio, izan zerana zere bizitzan txit humilla ta esanekoa, esan bear didazu, zer nai dezun? Zer esan nai du lurretik kanpora irtetzeak? Bear dezu Sepultura honra andiagokoren bat? Ai nere galdua! eranzun zion difuntuak; kondenatuta nago betiko; ez du leku santurik bear nere korputz madarikatuak. Infernua nago ta egongo naiz denpora betikoan abere batekin anzina egi nuen bekatu bat konfesatu ez nuelako. Ez dide ezer balio nere penitentzia guziak. O Abata, kenzadazu nere aolan dagoan hostia konsagratu au, edo artu zuena ill aurrean, ta Jangoikoaren borondatea da ni enterratzea leiza baten abere zatar bat bezela. A, Pelagio, zorrigaitzoko! Zenbat errazago izango zan zuretzat humillik lotsa guzia garaituta konfesatu bazendu zuzen zere bekatua, ta egin gero egin zinituen penitentziak! O nola egongo ziñan gaur Zeruan Jangoikoaren miserikordiak kantatzen beste bekatari penitente askorekin batera.

A Kristau zaudena konfesatu gabe onelako edo bestelako bekatu itsusi bat edo asko! Nai dezu joan Infernura Pelagiori lagun egitera? bada bitik bat, edo zuzen konfesatu, edo zuzen kondenatu.

Deabruak arrapatzen ditu beste batzuek ezkututzen dituztela agertu bear diran zirkunstantzia edo lagungarriak. Aide batekin gauza loiren bat konsentitu duenak, edo egin nola edo ala, eskuz edo obraz, esan bear du aidea zala lenengo edo bigarren graduan; baita geienen iritzian irugarren edo laugarren graduan zan aidetasuna, ala odolekoa, nola eratsia, edo koñatatzatik datorrena. Eta esatea bakarrik egin duela onelako edo alako bekatua persona libre edo ezkondu batekin aidetasuna beldurrez gordeta, da gaizki konfesatzea.

Orobat persona konsagratu edo kastidateko botoa daukanarekin konsentitu edo egin dan bekatu loa, bear da konfesatu personaren zirkunstantziaz izentatu gabe nor zan. O lujuria! Ez naiz aspertuko esateaz. Eta noraño igaro zeran! Eta nola lurreko Aingeruak ta Kastidatearen predikatzaileak ere batzuetan egin dituzun Demonio gaizto ta tentatzalle! Aingeruen ogia jaten dutenak mantenitzen dituzuen ganadu beltzen zuku ta janaria! Elizako Sarean arrai mota guziak biltzen dira; Sazerdote onak ta gaiztoak ta ala estadu guzietan. Jangoikoak gero alderatu edo apartatuko ditu Judas ta San Pedro, Sazerdote ona ta gaiztoa. Gaiztoai jarraitu zienak konseju, edo gauza gaiztoetan, izango dute Infernu guziz andia.



Zeruko Aingeru bat dirudianak ere erakasten badizute doktrina gaiztorik, esan animaren kalteko itzik, edo eman Kristoren kontrako tentaziorik, esan beldur gabe, madarikatua izan didilla. *Anathema sit*. Au da San Pablok ematen duen konsejua. Madariatua alako doktrina, alako itza, ta alako tentazioa; ta iges egin alako Aingeru gaiztoagandik. Luzifer Aingeru andien artekoa zan; erori zan bere santidadetik, ta erori erazi zien anbeste Aingeruri. Parkatu etzien Jangoikoak, ta daude Infernuko leiza sutuan. Ala gertatuko zaie konseju edo tentazio gaiztoai leku ematen dienai ere, ofizioz Aingerua baño geiago danaren tentazioetatik iges egiten ez dutenai.

Konfesio garbiak ta osoak eskatzen du ez nastatzea bekatuak; bear dira agertu pensamentuzkoak pensamentuzkoak bezela, itzezkoak, deseozkoak, tokamentuak, ta obrazkoak bakoitza okertu gabe. Onetan zenbat gezur sartu oi da konfesioan? Iduki ditu batek bakarrean ta bere buruarekin eskuka zikin ta asmo txarrekoak, artu ditu ala atsegin lujurriatik sortuak; ta konfesatzeko orduan esaten du, Jauna, egon naiz pensamentu gaiztoai leku ematen. Gezur andia. Pensamentua baño geiago zan. Pensamentua igarotzen da biotzean leku ematen zaionean, ta eskuka zatarrak dira beste bekatu modua. Ala beste batzuek pensamentu gaizto borondatez idukiak gatik esaten dute, igaro zitzaizkola bereala, etzuela lekuri eman. O zenbat tranpa ta gezur? Nork banaan aitatu? Bekatu oso ta obrazkoak eginda, badira esaten dutenak, konsentitu edo egin dioztela tokamentuak. Emanagatik leku apaka, ta eskuka indezenteai esaten dutenak, etzituztela nai.

Itz gutxitan, estaltzen, edertzen ta apaintzen edo, eskusa txarrekin konfesatzen duenak bekatu mortal, edo bere zirkunstantzia esan bearrekoren bat, egiten du sakrilejioa, komulgatuta beste bat; ta egon danak urteren batzuetan, edo bizitza guzian agertu gabe konfesioetan lotsaz edo beldurrez, egin bear du denpora guzi artako Konfesio jeneral edo guziena Konfessore jakitun ta al dan onenarekin; ta nolako damua eraman bear ez du anbeste sakrilejioz egin dituen animak? Nolako eskerrak eman bizirik gorde duelako Jangoikoak, ta ez ill beingoan, Ananias, ta Safira gezurtiak bezela? Oek ta Judas dira ejemplo ederrak Eskritura Santeetan artuak, beldurtzeko bekatari lotsoor ta konfesio osoak egiten ez dituztenentzat.

Elizako lenbiziko urteetan etzuten kristauak biotz bat baizik. Ondasunak zeuzkeenak eramaten zituzten Apostoluen eskuetara, ta oek ematen zizten pobreak ziranai, ta ala etzan gauza banakorik. Ananias ta Safira zerizten ta senar ta emazte ziranak, saldu zuten sorobat, ta alkarrekin itundu ziran ezkutatzeko diru zati bat ta eramateko beste guzia Aposto-

loi pobreentzat. Joan zan bada Ananias San Pedroren aurrera, bere diruekin, ta esan zion, ona emen saldu degun Soroaren balio guzia. Eranzun zion San Pedrok, Ananias zergatik eman diozu leku Satanasi, ta gezurra esateko Espiritu Santuari, gorde dezun ezkerro etxean lur salduaren diru zatia? Ez diozu esan gezurra gizonari, ta bai Espiritu Santuari. Itz oek aituta, erori zan bertan illik Ananias; etorri ziran gizon gazte batzuek, ta eraman zuten korputz illa lurra ematera. Etorri zan geroago Apostolo onen aurrera Safira, ta etzekien zer gertatu zitzaion bere Senarrari, ta jarri zan San Pedroren aurrean. Esan zion Apostolo onek; niri ekarri zatan dirua, da lur salduaren balio guzia? Bai, esan zion Safirak. Zergatik batu zerate gezurra esateko Espiritu Santuari? Enzuten det zure senarra enterratetik datozenen pauso otsa. Au esan da, erori zan bertan illik emakume gezurti ura ere bere Senarra bezela. Kastigo andi onekin sartu zan beldurra kristau guzietan, ta ikasi zuten nola egia ezkutatu bear ez dan Sazerdotearen oñetan. Ezkutatu zuten zati bat Ananias ta Safirak, esan zien gero gezurra Espiritu Santuari San Pedrori esatean. Norako dira bada urte osoetan dijoazanak sarri Konfessorearen oñetara gezur andiagoak esatera, ta andik gero biotz gezurti ta sakrilego baten artutzera Jesu-Kristo? Nola penitentzia egin bear ez dute onelako bekatari lotsarik gordetzen ez dienak Jesu-Kristo berari? Zer itxaron dezakete konfesio oso, jeneral, ta damu andiko batekin garbitzen ezpadute anima, ta eraman aurrerakoan bizitza guziz on bat? Ixillik egonatzu Kristo orain artean kastigatu gabe Ananias ta Safiraren bekatua baño askoz andiagoak eginda. Baña zure zorigaiztokoa Jesusen itxarote onekin baliatzen ezpazera, ta aurrera bazoaz konfesio ta komunio gaiztoak egiten. Judasek ere ukatu zion bere asmo gaiztoa Kristori; ta komulgatu zan gero. Baña zer igaro zitzaion? Sartu zan bere korputz ta animan Satanas edo deabrua, ernega erazi zion onek, ta azkenean jo zuen Infernuan, leenago kondenatu ta zeudenak sartu etziran tokira. Onela bada izango dute azken txarra, ta Infernu guziz andia besteen aldean konfesio ta komunio gaiztoak eginda penitentzia egiazko gabe eriotzak arrapatzen dituenak. Pensatu ondo. Bitik bat, edo ondo konfesatu, edo betiko kondenatu.



ERAKASTE X.

Gauza beraren gañean

Itz egin badegu ere zerbait bekatu ixildu, edo lotsaz estalduen gañean, badago gaia bigarren doktrinarako.

G. Zer egon diteke ordea esanak esanda?

E. Bekatuak ondo ez agertzeko egiten diran tranpa, ta ematen diran aitzakia, esesio, edo eskusa bide gabeak, esan bearrean argiro, bekatua gutxitu gabe, ta zer ta nola dan. Ona Eskritura santako ejemplo eder bat. Josue Israeltarren Ejerzituaren Buru zala, galdu zuten oek guda edo batalla bat askoren eriotzarekin. Galdetu zion Jangoikoari Josuek, zertan zegoan kastigu ura? Eta adirazi zion agertuko zala noren bekatuagatik izandu zan, ta bota zitzala suerteak, ta erori zitzaien Akan zeritzon Soldadu bati. Artu zuen au Josuek, ta esan zion, eman egiozu gloria Jangoikoari, ta aitor ezazu zer egin dezun? Bazekian Soldadu errukarri ark gastingo andia izango zuela egia konfesatzen bazuen; ala ere naiago izan zuen bizitza galdu bekatu ezkutuan egiña, ta iñork munduan etzekiona ukatu baño. Konfesatu zuen bada onela. Gerra irabazian gelditu nintzan granazko kapa batekin, zillarezko amabi dirurekin, ta urrezko kana batekin, zeñek balio zituen berrogeta amar siklo; au zan moneda edo diru modu orduan usatua: nere diru naiak edo goseak gorde erazi ziztan, ta estaldu nuen zillarra lurraren azpian. Konfesio ain garbi ta ze au eginda, etzuen, lurrerako barkaziorik izan, ta bereala ill zuten arrika. Orra nola konfesatu bear dan bekatua edergarri gabe; ta nola konfesio egiazkoak ematen dion honra Jangoikoari, ta desonratu gezurrezkoarekin. Zer eranzungo die Jangoikoari kristau bekatuak estaltzen dituztenak Juizioko egunean Akan edo Soldadu ark irten ta esaten dienean; nik konfesatu nuen agirian nere bekatu egin nuen malizia guziarekin ta egin nuen guzia barkazioaren esperanza gabe, ta nekiala galduko nuela bizitza bekatua agertuaz. Eta zuek kristau izan zeranok, ukatu dituzute, edo ez esan bear bezela lotsa apur bategatik Sazerdote gordeko zizunaren belarrian ta konfesatuta Jangoikoak barkazioa eskiñi zizuten egun zorionekoetan. Ala lotsatu ta kondenatuko du Soldadu ark kristau konfesio gezurrezkoagatik kondenatuko dana, ta ez du idukiko zer eranzun kargu andi oni. Bekatu bat dago dio San Agustinek, Jangoikoak berak barkatuko ezin duena; ta bekatu au da bekatuaren estaltzea, eskusa edo defensioa. Akusatzen danean bat ezarri dituela madarikazioko itz edo maldizioak, zertara dator edertzea esanaz ernena-

gerazi ziden seme alabak, ezin dezake bizitzarik iñork nere senarrarekin, Santa bati ere galeraziko dio pazienza; ordi bat, ondartzalle bat da? Zertako eskusatzea esanaz egin dizte kalte andiak nere auzokoak, ezin ekusi naute, begitan artu naute, ta gorroto badiet, da motibo andiak gatik. Pakean utziko balidate, bakean egongo nintzake, ez diet nik gaizkirik egin. Au da egiazko konfesio humilla? Zure humiltasun pazienziaren paltaz egin dituzun bekatuen kulpa egotzi besteai; ta agertu oen bekatuak zereak baño argitasun geiagorekin? O konfesio damugabea, ta mutildua! Zertako da konsentitu ezker akzio edo eskuko loiak, esatea; Jauna, ni pakean nengoan, ez nien biderik eman, ni egongo nintzan geldi larga balidate. Atoz ona; ta tentazioari leku emanaz ez dezu bekatuak egin? Zergatik urratu etziñon arpegiko narrua, edo iges egin ez bereala? Zertako aserre andi batekin esan etziñon gaizki zere anima lapurrari? O konfesio ederki apainduak! Akusatzen zera; Jauna, eman diet leku pensamendu gaiztoei, ta akzio zatarrari, baño zertako ez esan, au datorrela joaten zeralako olgantza edo pesta lekuetara: ekusten diozula gauza txaar asko, amorio itxu bat artu diozula, agerzen dituzula bekatuen iturri, ta etor bideak? Bai berriz. Gezurra aurrera; gorde bearrean dana ta utzi zirkunstantzia Konfesoreak, zu ondo osatzeko jakin bear dituanak. Zertako Konfesore begiratu batekin luzatu dizunean absolbitzioa larga artean okasio gaiztoak, eman artean emiendaren señalear, edo egin artean restituzioa, zoaz ernegatzen, gaizki esaten, ta gero biurtu bearrean beragana ordenak kunplututa, joatea beste Konfesore bat engañatzera, esaten diozula nai dezuna, ta estaltzen diozula beste leenago Konfesorearekin gertatu zatzun guzia? Zertako dira asmo galdu oriek? Zergatik ezkutatu bekatuak? Ona emen estalgarri asmatzen dituztenak. Beldurtu nintzan konfesatzeko, zeren uste nuen bearke zala joan Erromara edo Inkisiziora absolbitzioa izateko. Enzun det noizbait ezin Konfesoreak absolbitu lezakeala Bulda santuarekin ere herejiako, bekatua, ta neritzon nik neuzkanbekatuak zirala herejiakoak. O deabruaren asmoak animak atzeratzeko Konfesio oso bat egitetik! Zer ote da zuk herejiako bekatutzat daukazun ori? ganadu, edo animalia motaren batekin eginikako bekatu itsusia? Ez da ori herejiako bekatua, ta edozein Konfesorek absolbituko zaitu orrelako bekatutik damu oso batekin konfesatzen badezu. Ez dago berriz inolako bidez ezergatik absoluzia izateko Erromara, ta Inkisiziora joan bearrik herejiako bekatu egiazkoan erori baziña ere. Konfesoreak berak artuko ditu bideak zuk bururik agertu gabe izan dezazun absoluzioa. Herejiako bekatua dago ukatzen ezagueraz ta temaz bezela Fedeko artikulo, edo Elizako doktrina erabaki bat. Berriz etortzea gogorazio gaiztoak, duda moduak Fedeko Artikulo edo Elizak



erabakita dauzkan doktrina kontra, ez da bekatua damu ematen bazizun alako tentazioak etortzea, edo zere borondatez ta ezagueraz lekurik ematen ezpaziñen. O zenbat alditan egon diran asko konfesatu ezinda onelako pensamentu itxusi, bekatu etziranak, begitandurik akordatzeaz beste gabe bekatu herejiazkoa egin zutela.

Bigarren engañoa; Jauna beldurtu nintzan Konfesoreak norbait esango ziola, edo aurrerakoan begiratuko zidala arpegi astunarekin, ta ekusten nenduen leku guzietan oroitu edo akordatuko zitzaizkola nere bekatuak. Konfesoreak iñori esan? Ez da erreko balute ere konfesoreak agertu. Ez da zerorri ere ezer aitatu premia, ta zure naiz oso edo lizenzia gabe. Urte askotan izan nai Konfessore, ames asko egin ditut milla erakeriatan, ta esaten dizut egia, inoiz amesik egin ez dedala iñoren bekatuekin. O Jangoikoaren Probidenzia miragarria! Ez dunai amesetan ere ezer gogoratzea. Konfessoreai enzun dituzten bekatuak. Konfessore izan diran askok galdu dute burua, edo zoratu zate. Oek esan oi dituzte milla gauza igaro; ordea ez da inoiz ekusi onelakoak ere aitatzea konfesioko gauzarik, ta jende gaiztoren batzuek noizbait zerbait aitatu badie tentatzeko, ase-r-ratu oi zaie zorota guzti. Enzun dezakezu geiago? Bai. Izan dira munduan Sazerdote Konfesoreak Judas bera baño gaiztoagoak, izan dira herejia-erakatsi ta hereje askoren buru izan diranak, ta Konfesoren kontra asko esan ta eskribitu dutenak Lutero batek bezela. Guziaz ere ez dute inoiz agertu konfesoan aituriko gauzarik: ez beldurrez, ta eskrupuloz, ta bai Jangoikoak bere proibenzia miragarriaz aztuerazitzen dielako ezer esatea. Eta kristau eroa, beldurtuko zera Konfesoreak ezer esan ez dezan? Uste dezu egongo dala zure bekatuak buruan darabiltzala, ta egingo dizula arpegiera astuna? Nai dezu ejemplo eder bat?

Zebillela San Luis Beltran misioak egiten eldu zitzaion bein gizon bat konfesatzera: baño au zegoan belaunak ikara egiten ziela, ta izerdi otz bat korputzean irtenda bere burua zekusalako Santu andi baten oñetan, ta bere anima bekatu itsusiz beterik. Igarri zion Santuak bere beldurra. Asi zitzaion galdetzen bekatuak amorio ta samurtasunik andienarekin. Esaten zuenean bekatu itsusi bat esaten zion ezertan gelditu gabe, aurrera, ederki explikatzen zera. Onela esaten zituen animo andi batekin guziak beldurra igarota, ta esanago, ta arpegi alegreako Santuak, zeriozala pozezko negar malkoak gizon gaiso aren buru gañera; ta eman zion penitentzia uste zuen baño ariñagoa esaten ziola; nere Semea, zure bekatu andien penitentzia nere kontura artzen det, nik egingo det zure orde bestez guzia. Gizon gaisoak ito bear zuen negarrez bere bekatuen damuz, ta esan zion Konfessore Santu andi ari Aita, beste bekatu guziak ere enzun dizkidazu

emetasun, edo pazienza andi batekin; enzun bear dit bada konfesatzen nago ala etorri zatan gogorazio gaizto bat ere. Ikusi dedanean berorren biguntasuna nere bekatu andiak enzuteko, etorri zat gogora ez dala berorri izango esaten duten bezein Santua, berorrek ere noiz edo berriz egin izan dituela nere moduko bekatoren batzuek; zeren nola artuko nenduen ala ez izaitera anbeste amoreirekin? Nola ikaratu ta agiraka ito ez ni bezelako gaizto bat? Ai nere Seme biotzekoa, esan zion gutxi gorabera Santuak; Jangoikoari eskerrak, ez det orrelako gauza gaiztorik egin; gaztetxoa nintzala mundua ezagutu baño leenago deitu nenduen erreljiara ta gorde nau bere miseriordiaz bekatu loietatik. Ordea zer nai zenuen? Zeruko Aingeru Santu ta ni baño garbiakgoak alegratzen badira Jesu-Kristok di-naz bekatari baten biurrera edo konbersio egiazkoaz, nola ni gozatuko ez naiz ekusi ezker onelako damuarekin Konfessio jeneral edo oso bat egiten? Nola nik zure malkoak bilduko ez ditut ekintzeko Jangoikoari, zeñiek ateratzen dituen zure biotzetik? Animako mediko egin banau Kristok, nola poztuko ez naiz zu osatuta ekustean? Egin banau Aita animakoa zuk esan dezun bezela, nola konsolatu ez nere Seme espiritukoa egiten danaren osasun ta bizitza berriarekin! Non arkitu nezake nik bazkari gozoa-gorik! O nere Semea. Iraun zazu bada emen artu dituzun gogo santuetan. Salbatzen bagera biok kantatuko diozkaguz Zeruan alkarrekin Jaunari, zuk, itxoran zizulako penitentzia egiteko, ta nik bidaldu zaituelako nigana Kristoren pasioko frutua zure animan iraatseko. Ala egin zuen gizon ark aurrerakoan, ta ariktu zuen Zerurako ate idikia. O kristau beldur ikaraz zaudena agertzeko zere bekatu urte askotakoak, zergatik etzoaz billatzera Konfesorerik birtutetsuena? Dezu premia urte osoetako edo bizitza guziko konfessio jeneral bat egiteko? Ez izutu bekatuari betiko agur bat egin, nai badiozu, ta larga nai badituzu bekatu eraman zaituzten okasioa andi ta ezagun guziak. Zer atera dezu bekatuko atsegin ustel ta zatarretan animako kezka ta arantzak baizik? Jangoikoaren kontra zabiltzala, nola arkitu benetako pakea? Nolako poza izango ez da berriz zurea, bekatuen karga astuna botata, bazoaz Jesusen besoetara Magdalena bat egiñik?

G. A Jauna esan dute batzuek, ori erraz esaten da; baño ez du inork enzun nere bekatuak bezein itsusirik. Ai esanda baneuzka; eta nola aurrerakoan egingo nukean bizitza txit on bat. Baño dauzkadaz bekatu bi edo iru txit jarregarri edo lotsagarriak; besteak esango nituzke errazago, aiek esanda baneuzka.

E. Ai kristau eroa! eta nola kastigatzen zaituen deabruak. Nai dezu betiko kondenatu? Ori ez Jauna. Uste dezu salbatu zindezkeala agertu gabe? Ez Jauna: ori fedeko gauza da. Deritzazu gaur ezin dezula egingo



dezula gero errazago? Ala uste det. Etorriko da misioaren bat, arkituko det noiz edo noiz Konfessore ez ezagun bat, ta erraz esango diozkadala deritzat. Baña nik esaten dizut deabruaren asmoak dirala oriek. Atoz ona; eta badakizu itxarongo dizula Jangoikoak misio berri bat etorri artean? Dezu lurrean egun seguru bat? Eta Jangoikoak zuri denpora luzatzeko da bitartean konfesio ta komunio gaiztoak egitea bide, edo merezimentu ona? Baña etorri didilla misio, etorri Konfessore ez ezagunak; uste dezu esango diozkazuela bekatu guziak ezer gorde gabe? Etzaituela ikara berri batek artuko, itoeraziko dizuna biotzaren ondoan zere bekatua? Ona ejemplo ikaratzekoa, ta sarri esan bada ere Erakastegi edo Pulpito santuetatik, beti izan dana frutu andiaz. Emakume bat arkitzen zan urte osoetan lotsaz bere bekatuak konfesatu ezinda Konfessore ezagunik etzedukalako aitzaki edo estalkiaz. Zeraman bizitza guziz estu bat, jaten zuenak ere onik egingen etziola. Ai esanda beneuzka zion, nere bekatu guziak! Eta nola eramango nukean aurrerakoan bizitza guziz on bat! Ai Jangoikoak ekarriko balit Konfessore kanpoko, ez ezagun ta jakitun bat! Orra non eldu ziran erri artara igarobidez Misionari bi. Poztu zan ikusi zituenean, ta joan zan Elizara urrango goizean itxarotera Sazerdote kanpoko aiei. Sartu ziran oek Elizan meza esateko. Emakume gaiso ura urreratu zitzaion Misionista batari, ta eskatu zion konfesa zezala. Bai ta pozik, eranzun zion Jangoikoaren ministro anima billa zebillen ark. Asi zan Konfesioa, ta bitartean zegoan beste Misionista bere laguna Eliz bazter baten orazioan, ta ekusi zuen onek, nola Zapo erreskada batek prozesioan bezela irteten zuen elizatik kanpora. Au zer da? zion beregan. Nondik dator zapo belz oiek? Begi animakoakin jarraturik, ekusi zuen nola irtetzentzen emakume konfesatzen zegoanaren aotik. Ikara santu batekin zegoala erraparatu zuen, nola emakume aren eztarrian zebillen Zapo txit andi bat, irten nai ta irten ezinik, pelea baten bezela; baña bere biotzeko damu andi batekin ekusi zuen, nola animalia edo piztia zatarra sartu zitzaion sabelera irten gabe. Bereala Zapoen Prozesio irten zuen guzia biurtu zan lengo bidetik, ta guzi guziak sartu ziran lengo tokira, edo emakumearen barrunbera. Jaiki zan Konfesiotik emakumea, baita Konfessorea ere, ta mesa eman zutenean, esan zion bere lagun Konfessoreari beste Misionistak; au ta au ekusi det puntuan konfesatu dezun emakumea konfesatzen zegoan artean; ta beldur naiz lotsa andiren bat ematen zion bekatuen bat estaldu dizula. Konfessoreak billatu zuen andra ura Elizan; ordea etzuen arkitu joan zalako Etxera. Jangoikoari graziak emanda meza ondoan, esan zien alkarri, goazen emakumearen etxera galdu ezididin bere anima gaisoa; igo zuten gora, baña arkitu zuten illik. Ikaratu ziran len igaroz, ta

orduan aurrean ekusten zeudenaz. Jarri ziran orazioan eskatzeko Jangoikoari igaro anaren argia: ta orra non piztu zitzairen, edo agertu Infernutik emakume illaren anima etxura guziz ikaragarrian suge itxusi ta izugarri batek beti zauritzen ziola biotza, ta beste guzia suz inguraturik. Gelditu ziran Jaunaren serbitzari biak konorte, edo zenzugabe bezela beldurraren beldurrez, ta esan zien emakume kondenatu aren animak, Jangoikoare Ministroak, anima ziatezete enzutera nik esango dizudena; jakin bear dezute, nola egon nintzan ni urte osoetan konfesio onik egin gabe ezkutatzen nituela gazte egunetan egin nituen bekatu batzuek, ta oen artean bat guziz itxusitza nedukana. Deabruak engañatzen nenduan siniserazirik largatzeko konfesioan agertzea bekatu aiek beste denpora baterako; Konfessore ezagunari ezin alako gauza itxusirik esan zitekeala; etorriko zala noiz edo noiz kanpoko ez ezagunen bat, ta alako bati esatea zala guziz erraza. Ona non Jangoikoak bidalduta, eskusarik izan ez nezan, etorri ziñaten zuek erri onetara. Asi nintzan konfesatzen; esan nituen bat ez ta beste guziak, ta bat ura esateko sarri abiatu nintzan, baña sartzen zitzaitan ikara txit andi bat, ta azkenean gorde nizun agertu gabe. Ark orain zauritzen nau suge onen itxuran, galdua naiz betiko, ez nigatik orazio alperrik egin, ta predika ezazute mundu guzian nere azkena, ta zer egin duen nerekin Jangoikoaren Justiziak, zeñek ebaki ziran nere bizitza beingoan galdu nuelako alako okasio ederra agertzeko nere bekatuak osoro.

O kristau ero, ta deabruak emakume ura bezela engañaturik zauzkana, zeren zai zaude? Ezin agertu dezula diozu orain, ta gero bai? Gero errazago izango dala bekatu geiagorekin anima kargatuta? Konfesio ta komunio gaiztoakin gogortuko zatu biotza, geitu lotsa, deabruak artu indar edo podere geiago, beteko dezu bekatuen neurria, largako dizu Jangoikoaren len bezelako deitzeak, ta joango zera konfesio oso bat egitera Infernuko Sura Luziferren oñetara, esaten dizu San Bizente Ferrerrek, non ez dezun ezer esan gabe largako, ta emango dizu inoiz akabatuko ez dan Penitentzia.

Bekatu ikaragarriak dira, diozu, ta ezin aoan artu nezakez. Zer egin dezu bada? Esan milla maldizio Jangoikoaren kontra? Madarikatu dezu bere izen santua? Artu diozu gorroto andi bat Jesu-Kristori? Poztu zera Juduak ill zuelako? Zer egin dezu bada? Ill dezu zeure etsaia, edo aur bateatugabea bekatua estaltzerren? Nork igarri lezakean, egin dezuna! Komulgatu ondoan eraman dezu hostia konsagratua etxera, ta eman txakurrari, edo erabilli ostikopean? Ostu dituzu Elizako gauzaak? Egin dezu deabruarekin tratua, saldu diozu anima zere firmaren azpian ta odolarekin? Persegitu dezu Jesu-Kristo, ta bere jarratzalei eman gerra? Ori egin



zuen San Pablok, ta egn zuen penitentzia, ta izan Santu guziz andia. Nork egin du munduan Manases Erregeak beste bekatu? Inork ez; ta salbatu zan konfesatu zituelako guziak deadarrez ta negar andiak Konfesio ezkutukorik etzegoen egunetan. Eta esango dezu gero bekatu ikaragarriak daukatzula! Zer ote dira berak? edo eskuka zikin zere buruarekin egiñak, edo animaliarekin egindako bekatuak, edo sarri konfesoreak enzun dituen, beinzat bai erakurri, bekatuak. Aitatu ezin dezula diozu. Ona bada zer egin bear dezun. Esan Konfesoreari, lotsa andia ematen diden bekatu bat, bi edo geiago daukat ta inoiz konfesatu ez ditudanak; ta berorrek lagundu bear dit pazientzia andi batekin galdetuaz; ta esan zein mandamenturen kontrakoak diran. Ekusiko dezu, nola Konfesoreak itz au enzunda, animatuko zaituen, ta esanerazi. Pekatu andiagoak egiten dituzu komunio gaiztoekin zuk esan ezin dituzun besteak baño, bada treatatzen dezu Kristoren korputz eder Zeruan, ta hostia santuan dagoana Juduak tratatu zuten baño deshonra geiagorekin; ta au nai du deabruak zuk bekatuak ez agertuaz. O anima kristaua! Nola iduki dezakezu lurraren gañean pake apur bat, nola farre gozo bat egin, nola joan lotara, konzienzia gaizto ta larrituarekin? Kain zorigaiztokoak etzuen egun on bnat ekusi bere Anai Abel justoa ill zuenetik, beti zebillen igesi erririk erri mundu guziak ill bear zuelako beldurrez. Zuk zere beste bekatu ezin esan dituzunai geitzen diozkazuz sakrilejio izugarriak komunio ta konfesio gaiztoekin, ta daramazu Kristo ber bera zere bekatu zatarren ta infernukoak dauden Karzelara. Orra zer egiten dezun osoro ez agertzeaz.

Adiezazu ejemplo au, ta ekusiko dezu nola pakerik arkituko ezin dezun atera artean zere biotzetik gorderik daukatzun bekatuak. Zaldun aberats batek egin zuen bein bekatu guziz itxusi bat. Damutu zitzaion laster; ordea nola kristaua zan, konfesatu bear zuen salbatuko bazan. Baña gogoratuaz beste gabe esan bear ziola Konfesoreari, irtetzen zion izerdi larri batek. Ernegatu zuen bere buruarekin pakerik arkitu ezin zuelako iñon. Enzun zuen noizbait bekatu aztutzen ziranak konfesioan, barkatzen zirala, ta etorri zitzaion burura aztuko zitzaiola berak egin zuen bekatu itsusia irten ezker munduko erri andiak ekustera, ta aietako dibersio, jolas, edo olgantz modu guzietakoa ematen bazan. Ala egin zuen; bazebillen erririk erri, jokorik joko ukatzen etziola bere buruari nai al zezakean jostatze edo dibersorik. Ordea guzia alperrik; beti arantza biotzean, lo gozorik ez, ta bere bekatua begien aurrean beti. Ekusirik etzuela pakerik arkitzen bere asmo eroakin, esan zuen: bear bada limosna andiak eginda, gaisoak Hospitaletan ekusi, ta konsolatuta, Elizetan ordu luzeak igarota, aztuko zitzaiola bere bekatua, edo barkatuko ziola Jangoikoak konfesatu

gabe. Baña geroago ta larriago bere biotza: Zer balio dizue, esaten zion konzienziak, zure Eleizako egoera luzeak, zure limosna guziak bekatu ori animatik bota gabe? Azkenean bere buruari pakea emateko erabaki zuen Judasek bezela urkatzea. Bazijoan egitera; ta orra non arkitu zuen bidean San Ignazio Loiolakoren Seme, edo Jesusen Konpañiako Sazerdote bat. Beren agurrak eginda, erregutu zion Zaldun triste ark igo zezala bere Kotxera; alakoak izan ziran erreguak, ezen sartu zan Sazerdote Jangoikoak prestatuziona. Jaiki zan Ostia illun edo eguraldi trumoezkoa; asi zan esaten Relijioso ura, zein gauza ona zan konzienzia garbia idukitzea, nola pakerik etzeukan pekatuan zegoanak; oñaztarri batek, edozein gauzak eraman zezakeala mundu onetatik, ta konfesio egiazkoak ekarri zezakeala bakarrik zorioneko izatera mundu onetan ere; lurreko ebillera, jolas ta dibersio guziak etzekarrela animako deskasu, atseren edo pake iraunkorrik. Jauna, esan zion Zaldun ark; nondik daki berorrek nire berri inoiz alkar ekusi gabe; ta bata besteagandik urrutikoak izanda? Non irakurri du nere konzienziako librua? Nik ez det berori ezagutzen eranzun zion Errelijioso ark; baña nola San Ignazio Loiolakok enkargatzen digun beti itzegiteko gauza ona, ala irten dide enzun dituenak. Ala bada Sazerdotea ta Konfesoarea naiz, ta ezertako nai banau, emen nago prest animaren salbazioan laguntzeko. Konfesatu gabe balitza egingo nuke edozein gauza; baña ez niri aitatu agertzea nere konzienzian gorderik daudenak. Izan didilla ala; esan zion Sazerdoteak, baña artzazu librutxo au, egizazu emendik esamina konfesatzeko ezpada ere, damu andi bat artzeko; ta gero biok ibilliko gera mendi onetan paseo batzuek ematen. Egin zuen ala; irten zuten alkarrekin basora, ta zebiltzala, esan zion Sazerdote ark. Etzera zu orren jakituna animako gauzeetan, ta nik aitatu dizkitzudaz nolako bekatuak egin oi dituzten gizon errukarriak; mandamentu onen kontra egin oi dute au ta au, beste onen kontra au ta au, baita onelako ta alako bekatua ere; ta aitatu zion Zaldun ark egin zuen bekatua. Ai ene! Orise da nere bekatua, esan zion Jesuita anima zale ari. Orrek narabil zoratuta. Ori da nere animako borrero gogorra; ta ori ezin esanak inori, neraman burua mendi onetan urkatzera bakea billatzerren. Oratu zion laztanga Sazerdote asmo Santuz beteari, etzin zitzaion bere oñetan; ta esaten dio konfesatu bear nau, enzun bear dit nere Konfesio jeneral edo bizitza guziko, pozik esango ditut ekusi ezker idiki didala nere biotza, atera dedala suge tormentatzallea. Ala eginzuen negar andiak; eman ziozkan milla esker Konfessore ain onari, biurtu zan bere etxera, ta egin zuen gero bizitza santu bat.



A Kristau maite, zaudena bekatuak agertu gabe lotsaren lotsaz; zeren zai zaude? Alperrak dira zure asmoak; ez dezu pakerik arkituko emen lurrean esan artean guziak estalki gabe. Konzienziako arra bizi da, ta biziko da gero ere Infernuan orain iltzen ez badezu bekatuari eriotza emanaz Konfesioko ezpata zorrotzarekin. O bekatua! Laburra da zure atsegiña ta luzea zure miña. Amon Zaldun zorigaitzoko ta Dabiden Semea gaisoa argaldurik dabill Thamar emakume ta aidearen amorez. Milla asmazio egiten ditu erakarteko bekatua, ta indarrez bezela irtetzen du bereaz; baña bekatu egin orduko amore loi guzia biurtu zitzaion gorrotora, ta egun gutxiren buruan ematen dio eriotza dama engañatu zuenaren Anaje Abasalonek, ta jetsi zan Infernura bekatuaren arrarekin.

G. A Jauna esango dit onela konfesatu ezinik dagoanen batek: nork arki lezakean orain aitatu duen, bezelako Sazerdote on ta biotz biguñeko bat! Baña ez det nik arkituko orrelakorik. Nik ez dakit nondik asi ere anbeste urteko konfesioa. Itz gogor bat enzuten badet ezingo ditut esan.

E. Egia diozu alde batetik; Konfesorarik Konfesorera dijoa desberdintasun edo deferenzia andia. Bear dezu autu ta billatu al dezun birtute-tsuen ta jakitunena bide luzeak egin bear badira ere. Enzun ta enzun baño egiten ez duen Konfesoareak, edo presaka ta gogo txarrarekin dagoanak, nola largako du pakean naaste andiak dauzkan anima lotsatia? Galdetzen ezpazaie askori, ta ikutu zaurian, geldiko dira bekatua gaizki esanda, ta irtengo du anima gaixoak sartu zanean baño kezka geiagorekin. Artzen ezpadira itz biguñakin, laguntzen ezpazaie ateratzera ezkutuan dagoan suge okertu ta kirimillatua, ta barrenago sartuko da. Eta zer, itz gogorren batekin ikaratzten bada? Zergatik kondenatu zan Inglaterako Errege baten alaba? Enzun ejemplo au, zeñek eragin dituen Konfesio on asko predikatu dan aldi askotan.

Inglateran Fedea osoa zegoan egunetan, izan zuen Errege batek alaba bat guzia Jangoikoari emana. Bere edertasuna zan inork ez bezelakoa, ta billatzen zuten Errege kanpokoan Semeak ezkontzarako. Ordea etzien enzuterik ematen, ta egin zion Jesu-Kristori kastidateko eskintza edo boto osoa. Egun guzia igarotzen zuen edo erakurtzen liburu onak, edo orazioan, edo gaisoi hospitaletan laguntzen, eta etzegoan Ingalterra guzian beste zer esanik ezpada Dama aren limosna, humiltasun, ta birtuteak. Egunoro erakurtzen zion Pajetzat zeukan Zalduntxo batek liburu debozioko bat, ta gero onek muñ egiten zion eskuan aldegitiko denporan. Deabruak emendik artu zuen Dama santa ura galdutzeko bidea. Eskuan muñ egiteko orduan, etorri zitzaion gerra lujuriakoa, etzion lekuri eman egun askotan; baña okasioa guziz kendu etzuelako, egun batean

alakoa izan zan deabruaz eman zion bekatu naia, ezen egin zuen Zalduntxo gazte arekin eskuka edo tokamentu itsusi bat. Laster igaro zan atsegini loa; baña ez beingoan konzienziako arra. Damutu zitzaion bereala; txikitzen zuen negarrez bere burua; deabruak ematen zion ernegazioko gerra. Zer egin dezu? Errege andi baten alabak egingo zuen gauza ain itxusia bere serbitzari batekin? Nora dira zure limosnak, zure orazio, penitentzia, ta obra on guziak! A traidorea! Zuk egin ziñion Kristori Kastidateko promesa, edo eskintza betikoa. Galdu dituzu anbeste ezkontza eder, gorde-tzearren, ta orain erori zera bekatu itsusian. Ala zerabillen deabruak desesperazioko bidean. Guziaz ere atera zuen kontu, obe zuela mundu onetan lotsa apur bat igaro ta konfesatu zuten, ta ez gero Infernuan agertu. Joan zan negar andiekin bere Konfesoarearen oñetara, ta esan zion, Jauna erori naiz tokamentu itxusi baten nere serbitzari gaztetxo batekin. Konfessore zenu gutxikoak esaten dio, Zer? Berori erori bekatu ain itxusian? Errege baten alaba, ta anbeste urtean santa bat bezela bizi ezkeror? Zer dio? Egia da? Alako moduz ikaratu zuen ze mai edo agiraka bidegabeko ark, ezen esan zion edertuaz; pensamentu nai izan edo konsentitu bat izan zan, ez geiago. Eta zer? esan zion berriz Konfessore txar ark; gutxi da pensamentu loi bati leku ematea alako birtutean bizi izan danarentzat? Nora dira berorren limosnak? Nora penitentzia ta anbeste obra on? Bel-durrago egin zan Dama gaixo ura, ta esan zion Konfesoari, Jauna, ezin esanezake lekuri eman niola gogorazio loiar. Onela galdu zuen Konfesio guztia, bekatua gutxituaz, ta azkenean ezerezero jo eraziaz lenengoan ondo konfesatu zuena. Absolbitu zuen Konfesoareak, komulgatu zan, ta geitu zituen bekatu sakrilejio andiko bi, bere tokamentu itxusiaren gañean. Geroago ta lotsaago ta artu zuen eriotzak konzienzia garbitu gabe. Pobre guziak negar egin zuten bere eriotzan, Ingalterra guzian etzan entzun ezpada ill da gure Erregeren alaba santatxoa; ta uste zutenean egingo zuela mirari andiren bat, besterik gertatu zan. Agertu zitzaion anima Santa bere ezagun bati guzia suz inguraturik, ta esan zion nola ta zergatik kondenatu zan. Baña o Konfessore gogor astun, ta itz garratzakin bidea eman diona ixiltzeko bekatua, ta nolako kontua eman bearko dion Jangoikoari! Billa ezazu bada kristau lotsatia, ez Konfessore lasai, mundu zale, ta nola alakoa, baizik anima zale, orazio zale, libruzale, ta Jangoikoaren erreko bat. Onelakoak gatik uste oi dute kristau lasaiak, estuak dirala; baña oek dira biguñenak ta animak geien maite dituztenak. Zertan dago biguntasuna? Ematean bereala absoluzioa kristauaren anima prestatu gabe? Itz egitean bekatariari bekatua ezagutuko ez duen moduan? Largaratzean okasioko bideetan ardura gabe? Enplastu arin eta azalekoekin



osatu nai izatean barren barreneko gaitza gaixoari kontentu ematerren? Ori litzake gogortasunik andiena, animako osasuna ez billatzea. Ekusten bazaitu Konfessore Jangoiko zale batek eldutzen zerala bekatuen damuz ta on izateko gogo sendoeekin, nolako poza artuko ez du zuri erasotzeko bekatuak itsusienak? Nolako poza artuko ez du Jangoikoak bialtzen zaituelako osatu zaitzan ardo ta oliozko unguentu edo balsamo biguñarekin? zenbat atsegin artuko ez du anima baten salbaziorako bitarteko edo instrumentutzat artu duelako? Ez diozu enzungo esaten Fariseo gaiztoak bezela, *recedé ame*, kendu zaitte emendik, zoaz nai dezun lekura, ta bai Jesu-Kristorekin, atozte nigana bekatuen karga andiarekin makurturik zaude-nak, ta karga ori kendu nai dezutenak, nik arindu, nik konsolatu, nik lagunduko dizuet.

Badakizu zerk mintzen duen Konfessore jakitun ta anima zale bat? Ekusteak bekatuaren ardura ta damu gabe datozela konfesatzen asko, larga nai ez dituztela bekatuen okasio andi ta ezagunak, ondutzeko gogorik erakusten ez dutela, restituzioak egin nai ezak, artu nai ez izateak osagarririk. Oekin ere peleatzen dira amorezko itzak in ezaguerazitzeko beren animetako peligro andia, ta luzatzen badie noiz edo berriz absoluzioa izaten da amorez, ta presta ditezen bekatuen damua Jangoikoari eskatzera. Baña topatzen dituztenean biotz bigunduak, ondu nai dutenak okasioak larga ta, prest daudenak onagarri edo erremedioak artzeeko, negar egiten dute pozaren pozez, artzen die penitenteai amorio garbi ta Zeruko bat beren animako umeai bezela, egiten dute orazio oen salbazioagatik. Ez dira falta non edo non, errian edo auzokoan onelako ministro zelo andikoak, ta billatu onelako bat biotz guzia agertzeko ezer estaldu gabe. Baña lotsa ta beldurrak zer asmatzen ez du?

Badira beste batzuek leenago ezkutatu duten bekatua agertzerantz animatzen diranak, baña ez esatera lotsaz gordeta iduki dutela anbeste konfesiotan. Akusatzen naiz Jauna txikitxo nintzala egin nuela laguntxo batekin onelako edo bestelako loikeria bat, bi edo geiago, ta gogoratu zat konfesatu ez dedala, aztu zitزالako. Gezurra diozu. Etxitatzun aaztu, sarri gogora etorri zatzu sermoietan, ta beste ordu askotan; iduki dezu, ezin esanda lotsaz ta beldurrez, ta orain lotsatzen zera berriz esaten, nola lotsaz konfesatu gabe gorde dituzun, estaltzen dituzu ori esanda konfesio ta komunio gaiztoak, ta zer balio dizu agertzea lengo bekatu konfesatu gabeak agertzen ezpadezu zenbat konfesio ta komunio egin dituzun konfesatu ezinaz beldurrez? Lenengoan asko zan esatea bekatu egiñak; baña larga duenak konfesioan lotsaz agertu gabe, esan ere bear du argiro, estalki ta jira bira gabe bekatua gogoan zedukala egin dituen konfesio ta

komunio txarrak. Gauza bat da aztutzea, ta beste bat lotsaz ezin esanik gordetzea. Aztu utsa esan bear da aztu utsa bezela, ta lotsaz konfesatu ez dana, izan dan bezela; Orra len esan nuena, nola geroago ta gaitzago dan bekatuak konfesatzea, gero esan bear diralako konfesio ta komunio gaizki egiñak ere.

Orain lotsa andiarekin arkitzen naiz; dio beste batek, baña kondentatzeko beldurrak konfesatu eraziko dizkidaz guziak eriotzako peligroan. Uste den emango didala Jangoikoak asti ta lekua; deituko diot Konfessore on bati, ta konfesio jeneral batekin garbituko det nere anima. O deabruaren gogorazio gaiztoa! Nondik dakizu emango dizula Jangoikoak epe galanta ta astia? iltzen ez dira asko beingo batean ezertako astirik ez dutela? Onela iltzen ez diranak ere, zenbati burua galdutzen zaie ta ekusten dira arrazoi argi gabe? Ez det ori nai: demagun ezaguera osoarekin zaudela: baña non idukiko dezu burua konzienzia ondo esaminatzeko urte askotako konfesio ta bizitzaren gañean? Gaitz gogorak, buruko miñak, kalentura erregarriak, beldurrak, aietan dabiltzan jendeak largako dizute ondo konfesatzen, ta matasa guziak baño naastuago idukiko dezun konzienzia ariltzen, edo garbitzen. Erraz izango da arpegiz arpegi esatea Konfessoreari anbeste bekatu, len mantillapean ta saretan batetik esan ezinda egon baziñan? O itxutasuna! Beldurrak esan erazio dizkit, diozu bai, ta beldur utseko konfesioa nolakoa da? A egia esan nai balute eriotzako peligroan konfesatu ta gero osatu diranak, ta nola esango lukeen batzuek gorde zituztela bekatuak lotsaz, ta infernura bear zutela osatu ezpalitu Jangoikoak.

Enzun ezazute San Antonio Florenziakoak kontaktzen duen gertaera edo ejemplo beldurgarri au. Dama ondo jaiotako batek egin zuen bere buruarekin, ta bakar bakarrik eskuka loi edo desonesto bat; atsegin gaiztoaren ondoren sartu zitzaion egin zuelako damu ta pena andia, zerren etzan beste batzuek bezelako bein, birritan, ta geiagoan eginda ere bizi diranak damu gabe. Txikitzen zuen negarrez bere burua. Ai ene! esaten zion konzienzian Aingeru onak, bekatu mortalean zaude; iltzen bazera kondentatua zera. Zoaz Konfessore bategana ta agertu ezazu egin dezuna estalki gabe. Bada edo konfesatu, edo kondentatu. Geroago ta gaitzago izango dezu. Baña deabruak ematen ziozkan kontrako gogorazioak; nola len ain garbia ta modestia izanik esango diozu Konfessoreari gauza ain itsusi bat? Zer esango dizu? Utzi ezazu beste era obeagoren baterako. Ala engañatu zuen, ta konfesatu zan ezer agertu gabe, baita komulgatu ere. Geroago ta gaitzago egiten zitzaion ta bere animako kezka, beldur ta larritasunak igaro ezinik, beti triste zebilela, erabaki zuen sartzea monja. Etxegoan



Konbentu guzian bat berak beste penitentzia ta orazio egiten zuenik, ta zan guzien ejenploa. Baña sugea ill gabe; konfesatzen ta komulgatzen zan munduan egin zuan bekatua agertu gabe. Jangoikoak penitentzia ta orazioko denporetan ematen ziozkan inspirazio edo argi andiak. A gaixoa! Zer balio dizun anbeste penitentiak zure humiltasunaren paltaz agertzen ezpadezu bekatua ta egiten dituzun sakrilejoak? Armiarma baten bearra, neke alperra, arbola igartuari simaurra, edo ongarrria botatzea, Konfesaezazuz. Baña beldurrak etzion largatzen, ta aurrera penitentzia ta konfesio gaiztoak. Alako baten egiten dute Konbentuko Nagusi. Orduan gaitzago zeritzon konfesatzea birtutere andiaren usaia zabaldu zualako. Bete zuen bekatuen neurria, eldu zitzaion azkeneko gaitza. An ere etzion largatzen konzienzia edo Aingeru onak; deitu zion Konfesoerari, ta azkenean beldurraren beldurrak atera zion itz labur au, Jauna, eskrupulo bat etorri zat. Baña nola Konfesoerak zedukan santatzat esan zion oriek dira deabruaren tentazioak, bota eskrupulo oriek; ala geiago esan gabe konfesatu ta komulgatu zan, artu ere zuen Oliazio edo Unzio Santua, ta ill zan monjaz inguraturik negarrez zeudela alako Abadesa santa bat galdu bear zutelako. Il zan gau artan zegoan bakarrik Koruan beste monja birtute andiko bat enkomendatzen bere abadesa defuntaren anima. Orra non lanparako argian ekusi zuen, keriza belz ta izugarri bat; ikaratu zan guzia, baña Jangoikoaren graziaz sendotuta, galdetu zion; Zer zera, ta zer bear dezu? Ai ene! Eranzun zion itxura belzak, ni naiz zuen Abadesa gaur ill ta Infernuan nagoana; ez nigatik oraziorik egin; Jangoikoaren Justiziak arrazoi andiarekin kondenatu nau; sarri bizitzan deitu zidalako konfesatzera gatzetxoa nintzala munduan egin nuen tokamentu edo eskuka loi bat. Inoiz ez det konfesatu, alperrak izan dira nere penitentzia, ta orazio luzeak: ni izan nindekean Santa andi bat bekatua egin, ondo konfesatu, ta gero egin ditudan obra onakin. Ordea galdua naiz galdua naiz, nere honra, geiagotan iduki nuelako, nere anima baño.

O ejenplo arriak biguntzekoa! Bekatu bakar batek galerazi bearra anbeste penitentzia! O onra gaiztoa ta zenbat eraman dituzun infernura. Konfesatu ezin zituena munduan ixiltxorik, dakar beste mundutik Jangoikoaren Justiziak agertzera bekatu guziak ta bere kondenazioa beste monja bat, ta onen bidez besteai, ta andik ona publikatu da Pulpito askotan besteen bildurgarrirako. O zenbat errazago izango zuen esatea ixiltxorik damu andi batekin gordeko zion Konfesoer bati! A Kristauak! Badago zuen artean iñor onela deabruak engañaturik? Atoz ona esatera eriotzako orduan agertuko dituzula ez bekatu bakar bat monja ark beze-la, baita ere lotsa geitzeko asko diran bekatu izugarriak. O kristau zoratua!

Nai dezu anima galdu betiko onra apur bategatik? Zer diot? Onra galdutzen dala? Konfesoerak mespreziatuko zaituela? Galdu zuen onrarik Magdalenak joan zanean Kristoren oñetara an negarrez ta askoren aurrean agertzera bere bizitza gaiztoa? Galdu? Alabatu zuen Kristok, atera zuen arpegia gaizki esaten zutenen artean, ta desonra andiarekin eldu zana biurtu zan Kristok onratuta. Eta nolako onrarekin zabaltzen da bere konfesio humill, ta penitentzia? Samaritanaren bizitza txaarrak, non ekartzen dio desonrarik penitentzia egin ezkerero? A Kristauak! Nik esaten dizuet, konfesio garbi egiazko ta oso batek laguntzen dionean bekatuen damu, ta ondu nai zindoak, onratzen duela anima Konfesoeraren begietan ere. Eta zenbat geiago Aingeruen begietan ta Jangoikoaren aurrean? Nola onratu etzuen, Ebanjelioak kontatzen duen Aitak, Seme galdu ta etxera biurtu zitzaiona? Nolako ereztun ta soñeko ederrekin apaindu etzuen bere oñetan bekatuak agertu ta negar andiekin barkazioa eskatu zionean? Bai Jauna, zion Dabid Errege penitenteak Konfesio ta edertasuna alkarrekin janzi edo batu dituzu. *Confesiones et decoren induisti*. Ez da Kristoren aoko itza Aingeruak jai andia zelebratzen dutela Zeruan bekatari baten egiazko biurrera edo konbersioan? Orra nola onratuak diran Zeruan ere ondo konfesatzen diranak.

Oriek orrela dira, dio nork edo nork; baña ez da erraz agertzen urte askotako bekatu ixilduak, ta egin diran konfesio-komunio gaiztoak. Eta errazago da emen lurrean eramatea bizitza larri ta kezka bete bat, lo gozorik ere ezin egin dala? Zenbatek amesetan ere igarotzen dituzte ikara andiak! Ona batekin neuri gertatu zatana, ta inork ezagutu ezin dezakeana. Egin zuen Misionista batekin Konfesio jenerala, baña larga zion bekatu itsusi animaliak egiña, ez aaztuta, bai beldurrez. Geroago gau baten izan zuen ames beldurgarri bat txakur andi baten itxuran galdetzen ziola, atoz ona, zer jaten dezu? Zerekin mantenitzen zera? Ikara gorrian zegoan gizon tristea. Gu mantenitzen gera bada Infernuan piztia txaarren aragiarekin. Etorri zitzaion gogora nola gaizki konfesatu zan, nola estaldu zuen lotsaz bekatu itsusi bat. Esnaatu zan ta izerdi larri batekin. Luze iritzi zitzaion gauari konfesatzera joateko; jaiki zan bereala ta eguna baño leenago irten zuen nere billa; etzirudian zana beldurraren beldurrez, ez agertzeko bekatua, zerren erraz konfesatu zituen utzi zuena ta beste guziak; baña bai kondenazioko beldurrez. Lagundu nion amorez ta aleginez, ta damu andi baten señalekin egin zuen nere iritzian Konfesio eder, ta oso bat. Jangoikoak eman zion gizon gaiso oni mirarizko grazia bat, deitu zion ames onean, ta agiri izan zuen zerukoa zala dei ura, ekusi ezkerro zein erraz agertu zituen bere bekatu len esanak ta ez esanak.



A kristaua! Zuk lo egiten dezu ames beldurgarri gabe konfesio ta komunio gaiztoak egiten dituzula? Parre egiten dezu, olgatu galanki konzienziako kezka gabe? Zer esan zure biziera modu orren gañean? Kangrenatuta dagoala zure biotza miñik artzen ez duenean. Betiko eriotza urrean dezula, Jangoikoak larga bezela zaituela. Baña etorriko da ordua, zeñean iratzartuko zeran lo zorro gogor orretatik. Zuk estaltzen dituzu, Konfesoari agertu gabe, dakizkitzun bekatuak; ta nik, dio Jangoikoak Natan Profeta santuaren aoz, nik agertuko dizkitzudaz, ta arpegian eman; nik erakutsiko diet jende guziei zure billostasuna, ta desonratuko zaitut reinuen artean. Bai, dio San Gregoriok, bekatuak itz egiten dute. Zure bekatuak ezkutuenak, gordeenak, ta lotsagarrienak itz egingo dute juizio-ko egunean; esango dute. Zuk egiñak gera. Badira Saul Erregearen gisako asko largatzen dutenak ill gabe. Agag Errege gizen gizona, gordetzen dituztenak gauzarik baliosoan, ta bakarrik ill ta erre gutxi balio duten gauzak? Zer esan nai det? Badirala konfesatzen dituztenak beste bekatu txikiagoak, ta ez bekatu gizen, lodi lodi ta itsusien bekatuek, guziak ill bearean konfesioko ezpataz. Ordea esango die eriotzako esturan Sauli bezela ekusten dituztenean oe aurreen itxura belzak, *Ameleciēs ego sum*. Ni naiz zuk ill bear zenduena. Ekusiko du animaliaren itxura, ta esango dio, ni naiz arako abere edo giberrri bekatuako billatu ninduzuna. Ekusiko ditu aurtxoak, ta esango die, gu gera bekatu egitera eraman ginduzunak. An ekusiko dute batzuek aurtxo txiki bekatua estaldutzeagatik bateo gabe ta amaren sabelean galduak. Eta nolako ernegazioa, nolako desesperazioa ekustean argiro eriotzako kandelan bekatu ondo konfesatu gabeak? Illko zera azkenean, ta joan bear ko dezu Jesu-Kristoren Tribunalera Aingerua, deabrua, ta zure konzienzia testigo dituzula bizitza guziko Konfesio jenerala egitera. Nola irtengo dezu deabruak ta konzienziak akusatzen zaituztenean, nola onelako edo alako bekatua konfesatu gabe larga zenuen lotsaz ta beldurrez, onra apur bategatik? Norako zera Kristoren oñetatik? Nora? O salto ikaragarria! Infernuko Luziferren oñetara. Zer egingo dezu an? Ukatu ta estaldu bekatuak Konfesoari bezela? Edertu, gutxitu, ta eskusatu? Ez. Esango dituzu nai ta ez damu gorrian andi ta txikiak desesperazioko amorruekin; emango dizute komunio orde dragoien beazuna, ta azkenean beti beti iraungo duen penitentzia. Ez nau ni gaurko sermoian ezertan artutzen dioe batzuek: nik ez det konfesatu gabe ezer larga dakidala ta lotsaz. Ero garbiak dira probetxo gabeko ta kalte andiko konfesioak egiten dituztenak. Ez naiz ni gezurrak esatera joan konfesoaren oñetara? Ez? Atoz ona bizio gaiztoetan sarturik egon zerana, konfesiotik bekatuak, bekatutik konfesiara zabilzana, ez diozu esan Konfesoari

dezula proposito egiazko ta sendoa ez geiagoren geiago bekatuak egiteko? Ori bai Jauna. Bada zein gezur andiagorik! Zu biurtzen zera erraz bekatuak, zure propositoa izan da gezurrezkoa, zure konfesioak gaiztoak ezer konfesatu ezpazendu bezela. Eta bizi zera guziz estaltzen dituenak baño kondenazioko peligro andiagotan konfianza bide gabearekin bizi zeralako. O nola egunen baten agertuko dan biotza bekatuarekin zendukala damu det Jauna gezurrez esaten zenduan! Ai nere kristauak! Eta nola deabruak arrapatzen dituen asko konfesio txar askoren bidez. Mundua beti bat bekatu ta guzi; aurrera lujuriak, aurrera irabazte bidegabeak, aurrera bekatu modu guziak, ta aurrera konfesio gaizto ta frutu gabeak. Konfesatu nai ezpadiuzue zuzen, utzi nai ezpadiuzue benetan bekatuko okasio ezagunak, barkatu Jesu-Kristori esaten dizue Elizako santu andi batek. *Parce in te Christa*. Zertako zoazte laztan falso bat ematera Judasek bezela? Zertako jan nai dezute Jangoikoaren juizioa komunio gaiztoetan? Zertako eldu sillatzera bezela zuen kondenazioa Kristoren odolarekin. Ez dira asko ta geiegi beste bekatuak? etorriko zerate persegitzera Jesu-Kristo berbera sakrilejio andien bidez? Bada bitik bat, edo ondo konfesatu, edo betiko kondenatu. Zer nai dezute? Pensatu ondo.



ERAKASTE XI.

Nola konfesioari lagundu bear dion satisfazio edo ordea biurtzeak

Facite fructus dignos penitentiae. Luc. 3.

Ikusi degu igaro diran doktrineetan nola konfesio onak eskatzen dituan biotzeko Kontrizio edo damua, ta aoz bekatuak agertzea. Baña bear da Jangoikoaren Justiziari ordaña edo satisfazioa ematea penitentziaren bidez; au da espiritu konfesionari lagundu bear diola azaleko edo agiriko penitentziak.

G. Zer penitentzia modu da Sakramentu Konfesiokoari lagundu bear diona?

E. Da Konfesoreak, animako Juezak bezela, ematen diona.

G. Izan liteke konfesioa ona satisfazio, edo Konfesoreak emandako penitentzia egin ezagatik?

E. Ezin izango da ona biotzeko satisfazio gabe, edo borondaterik ezpadu konfesionari danak konfesionari penitentzia arrazoiz ematen zaiona; baña izan liteke ona ta baliosoa obraz ez egiñagatik. Gerta diteke Konfesionari aztutzea eman bear zion penitentzia. Onelako penitentek berak gogoraerazi bear dio; baña gerta ere diteke konfesionari dagoana ere ez oroitzea. Alakoan ona da konfesioa beste gauzarik falta ezpazai. Baña urrengo biurtzen danean konfesionari, esan bear dio, nola aztu zitzaien penitentzia ematea, edo aitu etzaien berak zer penitentzia eman zion. Orobat eriotzako aldigaizto edo akzidente baten ezin penitentziarik konfesionari dezakeanean, damuaren señaekin Konfesionari absolbitzen duenean, izan diteke Konfesionari ona ta baliosoa penitentziarik konfesionari ezagatik, nola aozko konfesionari gabe ematen dan absoluzioa ordu alakoetan, edo konfesionari eskatu dualako gaixo edo eri dagoanak, edo eraman duan bizi-tza onean arkitzen dualako Konfesionari seña bear duikoa absoluzioa emateko. Ala bada ez da bear bearra aozko konfesionari, ezdaere obrazko satisfazioa ezin dan aldietan, ta asko da borondate, edo biotzeko konfesionari edo bekatu agertzea, ta biotzez penitentzia artu ta konfesionari nai izatea.

G. Beraz ai dala badu penitentek penitentzia artu, ta konfesionari obligazioa?

E. Bai, ta artu nai ezpadu ez dago prestatua absoluzioa artutzeko. Ez beldur izan Konfesionari penitentzia geiegiak ezarriko diozkala gaurko

egunean penitentek, onek uste izanagatik astunegiak dirala. Ala geieenez ematen dituzten kejaak gezurrezko ta arrazoi gabeak dira, ta astunegiak izatea noiz edo berriz gertatzen bada, ezin bere buruz larga lezaitez konfesionari gabe. Alakoan joan diteke beste Konfesionari jakin, ta birtutetsun bate-gana, agertzeko oni gertatzen zaiona. Baña zer gertatzen da batzuetan? Iges egitea Konfesionari zuzen, jakitun, ta anima zaleetatik, ta billatzea beste nola alako bat bere erara itz egingo diona, ta oni nai duana esan, ta gutxitu edo kendu erazitzea beste Konfesionari arrazoiz eman zion penitentzia. Ona ejenplotxo bat. Dia bat konfesionari; Konfesionari begiratuak aztertzen ditu animako peligroak, arkitzen du penitente ura dala bulla zalea, danzazalea, sarri dijoala onelako lekuetara; arkitzen du edo ezagutzen du ezin iraungo duala bere argaltasunari begiraturik artu bear duan proposito sendoan aldegin gabe alako okasioetatik: bear bada (ta geieenez gertatuko da jende gazteekin) arkitzen du edo danza beretan, edo danza lekue-tan, edo joan etorrietan igaro dirala eskuka, itz, eta akzio desonestoak. Esaten dio Konfesionari nik absolbituko bazaitut, larga bear diezu olgan-tza edo pesta kaltegarri oriei; galdu dizue len anima, santa batek ere iraun-go ez du birtutean onelako lekuetan dabilela; zenbat gutxiago zuk? Ematen dizut bada penitentzia osagarritzat ez joateko dantza naastu ta neskatx mutillen artekoetara. Ez det nik zugatik kondenatu nai begiratu bear diot nik zure animako salbazioari, ta galerazi bear dizkitudaz salbazioa galtze-ko diran okasio andiak. Zer erantzuten due batzuek? Jauna ez diot penit-entzia orrelakorik artutzen. Besteak ere badabilta. Zer esango due alde-giten badet len ain zalea izan naizan pesta edo olgantzeetatik? Zalea izan zera? esaten dio Konfesionari onak. Anbat gaiztoago. Zuk ez dezu konfe-siora ekarri ondutzeko proposito egiazkorik. Proposito egiazkoak eska-tzen du borondate zoli ta sendo bat ez bekatuko okasio jakin ta ezagune-tan sartutzeko, aldegitiko bekatutik sugearen arpegitik bezela. Kristok dio, begia atera, ta oña ebaki bear dala anima galtzeko bide jakiña ematen badigues; au da begia ta oña baño bearrago bada ere utzi bear da anima ez galtzeagatik. Ez dezuekusi zere animan zenbat peligrotan arkitu zeran; zenbat esku estutzen amorezko danzeetan? nolako itztxo kariñozkoak? Eta zer ekusi dezu zerekin edo besteekin kale edo bide orietan pesta ondoan? Oek ez dira okasio jakinak? Zer diot? Ez dira bekatu ezagunak? Esango dezu gezur bat zuk nai ez dezula inork alako akzio txarrik egi-tea? Ez diezu arpegi alegrea agertzen, parretxo egiten? Zerk zaramaz alako lekuetara benetan nai ezpadezu inork alako egitea? Txakur amo-rratuak balebiltza plaza orietan joango ziñake? Ez da ogei eskutuko bate-gatik ere. Au zertan dago? Korputzeko peligroak beldur geiago ematean



animakoak baño. Eta nori begiratu bear diozu geiago, korputzeko bizitzari animakoari baño? Onelako arrazoiak enzunda mututzen dira; dioe batzuek beren artean, ez nau absolbituko artzen ez badiot penitentzia au. Ematen die itza Konfessoreari, baño ez kunplitzeko asmoarekin, edo beste Konfessore bati dantzatzeko lizenzia eskatzeko gogoz. Ateratzen due absolutioa, badijoaz komulgatzera berak dakite nola; diaz gero beste Konfessore kontu gutxiko bategana, ta bear bada danza ekuste zale batgana. Oni esaten dio, Konfessore batek eragotzi dit penitentiaren bean dantzara joatea. Eman begit berorrek beste penitentzia bat, kendu besteak emana. Bai esaten dio, zoaz ta ibilli zaite modu onarekin. O Konfessore ta Penitente bata bestea galdutzen dezuena! Sinistu beingoan arrazoi gabe eman ziola penitentzia eman ziona lenagoko Konfessoreak? Idiki penitenteari bidea ebilteko bekatuko peligroetan? Ez. Jakin Kofessore batek eman bear dituala penitentzia osakarri edo medizinalak; ta kendu besteak ondo emanaz? Ori da animako Borrero baten ofizioa egitea, ta ez medikoarena. Zer egiten du ta egin bear du Medikoak eririk edo gaixorik dagoan batekin? Galdetzen dio noizkoa dan gaitza, zertatik etorri zitzaion, nola asi zan; ta eragotzen dio gaitzarekin kontuak etenarik, jaatea edo edatea onelako edo alako gauza; ta ez da mediko ona izango largatzen badio gaixoari egiten kalte egin dezokena. Nolakoa izango da bada animako Osagilla edo medikoa, largatzen badio kristau animan eri ta gaixo dagoanari ebilten gaitz egingo dien leku ta olgantzetan? Eta zer damu darama konfessore on ta begiratuetatik aldegin ta dijoanak penitentzia arinak ematen dituztenakgana? Ona zer dion San Bernardino Senakok, ez dutela alakoak bekatuaren damu geiago deabruak baño. *Non plus habent contricionis quam diabolus*. Eta salbatuko dira?

G. Zertako ordea Konfessorearen penitentzia konfesio onarekin barkatzen badira bekatuak?

E. Zertako? Jangoikoaren Justiziar biurtzeko bekatuarekin kendu zaion honra; gaizki egiña kastigatzeko penagarriren batekin; berriz bekatuan ez erorteko kontu geiago iduki dezan bekatariak, ta ala konfesioko penitentziak ez dira bakarrik egindako bekatuen kastigoan, bai ta ere bearragoak berriz bekatuak ez egiteko. Zertako Guraso onak kastigatzen du Seme gaizki egin duana? Zergatik maisuak ber eskolakoak? Ondu ditezen, berriz alakorik egin ez dezen. Nolako eskandalo ta gaiztakeriak ekusiko lirake errietan Justiziak inor kastigatuko ezpalu? Zer bada! Jangoikoaren kontra jaiki danak bekatu mortalen batekin, ez dio eman bear satisfakzioa? Ez kastigatu gaizki egiña? Ote daki bekatu mortala zer dan penitentiari egin nai ez duanak, edo bekatu asko ta itsusiak gati gauza neke

gutxikoak baño egin nai ez dituanak. Jangoikoa izanik ain ona alako moduz aserratzen da bekatu mortal baten kontra, non dadukan prestatura iñoiz azkenik izango ez duan Infernuko sua. Eta bere miserikordia andiagatik eman digulako epe, ta denpora penitentiaren bidez, izango gera nagiak penitentzia egiten! Berriz nolako penak dauzka Purgatorioan bekatu mortal barkatu ta arinakgatik ere? Zer dira lurreko penitentiari gogorrenak Purgatorioko tormentuen aldean! Utsa, edo ezti gozoa. Beraz bekatuaren ezaguera gutxi du penitentzia arin batzuekin paketzen danak. Ala bada Konfessorerik begiratuena ematen dituzten penitentziak dira guziz laburrak, ta egin errazak bekatua zer dan zerbait ezagutzen dute nentzat, ta egiazko damuarekin konfesatzen diranentzat. Begira dezagun lurreko Justiziarekin igarotzen dana. Egiten du batek lapurreta andi bat, arrapatzen du Alkateak, darama Karzelara, ezarten dizte kateak, daude leku kiratsu, edo atsitan, ez dute oetzat lasto zati laster usteltzen dana baizik, jan gutxi, deklarazio astuak, ta azkenean ateratzen due erritik, ta bear bada bidaltzen due Gaztelu edo presidio batera, ta nolako nekeak igarotzen ez dituzte onelako lekuetan? Guziaz ere ez du inork esaten geiegi kastigatu duela, ta bai merezitu duala. Eta nolako penak karzelak, estutasunak eraman oi dituzte eriotzaren batekin duteenak? urte ospetan milla pena ta naigabe, ta gero ateratzen due Urkamendira deshona edo lotsaririk andienarekin. Eta bearrak ez dira onelako kastigu gogorak? Orain bada, lurreko Justiziak begiratzen die lapurreta ta eriotza egindako bekatuei gizonen kontrakoak diran aldetik; eskatuarren barkazioa negar andienekin, konfesatuarren beren gaizki egiña humiltasunik andienarekin ez da libratzen kastigutik. Esango baziño urkamendira bar duanari barkatzen zaiola eriotza, baño egon bear duela Konbentu batetik irten gabe amar urtean, egin bearko dituala egunean eguneango baraurrak, jaiki gaberdi guzietan korura Kartujo batek bezela, artuko luke trukatzez penitentzia au? Bai ta esker andiekin. O krstauak non da gure fede ta arrazoiak? Zer du zer ekusi bekatuak gizonen kontra dan aldetik ipintzen bada berdintza edo konprazioa Jangoikoren kontra dan alde? Bekatu asko ta itsusiak egin dituztenai, Infernua merezi izan dutenai milla bider zoaz esatera egin dezela urte betean egunoro ordu bete oraizo astean baraur bi, erabilli aragiaren kontra zilizio batzuek, esango lizuke, ill nai dezun, zoratu zatzun. Asko dirala berentzat Errosario debozio gutxiko batzuek, altarak bisitaztea, edo beste errezo labur batzuek etxean egitea. O penitente ederrak! Iñoiz bekatu mortalik egin ezpalue ere, ezin penitentzia gutxiago eska lezakete. Ala ez due batere ezagutzen zer dan Jangoikoa ofenditzea bekatu mortal batekin. O itxumena! O Fedearen illtasuna! Nola lujurioso



batek eziko du bere makurtua, dio S, Karlos Borromeok, mankatu gabe modu onean zilizio, baraur, ta disziplinakin; edo nola edo ala sakrifizioen bat egiten ezpadu? Nola iñoren ondasunak bide gaiztoz beretu dituanak, eman Jangoikoari satisfazioa, ta ebaki aurrerako inklinazio gaiztoa, restituzioak egiñaz gañetik, ematen ezpadu zerbait limosnaz, ez diot Zaqueo penitenteak beste, baña bai Konfesoreak modu onean agintzen diona bere ondasun edo errentai begiraturik! Nola Soberbio, edo kristau arro sutsu edo kolerara eman batek ezi dezake bere jenio gaiztoa, biraoiti, ta gaizki esalea, oraziora ematen ezpadu, zeña dan osagaririk ederrena osatzeko animako gaitzak? Nola Jangoikoaren gauzeatarako nagia, ta atzertua izan danak artuko du bizitza berri bat, ta palagatu Jangoikoaren Justizia, ezpadia sarri sermoiak enzutera, mesa nagusi edo bere Bizizakora, Bespera, Errosario ta beste gauza onetara, ta sarriago ezpadia konfesioko Sakramentura? Eta zer egin bear ez due errietan eskandalo edo ejenplo gaiztoak eman dituztenak, ta anima askori eman bekaturako ta Infernura bidea? Nola onelakoak desegin eskandaloak bizitza santu batekin ejenplo onak eman gabe? Guziaz ere, esango dizue asko dala konfesatzea, ta penitentzia ezkutuko ta erraz erraz batzuek egitea, ta nai due Konfesea ez eskura joatea ezertan. Nai dituzte len bezela munduko bulla ta olgantzak; len bezela jan edanak, len bezela korputza eregatu ta gozatu. Zer geiago penitentzia bear bearak, Konfesoreak berak eskusatu ezingo dituanak ere ezpadituzte artu nai.

Ona ejenplo batzuek. Izango da gizon bat ardoara emana, sarri Moskortu dana, Ardantegi edo Tabernak geiago, edo beintzat gogo obeaz bisitatu dituana, Eleizak baño. Ezagutzen du Konfesoreak bear duela egin premiaz Konfesio jenerala, bekatuaren sustraia dagoala Tabernan sartzean bere moduko lagunekin, an berandutu ta joaten zala etxera zabuka, ta Errosario orde daramazala biraoak, ta deadarra emazte, edo Seme alaben kontra. Esaten dio Konfesoreak Konfesio guzia enzunda, zure bizitza, lengoa izango da, irauten badue, okasioak ta ala ematen dizut penitentziatzat ez Tabernan edateko oñik sartzea, edango dezuna edatea, edo zere etxean, edo beste baten lagun begiratuekin, ta edan aldi, edo goiz, edo arratsalde baten ez igarotzea kuartillo batetik, edo geien guzien kuartillo ta erdi ardoak igaroko etzaituan moduan. Esaten badu penitentzia gogorra dala ezin kunplutuko dula ez darama damurik, ta ezingo ere du absolbitu Konfesoreak, zerren ez dion agintzen, penitentzia gabe ere egin bear duana, baizik, au da ez sartzea bekaturako okasio jakiña dagoan lekuan, ta ez edatea baizikan edan dezakeana animako, korputzeko, ta honrako kalte gabe. Bene benetako penitentzia egin nai balue bizio oneta-

ra emanik izan diranak, ez lukee ardorik aoan sartu bear, edolaere urez ondo naastu gabe. Turkoai galerazi edo eragotzi zien bere Profeta falso Mahomak; ia Tabernarik ekusten ez da beren errietan, ta noiz edo berriz jakiten badie ezkutuan ere edan dutela ardoa, banatzen dituzte makilla kolpe andiekin. Eta guri Jangoikoak bakarrik eragotzi digu edatea arrazoiaren kaltean, ta ez degu bere lege ain biguñ au gordeko? Eta zer esango die Turkoak Kristau edalari Juizioko egunean?

Arkituko du Konfesoreak bere etxean dadukala edo erriko beste etxe baten bekatu loiazen okasio andi ta jakiña. Adiskidea esango dio, agintzen dizut zere okasioa kendu bear dezula, ta bota zere etxetik mirabe bekatu laguna; au da ematen dizudan penitentzia, kunpliazu ta atoz gero abosluzio eske. Esaten dio besteari ematen dizut penitentziatzat ez bekatuko okasioa daukazu etxean sartzeeko, ta iñon topatzen badezu bekatu lagun ori, ez gelditzeko itzketan berarekin. Ez due penitentzia onelakoa artu nai? Datoz konfesatzera damu gabe, ezin absolbi litzakez konfesoreak, ezerren penitentziatzat ematen ezpalie ere, obligatuak daude agindu diena egitera; bada aldegin nai ez duenak bekatura dezakean okasio borondatezko, ta urrekotik, ez du eraman bear absolbitorik, ta ala daduka Eliza Ama Santa erabakirik.

Elduko zaio beste bat egon dana luzaro gorrotoan, itzik ta agur onik ere egin nai ez da etsaitzat daukanarekin, auzoai ejenplo txarra ematen diela, alkar bisitatzan ere ez dutela gaixotzean auzoen artean oi dan bezela. Esaten dio Konfesoreak: barkatzen ez dionak gogo onez etsaiari, edo gorrotoa biotzean gordetzen duanak kendu gabe, ez dakar damurik ta ezin absoluziorik izango du paketu ta eskandaloa kendu artean; zoaz bada ta egizazuz bakeak, itz egin bear diozu amorez, naiz zeuk ofenditu dezula, nai zeu leenago berak. Ez dezu bera etorri dakizun zai egon bear; zaude obligazioan pakeak egin ta eskandaloa kendutzeko, ta ezingo dezu ori egin, humillatzen ezpazera orrenbesteraño. Zuk uste dezu zeu zerala ofenditua, ark berriz usteko du bera dala, ta nik diot biok ofenditu dezutela Jangoikoa, ta lagundu zer esana ta ejenplo gaiztoa ematen askori. Ez du humillatu nai, ez artu penitentzia? Ez darama damurik ta ez du izan bear ere absoluzioko graziarik Konfesoreak berak galdu nai ezpadu penitentearekin batera. Au ez egiña gati irauten due gorrotoak, itzik ta agurrik egin nai ezak denpora luzeetan. Ala artu, ta kunplitu bear dira penitentziak, baña geien bekatuko sustraia ta anima osatzera dijozanak: bestela ez daude prest konfesio ona egiteko.

A Jauna! penitentzia gogorak, baraur ta korputzaren penagarriak etziran egin munduan bizi bear duteentzat: oriek dira txit onak Kon-



bentu barrunbeetan egiteko, edo eremuetan ezkutuan bizi ziranentzat. Ezin dezakee mundu zabalean bizi bear dutenak. Ederki. Eta penitentzia geiago egin bear ez du okasio andiagoetan sarturik dagoanak? Non ikasi da doktrina au? Zenbat kristau daude korputz ta osasun galantarekin aragiari su ta su ematen dienak orduetatik kanporako janta edanekin, goiz erdia, eguzki zabalai leioak itxita sartu ez didin argia gela barrunbean, igarotzen dutela lotan edo jira ta bira oe biguñean; egin guzian Jangoikoaren gauza onik egiten ez dutela, ezpada geien geien meza bat enzun, errosario bat esan ta debozio ariñarekin? Eta oek daude debototzat. Zer egingo du onelakoen aragi erregalatu edo gozatuak penitentiarekin ezi ta eskuratzan ezpada? Nekezale gaixoak bai, atxurlari, ikatzgin, ta langilla askok igarotzen dituzte pena edo neke asko, korputza mankatzen due ta zorionekoak onelakoak penitentzia orde, ta Jangoikoaren grazian badaramez anbat pena. Oek badue beren bearretan zilizio ta disziplina ederra. Ai, ta bizi balira batzuek bezela tranparik egin bage zuzen ta garbi, ta nola Kaputxino batek beste satisfazio emango lioken Jangoikoaren Justiziar! Nola errazago igaro lituzkeen nai gabe, pobreza, ta bear gogorretatik etortzen zaizten nekeak, goizean obra guziak Jangoikoari eskeñi, ta beren bekatuen ordean eramango balituzke? Nola merezituko ez du asko base-rietan, ta erri barruetan serbitzen dauden mirabe, ta morroe gaixoak? Ezin due beren borondaterik, igaro bear dituzte etxeko andren jenio txaar-rrak, ta molde gabeko agirakak, goizetik jaiki ta egun guzia nekepean ezer-tako asti gabe bezela, soldata eltzen etzaie askotan beren janzirako; gaisotzen badira, edo bidaltzen dituzte etxetik kanpora, edo gastatzen dituzte botikakotan ta osagilleekin zorrak egiteraño. Nolako penitentzia bizi-modu au eramaten badue bekatuen ordean, pazienzia, ta Jangoikoaren grazian? Ola gizonen bizitza, nork adirazo nolakoa dan? Zenbat emakume ezkondu ume askorekin, errentak nekez pagatzen, urteko artoaren beldurrez, ta bear bada senar ordi ta ondatzalle batekin bizi bear dutela? Nor errukituko ezta ekustean nekezale askoren bizitza gogorra? baña o negar egiteko gauza! Esan dezakegu askogatik Profeta batek ziona, *erein zuten asko, ta batu dute gutxi*; nekatzen dira armiarmak bezela eun ezertako eztana ziotzen. *Telas araneat texerunt. Beren frutu ta bearrak alperrik egiñak*. Zergatik ori? Zeren eramaten dituzten neke, pobreza, ta naigabe guziak, ez penitentiako, espirituz, ez pazienzia, ta bai geienak erneguz ta biraoz, edo bizitza gaiztoan sarturik daudela; batzuek dira ardoara emanak arrazoiaren ta etxeko kalteaz; besteak egiten dituzte lapurreta agiri edo engañoak ofizioetan, ta zenbat lujuriako bizio gaizto ta zatarrean sarturik? Oek darame Gurutze gogorra; baña lapur gaiztoarena bezelakoa, ta kuru-

ztetik joko dute Infernua jo zuan bezela lapur gaiztoak. Grazian ez dagoanak, eramanagatik penarik andienak, ez du Zerurako ezer irabaziko. O nekearen azpian bizi zeraten nekezale maite nere biotzaren erdian zaude-nak, ezaguzazute gaixoak egia; egiazute Konfesio guziz on bat, jarri zaitzte Jangoikoaren grazian, eskinzazute gero bizitza anbeste penazkoa pekatuen ordean, Konfesoarek ematen dizuten penitentzia laburra kunpliturik, ta ekusiko dezute, nola poztuko zeraten eriotzako orduan.

G. Nola erraztuko zaizkiguz penitentiak?

E. Gogora ekarriaz, nola kastigatzen ziran bekatuak Moisesen legean, ta nola Elizako lenbiziko urteetan Jesu-Kristorenean. Ona Moisesen legean zer agindu zuan Jangoikoak. Esaten duanak blasfemia, au da itz gaiztoren bat Jangoikoaren, edo bere izen santuaren kontra, izan dezala eriotza, iltzen duela arika erriko jendeak. Izan didilla illa Gurasoari birao gaiztoren bat ezarten diona, ta orobat luzatzen badio eskua. Seme lotsagalduko gurasoai obeditu nai ez dienak, ta bizio gaiztoetara emanak, izan ditezela arika illak, ta arrien artean ezkutatuak. Emakume ezkondu bekatu loian erorten dana gizasemeren batekin, illa izan didilla, baita bekatu laguna ere. Abere, edo ganaduren batekin bekatu egin duana izan didilla illa, baita ganaduba bera ere. Ala zeuden eriotzako sententzia barkatzen etziranak aurride edo senide Legeko liburuan izendatzen diranekin bekatu egiten zutenentzat, ta bekatu lagunentzat. Agintzen ere zuan arika iltzeko gizaseme, edo emakume Igarle bidegabeko, edo Aaztuak. Ona nola bekatua dan bide gaiztotik gauzaak jakin nai izatea. Zoazte zoazte orain konsultatzer a onelako jende moduai, non galdu dan, edo nork ostu dizuen onelako ta alako gauza. Ekusiko dute alako Igarla gezur-ti, ta alakoan atzean dabilzanan, nolako kastigua izango duten.

A Jauna! esango didazu, anzina Jangoikoak eman zuan lege ura gogorra zan; baña Jesu-Kristoren legea biguñago da. Kendu ziran lege gogorrek, ta sartu giñan pakeko ta amore legean. Bai, eztago Kristoren legean alako odol isurtzerik. Ordea bekatu len eriotzaz kastigatzen zana txikiago ote da orain? Txikiago? Askoz andiago ta itsusiagoa kristau diranentzat, ta Infernua geiago kastigatuak izango dira kristau alako bekatuak eginda penitentzia egin gabe kondenatu diranak, Moisesen lege santuan gaizki egin ta kondenatu ziranak baño.

Baña ez dezu uste izan bear Kristoren legean beti eman dizala penitentzia laburrak. Nork erakurri lezakez bioztu gabe lengo denporetan Elizak ematen zituan kastigu ta penitentiak bekatu ezagutu ta agertuak gatik? Uste dezu asko zala konfesatzea ta orazio batzuek esatea? Garizumako baraur bat ausitzen zuanak, zedukan ogei egunean ur ta ogiko



baraur gogorra; ta berrogei egunekoa lau denpora, edo Kuarta denporetako baraurren bat ausitzen bazuan. Gurasoai bide gabeko injuria ematen zienak, egin bear zuten iru urteko penitentzia ikaratzekoa edozein. Desprezio andiren bat ematen zienak zazpi urteko penitentzia. Elizan Ofizio santuetan berriketan, egon ziranak amar egunean ur ta ogi utseko baraurra. Gezur jakiañaren gañean juramentu egiten zueenak berrogei eguneko baraurra ur ta ogi, ta gero zazpi urteko penitentzia. Etsaitasunean edo gorrotoan egon ziranak anbeste ur ta ogiko baraur, zenbat egun egon ziran tratatu nai ezta. Seigarren mandamentuaren kontra persona libre, neskatax edo mutilla erorten bazan, iru urteko penitentzia, Elizan sartu gabe etxea gordetzen zuala negar egiten. Ezkonduta zegoan emakumeak bekatu aragizkoa egiten bazuan, amar urteko penitentzia komuniorik artu gabe denpora guzi orretan. Donzella bat erorten bazan, naiz alarguna, gizonen batekin, amar urteko penitentzia. Arrebaren batekin bekatu egiten zuanak bizitza guziko penitentzia. Kofnata edo beste aideren batekin bekatu egiteagatik amabost urteko penitentzia. Amarrenak ez pagatzeagatik ogei eguneko ur ta ogi utseko baraurra, ta pagatzea lau bider geiago. Lapurreta gauza pisura eldutzen zanagatik, zazpi urteko penitentzia; ta orobat gezur astunen bat erasteagatik lagunari. Onela beste bekatu moduak gatik zeuden ipiñirik urte osoetako penitentiak.

Baña zer egiten zuten penitentiako urte orietan? Adizazue. Garizumako lenbiziko egunean agertu bear zuen Eleiza atarian janzi loi, pobre, ta zerbait urratuakin, onelakoak ziran lutu janziak denpora aietan. Elizan sarerazirik ipintzen zien Obispoak autsa buruan, ta ematen zizten zilizioak penitentiako señaletzat: gero etxuten ziran lurrean, ta ala Obispo, nola Sazerdote ta beste jendeak egiten zuen orazio barkazioa eskatzeko penitentzian sartzen ziranak gatik. Egiten zien Sermoe labur bat Obispo Jau-nak, ta esaten zien, bota bear zituala Eleizatik denpora zati baterako, Adan atera zuan bezela Jangoikoak Paradisutik bere bekatuaren kastigotan. Ateratzen zituzten bada Eleizatik, ta itxitzen zizten ateak. Nolako bizitza eraman bear etzuten gero beren etxeetan? Etziran oe biguñean etxuten baizikan lur gogorraren gañean; baraur ur ta ogikoak zenbat? Etzuen dibersio onetara ere irtetzen, ta deskomulgatu batzuek bezela egoten ziran gauza askotan. Nork ekusi zeizkean penitente ferboroso aiek. Eliza atarian auzpezturik negar andiekin erregutzen. Elizan sartzen ziran Kristauai, oroi zitezela berak gatik miserikordia Jangoikoari eskatzeko? Urte osoetan egoten ziran onela Elizan sartu gabe, ta gero ekusten zuanean Obispoak egin zutela negar asko beren bekatuak gatik, eman zutela ejenplo ona bizitza penitentearekin, largatzen zien Eleizan sartu-

etzen; ez ordea meza guzian egoten, ez da ere komulgatzen, ta bai Sermoi egiten zana enzuten, ta meza zati bat. Mezako Ofertorioan sartzen zanean Sazerdotea, irtetzen zuan Diakono edo Mezara laguntzen zuan Ministro Eleiz gizonak esateko *Zoazte, asi da Meza. Ite Missa est;* ta irtetzen zuen humil humillik ezagutzen zutela etzirala prest ta diña egoteko mezako denporan. Nolako negarrekin irtetzen zuten gaixoak beren bekatuaren anditasuna ezaguturik? A bai, esaten zuten! Galdu degu gure bekatuekin Adanek galdu zuan baño leku ohea, ta fruta ohea. Irugarren aldian meza enzuteko lizenzia ematen zien; baño ez komulgatzeko, ta egon bear zuten urte osoetan, penitentzia andia egin da ere, komunioko maira artutzen etzituztela, beste denpora zati ta luze bat igaro gabe prestatzen penitentzia berriekin. O denporak! O egun ederrak! Nora zerate? Bekatari guziz gutxi, ta berak Santu bat egiteko asko ziran penitentiak egiten mundu guziaren aurrean. Zer ekusten da berriz gure egunetan? Bekatua bekatuaren gañean lotsaren apur gabe, ta gero penitentzia itxura batekin palagatu nai Jangoikoa; ta paketu konzienzia. Negarren artean igaro bear diran denporak Jangoikoa ofenditu dalako, igaro orobat danza ta olgantza guzietan, korputza eregatu ta erregalatu, jan ta edan galanki, apaindu al dan bestean ezer ezpalira bezela egin dituzten ofensa edo bekatuak itsusienak. Eta onelako bizitzarekin uste dute salbatu penitentzia geiago gabe? Oraingo bekatuak ote dute gaiztotasun gutxiago bekatariak geitu diralako? Eriotzako tormentuen beldurrez fedean faltatzen zuenak, bizitza guzian len komulgatu gabe, penitentzia andiak eginda ere, bein baño geiagotan ekusi zan bezela; orain beldurgabe ta borondate oso osoarekin bekatu asko eginda, konfesio arin batekin bereala komunio santura? Aiek ere konfesioak egin zituzten orain baño negar geiagorekin. Eta bekatuak ta bekatariak geitu diralako laburtu bear da penitentiako espiritua? Ordu onean, ez gaitezela gu egon Eleiza atarietan soñoko urratuakin lepotik beerako sokaakin, ta autsez burua estalirik; sartu gaitezela beti deskomulgatuak ezipagaude Eleiza santuetan, Sermoa enzun, ta meza santua ere bai; baño ez egin gere borondatez penitentiarik, ez bekatuen damu andia artu, ez bizitza obetu, ebilli munduko bulla guzietan, ta bizi anima garbi ta iñoiz bekatu mortalik egin ez dutenak bizi ez diran bezela, bekatu asko egin ezkerro? Non ikasi da doktrina au? Ezta iñoiz desegingo San Juan Bautistaren esan au: Egin penitentiaren frutu, edo obra egiazko, edo bear bezelakoak.



ERAKASTE XII.

Konfesio jeneralaren gañean

*Recogitabo tibi omnes annos meos
in amaritudine animae meae. Is. 38.*

G. Zeren gañean izango da gaurko doktrina?

E. Konfesio jeneralaren gañean, zeña dan askok uste duen baño bearragoa; zerren ondo egitetik dator anima askoren salbazioa, ta ez egitetik, edo gaizki egitetik beste askoren kondenzazioa.

G. Zer da Konfesio jenerala?

E. Da konfesio len banaan egiñen berriztazio bat, esaten dirala Konfesio batean len konfesatuta dauden ta ez dauden bekatuak. Konfesio jeneral au izan diteke edo bizitza guziko, edo denpora zatiren baten egin diran Konfesioena, bakoitzari nola konbeni zaion, edo nolako premian arkitzen dan, gero esango degun bezela.

G. Zertako da ordea Konfesio jenerala len egin badira Konfesioak?

E. Da bada, edo seguruagoan joateko Jangoikoaren bidean, edo lengo Konfesioak gaizki egin badira arkitzeko salbazioko bide berez bakarra, zeña dan konfesio ona. Erakatsi degu igaro diran doktrineetan, nola Konfesioko Sakramentua dan bekatuko Itxasoan erori diranentzat bigarren ol bear bearra bautismoko Onzia ausi zaienentzat; au da, berriz arkitzeko neke andien kostuan bateoko grazia galdu duenentzat, beintzat biotzeko konfesioa. Erakutsi ere degu astiro, nola konfesio asko egiten diran gaizki, edo esaminaren paltaz, edo damu ta proposito egiazkoa ez eramanaz, edo bear bezela bekatu esan bearrak, ez esanaz. Konfesio gaizki egiñekin ez dala barkatzen bekatua, ta bai lengoen gañean geitu konfesio ta komunio beste sakrilejio. Beraz eztago onelakoentzat berez, beste biderik, egitea baño Konfesio jeneral, edo gaizki egin guzien berriztazio bat. Dabid Errege Penitentearen denporan etzegoan Konfesio Sakramentua zanik. Ordea zenbat alditan konfesatzen ziozkan Jangoikoari negar andiekin, ez bakarrik bere bekatu loi, ta eriotza eragiña, baita ere bizitza guzikoak! Ezequias Erregea, Santua zan; baño esaten zion Jangoikoari, nik ekarriko ditut gogora nere bizitzako urte guziak nere animaren damu ta mingoitzasunik andiengan. Erakurri nai baditugu Jesu Kristoren legeko santuen bizitzak, ekusiko degu, nola egin zituzten bein baño geia-

gotan Konfesio jeneralak, humillatzeko Jangoikoaren aurrean, bekatua obeto ezagutzeko, damu andiago artutzeko, ta anima obeto garbitzeko.

G. Baña bear bearra da Konfesio jenerala?

E. Bai txit askorentzat; ez guzientzat. Ala bada Konfesio jenerala da gutxi batzuentzat alperra ta kaltegarria; da guziz askorentzat txit ona, ta bear bada geienentzat premiña osokoa, edo bear bearra. Enzun doktrina au kontu andiarekin. Esan det gutxi batzuentzat dala kaltegarria; oek dira anima beldurtiegi, ikarakor edo egiaz eskrupulosoak, zeintzuek egin zuen len ondo bizitza guziko Konfesio guzien edo jenerala, prestatzen zirala anbat ondoen, gelditzen zirala egin ondoan konzienziako pakean, ta Konfesorearen ustean ere ondo egin zana, ta bizitza on ta berri batekin ematen zituztela egiazko damuaren ezaubide edo señalear. Onelako batzuei gertatzen zaie gerora animako pakea galtzea; ikara betikoan arkitzen dira; ondo konfesatu ote nintzan, esan ote nituan bekatu guziak bear ziran zirkunstaziakin. Dijoaz Konfesoreagana sarri betiko lelo edo soñuarekin; konfesio askotan esaten die, Jauna gogoratu zat bekatu au, zirkunstanzia au, ta aspertzen ez dira esatez: aztutzen zaie zer konfesatu zuen, ta darame bizitza tormentuz betea. Deabruak laguntzen die konzienzia naastzera, kendutzen die gozo ta poz guzia Jangoikoaren gauzeetarako, etortzen zaie pensamentura eztagoala salbaziorik berentzat, ta tentatzen dira largatzer a artu duen bizitza ona. Konfesoreari ekarriko balie obediencia osoa, erraz kenduko litzuke kezka ta arantza tormentagarriak; ordea esaten due beren artean, ez daki Konfesoreak nere barrun bean igarotzen dana; uste du konfesatuta daukadala eskrupuloso bat naizala, ta zer balioko dit niri engañatzen bada Konfesorea ta largatzen baditut bekatoren batzuek agertu gabe? Nola ni salbatu? Konfesorearen oñetatik irten orduko komulgatzeko joan aurrean berriz gogoratzen zaie anzinako beste bekatu edo zirkunstanziaren bat; ikaratzen dira; ezin komulga nindeke, dioe, egin bear det sakrilejio andi bat biurtzen ezpanaiz konfesatzera; bekatu anditatz pintatzen die deabruak, konfesatuak ez konfesatutzat, ondo esanak oker esanak bezela, ta ala etorri dira bat baño geiago ernegatzera, ta beren buruak illtzera pakerik arkitu ezinda. O zenbat asmo dauzkan Infernuko etsiak! Gaiztoai zabaltzen die geiegi Zeruko bidea, daramaz konfianza bidegabeko batekin penitenziarik ez egitera; arrapatu ezin dituanak bizio gaiztoen bidez, arrapatu nai ditu desesperazioko bide estutik.

O anima gaixo tormentu oetan zaudena! Ezazu egia. Konfesio jenerala egin zenduengan larga zenuan bekatu mortalen bat, edo zirkunstanzia esan bearren bat lotsaz, ta beldurrez ezaguera osoarekin? Ori ez Jauna;



esan nituan gogoan neuzkan guziak, ta ez nuan ezer utzi lotsaz. Absolutio santua artuta gelditu ziñan biotzeko pakean? Bai Jauna, ta neritzan arinduta zegoala nere anima karga pisu bat kendu banu bezela, ta pozak negarrak atera zizkidan. Eta animako pakea galdu baño leenago esan ziñozkan Konfesoreari bekatu edo zirkunstantzia azturen batzuek? Bai Jauna. Ez dizu esan Konfesoreak arrezkero ez eragiteko lengo gauzaai, ondo esanak daudela, largatzeko bere kontura? Bai sarri ere. Eta Konfesio jenerala eginda artu zenuan bizitza obe bat? Aldegiten dezu bekatuko okasio ezagunetatik? bai Jauna, ta naiago nuke ill ere bekatu mortal bat egin baño leenago. Bada eroa, zergatik idukirik zure Konfesio jenerala señale ezin obeak, zabiltza deabruari leku ematen, zeñek ez duan nai zure animako pakea ta ona? Zergatik egin ez itxu itxuan Konfesorearen esanak? Jesu-Kristok esan zuan *Zuek enzuten zaituanak, neu enzungo nau*. Konfesorearen itza zuretzat da Kristoren itza, Konfesoreari obedeitzea Kristori atsegin ematea. Zu zaude laño artean; bear dezu beste argitzalle bat; zera itxua, bear dezu itxumutil bat erori nai ezpadezu ta galdu burua. Etzera piatu bear zere argi itxurakin, bai egin zuk baño argi geiago duan Konfesorearen esana. Ala bada ez konfesatu, burura etortzen dira begitazioak, uste izanagatik konfesatu bear dituzula; zerren sinistu bear dezu zure konzienziaren berria dakian Konfesoreak obeto ezagutzen duala zuk baño zer bear dan konfesatu ta zer ez; ta konsuelo geiagorako zer edo zer largako bazendu, agertu gabe konzienzia paketsua duentzat agertu bearra dana, etziñake zu galduko, ta obedienciaren sakrifizioak zirkunstantzia aitatu ditugunetan, libratzen zaitu obligaziotik ta ez dizu esango Kristok juzgatzeko orduan, zergatik egin zenuan nere ordean itz egiten zizunaren esana? Zergatik obeditu nere Ministroari? Zergatik jarraitu ez zere argiai? Eranzun bada beldurrari nik obedeztu bear det, au da Jaunaren borondatea, Joan bear det komulgatzera Konfesoreagana berriz biurtu gabe. Obedienzia osoa artutzen badezu egun gutxiren buruan etorriko zatzu pakea, aldedingo du deabru aingeru estalkiaz janzi danak, ta artuko dezu bide ohea Jangoikoa serbitzeko. Askorentzat dira txit onak beldur modu edo eskrupulo oek Konfesio jeneral ondoan; geitzen da Jangoikoaren beldur santua, garbitzen da anima espirituko tormentuekin. Baña luzatzen badire geiegi, ta Konfesorearen esanai jaramonik egin gabe bazabiltza zere argi gezurrezkoei jarraitzen, aterako dezu kalte andia. Esana esan, Obedienzia, obediencia itxua, ta au da bide bakarra ta segurua alako animentzat; ez iges egi beste Konfesore zure animako berri eztakianagana Konfesio jeneral berri bat egiteko asmoz. Galduko dezu burua, ta nekaturko zera alperrik. Beraz onelakoentzat alperra da Konfesio jenerala;

zerren amar eginda ere biurtuko diran lengo beldurretara, ta kendu bearrean geituko zakoz.

Esan det doktrina au aditzen dala Konfesio jeneral onaren señalekin konfesatu diranentzat; ta eman dira señaleak. Ordea badira bai kristau eskrupulosoak diruditenak, sarri konfesatzen diranak, ta esaten ere bai beti beldur dirala ondo konfesatu ote diran, larga ote duen bekaturen bat; egin dituztela Konfesio jeneralak ta pakerik arkitu ezin duela. Esaten due len aitatu ditugun benetako eskrupulosoak esan dueena berbera. Ala esaten die Konfesoreak, zaudete pakean, utzi lengo gauza zaarrai, ta nola Konzienziak kezkatzen dituan lotsaz larga zutela zer edo zer, ezin paketu dira esan guziakin, dabilta larri aingeru onak mintzen dielako espiritua. Noiz bait esaten due, Jauna *aztu zatan* konfesatzea onelako edo alako bekatua, esan bearrean estalki ta gezur gabe, utzi zuela beldurrez ta ezagueraz, ta egon dala konfesio jeneraletan ere esan edo agertu gabe. O anima gaixo onela konfesatzen zeratenak! Zertako dira jirabira, ta gezur estaldu oriek? Ez dira eskrupuloak atormentatzen zaituztenak: dira bai Jangoikoaren inspirazio edo gogargi ekarri nai zaituztenak Konfesio zuzen ta garbi bat egitera. Onelakoak guzienez bizi dira beste bekatuak egin gabe konfesio txarrak baño, ta errazago engañoatzen da Konfesorearen pensatzera dira eskrupuloak. Oek lotsa andia iduki oi due agertzeko bere Konfesoreari egin dituzten konfesio gaiztoak, ta esateko argiro, nola beldurrez egon diran urte osoetan bekaturen bat edo beste agertu gabe. Arkitzen badira emen onelako kristau argal ta errukarriren batzuek, arbeze nere konseju au; ta da billatzea beste konfesore on bat egiteko berriz Konfesio jeneral oso oso ta garbi bat, agertzen diola igaro zaiona ta esan jira bira gabe, artez, ta zuzen, nola egon dan lotsaz agertu ezinda, zenbat denporan, noiztik noiza konfesatzen zan, ta beste bekatu guziak; zerren konfesio gaizki egiñetan esan ziran beste bekatuak diran esan gabeak bezela. Ala bada Konfesio jenerala egiteko premia jakiña duenak, nolokokak diran duda gabe lotsaz bekatu mortalen bat esan gabe egon diranak, ezin dezketen beste konfesio, ta komuniorik Konfesio jeneral oso batekin anima garbitu artean. Ez du balio esateak gero egingo det Misioren bat datorrenean, ez beste luzabiderik arteak zeren bekatuak ezagutuaz agertu gabe dauden arteko konfesio ta komunioak dira beste anbeste sakrilejio. Onetan askok utsegin oi due. Badira bai sakrilejio andiak egiten dituzten anima batzuetan birtute usiak, ta usaiak, obra onak diruditenak, ta onela geiago zoraerazitzen die deabruak. Dira eskrupulosak, ikaragarriak ezerezetan, ta irensten dituzte bekatuak beltzenak, ta ikaragarriak; ta euskal errietan esana dan bezela, *zaietan ziogi, ta irinetan ero*. Fariseoen gisa-



koak eskuak garbitu gabe maian zenbat jaateko beldur andia, ta Kristo persegitzeko illarteraño beldurrik ez. Ala dira bada komunio gaiztoakin Kristo persegitzen duena, ta Abe Maria bat ondo esan ote duen, ikara daudenak. Begia badago garbi, ta gueun gabe, korputz guzia argitua izango da; baña begia gaixo ta gaizto badago, edo lausotua, korputz guzia ere illuna egongo da; ala dio Kristok. Esan nai det, bagabiltza zinzo, zuzen ta asmo garbiarekin, emendik jaiotzen diran egitada edo obra guziak onak izango dira. Agertzen dionak argiro, zuzen, ta borondate garbiarekin Konfessoreari biotza, egin gero bere esana, obeditu itxu itxuan; baña bagabiltza estalkiz, ezkutuka, ixillka, jirabirakin, ta zinzotasun gabe, ez du Konfesoarek erru edo kulparik izango conseju txarra ematen badio; nola Osagilla edo Mediko batek idukiko ez duan osagarri okerra ematen badio gaixo danari, onek estaldu diolako gaitz egiazkoa, Jangoikoak madarikatzen ditu biotz tolestu edo dobleak, aoan bat ta biotzean beste bat darabiltzenak.

G. Baña norentzat izango da ona, ta probetxo andikoa Konfesio jenerala?

E. Txit askorentzat. Badira kristau ez gutxi, zeintzuen konfesioak ez duen señale ezagunik obligatzeko Konfesio jenerala egitera, zeren ez duen ixildu ezagueraz, ta lotsaz bekatuak, ez izan ere usuario, oitura, edo kostumbre gaizto luzerik; baña ez da birtute jarraiturik ere, bai zerbait epe-lak ta nagiak Jangoikoaren serbizioan, edo noiz edo berriz ere egin dituztenak bekatu mortalen batzuek, ta ez eraman gero penitente on on baten bizitzarik. Baña banaan aitatuta agertuko da obeto esan dedana alde batera edo jeneralean. Onela bada, da txit ona Konfesio jenerala iñoiz leenago egin ez duen guzientzat, ta nere ustean da txit ona eskrupuloso egiazkoentzat ere len inoiz egin ezpadue, ta eskrupuloetatik libratzeko bidea Konfessore on bat arkitzen badue. Ona arrazoi adiutu, edo egokia. Ez dago iñor zuzen jakin dezakeanik aur denporako, edo zortzi urtetik amabost urterako konfesioetan utsik egin ez dala. Ikasten da aoz doktrina, nola bear diran ondo konfesatzeko esamina konzienziakoa, damu, ta proposito Jangoikoagandik sortua, osoro bekatu mortal jakinak, dudakoak, ta begitanduak Konfessoreari agertzea. Baña nola prestatzen da denpora artan, egun zoro aietan ondo konfesatzeko? Eman nai dizut etzenuala egin bekatu jakin ta andirik, etzenuala egin bekatu loi ta lujuriakorik (zenbat libratzen ote dira sagar ustel au jan gabe?) ez ostu ere gauza pisurik. Baña non da Teologo edo Konfessore ain jakina, ta erabakiko dituana zuzen, urte aietako bekatuak ziran edo ez astunak dudaren apur gabe? Gaztetxoak egiten dituzte biraoak edo alkarri, edo artu aoan ta aserrez

izen deabru, demonio, edo barrabasena; askok uste due bekatu andiak dirala onelako biraoak, berenez ezpadira ere. Nola enzuten da meza urte aietan? Batera ta bestera begiak darabiltez, alkar jooka dabilta, parreka, ziraka, ta atenzio apur bat ipintzen ez duela. Gurasoai zer lotsa gordetzen die? Berriz alkarren artean batzuetan burruka, besteetan auzka, ta ukabilka, ta ez gutxitan arrika. Konfesatzen ere dira, bai: baña aurrera esan diran paltak; damu ta proposito ondo arina, edo utsak. Beste aldetik ez dakite zer dan bekatu mortala, ezta ere zer beniala; mortalak dirala esango dute ez diranak gatik, mortalak diranak, dirala arinak. Bada nor paketuko da denpora artako konfesio arin onakin, ta bear bada txarrakin? Ala bada ondo esan det Konfesio jenerala dala guziz ona len egin ez duen guzientzat. San Luis Gonzaga gutxi arkitzen dira humill ta garbiak, deboto ta Jangoiko zaleak lenbiziko urteetan; ta esan dedan bezela Santu beti Santu izan gazte onek ere egin zuan konfesio jenerala ito bear zuala uste zitekean damu negarrezkoarekin; ta bizitza guzian gauza bik ematen zien kezka ta pena andia; bata gaztetxoa zanean artu ziolako bere mendekoa bezela zan Soldadu bati, polbora apur bat ixillik; ta pozik emango ziona eskatu balio; ta bigarrena, aiatu zitalako, zer esan nai zuen jakin gabe Soldaduen artean enzun zituan itz garbi etziran batzuek, ta bein bakarrik. Oek izan ziran bere bekatu, bizitza guzian negar eragin zienak, geien geien bekatu benialak baño etziranak. Bestela txiki txikitatik, ta seaskatik bezela eman zituan santidade andiko señale ezagunak. Konfesio jenerala da ere txit ona Estadua artu nai duen kristaudentzat. Nola sartuko da bat ondo Elizgizon izaten bere anima garbitu gabe zetaka ta mantxa guzietatik? Fraile edo Monjarik arkituko ez da bear bada abitua artzeko denporan, edo profesio aurrean Konfesio jeneralen bat egin gabe len eginda ere, eskrupulo andiren batzuek gatik eragotzen ezpadie Konfesoarek. Abadeak ere egin oi dute ordentzeko egin oi dituzten ejerjizio santuetan. Bada zer? Ezkonduko diranak Sakramentu andi bat artu bear duenak ez dute garbitu bear beren anima milla peligroren erdian sartu bear badue? Baña zer diot ona dala konfesio jenerala ezkondu bear duenean? Geien geientzat da bearra ta obligazio estukoa: O gazte mundukoak! Nolakoa da zuen bizia denpora gaizto oetan? Igarotzen dituzte urte asko ezin esan besteko pensamentu aragizkoai leku ematen diela: malizia edo ezaguera sartutzeko unetik, Jangoikoa amatu bearrean, ematen diez primiziak deabruari; txit goiz tentatzen ditu infernuko etsaiak, ugari darabiltez itz zatar nagusiai enzunak, batak besteari erakasten diela doktrina gaiztoa konbersazio lotsagarrietan; itzetatik igarotzen dira eskuka ta beste tokamentu itxusietara, edo mutiltxoak mutiltxoakin, edo neskatxatxoak neskatxatxo-



akin, edo bai bear bada aiek oekin. Edo konfesatzen ez dituzte lotsaz, edo konfesatzen badituzte, ez apaindu gabe. Non da oen dama? Non obe-tzea bizitza? amasei, edo amazapi urtera eldutzen diranean, irtetzen due plazara, ala esan oi due; ta orobat, munduan burua agertzera. Botatzen da lotsa guzia, dabilta pestarik pesta, apaintzea ta jostatzea baño gogoan besterik ez dueela. Nork kontatu zenbat torpekeria, zenbat akzio gaizto ta itxusi egiten dituzten; biotza prestatuta bezela, pensamentua ta aoa idi-kita naikunde edo deseo likitsetara, itz, ta gogorazio loi guzietara? Nola-ko bideak ematen ez dituzte bekatuetarako? Egin ta eragin akzio txarrak, tenta ta tenta bidean arkitzen dan edozein neskatx. Buruko illeak baño bekatu mortal geiago animan iraaften dituztela. Ezkontza usietan sartu-tzen dira; pasio gaiztoari geiago begieratzen die ezkongean birtute, ta bizitza onari baño. Askok berriz artzen dituzte ezkontzako libertade guziak ezkondu baño leenago, ta sartutzen dira Ezkontzako Sakramentu andi ta santuan Asmodeo Infernuko etsai andia ondo ta obeto serbituta. Eta nola gero zori edo suerte ona izango due? Zenbateg esan oi due ezkontzeko borondatea iduki ta itza eman ezkeru, Eleiz deiak egiten abiatu ezkeru, ezkondata daudela Jangoikoaren aurrerako? ta doktrina here-jiako onekin egiten dituzte aitatu ere bear ez diran bekatu rik andienak. Onela prestatu rik dijoazanak konfesatzera ezkontzeko egunean, edo egun aurrean geitzen dituzte sakrilejio andi bi konfesio ta komunio gaiztoakin, ta sartutzen dira estaduan Jangoikoaren madarikazioarekin. Ala bizi dira- la ezin dezakete konfesio jeneral onik ere; zerren Konfesio jeneral onak eskatzen du aurrez prestatu ona; ta beingoan ezkontzeko egunak artean bizitza gaiztoa eramanda, nola egin esamina kontuzkoa, ta erakarri Jangoikoagandik damu egiazkoa? Erraz da mauru beltzak bere narru edo azala zuritzea? ala bada ezkontzako gogoan sartutzen danean bereala asi bear du Konfesio jeneral ta oso bat egiteko ondo prestatzera; joan Kon-fesore on bategana ta esan oni erakatsi dezola nola prestatuko dan, batez ere libururik ta erakurterik ezpadu. Erabaki bear ditu okasio txaar guziak; ez tratatu inola ere ezkongaiarekin, dalako peligro andiko gauza, ta bear dan beste denpora artu Konfesio on bat egiteko; ta ala prestatu ona-kin, penitenziako espirituarekin sartu bear da Ezkontzako Sakramentuan.

Da ere Konfesio jenerala guziz ona len Konfesio jenerala egin due- nentzat. Adirazoko det. Gertatzen da misio, edo ejerzizio santuen bidez Jangoikoak biotza ikuturik, egitea Konfesio jenerala bere ta Konfesorea- ren satisfazio osora. Gero asitzen due bizitza guziz on bat, sartutzen dira orazioko bidean, ta egunoro aurreratzen dira Jangoikoaren serbizioan. Aurrerapen oetan argitzen zaie asko entendimentua, egunean baño egu-

nean geiago artzen due damu geiago leenagoko bekatuena, ta nai die Jan- goikoari satisfazio osoa alegiñaz eman penitenzia Konfesoreak ontzat emanekin. Onelakoak egiten badue berriz konfesio jenerala, artu oi dituz- ten argiekin, esan oi dituzte bekatuak len esan zituzten baño argiroago, ezaguera ta damu andiagorekin. Eta nork esan zenbat on, edo probetxo atera oi duen bigarren Konfesio jeneral onekin? ala ere esana esan, anima sartuta badago egiazko eskrupuloetan, ez da egin bear, beintzat konzien- zia paketu artean; ez da ere len ondo konfesatuta dauzkan bekatuak kon- fesatzeko beldur ta ikara andiren bat badu; zerren gerta liteke lotsaz zer- bait largatzea, ta pakean zegoan konzienzia kezka andietan sartzea. Ala ere ondo da jakitea, Konfesio ondo eginetan esan diran bekatuak largako balira agertu gabe ezagueraz ta borondatez ere, dan bezela dala, ez dala, geienen irituan, konfesio gaiztorik egiten nola egiten ez dan, largatzen diranean bekatu benialak agertu gabe, zeren berenez bekatu benial eza- gunak ta bekatu ondo, au da konfesio onean agertuak, diran borondatez- ko, ta ez bear bearreko konfesakizunak. Baña nola gutxik dakiten au, gerta liteke, konfesio gaiztoa egitea ez jakinez bigarren Konfesio jeneral boron- dateko ta premiagabekoan lotsaz bekatu ren batzuek larga, ta uste izateaz gaizki konfesatu dala. Orregatik bigarren Konfesio jenerala egin nai dua- nari lenengoa ondo egin ezkeru, emango nioke konseju, egin dezala lenengo egin zuan Konfesorearekin beldur gutxiago idukiko dualako len berri dakianari esateaz. Baña kontu; lenengo Konfesio jenerala gaizki egin zuanak, egin bear du beste bat ondo, salbatu nai badu, ta orduan agertu lengo konfesioetan esan ziran, ta etziran bekatu mortalak, jakiñak, edo dudakoak beren zirkunstantzia agertu bearrekin, baita ere egin diran kon- fesio gaiztoak.

Badira kristau modu batzuek, zeintzuek bizi izan diran konzienzia epel batekin; bazuen Jangoikoaren bildurren bat, bekatu mortalik egin nai eza, baña bai izan ere mundu zaleak, nagiak Jangoikoaren serbizioan; ta egin oi dituztenak bekatu benialak ardura gabe, ta obetu gabe; konfesatu noizean bein ta beti bat bizio txikietan; beste batzuek ebilli dira auzitan denpora luzean, ta sarri ernegazioak, ta gaizki esateak. Ezta Konfesorerik jakitunena aizartu edo atrebituko esatera ta ezagutzera duen edo ez one- lakoak premia edo obligazio estua Konfesio jenerala egiteko; baña bai beldur moduren bat idukitzera ondo konfesatzen ote dan edo ez bere epeltasun, ta kontu gutxiagatik: dudatzen ere da gauza batzuetan ziran edo ez mortalak, akusatzen zituanean penitenteak aserre, ernegazio eta gaizki esateak. Nola bada irten epeltasuneko bide peligroso artatik? Nola



irten duda gogorretatik egin gabe Konfesio jeneral oso ta garbi bat ederki prestatuta?

Da ere Jangoikoaren bidean aurreratzeko bide ona urtean bein urte artan egin diran bekatuen Konfesio jeneral edo osoa, illean bein, edo astean bein edo sarriago konfesatzen diran kristaudentzat, ta San Ignazio Loiolakok animarik onenai ematen zien konseju urtean birritan egiteko. Nork esan zenbat laguntzen duan animaren kontu onek aurreratzeko Jangoikoaren bidean? Baña ona emen neke andi gabe urtean bein Konfesio jeneral, ta bizitza guzikoa egiteko bide edo modu erraza, ta animarentzat probetxo edo on andikoa, len bein ta sarriago Konfesio jenerala Konfessorearekin egin duten kristaudentzat. Artu dezake batek, zerbait esamina aurrez eginda, egun bat igarotzeko erretiro, edo bakartadean, erakurten dakianak, ta orazioari denpora emanda. Egund eder onetan, jarri, deritzon ordu baten, Jesu-Kristoren Imajiña baten aurrean, ziñatu, esan *Ni bekataria* konfesatzera balijoa bezela, ta konfesatu zeaztasun andi batekin bertan dagoan Jangoikoari, bizitza guzian egin dituan paltaz; artu gero gogoan zenbat izan diran, zein andiak, nola Jangoikoak bota lezakeala Infernura, bota eztuan; artu gero damu guziz andi bat guziakgatik propositoarekin aurrera eramateko bizitza ohea, esan onen ondoren Nere Jesu-Kristo Jauna, ta egin deritzonean penitziaren bat. Bakarrean, ta Jangoikoari egiten zaion urteoroko Konfesio jeneral onek ez dakar nekerik, ta bai ezin esan beste onera edo probetxo anima garbitzeko.

G. Baña nork egin bear du nai ta ez, edo premiaz Konfesio jenerala.

E. Txit askok, ta bai nere uste osoan emen arkitzen diran askok ere. Ona emen regla edo zuzen bide utsik egin ezin lezakeana. Konfesio jenerala da obligazio estu edo premia gogorrekoa leenagoko Konfesioak gaizki egin dituzten guzientzat, ta Konfesio jeneral ta zuzen batekin gaizki egiñak remediatu ez dituztenentzat.

Konfesioak izan ditezke gaiztoak esaminaren paltaz, damu ta proposito egiazkoaren paltaz, bekatuak osoro ta borondatez ez esanaz, edo penitziak artu nai ezaz, sarri ausiaz, edo konfesio askotan kunplitu ezaz.

Emendik aterako da argi andia igarteko noiz dagoan obligazio astu-na Konfesio jenerala egiteko.

Esaminaren paltaz izango dira konfesio gaiztoak; bakoitzaren nagitasunez, alperkeriaz, edo arduragabez gogora ekartzen ez diranean, ta gero onen paltaz konfesatu gabe largatzen diranean bekatu mortalen bat, edo batzuek, esamina kontuzkoa egin balitza gogoratu, ta konfesatuko ziranak. Onetan erorten dira berandurik berandu esamina azaleko arin ta

beingo batekin konfesatzen diran bekatari batzuek. Oek gatik dio Señeri beneragarri ta misionista andiak, geiago dirala konfesatu gabe largatzen dituzten bekatuak konfesatzen dituztenak baña. Igarotzen dituzte mandamentuak itoka, beingoan, ta bakarrik gelditzen dira bekatu itsusi, lodi lodi, ta edozeini gaitz deritzonetan, largatzen dituzte esaminatu gabe pensamentuz ta itzez eginak; edo beintzat iduki ezpadue gogorik gauza gaizto ta agirikoren bat egiteko, ez dira gelditzen bestelako atsegin zatar, itzloi ta kaltegarrietan; ez aztertzen ere iñori eman ote dien ejemplo gaiztorik. Zenbat obligazio kunplitu bearrak esaminatzen ez dituzte guraso, alkate, Errejidore, ta Ofizioak dauzkeenak? Eta ezagutzen ezpadituzte bekatuak beren esaminaren paltaz, ez dira barkatuak izango. Argi berezko bat bear da Jangoikoak emana bekatu ezkutukoak ezagutzeko, ta orazio on bage izango ez da argi au. Ala bada esaminari lagundu bear dio, batez ere karguak dauzkenen artean, argi eskatze gogozko batek, ta artu, bear dan adina denpora, Esaminaren doktrinan esan genuan bezela, gogoratzeko bekatuak.

Baña konfesio gaizto geiago egiten dira egiazko damu ta propositoaren paltaz esaminarenaz baño; zerren damu ta proposito egiazkoak berez dakar konziencia aztertze ta bekatuak ezagutzeko gogo ona.

Damu au gutxitan arkitzen da bekatua izan danean zorionekoa mundurako. Ekusiko dira bekatuko bidetik izan duenak ezkontza bere gustoko bat, igo duenak fortunak, neskame izatetik igaro diranak Señora edo etxeoandra izatera, pobrezatik diru edo ondasundunak. Oek nola esan egiaz ta biotz biotzetik, damu duela Jangoikoa ofenditua, naiago duela alako fortuna edo zorion mundukoak iduki baño gelditzea anzinako meetasun ta pobrezan? Bada mundu onetako edozein gauza geiago estimatzen duenak Jangoikoaren grazia baño, ez du bekatuaren damurik. Bekatuak kalteak mundurako ekartzen dituanen, gorrotatzen da nola bai bekatua, ta ez da gauza ain gaitza Jangoikoaren ofensa dalako ere gorrotatzea, nola dan munduko fortuna, zorion, edo mesedeak dakarzkigutenean. Lapurreria baten Justiziak artutzen badu bat, sartzen badue Karzelan, gosea igarotzen badu, atsakabe oetatik jaso lezake biotza Jangoikoagana, ta damu artu Manases batek bezela katea artean ofenditu dualako Jangoiko ona; emengo peneetatik igaro dezakez fedeko begiak Infernuko karzelara, Zeru geldu duanagana, ta bai amatzera ere Jangoiko maitagarri emen kastigatu nai izan duana. Ordea lapurretatik, irabazi gaiztoetatik aberastu danak, nekez gorrotatuko du bekatua, nekez biurtu irabazi gaiztoak. Neskatx, anima, honra, ta estimazio guzia mundurako galdu duanak bekatu eginda; bere maitatzallearen palsakeria ezagututa, ekusten da nega-



rrez, ille tiraka, ta ernegazio gogorean Damu du bekatu egiña, ez egiaz beingoan bear bezela; baña Jangoikoaren graziaz arkitzen du onelakoen biotzean prestaera ohea gorrotatzeko bekatua Jangoikoarn ofensa dan aldetik, bestelako neskatx bekatuetatik sari andiak, estimazioak, ta fortuna lurrekoak atera dituztenak baño. Konfesoreak ere ez du anbeste neke ezaguerazitzeko bekatua, mundukoen pagu gaiztotik gogoraerazitzen diorean, zenbat maitatzalle ohea dan Jangoikoa, zenbat obeak diran bere serbitzarientzat dauzkan sariak, zenbat pake geiago arkitzen duen garbiro bizi diranak? O Kristauak! Eta zertara joko due azkenean bekatutik datozen zorian edo fortuna? Zer aterako due emen egun on batzuek igaro ta gero betiko Infernuko pena ta atsekabeetan egoten badira! O nola esango duen probetsu gabe; zorigaiztoko fortunak! Obe nuan Jangoikoari jarraitu banio, bizi izan banintza konfianza guzia beregan ipiñirik; igaro pobreza apur bat; zenbat aberastasun obeak izango nituan gaur Zeruan! ala bada estimatzen ez duanak geiago Jangoikoaren grazia lurreko onra, ondasun ta bizitza bera baño, ez du damurik, ez Konfesio onik onela konfesatu dan arte guzietan, ta bear du egin Konfesio jenerala?

Damurik ez darame konfesioetara prest daudenak irabazi bidegabeak egiteko; onelakoak dira merkatori dendera, Eskribadu, ta beste tratalari atera al duen guzia ateratzen duenak, begiratu gabe legeak ematen dituan zuzenbideai. Errietan karguak dituztenak egiten ere dituzte, (ez diot guziak, bai batzuek) tranpa asko ixiltxorik ta kontuak emateko tranpa berriak igarri ez dezen beste Justiziako ta bezinoak. *Au bear det, neke asko artu det, besteak ere egiten due*, au da beren betiko lelo ta soñua. Galdeetzen die zinzo ta garbiro Konfesore jakitunai utsik ez egiteko gogoz? Zein gutxi Egin ta gero konzienziako kezak obligatzen ditu zerbait esatera konfesioan, baña milla edergarri, apainduria, ta estalkirekin Konfesorea bere alde idukitzeko. Oen konfesioak dira gaizki egiñak, iango ere bai biurtu artean, iñola al duela, bidegabeko irabaziak. Oen artean sartzen dira logreria zaleak, diruak prestatzeagatik eskatzen duenak emana baño geiago: asko tratu dira gaizki egiñak ez tie galdetu nai gizon jakitunei, ta beintzat ez garbiro, ta egia billatzeko gogoz. Onela konfesatu diranak egin bear due Konfesio jenerala asmo sendo batekin biurtzeko irabazi txarrak; bestela ez dago ez konfesio onik, ez barkaziorik.

Egin bear due Konfesio jenerala damu egiazkoaren paltaz len egin diran konfesioagatik, okasio gaizto ta ezagunetan egon diranak alderik egin gabe konfesio ondoan. Bekatuaren okasio andi ta urrekoetan daudenak, daude bekatu jarraitu ta betikoan. Konfesatzen nintzan Jauna; absolbitzen niduen. Bai; baña zere animako kaltean, zeren edo engaiaitu dezu Konfe-

sorea okasio gaiztoak agertu gabe, edo arkitu dezu Konfesore kontu gutxi bat, zure animaren salbazioagatik neke gutxi artu duanak, ta eman dizuna bien kaltean izan dan absolutzioa. Zertako da konfesatzea, konfesio ondoan biurtzen bazera lengo olgantza, pesta, joko, etxe, edo lagunetara, nondik jaio ziran lengo bekatuak? Ezpadezu gogo ta animorik largatzeko animako galbideak, edo okasioak, zure damua begitandua ta gezurrezkoa da, bekatuak oñen gañean daude okasio ezagunak oñean badaude. O nola korputzeko gaitzetan idukiten dan kontu geiago! Nola iges egiten duen osasuna galtzeko peligrzetatik osasuna benetan nai duenak.

Emendik dator zuzenbide edo regla dudagabeko au; Konfesatzeko bitarteetan billatzen ta ipintzen ez dituztenak bitarteko egokiak irtetzeko bekatuaren oitura edo usuario gaiztotik; edo peleetzen ez diranak garaitzeko griña, edo pasio txaar gauza gaiztoetara arrastatzen dituztenak, konfesatzen dirala gaizki, ta egin bear duela Konfesio oso, guzien, edo jenerala. Ondu gabe, ta indarrik egin gabe animako etsaiak garaitzeko, non da damu ta egiazko propositoa?

Orain bada egin bear due Konfesio jenerala bizio jarraituetan irau duenak, bitarteetan konfesatzen zirala. Onelakoak dira maldizioak ezarteko oitura luzeak iduki dituztenak; batzuetan egiazko gorrotoz besteetan intenzio edo gogo gabe, ta gutxitan eskandalua eman gabe; konfesatu bai, baña aurrera leengo oitura gaiztoari.

Zenbat onelako? Badira Guraso beren seme alabeekin konturik iduki ez duenak urte askotan, nola nai bizi izaten largatzen dienak; jakiñagatik, edo jakin bearrean, bizi dirala pauso gaiztoetan, atzeraten ez dituztenak. Badira ere beren ejemplo gaiztoekin laguntzen dienak gaizto izaten. Badira ere seme ta alaba latsa gaiztoa gordetzen dienak Gurasoi, konseju onak artu nai ez dituztenak, ematen dizteela naigabe asko eranzuera gogorrekin, ta bizi modu txarrarekin. Irauten due urteetan onela, konfesatu dira, baña gaizki, zerren leengo bizi modua beti zeukaten oñean.

Badira gorrotoan, tratatu nai ezta, ta etsaitasunean luzaro egon diranak, edo auziren bat darabiltelako, edo beren iritzian injuria andiren bat artu duelako. Oen konfesioak izan dira gaizki egiñak, edo ondo esplikatzeten etziralako konfesioan, do emendatzen etziralako.

Badira ardoara emanak, mozkortzen diranak beren anima, onra ta ondasunen kaltean, erri guziak ezagutzen duala beren izio gaiztoa, ta berak gutxi. Oen konfesioak izan oi dira gezurrezkoak, edo proposito egiazko gabe egiñak. Badira seigarren mandamentuaren kontra modu askotara utsegiten duenak, urteak igarotzen dituztenak pensamentu txar askori leku ematen, itz zatar ta itsusi asko esaten, ta pozik enzuten; esku-



ka desonesto ta zatarrak egiten edo konsentitzen; beren buruekin ere atsegin itsusiak artutzen. Nork esan mandamentu onen kontra askok egiten dituzten lokeriak? au da bekatu aspertzen ta gelditzen ez dana bein artu ezker, dio San Pedro Apostoluak; begiekin, belarriakin, mingaïarekin, eskuakin, memoria, entendimentu ta borondatearekin, korputzarekin zikintzen duela anima! Nork esan berriz zenbateraño zabaltzen dan? Ezkonduak ere galdutzen due beren leialtasun lagunari zor diena; senideak aztutzen due odoloiari zor dien lotsa; personarik begiratuenak izan bear duenak ere arrapatzen dituala batzuetan deabruak; animalia edo abereakin ere bat egiten dirala, aurtxoai erakasten zaiela bekatu egiten. O bizio lotsagarria, baña ainbeste erro ta sustrai botatzen dituana! Zenbat egur ezarten etzaio lujuriako su berez biziari irauin dezan? Olgantza edo pestaz irizikitzen duenak, konbersazio amoretik sortuak, jan edan geiegiak ta zer ez? Ala irauten due urte osoetan; konfesatzen dira, baña edo gezurrez, edo obetasun gabe. Egunen batzuetan beldur apurren bategatik, edo gogait eginda atseren badue erori gabe, sartzen dira berriz gogo berriarekin, bidiazti nekatuak arnasa artu ta jarraitzen dion bezela artu zuan bideari. Dira abere beltz zikintzatik jaiki ta ondo garbitu baño leenago, berriz zikintzara etxuten diranen gisakoak. Nork sinis lezake ume ezkontzakoz beteta daudenak ere, ez largatzea gaztetan artu zuen bizio gaitoa? Nork aguretu, buru murrutuak, ta oin batarekin sepulturaren daudenak, besterik ezin duenean, esango dituztela itz berdeak, ta eman gazteai konseju gaizto lasaigarriak? Nolakoak dira onelako guzien konfesioak? Zenbat sakrilejio izugarri! Zenbat bide gabe edo injuria Jesu-Kristori aldarako Sakramentura urreratzen diranean anima ta sentidu zikiñakin? Oek biurtzea osoro Jangoikoagana ta gorrotatzea bekatu ain maite ta erantsia! Zein gauza gaitza! Eta zenbat gaitzagoa ez biurtzea lengo ebiller, konbersazio, lagun ta okasioetara? Zenbat labanarri aurkitzen ez due pauso guzietan? Nolako sustrai sendoak ipiñi ez ditu beren biotzetan bizio gaizto onek? Nolako indarrak, nolako orazio ta dilijenziak egin bear ez dira ezitzeko aragi gaizkira oitua? Nolako kontua begi ain lasai ebilli diranekin? Zenbat tentaziok esetziko ez die? Nolako gerrak igaro ez Infernuko etsaien aldetik? Gauzarik gutxiena ta nekerik arinena da aozko konfesio jeneral oso oso bat egitea, anditzat badaukate ere. Zenbat gaitzagoa da onelako biotzak ongi prestatzea damu andi bat iristeko Jangoikoagandik, ta artzea iraungarri egoki ta bear bezelakoak? O kristau gaixo lujuriako katea gogorrekin lotuta luzaro egon zeratenak! Zer esango dizuet? Ezin salbatuko zerala? Ez. Gauza gaitza dala zuek Jangoikoagana egiaz biurtzea, ta irautea bizitza garbian? Bai, bai. Zer egin bada? Egin

dilijenzia guziak, konsideratu astiro zer dan ta nolako itzaroten dizuen kastigo betikoa Infernuko karzelan; nola dan ain arina, ta iraupen laburrekoa bekatuaren kontentua, ta betikoa bere tormentua egiazko penitentiarekin konfesioko iturrian garbitzen ezpada. Nola ezer balioko ez dizun egun batzuetan bekatu egin gabe egoteak, irauten ezpadezu bizitza garbian. Pensatu astiro, nolako Zeru ederra galdutzen dezun atsegin itsusi, zatar, ta iraupen laburrekoak gati! Zein beltz ta izugarria larga dezun anima Jangoikoaren irudi edo imajiñara egiña! Gogoan artu zein ona ta maitagarria dan zuk ofenditu dezun Jangoikoa! Ta nola pazienza andiarekin egon dan zuri begira gau ta egun askotan zu kastigatu gabe beste asko bezela! Nola orain ere zu billatzen zaituan zuk bera billatu bearrean. Nola emango diozun atsegin andia, biurtzen bazera beragana, largarik bekatu lagun ta okasioak. Nola poz geiago arkituko dezun Konfesio eder, ta negarrezko batekin animako karga astuna botata, iraundera baño leengo bide zatar gaiztoetan. Oek bada bear due egin Konfesio jeneral ongi prestatua salbatu nai badue.

Izan oi dira konfesio gaizki egiñak proposito egiazkoaren paltaz puskaka, ta apurka bezela denpora luzeetan gauzaak oztutzen diranean, konfesatuagatik ondutzen ez diranak, leengoan dirauteenak, biurtu gabe kenduak itza emanagatik Konfessoreari. O zenbat onelako errietan! Olio, ardo ta janedan bestelakoak saldutzen dituztela legeko neurria baño laburragoan, edo naastzen dituztela obeto irabazteko; apurka apurka igoten due gauza astunera. Euri tantak txikiak dira, baña askorekin egiten dira puzu andiak, azi ibaiak, ta ujolak ere jaiki. Orobat dendera saldu erosietan edo irabazte geiegiak, edo neurri laburtuekin gauzaak ematen dituztenak. Onelakoak beti daude pekatu mortalak ta asko egiten zerren beti dauden prest txikietatik andira igoteko irabazte txarretan. Egin bear due nai ta ez denpora guzi artako Konfesio jenerala, edo gaizki esplikatzen ziralako konfesio banakoetan, edo emendatzen etziralako; baña ezta balioko Konfesioak, laguntzen ezpadio biurrera edo kenduen restituzioak, inola ere al dala, ta al dan bestean. Nork esan alde onetatik egiten diran konfesio proposito egiazko gabeak? Zenbat daude urte osoetan zor egiazkoak pagatu gabe nagitasunez, luzatzen dituztela arrazoi on gabe ta jabearen borondatearen kontra arkitzen dutela gastu alperretarako, ta jaartzten dirala, ez gutxitan, inoiz ez pagatzeko peligroan, edo eriotzak ustekabean artu dezakealako, edo gerora zerekin pagatu idukiko eztualako? Zenbat bizi dira kontuetan utsegin dualako tratuko lagunak, igarririk utsegina lagunaren kaltean dagoala txit pozik, agertu gabe utsegiña? Zenbat, erriko diruak gobernatzen dituztenen artean, kontu okerrak eman, aloger bear ez dira



nak artu, ta bizi diranak urte osoak pake galantean konzienziako kezka jaramon gabe? Zenbat maiordomo edo Elizako Kofradietakoak, edo iñoren odasunetakoak, ezkutuan jan ta kontuetan gero milla tranpa sartutzen dituztenak? Zenbat testamentario nagi, zenbat heredero diru zaleagoak, anima zaleagoak baño, bizi dira urte osoetan meza aginduak atera gabe, luzatzen dituztela Purgatorioko anima gaixoen kaltean, ta egin bear ziran beste zor pagatzeak egin bage! O konfesio ederrak! Jangoikoa engañatu ezin due mundukoen begietatik estaltzen badue ere beren kutizia, edo iñoren gauzean gozatze bide gaiztokoa. Onelakoak konfesatu dira gaizki, edo agertzen etzituztelako zuzen bere tranpak, geienez gertatzen dan bezela, edo emendatzen etzirako, edo biurtzen etzielako bakoitzari berea zekentasunez. Baña erraz da onelakoak Konfesio jeneral ona egi-tea? Ez: zerren aragitu ta etxetuta dauzkeen iñoren gauzaak, ta min andia artu bear due ebaki, atera, ta biurtzeko bakoitzari berea. Emango dituzte milla esesio, aitzakia ta eskusa; *ezin det orain, ekusiko det zer egin al dezakedan, mantenu bear det ta janzi nere burua ta etxeokak; etorriko da denpora obeago bat, ta ez naiz illko biurtu gabe*. Ala ezin egin begitanduekin engañatzen dituzte askok Konfesoreak, ta ekusten dira ostutze modu asko, konfesioak konfesio gañean, ta restituzio guziz gutxi. Ez dago Konfesio jeneral ondo eginik ezpadago restituziorik, inola al dezala, edo al dan bestean. Ala bada ez alperrik nekatu esamina egiten, ta konfesatzen; bada, zer egin? Aurrez egin dilijenzia osoa biurtzeko bakoitzari berea, ta ez esan gezurrez ez det zerekin. Agertu egia Konfesore jakintsu bati, ta Kristok badio begia atera, ta oña ebaki bear dala eskandalua ematen badue, nik ere esango dizuet, obe dala gutxi jan, pobretxo janzi, ta nekez igaro inoren gauzarekin jan ta janzi ta gero Infernura erori baño.

Ala bada esana, egon diranak denpora luzean bizio gaiztoren baten sartuta, edo obligazio astunen batzuek konplitu gabe beren kulpaz, egin bear due denpora guzi artako konfesioen berriztazio garbi bat, zeña dan Konfesio jenerala, ta au egin gabe jarraitzen badue konfesatzen, konfesio gaiztoak egingo dituzte.

G. Kontu gogorra, esango dezu. Nik esaten nituan bekatu guziak, ez nuan ezer gordetzen; uste ere nuan baneramala damu ta propositoa; esaminatzen nuan konzienzia kontu andiarekin; ordea gero pasioak berriz katigatzen nenduan. Zertako bada ausiko det burua, ta eman zeregin Konfesoreari berriz esaten len konfesatutako bekatu mortal guziak?

E. O deabruaren asmazio anima asko galdu dituan atzeratuaz Konfesio jenerala egitetik! Zer atera dezu bekatu guziak agertuaz leengo Konfesioetan, ta Konfesoreak askotan luzatu bear zizun absolutzioa gaizki

emanaz, baldin ezpazeraman bear bezelako egiazko damu, ta propositoa? Zure iritzi edo uste izate txarrak ekarriko dizu barkazioa? Ez, ez. Apaiz batek bateatzen badu aurtxoa ardo zuriarekin uste izanik urarekin bateatzen zuala, ondo bateatuko da aurra? Eta barkatuko zaio bekatu amaren sabeletik dakarrena? Ezez, esango didazu. Eta zergatik ez? Zerren bear dan ur egiazkoa, ta ez begitandua bateoa ona izango bada. Bada nik ere esaten dizut, ain bearrak dirala, konfesioa ona izaiteko, damu ta proposito egiazkoa, nola ur egiazkoa bateoa ona izateko. Ala, zure uste izateak ez dizu egingo konfesio ona, ta jakin ere bear zenuan obetasun ta emienda gabeko konfesioak zirala egiazko damu ta proposito gabe eginak. Zer eranzuten dezu? Ona zer esaten dizun Espiritu Santuak, *bere bekatuak gatik baraur egin duan gizonari, biurtzen bada lengo bekatuetara, zer balioko dio bere humillatzeak; edo nork enzungo du bere eskaari edo orazioa?* Nork ikara andi bat artuko ez du Jangoikoaren itz au enzunda? Zer esan konfesioko humillatze, orazio edo parkazio eskatzeak gatik, laster, ta sarri biurtzen bada lengo bekatuetara? Gaur negar itxuraz, bularrak kolpetzen ta esaten, damu det Jauna, ta andik laster bekatuta biurtzen; ta onela bekatu ta konfesio, konfesio ta bekatu. Nork esan benetan damutzen zala, ta artutzen zituala ondutzeko bide onak? Nork igaro naiko du alako konfesiokin Kristoren aurrera? Beraz egin bear due Konfesio jenerala ondo ta ondo prestatuta.

Baña ezta ezertan igarten obeto ta argiroago Konfesio jeneralaren premia, nola dan leenagoko konfesioetan largatzeaz bekatu mortalen bat ezagueraz, ta lotsaz agertu gabe, ta askok uste duen baño utsegin geiago dago gauza onetan. Ona bada guztirako ona izango dan zuzen bidea. Larga duanak ezagueraz ta beldurrez konfesatu gabe bekatu mortal ezagun edo duda osokoren bat, edo bekatu mortaltzat zeukana konfesatze-ko orduan, edo bekatu mortalaren zirzkunstanzia bekatu berria egiten zuana; ta orobat apaintzen duanak edo gutxitu mortal izatetik benialera joerazitzen diola, egiten du konfesio gaiztoa, ta zenbat konfesio ta komunio egin dituan agertu gabe bekatu, edo bekatuak ezagueraz, egiten ditu beste anbeste sakrilejio, ta egin bear du denpora guzi artako Konfesio jenerala; ta Konfesio jeneral onetan agertu bear dira, ez bakarrik lotsaz gorde ziran bekatuak, baita ere aleginez bitarte artan egin ta konfesatu ziranak ere, zerren konfesio gaizki eginen konfesatuak, dira ez konfesatuak bezela.

Au egia izanik, aztertu bakoitzak bere konzienzia, ezagutzeko nola-koak izan diran konfesioak, inoiz ezer utzi ote duan lotsaz konfesakizuna ta astuna zeritzonean. Arkituko dira uste dan baño geiago, edo guziz ixil-



du, edo edertu, edo gutxitu dituztenak, ta onela igaro diranak konfesatzen urte osoetan. Begira zer dion bakoitzaren konzienziak.

Ori orrela bada, dio batek, nik naita ez egin bear det Konfesio jenerala, zerren txikitxo nintzanean egin edo konsentitu nituan zikinkeria ta nauskontuak nere lagun aide batekin, eskolako lagunekin, edo auzokoetako neskatx mutiltxoak alkarrekin genbiltzanean, ta ez ditut inoiz ondo konfesatu, zerren ematen zidaten lotsa andia txikitari alako gauza zatarrak egiteak ta egiten erakasteak, ta sarritan gogora etorri, ta kezkatu banaute ere, pensatzen nuan batzuetan etzirala bekatu astunak izango, ez niakeala nik orduan zer egiten nuan, ez nuala ezagutzen zer zan bekatu mortala; baña egia esateko guzia izan da lotsaren lotsaz ez konfesatzeagatik; ez nintzan inoiz paketzen; enzuten nituanean Pulpitoetatik, nola bata ta beste kondenatu ziran bekatua beldurrez ez agertuagatik, ikaritzen nintzan, etortzen zitzaiztan gogora txikitako bekatu loi edo itsusiak; batzuetan pensatzen nuan konfesatzea; beste batzuetan atzeratzen nintzan, ta ala ezda-baida onelakoetan igaro ditut txikitatik onako urte guziak. Ori orrela da? Bada egin bear dezu txikitatik onarako Konfesio jenerala, ta au egin artean ez dezu beste konfesorik egin bear. Duda pisu andikoak ez agertzea Konfessoreari ezagueraz ta lotsaz, bekatua da. Txikitako loikeria aiek egin oi dira malizia moduren batekin, billatzen dira leku ezkutuko ta bakar-rak, ta argiro ez pensatuagatik urte aietan bekatu mortalak ziranik, beti edo geienez egoten da ezauera moduren bat arrazoiari gaizki deritzona obra txar ura. Onez gañetik konfesatu ez dituzu gaizki zerintzola ez konfesatzea, egon zera kezka andietan, konzienzia paketzen etzan inoiz osoz, ta noizean bein kezkatzen ziñan. Onela egin diran konfesioak dira fede txaarrekoak, ta ala obligatua zaude konfesio jeneral bat egitera.

Niri gertatu zat, dio beste batek, egitea orain amar edo ogei urte animalia batekin bekatu itsusi bat edo geiago, ta alakoa izan da nere lotsa, ezen ez naiz atrebitu edo azartu konfesatzera. Bai? Bada edo egin denpora guzi orretako konfesio guzien berriztazio bat edo Konfesio jenerala, edo kondenatu.

Ni ere arrapatzen nau gaur doktrinak, dio beste batek, zerren larga ditut konfesatu gabe fedearen kontrako pensamentu gaiztoak, uste nuan Konfessoreak idukiko ninduala herejatzat, etzegoala Erromara gabe bar-kaziorik, ta ala eraman det bizitza triste ta arantzaz bete bat. O Kristau deabruak engañatua! Bear bada lekuri eman etziñon pensamentu oriei, ta Jangoikoaren kontrako pensamenturik itsusienak ere bekatu ez dira borondateak laguntzen ez diorean. Baña nola egon zeran lotsaz gorde-

tzen konfesatzeko obligazioa zenukalako usteaz, egin dituzu konfesio gaiztoak, ta egin bear dezu guzien Konfesio jenerala.

Nik egiten nuan beste tranpa modu bat, dio nork edo nork. Iduki nituan lotsaz agertu gabe denpora zati baten bekatu batzuek, ta nola lotsa nintzan esatea Konfessoreari lotsaz larga nituala, esan nion gero aztu zitzaiztazala, ta lotsaz konfesatu gabeak esan nituan aztuak bezela. Bada egin dituzu konfesio gaiztoak, zerren ezkutatu dituzu bekatu andiak, oek dira konfesio ta komunio sakrilegoak, ta dezu obligazio estu estua egiteko lotsaz konfesatu gabe asi ziñatetik onarañoko Konfesio jenerala. Ala da. Geiago kostatzen zaio bati esatea argiro bekatua lotsaz konfesatu gabe larga dituala, bekatuak berak esatea baño; baña guziak esan bear dira, ala egin diran konfesio ta komunio gaiztoak, nola orretarako lotsaz konfesatu ezaz bidea eman duen bekatuak.

Nik geiago egin det, esango didate beste khristau batzuek; txikitatik asi nintzan pensamentu zikinai leku osoa ematen, itz zatarrak esaten ta enzuten, egindituk eskua itxusi asko edo nere aragiarekin bakarrean, ta lagun gaiztoekin; onela igaro ditut urte osoak dibersio gaiztoetan buruko illeak beste bekatu egiten modu guzietara; konfesatzen nintzan sarri, baña esaten ez nituan erdiak ta gutxiago ere; esaten nituan arinenak, ta astunenak gorde; nere begi oin esku, edo sentiduei ematen nien atsegin gaizto asko; ez nuan egiten gero ez esamina onik, ez artu damu egiazkorik, ez konfesatu laurdenik, ta onelakoa izan da nere bizitza guzia, gaizari borondateko atea zabaldua, mandamenturik geienak ausitzen nituala zertan edo artan. Nik ezagutzen det orain argiroago egin bear dedala Konfesio jenerala. Baña nola garbitu nere konzienzia matasatua? Nola gogora ekarri guziak? Nola nere aotik atera anbeste bekatu itsusi?

Kristau eroa, nai dezu aurrerazean ondu ta bizitza berri bat artu? Nai dituzu larga bekatuko okasio galgarri ta ezagun guziak? Nai dezu artu amu andi bat zere bizitza ta anbeste sakrilejio itsusigatik? Ondu nai ezpadezu, larga nai ezpadezu lagun, adiskide, leku, etxe, ta olgantza galdu zaituzte nai, alperra izango da Konfesio jenerala. Baña penitentzia egin nai badezu lengoak gatik, ta artu aurrera bizitza garbi ta txit on bat, ez dago gauza gaitzik Konfesio jenerala egitean: billa ezazu anima zalea dan Konfessore jakintsu bat; esan lenengotik pilloan nolakoa izan zeran, nola konfesio onik egin ez dezun urte askotan edo bizitza guzian, ta erregutu ezozu galdetu dagizuela banaan mandamentuetatik. Bai kristaua, zaarra bazera ere borondate ona badezu ta gogo ona ezer ez largatzeko, aterako dizkitzu Konfessoreak bere itaune, edo galdetze prestakin zure biotzean dauden bekaturik itsusienak, ta banaan ezin atera diranak, aterako dira



oitura edo usuarioz. A baita nolako pakea geldituko dan zure animan konzienzia garbitu ezkerok! Nola pozaren pozak negar gozoak aterako dizkitzun! Nola ezagutuko dezun geroago ta geiago Jangoikoaren ontasuna, ta eramango zaituan argi berri batek amatzera ta serbitzera Jaun anbeste pazienziarekin itxaran dizuna, ta zu billatu zaituana. Nolako atsegiña eriotzako orduan kontu guziak ondo eginak idukitzeaz Jangoikoaren Justiziarekin Konfesio jeneral garbi, zinzo, zuzen, ta damu andiko batekin! Berriz, zer egingo du anima, bekatu gaizki konfesatuakin eriotzako tranzean arkitzen danak? Nola garbitu konzienzia naastu ta matasatua? Nola-ko estutasun ta ernegazioak artuko du ekusirik bere anima bekatuz, ta sakrilejioz betea! Ezagutzen du Konfesio zuzen garbi, a jeneralaren premia, ta nola izan zuan astia, ta era ona osasun on ta entendimentua argiarekin ondo guziak esateko, ta bizitza garbi bat eramateko? Arkitzen du Konfesoreak estu, larri, ta urte askotako konfesioak gaizki eginda. Konfesorea ezpada anima zalea, pazienzia andikoa ez dio kontu andirik artuko, largako du konfesio arin batekin len baño ere estuago. Konfesore on bat arkitzen badu ere, nola zuzendu anima guziz bekatuz josia, sakrilejioz betea, esamina onik egin ez duana, beldurrez ta ikaraz dagoana iltzeko, gaitzak buru guzia astundu diona, ta itzak ere nekez baño atera ezin ditua-na! O kristau deabruak orain anbeste atzerapen, nagitasun, ta ezinegin ematen dizuna, erraztuko dizu ordu estu artan? Zerk itxutzen zaitu? Zer ateratzen dezu bekatu bekatu zabiltzala? Zenbat negar malko gori bota bearko dituzu egunen batean oraingo atsegin ustel zatarrak billatzen dituzulako? Zenbat iraungo dizue bide gaiztoko irabaziaz, egiten dituzun tranpak, ta lagunari kendu diozkatzun ondasunak? Trokatu, edo errebesatu bearko dituzula, dio Espiritu Santuak, jan edo bildu zinduen aberas-tasunak. Zer aterako dezu egiten dituzun konfesio ta komunio sakrilego-etatik, edo egia estaltzen dezulako, edo damu gabe urbiltzen zeralako kon-fesioko sakramentura? Nolako kastigo ikaragarriak itxaroten dizu Infer-nuan Kristoren korputz ta anima santuari ematen ziñelako bekatuko leku itsusia?

Ai, Jauna! dioe batzuek, nai nuke garbitu nere konzienzia, artzen det gogoa egiteko Konfesio jenerala; badakit arkituko nukeana atseginta pake geiago nere animako karga andi ta pisu au kenduta banuka. Ordea bereala larritzen naiz, izerdi larri batek irteeten dit, gogoratu ta bestegabe, esan bear ditudala anbeste bekatu itsusi anbeste konfesio ta komunio gaizki egin ditudanak. Ez dakit ez nondik ez asi, ez nola jarraitu. Nai dezu bada artu nere conseju ongi irtengo dizuna? Zoaz Ama Birjiñaren Imajiña baten aurrera, etxun zaite an bertan, eskaezozu bere laguntasuna garai-

tzeko infernuko etsaiak ematen dizun beldurra. Egizu negar zere bekatu andiagatik, ta nere konturan lagunduko dizula Konfesio jeneral eder bat egitera; ta arkituko dezu, bestela arkituko ezin dezun pakea. Nai dezu enzun neuri gertatu zitzatan ejemplo bat? Ona bada.

Bizi zan erri baten Persona bat bizitza guzia eraman zuana bekatu modo guzietan; etzuan inoiz konfesio on bat egin; txikitatik asi zan bekatuak egiten, ta iraun zuan urte askoan bekatuak bekatuiri iristen. Ezin sufriturik bere konzienziako deadarrak, zebillen Judas bezela salbazioaz ernegatuta, esperanza guzia galduta, ta onek zeraman edozein bekatu egite-tera; baño ezin arkitu zuan ezertan pozik, ta ala bein baño geiagotan dei egiten zion Infernuko etsaiari bere anima salduzko ta berekin tratuak egiteko. Ordea etzion Jangoikoak lizenziarik eman deabruari artarako. Urte askotan konfesatu ere etzan, ez komulgatu; zerren alde batetik etzuan biotzik bekatu guziak Konfesoreari esateko, ta bestetik beldur zan komunio santura eltzen anima ain loi ta gaiztoarekin. Au zan egiten zuan gauza on bakarra, au da ez nai izatea gaizki komulgatu. Bere gaiztakeria guzien artean etzan Ama Birjiñarekin aaztuta bizi. Ezin zuanean bakerik arkitu erabaki zuan, deabruak ala puztuta puzu edo Ibai batera bere burua botatzea, ta ala, bere ustez, pakea billatzea. Asmo galdu onekin joan zan egun batean Ibai ondora, ta burua urari eman orduko, oroitu zan Ama Birjiñaz, ta belauniko jarririk asi zan esaten iru *Abe Maria*. Zer balioko ote zion ito balu burua? Bereala artu zuan eriotzaren beldur andiak, ta biurtu zan etxera ezer egin gabe. Denpora zati bat igarota, nola Konfesio jeneral bat egitera atrebitzen etzan, biurtu zitzaizkon kezka, ta ernegazioak, ta esan zuan, ito bear det buruau, ta ez len bezela beldurtuta, egin gabe, etxera biurtu. Joan zan bigarren aldian Ibai ondora; esan zituan orduan ere iru Abe Maria belauniko; ta bertan artu zuan kondenazioko ikara andi batek, ta biurtu zan berriz etxera. Baña geroago ta estuago zerabilen deabruak. Zuk arkituko ez dezu pakerik bizi zeran artean, konfesatuko ezin dituzu bizitza guziko bekatuak, ta etzera salbatuko. Zoaz bada ta eman-zazu buruari pakea ta ito ziate. Zer eginzuala deritzazu kristau errukarri ark? Esan zuan beregan, ni banoa Ibai ondora, ikaratuko naiz ta ez det animorik artuko burua uretara botatzeko. Asmatu zuan erostea baso erdi aguardiente; joan zan ibai ondora irugarren aldian, esan zituan belaunbi-ko iru Abe Mariak, ta ikaratu etzidin, edan zuan agurdiente animoa artze-ko eraman zuana. Baña, o Jangoikoaren ontasuna! Artu zuan bereala lo astun batek, ta lotatik iratzartu zanean sartu zitzaion ikara andia, biurtu zan etxera; ta azkenean animatu zan nere oñetara eltzera, urrutikoa bazan ere. Egin zuan bizitza guziko Konfesio jenerala erraz erraz esaten zituala



bekatu itsusi guziak. Nolako poza nerea Jangoikoak bialdu zidanean anima Birjinak deabruaren ortzetatik libratu zuana! Eta nolako poza berea arkitu zanean konzienzia paketsuarekin? A kristau premia andian arkitzen zerana! Garbiezazu zere konzienzia, billaezazu Ama Birjinaren laguntasuna, ta arkituko dezu salbazioko atea idikirik. Amen.

ERAKASTE XIII.

Nola konfesio jenerala egin ondoan iraun bear dan bizitza onean ta nola iraungo dan

Ez da gauza sarriago ekusten danik, nola diran Konfesio jeneralak misioko egunetan, baita ere beste denpora batzuetan. Badirudi erriak aldatu dirala onera. Ordea gutxik irauten due gogo santuetan, ta lau edo bost ill igaro baño leenago, negarrak leortzen dira, ta erriak biurtzen anziñako bizitza lasaira. Atseren apur bat artu due pasioak, baño gero azkortzen dira: alkar ekusi gabe egon ziran adiskide txarrak Konfesoreak egindurik, edo Sermoien bidez, geldika egiten dituzte bisitatxoak gauza txatarrik ez egiteko asmo deabruak edertuarekin. Ekusiak dakar parrea, itzketa amorezkoa, ta egun gutxiren buruan askatzen due pasioa, galdu lotsa ta beldur guzia, ta dira gerora egunetik egunera gaiztoagoak.

Beste batzuek egin zuenean konfesio jenerala artu zuten asmoa biurtezeko ostua, kalte eginak edo irabazi bide gaiztokoak; eman zien itza konfesoreari anbat lastarren egingo zituztela restituzio edo gauza kenduen biurrerak. Ordea min ematen die etxetik ezer ateratzeak, ta dabilta aurrea konfesatzen kunplitu gabe obligazio ain bearra.

Beste batzuek eman zuten itza konfesatuko zirala illean bein largako ziela olganza, ta pesta len galdu zituztenai, eramango zueela bizitza modu oneko bat: baño denpora gutxiren buruan largatzen die Konfesatzeari, ta ez Tanboril soñuari; lasaitzen dira kunplitzen ez dituzte penitenziak, ta biurtzen dira anzinakoak izatera. Itz gutxitan; asitzen dira ondo, jarraitzen due gaizki, ta bukatzen due bizitza eriotza gaizto batekin; zerren gaitzera biurtzerekin egiten zaio Kristori injuria, edo bidegabe guziz andi bat, sendotzen dira deabruaren indarrak, ta argaltzen animarenak. Iraun nai ezpazan, zertako asi? Eta zergatik iraun ez asi ezkeru bizitza on bat? a jende ero ta gatzgabea, esaten zien San Pablok Galatakoai, nork lausotu ditu zuen begiak ez ekusteko egia, ta jarraitzeko gezurrari? Asi ziñaten ondo, egin ere bai bide zati bat egiaren ezagutzan. Zergatik onik onenean larga diezu bide onari? Nor izan da onela galdu zaituztena? *Quis bos fascinavit?*

Iru gauzak dakar morroe bat largatzera bere etxeko Jauna; lenbizikoa, aldatza edo mudanzaren bat dakuzanean etxeko Jaunagan; bigarrena, serbizioa lengoa ez danean; irugarrena, laburtzen bazaio alagorea, edo urte saria. Etxeko Jaun, len bigun errukiorra zana, biurtzen bada gogor,



astun, ta gogaitgarria izatera, aldatzen da beste bat bezela izatera: morroea bazegoan konfianza osoan, giltzen kontuaz, ta beingoan morroe azpiko egiten badu, gaitz deritzo aldatza oni, ta dijoa etxetik. Azkenean, amar ezkutu soldatetik eresten badio bostera, ez dio ondo jakiten. Ordea, ze arrazoi arki lezake anima Jangoikoaren serbizioan sartu danak iges egiteko, largatzeko Jaun aldatu ez dana, mesederik gutxitu ez diona, ta bearsariak ugari ta laburtu gabe emango diozkana? Jaun maitagarri onek artzen du Aitaren izena; gaitu bereak, ala berak eginak geralako, nola bere odolarekin erosi ginduelako. Zergatik iges egin alako Aitaren etxetik atsegín ematearen aragi gaiztoari, edo munduko esamesak gatik? Edo Infernuko etsaiaren tentazioai leku emateagatik? O eskergabetasun itxusia! Konfesió jenerala oso ta damu andiarekin egin danean, nolako poza biotzak, nolako arintasun ta pakea zor andiak pagatu ta zor gabe gelditzen danak bezelakoa? Zertara joko du pake ark biurtutzen bagera lengo bizitza gaiztota? Zenbat arrazoi dauzkagu bada irauteko bizitza onean, egunoro obeak izateko, ta birtuterik birtute gabiltzala izateko eriotza ona! Esanda dago; *irauten duanak onean azkeneraño, salbatuko da*, ez asi, ta largatzen diona on izateari. Obe izango zan nola bait ez ezagutzea egia, ez sartzea Jangoikoa serbitzen, aldegitiko bere legetik. Etxe eder ta andi bat asi duanari, parre egingo die neke andiak artu, ta largatzen badu bukatu gabe erdi eginda.

Nondik dator ordea ez iraute bide on artuan? Ona zer dion Kristok. Etxearen zimentua egin da arearen gañean, dator eguraldi gaizto bat, jaitkitzen dira aizeak, ta ujolak, ezarten due lurrera etxe guzia zimentu argal ta txatarra zeukalako. Ala bada birtuteari ezarten ezpazaioz zimentu onak, eroriko da laster tentazio andien aize gogor ta ujolekin. Nabasaiari eskua ezarten dionak soroan bear egiteko, ez du atzera begiratu bear, ta bai ekin bere lanari. Au egin bear da birtuteko lanean; bestela ez da gauza neretzat dio Kristo ber berak. Ekusi bear degu bada zein diran zimendu onak erori ez didin animako bear guzia. Gauza guziak datoz bi oetara, aldegitera onean irautea galerazitzen diguten gauza guzietatik, ta egitera onean irauteko lagunduko diguenak.

Lenengo, alde egin bear deguna, da bekatura garameezan okasio ezagunak, ta onetan eztago parkaziorik. Gaizki len bizi izan diranak daude gaiso edo eritasun andi batetik iges egin uenak bezela, argal, eror errazak; edozein jatekok, kontu andiarekin ezpadabiltza, gaitza biurtuko dienak, beste sendoi kalte egiten ezpadie ere. Beraz konberti berriak arre ta geiagorekin aldegin bear due erorbide, edo bekatuaren okasioetatik, birtutean luzaro iraun ta sendotu diranak baño. Aientzat okasio eza-

gun ta ur urrekoak dira, leku ta ebillera asko, besteentzat urrutikoak diranak. Kontu dezagun kristau lujuriako amore, ta bideetan oitu dan batek, Jangoikoaren argi batekin bere bizitza gaiztoa ezaguturik, egin duala Konfesió jeneral eder, ta damu andiko bat. Onelako batek iraun nai badu artu duan bizitza on ta berrian, nolako kontua iduki bear ez du? Begiak oiturik dauzka ekuste amoragarrietara, belarriak kanta, edo itzketa zatarra atseginez enzutera. Non nai bezela arkituko da nai ta ez ere lengo ezagun ta lagun gaiztoekin. Oek emango die bideren bat bear ez diran gauzeetarako. Bada artzen ezpadie lagun aiei gorroto santu bat, iges egiten ezpadu txakur amorratu bategandik bezela aien artetik, arpegi astun bat erakutsirik, laster galduko da. Eta zer joaten bada lagun aien artera berak nai duala? Zer agertzen bada karrika edo plazaan prest ta eskintzen bezela burua danzarako? Nola iraun? Nola piztuko ez da anziñako amorio edo oniritzi aragizkoa? Nola parre, itzketa, ta esku estutzeakin likatuko ez da bere biotza? Nola deabruaren soñuan ixilduko ez du Jangoikoak bakarzailei biotzetan ematen diena? Galdu da bai, anima gaixoa, iges egin du Kristoren eskolatik, ta sartu da infernuko eskolan. Sartu zan peligro beretzat ezagunean, ta beste gabe galduko da. Anima onak, ta birtutean sendotuak ere ez lukee iraungo luzaro galdu gabe. Zer egingo due anima argal ta bekatutik irten berriak? Iges bada iges Babilonia gaiztotik. Bakartzen diranak ere badue zer egin irauteko bide onean. Infernuko etsaiak inguratzen gaitu alde guzietatik; orazio, penitencia, ta gauza onetara emanak ere peleatu bear du garaitzeko tentazio asko, batez ere len bekatari andia izan bada. Oek galtzeko ekartzen ditu Infernuko etsaiak beste etsai bera baño gaiztoagoak, ta esesten die guziak. Bada nola izango ez dira galdu ta garaituak munduaren erdira irtetzen duenak, mundu etsai andiarekin laztantzen diranak? O itxumena egia au ekusten ezpada! Beraz larga bear dira dibersio edo olgantza peligrasoak; iges egin alako lagunetatik sugearen arpegitik bezela. Ala ez egitera, galdua da anima gaixoa. Orobat edanean len erorten zanak aldegin bear du edateera tentatuko duen gizon ardanzaleetatik, aldegin Ardantegi edo Taberneetatik, non sartu ezker, jakin bear duen, len gertatu zateenaz, igaroko dirala edanean. Adiskidetasun gaiztoren bat iduki duteenak auzoan, edo urrutigoko etxeren baten, ez due ara geiago joan bear, ez, esaterako, agur sikurik ere egin bideren bat arkituta ere adiskide kaltegarriari; ta kendu bear da alegiñez bere gogotik alako adiskide gaiztoa. Largatzen bada amore txingarren bat, jaitkiko da su andia, ta egur guzia kendu bearrean, geitzen badira berriak, irtengo du garondagarriak.



Bigarren etsai iges egin bear dana da mundua, esan nai det, ez dala begiratu bear lurrekoen esamesetara. Nere ustean kalte geiago egiten du anima onera biurtu diranetan mundu gaizto onek, infernuko etsai gaizto guziak baño. Mundu zaleak ekusten badue beren lagun len izan dana Jangoikoaren aldera jiratua, asitzen dira milla farra, ta siñu egiten. Ona emen egun gutxiko Santa aldaretan ipiñi bearko deguna; guk kondenatu bearko degu; onek izan Zeruan Koroa andia. Zu bezelako eroak galduko dira. Burua laster galduko dezu. Zergatik irten ez pesteetara! Zer gauza txaar egiten da? Guk ere salbatu uste degu; infernua ekusteko dago. Onela milla berriketarekin beldurturik, atzeratzen dira Jangoikoaren bidetik, lotsatzen dira Kristoren eskolakoak izaten, sartutzen dira munduaren erdian. Baña zer gertatuko zaie? Lotsatuko da Jesu-Kristo ere alako jente beldurtiak bere umetzat artutzen. Eta isilduko da mundua egin alak eginda ere? Largaritzen badiozu bide onari, irteten badezu apainduta, bazabiltza pesta ta dibersio galgarrietan, esango due, ona zertara etorri dan onen santidada. Agiri da engañatu dituala Konfesoareak. Egizu nai al guzia; ez dezu mundua ixilduko, San Juanek egiten baditu baraur gogorrak, gaizki esango due, Kristo ekusten bada Zaqueo ta beste etxeetan zerbait jaaten animak irabazteagatik, esango du dala burukina, edala, ta sabel andikoa. Beraz ere garbia da munduko esamesen beldurrez largatzen diona Jangoikoaren bideari.

Irugarren eragozpena irauteko artu dan bizitza onean, dira igaro bear diran tentazioak. Asko da anima bat sartzea bizitza on bat egiten, bereala irteteko bidera atzera eragiteko. Ezagutzen du infernuko etsaiak nola iges egin dion? Geitzen ditu tentazioak, ematen ditu beldurrak, ezin jarraituko duela asi duan bidea, alperrik dabillega egun batzuetan, gero ere eroriko dala. Ez da zer, kristauak artutzen baditu neurri onak irauteko? Zer, sartutzen badu orazioko, ta penitenziako bidean. Eta artzen ez duen asmorik, dio Santa Theresak, eragozteko orazio ixillekoa. Asko da orazioko lekuan jartzea sentitzeko tentazio zatarrak, loa, beldurrak, korpuzteko min edo oñazak. O anima gaixoa! Ez ikaratu: ekin ekin lan eder orri; garaituko dituzu etsaiaren asmo guziak irauten badezu atzerarik egin gabe. Ez dezu sentitzen gozotasunik? Zaude leor, gogor, pensamentua ezi ezinda! Ez da ansi. Aurrera. Zure iran-penak bigunduko du Zerua; jo atea, egin oles berriz ta berriz, ta idikiko zatzu. Nola uste dezu garbitu anima lengo bekatuen loi, zetaka, ta ugar guzietati estutasun gogorrak igaro gabe? Peleatzen badezu tentazioen kontra, oek badira belz, itxusi ta zikinnek, berekin garbituko zera, nola lisibako auts loituak garbitzen dituen zapiak. Jakikiko zaizkitzu gizonen persekuzioak, zure kontra izango dira

aideak, adiskideak, ta mundu guzia. Aragia bera egongo da eskatzen atsegín zatarrak. O Kristoren Soldadua! Ez izutu: eman arpegia etsai guziari; zure pazienziarekin garaituko dituzu munduko persekuzio ta irau guziak. Aragia eziko dezu orazio ta penitenziarekin ta ukatuaz eskatzen dituen gauza txatarrak, ta fede sendo batekin Infernuko etsaia, ta azkenean bear bezela gudatzen duenak, izango du inoiz zimeldu ta igartuko ez dan Koroa.

Gauza gogorra! Esango dezu; betiko gerran ebilli bearra. Atoz ona. Nolako naigabe ta penak ez daramez lurreko Erregeren Soldaduak gerrako denporetan? Otza, bero geiegia, jaateko laburra, lo gutxia, ta iltzeko anbeste peligro, ta azkenean bizitzarekin irteten badue ere, zer sari ematen zaie? Berriz Jangoikoaren serbizioan peleatzen dutenai, nolako sariak itxaraten ez die Zeruan? Non da gure zenzu ta fedea?

A Kristau maite Jangoikoarn serbizioan sartu zerana, jakin zazu, azkeneraño irautea birtute onean dala gutxi batzuenak, zeren artu nai ez dituzten neurri egokiak orretako. Bear dira bada gauza bi; bata Jangoikoaren aparte aparteko grazia edo laguntasuna, ta gere aldeti artzea bitarteko sendoak. Jangoiko, zu gabe egin zaituenak, salbatuko etzaitu zeu gabe, dio San Agustinek. Bear egin bear du graziak gurekin batera, dio San Pablok. *Gratia Dei mecum*. Orain bada erakatsi bear det zein diran gure egin bideak irauteko artu degun bide onean, ta egunoro aurreratzeko bide onetan. Itxasoan aize ederrarekin zijoan onzia gelditzen da batzuetan aizeak uts emanda kalma edo pake kaltegarrian: dago ez aurrera, ez atzera leku batean. A onzi gajoa! Orrela bazaude, etzera elduko uste edo gogo zenduan lekura. Beste batzuetan jaikitzen zaizko aize gogor ta kontrakoak, botatzen due Onzia atzera, galdutzen ditu aize ederrarekin egin zituan bideak. Itxasoan dijoazanak ez due onekin bearrik; nai ta ez gertatzen dira, ta itxasbidiazitirik jakitunak ere, ezin eragotzi lezakee ez aize kontrakoa, ez aizegabetasun edo kalma kaltegarria. Ordea Espiritu Santuaren aize ederra berez beti dago prest; aize oni laguntzen badiogu, beti joango gera aurrera. Gu nagitzen bagera, gurea da bearra edo kulpa. Baña nondik izango degu aize ederra? Orazio gogokotik. Bai, orazioa da, non Espiritu Santuak argitzen dituan gure entendimentuak, ta berotu borondatea ezagutzeko bekatuaren kalteak, gorrotatzeko biotz guziarekin, ta maitatzeko Jangoiko ain ona ta alde guzietatik maitagarria.

G. Zertan dago kristuak penitenziarik ez egitea, edo egiten asi bada, ez irautea?

E. Dago, dio Jeremias Profeta Santuak, biotzarekin aztertzen ez ditugulako etorkizun, ta gure Fedeko gauza miragarria. *Quia non ist qui recogitet*



corde. Oroi zaitz, gogora etzatzuz zure azkenkiak, etorkizuna, oek dira eriotza, juizio edo kontu eman bearra, betiko Gloria, edo betiko Infernua, ta ez dezu inoiz bekatuik egingo, edo iraungo dezu bizitza onean; ala dio Espiritu Santuak. Orobat zenbat gauza miragarri zeatuko ez lirakez Jesu-Kristoren bizitza, Pasio ta eriotzaren gañean, artuko bagendu asti puska bat egunoro? Astirik ez det orazioan denpora igarotzeko. Gezur garbia. Zenbat kristau egoten dira oean eguzkiak irtanda ere jira ta bira dabilzala, edo lo gogorrean daudela aspertu artean? Gero eguna darame paseo, berriketa luze, joko ta nai dituzten gauzeetan. Zenbat onelako jende mota errietan alperrieriari emanak, meza arintxo bat enzun, ta ito itokako Errosario bat esanda, asko egin duela deritzeela. Gazeta erakurtea pozik; libru animarako onak ekusi ere nai ez ezin bestez baño. Korputzarekin kontu andia, zer jan dan, zer jango dan, aragi ona, ardo ona saltzen dan edo ez kontu andia, ta animako salbazioa ezertakotzat iduki ere ez. Utzi gerorako, datorrena datorrela. Onelako bizitzarekin nola iraun bide onean? Nola aragia jaikiko ez da ezi bearrean, gozatzen ta gizentzen bada? Ordu erditxo bat orazioan igarotzeko, gogoan izateko zer dan eriotza, zer beti-iraune edo Eternidadea, eztago ta bai lo asko egiteko, bai jan edanean ta jokoan igarotzeko. O anima gaixoa! Eta zein gutxi maite zaituzten gizonik geienak.

Beste batzuek dira ain emanak beren irabazi naietara non da igarotzen dituzten eguneko orduak arazo andietan ordutxo bat animarentzat gorde gabe. Nekazari, ta beargillak berak ere artu lezakete zerbait denpora nai balue, kristau on askok artutzen duen bezela, orazio, edo meditazio zatitxo bat idukitzeko. Zertako gabiltza? Ezin iraungo da bizitza onean biotzarekin aztertu edo zeatzen ezpaditugu etorkizunak. Itzelliko da surik biziena, erregarririk ematen ezpazaio.

Ordea, nola egingo da, ta zeren gañean meditazio santua? Ezin denpora labur onetan adirazo dezaket. Billa ezazu Konfessore jakitun ta Jangoikozko bat, ager ezozu zure jakin naia, ta bere obligazioari eranzun nai badio, erakatsiko dizu, ta zuzenduko zaitu orazioko bidean. Ona emen beste gauza bearra irauteko bizitza onean, Konfessore on baten aukera edo elekzioa.

Jauna, Konfessore guziak dira onak, gu ondo bagoaz; au da askoren soñua. Baña ez Santa Teresarena, zeñek eskatzen duan ardura edo kontu andia Konfessoreak billatzen, ta gutxik egin zuan Santa ura lenbiziko urteetan galdu etzutenean Konfessore jakituria laburrekoak, bekatu benialak gatik esaten zien ezer etzirala, ta mortalak txikitat zeuzkatela, inoiz bekatu mortal eginik ezpazuan ere Santa andi onek; baña ipini zuten egi-

teko, bide latsaiak erakutsirik. Gaisotzen bagera osagilla edo mediko asko dauden errietan, ez da billatzen nornai, edo edozein; baizik izenik onena duana. Auzi bat darabillonak billatzen du Letradurik jakitunena. Eta animako gaitzetan, tentazio andien auzietan ez da billatuko Konfesorarik onena, birtutetsuena, Jangoiko-zaleena? Berriz iges egin bear da Sugearen arpegitik bezela Konsejari txarrak diranetati. Aingerua izan bear duana egiten bada deabru, Zeruko bidea erakatsi bear duanak erakasten badu infernukoa, iges iges alakoaren arnasatik. Zor gaiztokoa bai sazerdote anima galtzalea; baña zori gaiztokoa laguntzen diona, Jangoikoa ofenditzen; madarikatuak beste guzien artean alako Persona sakrilegoak, ta penitentzia egiazko batekin biurtzen ezpadira mugonez, eroriko dira Infernuko Osin ondo sakonean. Estadu guzietan daude onak ta gaiztoak; onak salbatuko dira, ta gaiztoak kondenatu. Esana esan billatu Konfessore zur, jakitun, ta al ditekean onena zuzendu gaitzan Jangoikoaren bidean; ta orretako konfesatu sarri, ta komulgatu Konfessoreari ondo deritzonean.

G. Beraz sarri konfesatzea ta komulgatzea izango da bitarteko ona irauteko bizitza onean ta gordetzeko Konfesio jeneralaren frutua.

E. Nola ere dan. Sarri eskuak garbitzen dituanak garbiak idukiko ditu: sarri aldatzen dan alkandorea ez da ain loi zetakatua egongo, nola egun edo illaskoan aldatu ez dana. Sarri konfesatzen diranak Konfessorearen konseju asko artzen due, sarri aztertzen dute konzienzia, sarri egin on izateko proposito edo gogoak, ta nola onek lagunduko ez du ondo bizi izatera? Berriz gutxitan konfesatzen diranak, ez due animarekin ardura edo konturik, ez Kristogana eldutzeko goserik, ezin bestez bezela, edo oniritziz dijoaz konfesiora, gogo gabe, ta ala prestaera txarraren siñaleaz.

G. Baña noizik noizera konfesatzea ondo izango da?

E. Ez da erri oetan iñor, gaisoren bat ezpada, konfesatuko ezin dana edolarik illean bein. Oraziara edo bizitza espiritukora emanak, sarriago egin oi dira, ta bakoitzak artu bear du bere Konfessorearen iritzia, ta ez irten mundukoan erausi ta berriketak gatik. Elizako lenengo urteetan, apostoluen doktrinak artu zituztenak, komulgatzen ziran egunoro; argatik ziran ain onak orduko kristauak. Gaur ekusiko balitza, sazerdotea ez dan kristau bat, egunoro komulgatzen nolako zeresanak, parreak, ta gaizki esateak ala Konfessore, nola penitentearen kontra? Obedienziaren bean dabillena, dijoa zuzen. San Agustinek nai zuan igande guzietan komulgatzea bizitza ona zeukatenak. Au berau San Franzisko Salesek, bekatu benialerako eraspenik ezpadago, ta bai Kristoren gosea. Sarriago egiteko, ekusi bear da nolako frutuak ateratzen diran komunio sarrikitik, ta au



ezagutu bear du Konfesoreak. Gauza onen gañean itz egingo da astiro Komunioaren gañeko doktrinan.

G. Zergatik da gauza ain ona Igande, edo demekeetan komulgatzea?

E. Zeren dan biderik onena jai-egunak santifikatzeko, edo Jangoikoaren onran igarotzeko, ta Jaiegunak ondo gordetzea da bitarteko egokia irauteko bizitza onean. Ala da, ala da, baña ez da ala egiten. Jai egunak dira geienentzat bekatu egunak; Jangoikoaren egunak, deabruaren egunak. Oetan dira joko geiegiak, ordikeriak, danza naastu, ta moldegabeak. Oetan egiten da infernuko Feria, non egiten dituan debruak irabazte andiak. O negar egiteko gauza! Asteko bearegunak eskatzen dira ogia billatzeko korputzeko bizitzari iraun-erazitzeko. Gorde zuan Jangoikoak egun bat bera onratzeko, gere animako bizitza gordetzeko, ta goiak beratu dira, egun santuak igaro dira bekatu egunak izatera. Mezatxo bat enzun debozio gabe ta egun guzia olgantza, joko, ta ezin aitatuko diran zatarke-rietan. Eta gero nai da betiko saria? Eraman Koroa onean irauten duenai emango zaiena?

Baña iraun nai duenak bizitza onean, ta salbatu, igaro bear dituzte egun guziak gaitz andirik animari egin gabe, ta artu egun bakoitza ondo igarotzeko neurriak. Zeruetako erreinuak eskatzen ditu neke edo indarrak, ta nekatzen diranak, edo indar egiten duteenak, arrapatuko dute, ala dio Kristok. Gure animako salbazioa ote da zeregin laburra, non eta eguneko denpora zati bat bear eztuan? Zer aterako degu mundu guzia gere-tuaz, anima galtzen badegu? Edo zer eman dezakegu bere ordean? Igarotzen dira itxasoak bizitza galtzeeko arrisku andiekin, diru apur batzuek gaitik. Gaiso daudenak edaten dituzte edaaririk mingoztzeenak osasunagaitik. Eta anima aberastzeagaitik? Eta gaisotu bada osatzeko, zer egiten da? Baña, orren neke andia da ordu erdi bat goizago jaikitzea orazioan igarotzeko? Neke andi bat eragozpenik ez degunean meza bat debozior enzutea? Neke andia ama Birjiniari goizoro, ta gauoro iru Abe Maria errezatzea gorde gaitzan bekatuko tentazioan erortetik? Neke andi bat noizik noizera gere bearren artean biotza Jangoikoari goratzea erlojuak jotzen duanean Abe Maria bat esan, ta ordu datorreneko obrak eskintzea? Neke andia da esamina apur bat oera joan aurrean egitea aztertzeo nola igaro degun eguna? Neke andia da atsekabe, edo damu ematen digun gauzaren bat izan degunean, jasotzea biotza Jangoikoari, ta bere amorez ixiltxorik igarotzea? Neke andia da tentazioko denporetan gurutze bat bekokian, edo biotz gañean egitea gorde gaitzan Jangoikoak, erortetik. A kristau eskergabea! Ori zor diozu Jaun maitagarri infernura bota gabe zauzkanari anbeste bekatu len eginga? Arzai on deitu zaituanari beragana zure goze

ta bear balitza bezela? Zertako dira zure negarrak, zure Konfesio jenerala, zure itzonak ematea, iraun nai ezpadezu bide santuan? Iratsi bada ta ausnartu itzatez itz oek, *Irauten duanak azkeneraño, izango du Zerua.*



KOMUNIOAREN GAÑEAN ERAKASTEAK

ERAKASTE I.

Zer erakusten digun Fedeak Aldareko Sakramentuaren gañean

Irakatsi degu orain arteko doktrina askotan, zer egin bear dan Konfesio ona izateko; ekusi bear degu orain beste doktrina batzuetan, nola prestatu bear dan komunio onerako. Izan diteke gauza bearragorik?

G. Zein da bada lenbiziko prestaera?

E. Da Fedea, edo sinistea osoro ta sendo Aldareko Sakramentuan artzen deguna, ez dala lureko ogia, ta bai Aingeruena; au da Jesu-Kristo gure Jaun onaren korputz egiazkoa. Au da, Jangoikoak egin dituen mirari guzien artean andiena, dio Santo Tomas bere Debotoak, edo da mirari bat, zeñean dauden sartu, edo bildurik beste mirari asko.

G. Zein da Fedeak erakasten digun lenbiziko mirari, edo egia?

E. Da bada Sazerdoteak konsagrazioko itzak intenzio, edo gogo onarekin esaten ditunean Ogi, edo hostiaren gañean jartzen dala an bertan Jesu-Kristo gure Jaunaren Gorputz egiazko Ama Birjina gandik artua, gugatik jaio, ta kruzifikatua bear bera; ta orobat ardoaren gañean esaten dditunean konsagrazioko beste itz batzuek, gelditzen dala Jesusen Odol egiazko, edo bene benetakoa.

G. Konsagratu baño leenago, zer da hostia meza emateko ipintzen dana?

E. Da irin ta urarekin egiten dan ora, erreaz ogi gelditzen dana; ta da lureko ogia, ezpadu ere gure artean legani edo azkarririk. Orobat konsagrazioko itzak Sazerdoteak esan baño leenago Kalizan arkitzen dana, da matsardoa, zeñi egozten zaion ur apur bat. Ordea esan dan bezela, Konsagrazioko itzen bertutez edo indar Jangoikoak emanaz, ogi orde gelditzen da ostian Kristoren korputza, ta ardo orde Kalizan bere odol egiazkoa.

G. Nondik daukate Sazerdoteak eskubide ain andi au?

E. Jesu-Kristo gandik, zeñek egin zuen lenengo konsagrazioa, ta orduan eman zien bere Apostoluei beste anbeste egiteko eskubidea, baita ere ordentzeko Sazerdoteak, ta ala igaro da gure egunetara konsagratzeko eskubide au; igaroko ere da munduaren azkeneraño. Ni egongo naiz zuekin mundua bukatu artean, esan zien Kristok bere Apostoluei. Apostolu aiek ill ziran mundua bukatu baño leenago; ordea Apostoluei eskintzea zan Eliza Ama Santari eskintzea. Apostoluak larga zituzten beste Apostolo edo beren ondorengoak. San Pedro zan Kristoren ordean gelditu zana



beste Apostoluen ta Kristau guzien Buru: Obispo Jaunak dirade berriz Apostoluen ondorenak; ala dirau lurrean Elizak. Beti izan da Erromako Aita Santua; beti Sazerdote nausietako edo Obispo Jaunak, beti arrezkero beeragoko Sazerdote Obispo Jaunak konsagratuak, edo ordenduak, beti kristau asko edo gitxi, beti iraun du Sakramentu aldarakoak persekuziorik gogorrenen artean ere, ta beti egon da Eliza lurrekoan Jesu-Kristo ber bera, Zeruan agirian egoteak eragozten ez diola, gurekin egotea.

Bigarren egia edo miraria da, ogiaren, ta ardoaren izate edo natura-lezak biurtu edo aldatzea Kristoren korputz ta odol egiazkoak izatera. Jangoikoaren itz edo nai izateak ez du gauza ez gaitzik edo ezin eginik. Berak esan ta nai izanaren indarrez egin ziran beingo batean Zeruak, eta Lurrea. *Ipse dixit et facta sunt*. Ezerezetik alako gauza andiak egin zituen neke gabe. Bada nola erraz erraz egingo ez du gauza batzuek beste batzuerara aldatzea? Kanango errian premia aldi baten morko andi batzuek bete erazi zituen urez, ta gero bereala ur guzia biurtu zuen ardo eder izatera. Leenago ura zan, gero ardoa; ardoa zanean ura eztzan, zeren ura zana aldatu zuen ardo izatera. Onela bada, dio San Ambrosiok, Konsagratu baño leenago ostian ekusten dana, ogi lurrekoa da, baño konsagratu ondoan ogi lurrekoa ez da, ta bai Jesusen aragi ederra; orobat kalizan egotzi edaria konsagrazioa egin baño leenago ardo lurreko edo matsekoa zan, baño konsagratu ondoan da Kristoren odol egiazkoa.

G. Zerbait aditu det zer dan konbersio edo biurrera mirarizko au; ordea nai nuke enzun beste konparazio edo berdintza bat.

E. Ona emen zur atsegin emango dizun gauza adigarri bat. Gizon batek jango ezpalu urte guzian ogi utsa, ta edan ez ardoa baño, ogi ura biurtuko litzake aragi izatera, ardoa ere bai odol biurtzera. Guk jaten ditugun gauzak biurtzen dira beste gauza batzuek izatera; aur txikitxo amaren ugatza baño edaten ez dutenak azitzen dira aragia, ezur, odol ta beste gauza askotan. Beraz amaren bularretik artzen duen ugatzarekin egiten da aragia, ezurra, odola, illea edo beste gauzaak. Bada nola Jangoikoak Sazerdotearen itzai indarra edo birtutea emanda biurtuko ez da lurreko ogia Kristoren aragia, ta ardoa bere odola izatera? Biurrera, edo aldatze oni deitzen dio Trentoko Konzilio Santuak Transustanziazioa, edo izate bat beste batera igarotzea.

G. Ez det zer eranzun arrazoi ain argira: badakit Jangoikoarentzat gauza ezin eginik ez dala, ta sinisten diot Elizari, ordea gauza gaitza da aditzea begien kontra sinistu bear degula. Begiak konsagrazio ondoan ere, erakusten digute ogia hostian, ta ardoa Kalizan. Beraz sinistu bear degunaren kontra.

E. Bai, ta arrazoiak da sinistea geiago utsik egin ezin dezakean Kristo, ta bere Elizari, gure begi uts bera, edo engañoakorra baño. Txalupa baten gabiltzala itxasoan sartutzen degunean erramua urean, uste degu okerra dagoala erramua: begiak okertzen gaituzte. Begiai sinisten badiegu usteko degu dudaren apur gabe, ausia edo okertua dagoala erramua; ordea ateratzen badegu uretatik, ezagutuko degu zuzena edo ausigabea dagoala. Itxas bazterretan onzian dijoazanak uste dute aitzak, lurra, ta geldi dauden beste onziak ere badabiltzala. Ordea geldi daude, ta gezurra diote begiak. Gure sentiduak uts ematen dute gauza askotan. Orregatik anbeste begitazio. Berriz Fedeak ez du gezurrik, ez begitaziorik, ta bai zimendu galduko ez dana. Beraz gauza bat erakusten dutenean begiak, ta beste bat Fedeak, oratu bear diogu Fedeko ankorari galdu nai ezpadegu herejien itxas andietan. Ala bada konsagrazio itzak esanda gero ere, begiak erakusten badigute lengoa bera, au da lurreko ogia edo mats-aroda, ez dago an ez ogirik, ez ardorik, ta bai korputzeko begiekin ekusi ezin dezakegun Kristoren aragi ta odol egiazkoa.

G. Zer dira bada an ekusten ditugunak? Zerbait ekusten da?

E. Bai, ekusten dira ogi ta ardoaren itxurapen, edo irudi utsak, zeintzuek konsagrazio ondoan gelditzen dira itxasgarri gabe, edo lurreko ogi ta ardo bage Jesu-Kristoren korputz, ta odolaren estalgarritzat, ta ona emen irugarren egia edo mirari sinistu bear deguna.

G. Nola adi genzake zerbait, zer diran ogi ta ardoarn itxurapen edo irudi utsak?

E. Fedeko gauzaak sinistu bear dira, adigarriak ez dagoanean ere. Jangoikoa ez lizake Jangoiko izango, egin ezin balu guk aditu dezakegun baño geiago, dio San Agustinek. Lurreko gauza txit asko ezin aditu dituzte gizonik jakintsuenak; nola bada aditu Jangoikoaren egitada edo obra ain miragarriak? Gizon zenu apur bat duteenak aitortu bear dute, zein gauza ezak diran gure argiak ezagutzeko gerez gañeko gauzaak. Lurreko gauza, edo konparazioak esan ta aditu ezin banazute, esan zion Kristok Nikodemus, Maisu anditzat zegoanari, nola adituko nazute lurrez gorakoak esaten badizkitzuet? Jesusek eskini zuenean Sakramentu au largatzea, esan zien Sermoi baten, *Nik emango dedan ogia, nere aragia da*. Asi ziran Juduak itz oek enzunda auzitan edo erriertan, *Nola izan diteke (zioten) onek ematea guri jaateko bere aragia? Itz gogorra, nork enzutea emango dio?* Leenago jarraitu zienak ere Jesusi, iges egin zien batzuek. Ezin aditu zuten, nola emango zuen bere aragia janaritzat. Begitandu zitzaien orduan zedukan aragi ekuskorra zatituko bearko zuela okela zati bat bezela. Zer egin bear zuten? Sinistu Kristori berak aditu ezin zuteena; ezasi aztertzen nola egin-



go zuen. Ala bada erakeria ta arrotasun ezin andiagoa da, uste izatea sinisteko Fedeko gauzaak, aditu bear ditugula.

Baña gatozen utzi genduan galdetzeari eranzutera. Ona zer diran irudi utsak gauza bera gabe. Ikusi dezu inoiz gau odei gabean Ilargia? Bazoaz Ibai ondora ekusiko dezu uretan an ta emen Ilargiaren imajina, itxurapen edo irudia. Esadazu, badago Ibaian benetako Illargirik? Ez. Zer da bada ekusten dezun argi biribil Ilargia dirudiana? Da, eranzungo didazu, Ilargiaren imajina, edo irudi utsa. Orobat, begiratzen badezu artez Ispillu batera, ekusiko dezu zere Itxurapen edo irudia, guzia zere irudikoa; lodia bazera, lodi modukoa, beltza bazera edo txuria zeran bezelakoa. Zu etzaude Ispillu artan, Ispilluan ekusten dezun imajina edo irudia ez dago zuri iratsia; zurea da, baña dago zu ispilluan egon gabe. Onela bada, galdetzen badidazu, zer dira konsagrazioko itzak esanda ere ekusten ta ikutzen diranak? Dira ogi ta ardo gabe daoden ogi ta ardo itxurapen edo irudi utsak. Len, konsagratu baño leenago hostia, ogia zana, txuri txuria bazan, zabala, biribilla, edo lau barrenekoa, konsagratuta ere, gelditzen diran ogi irudi utsak, irudi utsak, izando dira txuri, zabal, biribil, edo lau barrenekoak, au da, len ziran bezela. Berdintza, edo konparazio oekin zerbait ezagutzen da, nola egon ditezkean ogi ta ardo konsagratuetan, ogi ta ardo egiazko gabe, beren itxurapen edo irudi utsak, ta irudi oen azpian Jesusen Gorputz, ta odol bene benetakoak.

Baña ona emen Aita Luis Puente Beneragarri ta Jangoikozko gauza ezkutukoetan argi andia izan zuenak dakarren beste berdintza osoago bat. Ipin-zazuz Olla loka baten azpian arrautza batzuek; ta txitatxoak jaio bear duten aurrean, begiratzen badiezu arrautzai, usteko dezu osoak daudela, zuringo ta gurringo len zituztenekin. Gañetik ekusten dezu len ekusten zenduan guzia, kolorean, ta etxuran. Ordea ez dago aietan arrautza azal, itxura edo irudia baizik. Lengo zuringo, goringo orde, daude barrunbeetan txitatxo bizi biziak. Len arrautza egiazkoak ziran zuringodunak, gero arrautza irudiak ta irudi oen azpian bezela txita biziak. Txitak egin diranean ez dago arrautzen izate egiazko edo sustanziarik; ta arrautza egiazkoak ziranean, etzegoan txitarik. Ekusiko ezpagenu gere begiekin egunoro bezela, nolako biurtza, edo aldatzea egiten duen arrautzaren izateak Olloak ematen dien berotasunarekin, nork sinistuko luke? Jangoikoak eman zien, edo Jangoikoak prestatu zuan naturaleza, arrautzak idukitze ko txita gaiak, ta gero berotasun egoki batekin irtezeko txita biziak arrautzaren izatea galduta bezela, edo batetik bestera aldatuta. O konparazio ederra! Onelako birtutea badu Olloaren berotasunak, nola erraz sinistuko ez dezu Jangoikoak eman diela Sazerdoteai konsagrazioko itzen bitartez

aldatzeko lureko ogia Jesu-Kristoren Korputzera, ta matz ardoa bere odolera, gelditu gabe benetako ogi ta ardorik, ta bai oen itxura utsak? Jesu-Kristok autatu edo eskojitu zuenean ogia bere Korputz gaitzak eman zion prestaera egoki bat Konsagrazioko itzen bidez bere aragi eginda gelditzeko.

G. Zein da laugarren mirari, edo egia sinistu bear deguna?

E. Jesu-Kristo guzia dagoala Ostia oso, edo guzian, ta guzia Ostiaren apurrik txikienean, hostia erdibitu, naiz zatitzen danean, ez dala zatitzen, ez erdibitzen Kristoren Korputza, bai bakarrik ostiaren itxurapen edo irudi esan dituanak.

G. Gauza aditzen gaitza, esango dezu; nola ori gerta liteke? Badira mirari au adiratzeko konparazio, edo berdintzaren batzuek?

E. Bai. Ona San Agustinek dakarrena. Sermoigilla batek egiten duen itza, guzia dago aditzalle guzietan, ta guzia aditzalle bakoizean; guziak enzuten dute itz guzia, ta bakoitzak enzuten du guzia, itza erdibitu gabe. Geienen iritzian gure Anima dago osoro Korputz guzian eta guzia korputz zati ta apur bakoitzean; ez zati bat buruan, beste bat biotzean, ta beste zatia bularrean, bada ez du zabaltasunik animak. Zein aurraren anima, zein gizon azi batena, ez da bata baño bestea andiagoa. Nai dezu beste konparazio aditzen errazagoa? Ekusten duenak bere burua Ispillu oso ta andi baten, ekusten du bere irudi edo itxura osoa; egiten bada gero Ispillu ura lau edo bost zati, ez da zatitzen irudi edo gizon itxura; begiratzen duenak bere burua zati bakoitzean, ekusten ditu arpegi ta esku osoak, edo zatitu gabeak; ta esan genzake gizonaren imajina, edo irudia dagoala osoz Ispillu osoan, ta osoz edo guzia edozein parte edo zati begiratu al ditekenean. Onela bada Kristoren Korputza dago osoro Ostia guzian, ta osoro zatituaren edozein apurrean.

G. Gauza andi ta miragarria, Jauna idukirik Kristok Gizon ondo egin batekoak bezelako anditasuna, egotea osoro ostiaren apur txiki txiki baten.

E. Ongi diozu gauza miragarria dala, baña Jankoikoarentzat ez dago gauza gaitzik. Nola izan liteke suak ez erretzea? Bada ez du erretzen Jangoikoak nai ez duenean erretzea, askotan gertatu dan bezela. Gauza miragarria Zaldia baño andiago dan ta Kamelloa deritzon Aberetzarra igarotzea jostorraz baten zulotik, bada Kristok berberak dio errazago ori egingo dala gizon aberats diru zale bat salbatzea baño. Bada Kristoren naiz erraz igaroko bada alako aberetzarra jostorraz baten zulo txikitik, erraz egongo da Kristoren Korputz guzia Ostiaren apur txiki baten, guk aditu ezin badegu ere nola gerta ditekian.



Bostgarren egia edo mirari sinistu bear deguna Jesu-Kristoren Korputzarekin batera daudela Ostia konsagratuan bere odola, bere anima, bere Jangoikotasuna.

G. Nola ori?

E. Jesu-Kristo dagoalako bizirik, dala Zeruan, dala aldarako Sakramentu santuan. Piztu zan Kristo illen artetik berriz ez iltzeko. Orain bada, Korputz bizi batek iduki bear ditu odola, ta anima. Jesu-Kristoren Jangoikotasunak ez dio larga bein artu zuanari. Obeto aditzeko jakin bear da, Jesu-Kristo ill zanean aldegin zuela animak korputzetik; anima joan zan Guraso Santuen Linbora, ta Korputza gelditu zan Kurutzean ta gero Sepulturan. Baña bere Jangoikotasuna egon zan beti, ala animarekin Linboan, nola Korputzarekin Gurutze ta Sepulturan. Onela bada, Ostia konsagratuan dago Jesu-Kristoren Jangoikotasuna, edo Trinitate guziz santuko bigarren Persona gizon egin zana.

G. Baña Kalizan konsagraziooko itzak esan ezker ote dago Kristoren odolaz gañetik beste gauzarik?

E. Bai; odolarekin batera daude bere Korputz osoa, anima, ta Jangoikotasuna, ta ostian dagoan guzi guzia dago Kalizan, ta Kalizan dagoana Ostia konsagratuan.

G. Trinidadeko bigarren Persona Jangoiko dana badago Ostian, naiz Kalizan, egon bearko dute beraz lenengo, ta irugarren Personak ere, edo Aitak, edo Espiritu-Santuak?

E. Ala da, zerren Jangoiko bat baizik ez izanik, iru Personak ezin egon ditezke bata besteak gabe. Baña nola bakarrik bigarren Persona egin zan Gizon, bakarrik bera dago beregan dauzkala Ostian Kristoren Korputz ta Anima ta beste Persona biak ez ala, ta bai beste modu goratu guk, aditu ezin dezakegunean.

G. Ostian badago Kalizan dagoan guzia, ez geiago ez gutxiago, zertako esaten da ostian artzen dala Kristoren Korputza, ta Kalizan bere odola?

E. Ederki galdetzen dezu. Ona ordea adigarria. Ostiara itzen birtutez dator artez Kristoren Korputza, ta nola Korputz bizi bat ezin egon litekean odol ta anima gabe, oek dijoaz laguntzaz, edo batutasunez, ez itzen indarrez; eta nola bigarren Persona Jangoiko danak ezin larga lezakean artu zuen gizatasuna, egon bear du Korputz ta animarekin. Egon ere ezin diteke Trinidadeko Persona bata besteak gabe. Beraz Ostian daude Korputzarekin, Odola, Anima, ta iru Personak len esan bezela. Orobat Kalizara konsagraziooko itzen indar edo birtutez dator Kristoren odola, ta nola odol biziak eskatzen duen Korputza ta anima, oek dijoaz, ez itzen

indarrez, ta bai laguntzaz ta unioz, edo batutasunez, bigarren Persona Jangoiko dana Korputz ta anima bereganatuakin, ta beste Persona biak bata bestea gabe egon ezin ditezkealako.

G. Zer da ordea itzen indarrez edo birtutez etortea Kristoren Korputza Ostiara, ta bere odola Kalizara? Nola nekezaleak adi lezakete itzker ori?

E. Ona zerbait aditzeko bidea. Dijoia gizon bat zaldiz; deitzen dio norbaitek etxe batetik biur didilla. Zaldiz zijoan gizon ura dia deitu dioganaga Zaldi, soñoko ta guzi. Etzien deirik egin ez Zaldiari, ez Zaldunaren janzi edo soñekoai, guziaz ere berekin daramaz Zaldidunak Zaldia, ta bere arropa edo janziak, zeren berekin zeramazan Zaldia ta arropak. Ala bada Sazerdoteak ostia konsagratzeko uean deitzen dio bakarrik Kristoren Korputzari esan esanaz gure Salbagilleak esan zituen itz oek, *Au da nere Korputza*: bakarrik izentatzen du Korputza, ta au jartzen da Ostian itzen birtutez. Baña nola Korputza egon ezin ditekean gizon bizi baten odol, ta anima gabe jartzen dira Ostian oek, ez deituak izan diralako, bai lagundu ta alkarturik daudelako korputzarekin: berriz Trinidadeko iru Personak, len esan diran arrazoiak gatik. Orobat, ardoa konsagratzeko uean Sazerdoteak, deitzen dio bakarrik Kristoren odolari gure Salbagille onek esan ta erakatsi zituan itz oekin *Au da nere odolaren Kaliza*. Bakarrik aotzen edo izendatzen du Kristoren odola, ta au da jartzen dana Kalizan itzen dei edo indarrera: baña nola odol bizia batu edo alkarturik dagoan korputz ta animarekin, oek jartzen dira Kalizan laguntzaz edo batueraz, ez deituak izan diralako, eta iru Persona Jangoiko bat diranak len esan dan bezela.

Egia au obeto argitzeko ona jakitunak erakasten duteena; konsagratu balu San Pedro edo beste Apostoloren batek Jesu-Kristoren Korputza Sepulturan egon zan orduetan, jarriko zala Ostian Korputza anima gabe, zeren etzegean lagundurik animarekin.

G. Ostia konsagratuan dagoan guzia badago Kalizan konsagratu dan ardoan, zertako egiten dira konsagrazio aparteko bi, bata ostia edo ogiarena, ta bestea ardoarena?

E. Arrazoi bigatik. Alde bitatik begiratu bear zaio Konsagrazio santuari, Sakramentua dan aldetik, ta Sakrifizioa danetik. Sakramentua dan aldetik, nai izan zuen egin Konbite, edo Janaria bezela; ta konbite onrako baten, bear da jana ta edana, ta animako bizitzari iraun erazitzeke ez da asko jaana edaari gabe, nola ez dan korputzeko bizitzarentzat. Sakrifizioa dan aldetik, izanik Meza santua gure Redentore maitagarriaren eriotzaren Irudi edo Imajina bizi bat, nola eriotzan aldegin zuen Odolak Gorputza



gandik, adirazo bear zan Sakrifizio onetan Kurutzeko eriotza edo sakrifizioan gertatu zana konsagrazio banaak, edo apartekoak eginik, ez korputza egon ditekealako ostian odol gabe, ez Kalizan odola korputz gabe, baña bai itzak egiten duen alderatze modu asko esan nai bategatik.

G. Ez dakit nola izan ditekean esan dana. Sakramentua dan aldetik ematen bada janaren ta edanaren Konbitea, nola Sazerdote ez diranak edaten ez dute Kristoren odola?

E. Anzinako denporetan ematen zitzaizen kristau Sazerdote etzirade-nai ere edaaten Kalizatik Kristoren odola ardo konsagratuaren irudian orain Sazerdoteak artzen duten bezela. Ordea arrazoi onak gatik eragotzi zuen Elizak, ta premiarik ere ez dagoalako. Esan degu Jesu-Kristo dago-ala bizirik Ostia konsagratuan, ta ala bere zañetan duela odola. Beraz ostia konsagratua artzen duenak artzen du Kristoren odola edanari moduan ezpada ere.

G. Fedeko gauza guziak sinistu bear ditugu begi itxiakin, ordea txit onak dira ejemplo edo gertaerak Fedea sendotzeko; nai nituzke batzuek enzun.

E. Ongi diozu fede laburrekoentzat txit onak dirala Jangoikoak Fedearen sinisgarri egin dituen mirariak, ta ez da Fedeko Artikulorik, zeñen argibiderako egin diran geiago. Zenbat bider ekusi da Ostia konsagratuetatik odola irtetzen herejeak desprezio arrigarriak egin ondoan? Zenbat alditan agertu da askoren begietan aurtxo ederraren irudi edo itxuran? Zenbat bider abereak ta infernukoak belaunikaturik Ostia santua igarotzean? Zenbat Sazerdote Santuak ekusi dut argiro Jesus Ostian bertan meza emateko orduan, ta argia zeriatala Korputzetatik? Nork esan, zenbat atsegin gogoz beterik arkitzen ziran komunio ondoan San Ignazio Loiolako, San Felipe Neriko, Santa Theresa ta anbeste Santu ta Santa! au da bai janari atsegin guziak dauzkana. *Omne delectamentum in se habentem. A nola esan dezakean Kristok Isaak Esauri baño arrazoi geiagorekin! Ogi ta ardoa eman diot zure anexe Jakoberi, au da eman al dezodan guzia, zer eman dezakezut zuri?* Eman guri Jesusek ogi ta ardoaren irudien azpian bera dan guzia, zer eman dezakegu geiago? Eta zer emango ez digu berekin batera guk bear bezela anima garbiakin artutzen badegu! Ona Santa Theresak beste mundutik etorrita esan ziona Jangoikoa ekusteko goseaz zegoan anima txit on bati. *O anima zori onekoa! Zergatik larritu ta nekatzen zera Jangoikoa ekusteko egarri penazkoaz, egun oro badago altara santuan guk Zeruan gozaten deguna ber bera?* Guk ekusten degu argiro *Gloriako argiarekin; zuek lurrean Fedekoakin ta merezimentuarekin. Zuen emengo gozatzeak geitu dezake merezimentua.* O ta bagenu guk Fede bizi bat, amore andi bat, ta konzienzia garbi

bat eldutzeko grazia guzien Iturri bizira! Nola desterro edo erbeste one-tako naigabeak gozatuko lirakean Jesus sarri bisitatu ta artuaz! Zertako da ekustea Fede bizi bat dutenentzat! Ona emen ejemplo ederra! Egun batean meza ematen zegoala Sazerdote bat Parisen, agertu zan Jesus Ostian aurtxo eder baten irudian txit askok ekusten zuteela. Joan ziran arinka berri au ematera San Luis Erregeari; Jauna; betor laster Ostian ekustera Jesu-Kristo aurtxo eder baten itxura zoragarrian. Eranzun zien Errege Fede andikoak: *ez det nik ekusi bear korputzeko begiekin sinisteko Ostia konsagratuan dagoala Jesus ber bera. Sinisten ez duteenak, dijoazala ekustera korputzeko begiekin.* O Fede bizia! O Fede engaiatu ezin dana korputzeko begiak bezela! Sinistu bear degu bada sendo sendo, Ostia konsagratuan adoratu, ta artutzen deguna dala, Aita Eternoaren Seme gure amorez egin zana gizon Ama Birjinaren sabel garbian, Gurutzean ill zana ber bera, ta orain dago-ana Zeruan Aingeru, Santu ta Santa guziak adoratzten duteena, ta etorri-ko dana Juzioko egunean mundu guzia juzgatzera. Au ondo sinisten due-nak, artuko ditu bitarteko onak biotza garbitzeko mai Santura eldu baño leenago. Ala izan didilla.



ERAKASTE II.

Nola gauden komuniora obligatuak, ta zein gauza txit ona dan sari komulgatzea

Erakatsi degu igaro dan doktrinan, nola sinistu bear diran komulgatu baño leenago, Aldarako Sakramentu Santuan sarturik dauden mirariak, ta nola Fedeko egia dan Ostia konsagratzen danean, arkitzen dala Jesu-Kristo ber bera.

G. Zertarako ordea utzi zigun gure Redentore maiteak Sakramentu ain miragarria?

E. Prestaera onakin artzen duenarentzat, izan didin animako janaria, grazia ta bertuteak geitzeko.

G. Beraz komulgatzeko obligazio estua da?

E. Nola ere dan. Ona arrazoi zuzena. *Jaten ezpadezute Gizonaren Semearen* (izen au artzen zuen sari Kristok) *aragia, ez dezute bizitzarik izan* g zuen animetan. Orain bada animako bizitza, edo grazia gabe Zerurik ez dago. Komulgatu gabe animako bizitzarik, edo graziarik ez. Beraz bear bearra da, al didilla, komulgatzea, salbatuko bada.

G. Eta komulgatu ezin danak eriotzako peligroan, nola izango du salbazioa?

E. Komulgatzeko prestaera, borondate edo nai sendoarekin. Arkitu zan Santa Juliana Falconeris azkeneko gaitzean komulgatu ezin zan gaitzaz. Eskatu zion Sazerdoteari ekarri zezola Ostia santua edolarik adoratzeko. Ala egin zuen Apaiz bere animako garbitasun, ta Kristoren gosea ezagutzen zuenak. Eskuan artu zuenean erakusteko ta adoratzeko Julianak, ezkutatu zitzaion Sazerdoteari eskuetatik Ostia santua, guziak arritu zirala mirari arekin. Andik laster arpegi gozatsu batekin ill zan Santa zorionekoa, ta erantzi zuteenean illa bezela janzitzeko, arkitu zien biotzaren gañean ostiaren marka edo señaile modu bat, ta igarri zuten, ostia igaro zala Santa andi aren barrenera.

G. Noizik noizera komulgatu bear degu?

E. Edolarik urtean bein Pazkoako egunen batean, ta leenago erioztako peligroan bagaude.

G. Jesu-Kristok zer agindu zuen gauza onen gañean?

E. Etzuen gauza erabakirik utzi; bai komulgatu bear zala bizitza betikoa izan nai zuenak, ta sarri egitera dendatu edo animatzeko, esan zuen,

ogí au jaten duena biziko da beti. Erakurten degu San Lukas Ebanjelistak eskribitu zuen Apostoluen Egikarietan, lenengo kristauak komulgatzen zirala egunean bein; eta nola kristau aiek zeuden Kristoren amorez beteak, gauza alperra bezela zan ipintzea agindu jakin, edo egun erabakirik. Persekuzio gogorren artean bizi ziran, ta billatzen zituzten leiza, Kobao, edo lurazpiak meza esateko, komulgatzeko, ta ofizio santuak egiteko. Argatik anbeste kristau, anbeste martiri denpora zorioneko aietan, irtetzen zuteela komunitotik Leoi sua botatzen zutenak bezela. Iraun zuen oitura santu onek eun urte baño zerbait geiago. Debozio artan zerbait oztu zanean Jendea, komulgatzen ziran zortzi egunetik zortzi egunera Aita Santu Pio lenengoaren ordena edo aginduz. Nagitu ziran gerora kristauak pakearekin, ta azkenik Inozenzio irugarren, ta Erromako Aita Santuak Letrango Konzilio Santuan, ipini zuen mandamentu estu bat, komulgatu bear zala gutxienez urtean bein Pazkoako denporan.

G. Ori orrela izanik, zertako da sarriago komulgatzea?

E. Eliza ama Santak ezin bestez bezela ipini zuen urtean beingo komunioa, ekusirik kristau askoren atzerapen ta nagitasun lotsagarria. Baña beti eman du conseju, beti erregutu komulga gaitzela txit sarri. Ona zer esaten duen azkeneko Konzilio jeneral, edo Elizaguzikoak, au da Trentokoak. Naiko luke Konzilio Santuak meza guzietan izan ditezela komulgatzeko kristauak; esango balu bezela, komulga ditezela egunoro.

G. Alde batetik erregutu egunoro komulga ditezela kristauak, ta bestetik ez agindu urtean bein baño komulgatzea, nola da ori?

E. Nola dan? Bekatuak geitu ez ditezen ekusirik gure nagitasuna, ez du ipini urtean beingo komunioa baizik aginduz edo bekatu mortalaren bean. Berriz ondo esan, erregu, ta palaguekin bezela ekarri nai gaitu sarri komulgatzera. Ama batek ekusten duenean bere semetxoa gaixorik, adoregabe, ta aginte gutxiarekin igui ematen diola jaatekoak, edo botika edarriak, zer asmo artzen du? Nere Semetxoa, esaten dio, ezin biziko zera jan gabe; osatuko bazera artu bear dezu edaari mingoitz au. Ekusirik bere atzerapena, naieza, ta ikara modua jaana ta edari guzia artutzeko, esaten dio erreguka ta palaguka, aurra bada, ar zazu nere eskuetatik kollara bat salda; ondo esanda artu erazitzen dio; aurra beste kollarakada bat, ta ala geldika guzia ezpada ere, artzen du mutiltxoak: beste batzuetan jan edo edan dezan, eskintzen dio dirua, gozoa, edo zer edo zer, ta dakar alimientua artzeera. Onela bada gure animetako Ama bezela egiten dan Eliza santak, ekusirik bere Semeen gaitza, ta nola komunioko janari gabe bizitza betikoa galdu bear dan, zer asmatzen du? Ene umeak, ar zazute edolarik urtean bein janari osakarri au, ta geiagotan ar dezagun, erregutzen



gaitu, ta urteko egun askotako dauzka Aita Santuen bidez ipiñi, edo eskiñirik induljenziak, anima gaitezen eskin-sariekin artzeera komunioa sarrago. Au nai du, au eskatzen digu erreguz, ta ez bakarrik komulgatzea urtean bein.

G. Urtean bein baño komulgatzen ez diranak, nola bizi oi dira geinez?

E. Arrazoi egiazko gabe, ta beren nagitasunez largatzen duteenak, Jangoikoaren beldur gutxikoak dira, fede argalekoak ta daude pekatu askotan erorteko peligrandian. Gaude etsaiaz inguraturik, tentazioak ez dira paltza; igesi bezela dabillenenak etsaiak ta beren tentazioak garaitzeko laguntasun ta bitartekorik sendoenetik, nola garaituko dituzte? Igesi Kristoren maitik, ta nola iraun animako osasunean? Zer itxaran dezakete Jesu Kristo gandik onelako nagí, alper ta bere amore gabeak, edo beintzat gutxikoak? *Atozte nigana*, dio Jesusek, neke, karga, edo tentazio andien azpian bizi zeratenak, ta nik arinduko dizut, nik aterako zaitut tentazio guzietatik, nik emango dizut janari gozo, ta sendagarri bat. *Et ego reficiam vos*. Kristo dago gau ta egun Eliza santuetan Karzela baten bezela zarraturik, dator egunoro Aldara santuetara, ez bakarrik Sazerdotea komulgatu didin, baita ere naiz komulgatu ditezene beste kristauak, ta gu urte guzian bein baño ta ezin bestez bezela, elduko ez gerala? Nola artuko ditu borondate txarreko komunioak? Ezpaltza munduko oniritziagatik, edo eskomunio santuaren beldurrez, edo txartela eman bear dalako, egongo lirake batzuek urte osoetan konfesatu ta komulgatu gabe. Oek, zer itxaron dezakete Jesu-Kristo gandik? Nola egiten ere dute beren urteko komunioa? Ote dira oraziora emanak? Irakurtzen dituzte liburu onak? Egin limosna asko? Eta nola iraun lezakete bekatu gabe?

Obe da gaizki komulgatu baño, urtean bein baño ez komulgatzea: au da beren soñua.

Nik diot, obe dala gaizki komulgatzeko, ez komulgatzea inoiz; obe da ez komulgatzea Pazkoaz ta eriotzako orduan ere, ta obe da infernura jester batere komulgatu gabe komunio gaizki egiñakin baño. Ordea, nok obligatzen zaitu ta esaten dizu gaizki komulgatzeko? Gaiso bati esaten dio Medikoak, ar zazu alimentu bear dana. Gaixoak eranzuten dio: ez det artuko, zerren gaitz egingo dit. Medikoak dio, jaten ezpadezu, illko zera naita ez; ez dago osagarririk jaten ez dutenentzat. Dana dala, ez det jango illabete onetan. Gaitz egingo dit. Ez dizu gaitzik egingo janak bear dan bezela artutzen badezu. Garbituko dizugu sabel ori botikako batekin, ezarriko diogu saldeari ozpin edo binagre apur bat. Ez orrelakorik eranzuten dio gaiso ero edo gaitztoak; irauten du bere tema txarrian, ta egun gutxi-

ren buruan iltzen da janezaz. Zer esango zenuke onelako gaixoagatik? Eta zer esan bear da kristau nagí askogatik, zeintzuek sarriago ez konfesatu ta komulgatzeko aitzakitizat ematen duten, obe dala gaizki komulgatzeko batere, edo urtean bein baño ez komulgatzea? Esaten badiezu, argalduko dirala animako janariaren paltaz, presta ditezela animako loiak kenduaz, onela gaitzik egingo ez diela komunioak, ez dute enzuterik ematen, ta nai dutelako bizi nasaitasun guziaz, aldegiten dute Kristoren mai ederretik. Ekustea da garizumako egunetan jende gazte lasai urte guzian Sakramentuetatik igesi ebilli diranak, bear bada parre ta ista egiten zienak kristau on sarritxo komulgatzen ziranai, ekustekoa da, diot berriz, zein larri ta estu ebilli oi diran Pazkoako zer eginak egin artean. Norekin konfesatuko ote naiz? Esaten du bakoitzak. Esamina apur bat egiten dute, liburu on bat edo beste erakurri; beste batzuek, bear bada asko jakiñagoak, dijoaz Konbentua batera, an bost edo sei egun eginda, engañatzeko ezagutzen ez duan Sazerdoteren bat. Igarotzen dute nola ala konfesioko ibaitxoak, au igarotzeko, ezarten dute karga dio Santa Theresak, ta komunioko lotsagaiztoko bat eginda, karga berriz lepora, esan nai det, lengo bizitza lasai, olgantza txatar, ta okasioetara. O jende zorigaiztokoak! Zer aterako dezute azkenean! Orra zertara jotzen duten zuen urteko komunioak.

Beste batzuek dira Pazkoaz ere komulgatzen ez diranak, esaten duteela beren artean, zertako komulgatuko naiz sakrilejio bat geitzeko? Ni nago okasio gaiztoan, edo batere ondu gabe lengo konfesiostatik, edo kunplitu gabe penitentzia, restituzioak ezin absolbituko nau Konfesoreak; zertako berriz konfesiara joatea gezurra esateko, bekatuak ixiltzeko? Obe det itxaran denpora obeago batera; gerora kenduko al det okasio gaiztoa, kendu oitura txarrak, kunplitu penitentzia ta restituzioak. Estalgarri oekin, txartelaren jira bira bat eginik, daude iru ta lau urtean konfesioko ta komunioko sakramentuetara eldu gabe. Calahorrako Obispaduan urteko komunioa arrazoi egiazko gabe largatzen duteenak, daude egin ezaz beste gabe eskomulgatuak inork jakin ezagatik.

Eliza Ama Santuak agintzen du artzen duena eriotzak Pazkoako komunioa egin gabe, ez didilla artua izan Elizan ez bizitzan, ez enterratzeko, ta alakoari kendu bear zaiola Santuen Komunioa, edo kristauen arteko partiltasun animakoa.

Nola eraman lezakete egun on bat lurrean, nola lo egin gozoro, Eliza Ama Santaren aserrearen bean? Itxaroten dute gerora ondutzeko ta onduta komulgatzeko. O erakeria! Nor da bere bizitzaren jaube! Nork eman dio itza illko ez dala ustekabe! Bekatuak geituaz, Kristo gandik aldegiñaz, errazago izango da salbatzea? Baña Jauna, esango dute, prest



ezpanago, zertako joan konfesio ta komunio txarrok egitera? Presta zaitte, kendu edo irten okasioetatik, zoaz Konfesore on bategana, agertu oni zere premia ta estaldu txarra ezer gorde gabe, bere konsejuekin emango dizkitzun ondo prestatzeko bideak, ta orduan prest ezpazaude absolutuz ta komunioa artutzeko, ematen dio eskubidea Elizak Konfesoreari, arrazoi onarekin luzatzeko Pazkoako egunak, edo egun señalatuak igarota, deritzonean komunioa emateko. Borondate onekoentzat, ta Jangoikoagana biurtzeko bitarteko sendoak artu nai dituztenentzat, erraz egiten da; ordea ez borondate sendo ta onik ez dutenentzat.

G. Komulgatu naiz; ez naiz ni orren gaiztoa, non da largako nukean urteko komunioa, au diote beste askok.

E. Komulgatu zera? Baña nola? Ondo edo gaizki? Larga dezu lotsaz bekatuena bat? Egin dezu len konfesio txarrik? Ori bai Jauna. Beraz ez dezu Pazkoako komunioarekin kunplitu. Konfesio ta komunio gaizki eginek uste dezu emango diozula atsegin Eliza Ama santari? Ezetz dio berak. Atoz ona, norbaitek zor bazaitu ogei ezkutuko bat, ta paga ematera badator diru txar edo palsoarekin, artuko ziñoke? Urrea irudiagatik urrea ezpada, ez dezu artuko Zortzi dukateko edo ogei ezkutukoa. Ala ez da? Eta pagatu nai diozu komunioko zorra komunio gaizto ta sakrilejio garbiarekin? Bada ez dezu ezer egin. Zer diot? Geitu dituzu bekatu andi bi, bata gaizki konfesatu ta bestea gaizki komulgatu zeralako. Konfesio, ta komuniorik egin ez duenak Pazkoaz, egin du txit gaizki, lotsarik gorde ez diolako Eliza santari, ta ala egin ditu bi bekatu mortal, ta Calahorrako Obispadukoa bada, bere gañean du deskomunio osoa. Ordea gaizki konfesatu, ta gaizki komulgatzen diranak, egiten dituzte lau bekatu mortal, bi, urratu dituztelako Elizako mandamentu biak, ta beste bi sakrilejiokoak, gaizki tratatu dituztelako Sakramentu biak. Orra nola gaiztoagoak diran batere konfesatu ta komulgatu ez diranak baño.

G. Beraz berriz ta anbat lasterren konfesatu, ta komulgatu bear dute onelakoak?

E. Ala da; zerren kunplitu ez dituzten Elizako mandamentuak. Pagatu ez duanak zoorren bat, edo diru gaiztoarekin pagatu duenak, pagatu bear du anbat lasterren señalatuta zegoan epean edo, denporan ez pagatuagatik. Ala ez da? Bada komunioko zorra, pagatu ez duenak bear zan epe edo denporan, pagatu bear du anbat lasterrenen. Egiten dute au bekatari askok? Ez da burura etorri ere berriz konfesatu ta komulgatu bear duteela prestaera onakin. Nola nai konfesatu ta komulgatu badira, begitantzen zaie kunplitu dituztela Elizako aginduak. O itxumena! Zer esan bada urte oso, ta askoetan gaizki konfesatu ta komulgatu diranak gatik,

dala lotsaz bekaturen bat, edo geiago larga dutelako agertu gabe, edo damurik eraman ez dutelako? Zenbat bekatu egotzi ote diez beren animai? Eta nolako bekatuak?

G. Eta eriotzako peligroan badago komulgatzeko obligaziorik?

E. Bai, dio Santo Tomas andiak, ta ateratzen da obligazio au beti Elizan ala egin dalako, Konzilio Santu askotan agindu dalako, ta arrazoiak ere erakasten digulako.

G. Zertako da ordu artan komulgatzea?

E. Orduan bear degulako laguntasun txit andi bat infernuko etsaia-kin, ta eriotzako gaitzekin peleatzeko. Infernuko etsaiak egiten dute alegina milla aldetara berenganatzeko anima, dakitelako galtzen badute era edo okasio ura, ezingo duteela ezer gerora. Berriz nolako eroapen edo pazienza bear ez da igarotzeko Jangoikoaren amorez ordu artako naigabe, gaitz portiz, ta larritasunak? Sartu bear da Eternidadeko bidean. Nola-ko indarrak bear ez dira bide estu ta beldurgarri onetan? Elias Profeta santuari bide gogorak eginda, goseak argaldurik arkitzen zala, agertu zitzaion Aingeru bat, eman zion autsazpian errerikako ogia, ta esan zion, *Elias, jaiki zaitte, ta jan zazu, oraindikan bide luze gogorra igaro bear dezu.* Jan zuen, ta ebilli zan txit erraz ogi ark eman zion sendotasunarekin, ta igo zuen Jangoikoaren mendira. Eliasek orduan baño bide gogorragoa egin bearo degu eriotzako tranzean. Utzi digu ordea guri Profeta santuari eman zitzaion baño ogi obe, ta sendagarriagoa, ogi Zeruti jetsia, Jesu-Kristoren aragi ederra berbera. Nola indartu, ta sendotuak geldituko ez dira grazian artzen duteenak, Jesusen gose diranak? Nola galduko ez dute beren indar guztia infernuko etsaiak, Jesusek egin dion bisitarekin anima bere maiteari?

G. Nola baña prestatu bear da azkeneko komunio santua egiteko?

E. Beti ondo prestatu bear badegu ere, ordea kontu geiagorekin eriotzako peligroan. Ez da orretarako itxaran bear, iñola al didilla, ez larga konfesioa, Apaiza joan artean Elizako ondasunekin, edo Ostia santuarekin. Konfesatu bear da leenaz bere gogoko duen Konfesoreari dei eginda. Anima eskrupuluz betea ezpada gaixoa, premiarik ez dagoanean ere, txit ondo da Konfesio jeneral bat egitea. Onela egiten dute kristau, Sazerdote, ta Frailerik onenak ere. Billatu Konfesore len artu ta animaren berria dakiana, lotsaren bategatik aldatu nai ezpadu. Ez begiratu munduko esamesai animako salbazioa dijoakun gauzaan. Kura edo Erretore Jau-narekin konfesatzeko atzerapen edo beldurra badu, dei egin beste bati. Eta nolako damu bideak artu bear ez dira? Ondo garbitzen bagera emen



Sazerdotearen aurrean, garbituak arkituko gera Kristoren aurrean, edo juzgatzeko orduan.

G. Baña erraz da ondo komulgatzea azkenean, leenago nagia zana sarri komulgatzen, edo komulgatuagatik, gaizki komulgatzen zana?

E. Zer gauza gaitzagorik! Era ona zeukanean urbildu nai ez Kristo gana ezin bestez baño, ta joango da Jesus gogo onarekin alako nagi, igesla, ta amore gabeko anima gana? Eta zer; bizitza gaizto batean eraman baditu egun ta urte osoak Jauna gana biurtu, ta obra onen azirik erein gabe? Esango die Saul gaiztoari Samuel Profetak esan ziona, *quare inquistasti me ut suscitares!* Zertako atera erazi nazu sagrarioko Obitik zugana etortzeko?

G. Eta badago obligaziorik komulgatu baño leenago prestatzeko Konfesioko Sakramentu santuarekin?

E. Bai bekatu mortalen batekin arkitzen bada anima, ta orobat arrazoizko ezda-baida, edo dudarekin arkitzen bada: Ez da asko Akto kontrizioarekin prestatu naia, zeren Eliza Ama Santak aditzen ditu Konfesioren gañean San Pablaren itz oek, *Proba*, edo garbi didilla *gizona, ta jan dezala gero ogi santu onetatik*, bada bear ez bezela, edo bekatu mortalean jaten duenak, *jan ta edaten du bere juizio*, edo kondenazio-bidea. Probantza, edo garbikizun au egin bear da Konfesioko iturrian. Ala bada ez da asko berez Akto kontrizioko bat egin ta eltzea komulgatzera leenago bekatu mortal jakin, naiz dudakoan dagoana. Orrela egiten dira egiazko Akto kontrizioak? Askok ote da aoarekin esatea? Nolako aldatze ta trukada animakoa bear ez da Jangoikoaren amorio egiazkora? Nola bada eldu komulgatzera bekatuan dagoana Akto kontrizioko begitanduakin? Baña geiago. Beliaki batek Magdalenak berak baño amorio geiago artu diola Jangoikoari, bekaturen damu andiagoa dadukala Pelagia, Maria Egipziakoa, ta Kortona penitenteak baño, ta Zerutik Aingeru bat etorri ta esango balio grazian jarri dala damu amorezkoaren bidez, ez legoke prest eldutzeko komulgatzera, konfesatu gabe bekatu mortala. Bear bearra da konfesioko komulgatzeko bekatu mortal ezagun edo dudakoan dagoanarentzat.

G. Noiz asitzen da komulgatzeko obligazioa?

E. Ez dago urte jakin ta erabakirik: gazte batzuek dira besteak baño iratzarriagoak, adin geiagokoak, ikasla obeak, ta oiturak ere ez dira berdinak guzietan. Eriotzako peligroan bearragoa da komunioa Pazkoaz baño. Ala bada begiratu bear zaie gauza askori. Komulgatzeko bear da jakin, zer artzen dan, nor dan Jesu-Kristo, ta iduki debozio moduren bat. Badira gazte guraso onen umeak, ondo aziak, doktrina ederki dakitenak zortzigarren urterako, oek komulgatu bear dute. Beste batzuek dira berandua-

go ere doktrina ez dakitenak, gaizki aziak, ala baserrietan nola kaleetan. Anima Kargua duteenak aztertu edo esaminatu bear dituzte lenengo komuniorako, ta gurasoak eraman berai. Utsegiten andia da, nere ustez, dio San Franzisko Saleskok, luzatzea geiegi animako janari osasun emallea denpora oietan, noiz azkor ta jakitunagoak diran gaztetxoak amargarren urtean, len amabostgarrenean baño. Ondo konfesatzeko zenbat gauza jakin bear ez da? Nola prestatu ez egiazko damua izateko? Nere ustez ondo konfesatzeko prestaerak dauzkatena, erraz idukiko dituzte komulgatzekoak, edo beintzat ez illaskoan komunioa luzatzeko arrazoirik. Guzia dago geienez bizi moduan. Badira gazte gaizto, aziera txarrekoak, gauza onik egiten ez duteenak, ta bai gaizki asko. Mezatan beti enredoan, biraoak ugari, beti bezela auzka, burruka ta arrika, gurasoai lotsa gaiztoa ekartzen dienak, inoiz ondu gabe. Ikasten dituzte alkarrekin itz zatarrak, egin lotsatzeko gauzaak. Onelakoak doktrina jakinagatik, ez daude prestatuak komulgatzeko. Bear dituzte bada artu oitura obeak, ta larga gaiztoak. Ez dute geienez damurik: orain konfesatzen dute gauza bat, gero ukatu; batean amar dirala, bestean ogei, aora edo gogora lenen etortzen zaiena batere esaminatu gabe konziencia: bekatu txikitat dauzkate, berez andiak diranak, ta anditatz txikiak. Nondik dator anbeste kalte? Erakasten etzatelako, gaizki azitzen diralako, gurasoen konturik ezaz; *et saepe numero Parochorum incuria, qui negligunt puerorum catecheses*.

San Gregorio Aita Santuak kontatzen du bost urteko aurtxo bat kondenatu zala. Orra nola batzuek ikasten ta ezagutzen dituzten gaiztakeriak mugonez, edo txit goiz.

Ona berriz beste gertaera atsegin geiagokoa. Gaixotu zan bederatzi urteko mutiltxo ondoazi ta guraso onen semea. Arkitzen zan illzeko peligroan, ta joan zitzaion bisitatzer bere Kura, edo Erretore Jauna. Mutiltxo gaixoak eskatu zion ekarteko komunioa. Sazerdoteak uste zuen gazteegia zala komulgatzeko, ta ez tristetzarren ekarri zion ostia konsagratu gabea. Eranzun zion mutiltxoak, *Jauna, zertako engaiatu nai nau? Au ez da Sakramentua*. Ekusirik Sazerdoteak anbeste argi, ezagutza, ta debozio, ekarri zion ostia konsagratua, ta artu zuen gaztetxo ark andi ta kristau on baten amorio, ta atseginen.

O zenbat komunio eder egingo lituzkeen gaztetxo askok, ondo erakatsiak baleude, etxean ejemplo ona balekuste, ta gurasoak balira bear bezelakoak! Argizai samur baten bezela eraasten da gauza ona, edo txarra gazteen biotzetan. Zein ederki ta laster ikasten duten euskera gaztetxo euskara baño enzuten ez duteenak. Berriz badator Euskalerrira erdaldun andi edo azi bat, zein nekez, ta gaizki! Nondik dator mutiltxo askok iges



egitea Elizatik komulgatuta laster, gelditu gabe Jesusi eskerra ematen, edo dauden denpora apurrean batera ta bestera begiak darabiltezala debozio-
ren tanta gabe? Erakasten ez dielako, nola egon bear dan, gutxienez ordu
laurden baten, biotz batu ta humillarekin pensatzen zer artu duten, nor
etorri zaien, zer eskatu bear zaion, ta nola esker andiak eman egin dien
mesedeagatik. Nolako injuria edo bidegabeak ez daramaz Jesu-Kristok
amorezko altara santuan? O lotsatzeko gauza.

ERAKASTE III.

Zenbat on egiten dituen komunioko sakramentuak, eragozpenik ipintzen ez duten animetan

G. Zertarako erakatsi degu igaro diran doktrina bietan, ala Fedeak erakasten duena Sakramentu onen gañean, nola kristauak duten obligazioa artzeko?

E. Erakatsi degu ezagu erazitzeko zenbat mesede ta on andi egiten dituen gure animeetan eragozpenik ipintzen ez padiogu.

G. Zer da eragozpenik ez ipintzea?

E. Da eramatea, on egin dezan, bear diran prestaerak, ta guzien zimentarria da egotea anima Jangoikoaren grazian, ta irabazi ta frutu osoak bezela artutzeko bear dira Fede bizi bat, Esperanza sendoa, ta amorio garbi bat. Eta oek ta beste birtute guziak azi ta geitzeko da gauzarik onena Komunioa, erakatsiko degun bezela.

G. Zein da Sakramentu santu onen lenengo on, ta frutua?

E. Da ematea ta geitzea grazia Jangoikoarekin adiskidetzen edo laz-tantzen gaituena. Beste Sakramentuak ere egiten dutee frutu ta onau, ordea ez Sakramentu onek bezela. Beste Sakramentuetan ematen du, edo geitu Jangoikoak grazia, gauza, edo kreaturen bidez, nola bateoan uraren, ta Konfirmazioan krismaren bitartez; baña Sakramentu santu altarekoan ematen du ta geitu Jesu Kristo ber berak bitartetasun gabe.

G. Zein da bigarren on, mesede, edo frutu egiten duena?

E. Da izatea animako bazkari, edo janari gozoagorik ez dana; ta lurreko janariak korputzean egiten duena, egiten du Sakramentu onetan ematen dan janariak, ondo prestatua dagoan animan. Ona Santo Tomas deboto andiak, ondo probatuak bezela, erakasten dituenak; Sakramentu onek, dio, iraun-erazitzen dio animako bizitzari, nola lurreko ogiak korputzekoari. *Sustentat.* Azi ta geitzen du animako bizitza, lurreko ogiak azi ta gizentzen duen bezela korputza, *Auget.* Galdu dana billa erazitzen du, argaldua sendotu; lurreko ogi edo beste janari osasuntsuak korputzarekin egin oi duen bezela. *Reparat.* Azkenean, ematen dio animari atsegin, pake, ta gozotasun andi bat, nola lurreko janariak gose danari korputzean eman oi dion. *Delectat.*

G. Nai nituzke enzun lau frutu oen espelikazio zeagoak.



E. Ona bada. Esan degun lenengo frutu au da mantenitu edo iraun erazitzea animako bizitzari. Lurreko ogi ta beste janariak erasten edo unitzen dira Korputzarekin. Alkartasun, eraспен edo unio onen bidez, lurreko ogia gizonaren aragi, ta ezur egiten da. Onela dirau gizonaren bizitzak, bestela illko litzake jan ezaz. Beraz lurreko alimentu edo janaria ta edaria bear berrak dira irauteko bizitzan. *Sustentat*. Onela bada, Kristok komunio santuan ematen digun bere aragi, edo Zerutik jetsiriko ogiak alkartzen gaitu berekin, ta moduren baten berekin bat egiten gaitu. *Nere aragia jan, ta nere odola edaten duena, nigan gelditzen da, ta ni berekin*: ala dio Kristo ber berak. *Komulgatzen zeranean*, esan zion bein Jaun onek San Agustini, *zu aldatzen zera nigan, ez ni zuga*, nola gizonaren aragia egiten edo aldatzen ez dan ogi izatera, ta bai ogia aragia.

G. Ez da aditzen erraza esan dan aldatze au konparazio edo berdintza gabe. Ala bada ekarri beza bat edo bat, obeto aditu dezadan lengo esana.

E. Txit gogotik egingo det eskatzen didazuna. Ekusi dezu inoiz nola gaixoai ematen dizten noiz, edo berriz pildoratxo urrez gañeztu edo estalduak? Urre au gelditzen da ezertan aldatu gabe, ordea ematen dio korputzari bere indar edo birtute ongarria. Ala bada Kristoren aragia komunioan ez da aldatzen gizonagan edo gure aragi izaten, ez gure anima, baña ematen dio animari bertute guztiz andi bat zeñekin nola bait bereganatzen gaituen.

Nai dezu Santo Tomasek dakarren beste konparazio bat enzun? Ona bada. Eztitzen danean madari, edo txermen pinta eder bat irasagar baten ondo, edo oñean, ekusiko dezu nola irasagarrak ez duen aldatzen madari mendua irasagar izatera, ta bai madari edo txermen menduak irasagarra, madari arbola izatera. Ez irasagarraren ondo edo oñak galtzen duelako bere izate edo naturaleza, baña bai ematen zaiolako madariaren bertutea egiten duten batutasun, edo unioagatik. Norenak dira frutuak? Ez irasagarrarenak, bai madariarenak. Nork sinis lezake gertatzen dan naturalezako mirari au egunoro ezpagenkus? Onela bada anima alkartzen da Kristorekin komunioan, moduren baten kristotzen da, edo ematen ditu, ez kreatura frutuak, ta bai Kristoren frutuak, Kristo aldatu gabe animan ta bai anima bera Kristo gan, nola bait Jangoikotzen duela. *Deificat animam*. Alkartasun, ta beregantze Kristok animari egiten diona, ez da bakarrik fede utsekoa, bai egiazkoa ta benebenetakoa, dio San Krisostomok. *Non fide solum, sed et recipsa*. Egiten gera Kristoren ostatu, egotegi edo tabernakulu biziak, ta San Ziprianok dionaz, Kristoren erabiltzallak, senide beze-

la, edo odol batekoak Ama Birjinaren Semearekin. *Christi-feri, concorporei, consanguinei*: Izan liteke mesede andiagorik?

G. Nola baña iraun-erazitzen du Sakramentu onek animaren bizitza? *Substantat*.

E. Ona nola. Korputza janari gabe argaltzen, ta aginte gabetzen da; argaltasunak edo aginte gabeak dakar aldi txarra, ta gero eriotza ezaguna. Janariak eragotzen ditu kalte oek, biurtzen ditu indarrak, sendotzen du korputza, ta ala irauten du urte askoan bizitza, bestela jan gabeaz galdu bear zana. Ala bada, Ogi Jangoikozko Sakramentu aldarakoan ematen danak iraun-erazitzen dio animaren bizitzari, emanaz grazia sendagarri, edo indargillea, ta grazia onen bidez irauten dute anima askok espirituko bizitzan. *Zuen Gurasoak jan zuten basamortoan Mana*, edo goietatik intza bezela erorten zan eztimodua, *baña ill ziran: ordea nire ogia jaten duenak, bizitza betikoa izango du*, esan zien Jesu-Kristok bere Sermoia enzuten zeudenai. Zan esatea bezela, ez korputzez illko etzerala, ta bai emango ziela graziako bizitzan irauteko indarra emen, ta gero Zeruan beste bizitza beti betikoa.

G. Beraz gutxitan baño eldutzen ez diranak Komunio santuko maira, bekatu mortal gabe artzen badute ere gutxi artze aietan, argal, ta indar gabeak egongo dira animan?

E. Ala da. Ekusten dira pobre batzuek, zer edo zer janagatik ez iltzeko bestean, dabiltzala oñen gañean argal, erkin, ta itxuratik irtenda; ozta dabilta zutik, zeren jan gutxiak ezin eman lezake sendotasunik. Ala bada bakan, edo gutxitan komulgatzen diran animak, nagitasunez danean, ebiliko dira animako argaltasun gogorrean, birtutean aurreratu gabe, ta tentazio andietan erorteko peligro gogorrean, zeren ez dituzten billatzen indar bide, edo sendagarriak diran graziak Kristok eskintzen dien mai ederrean.

G. Ori orrela bada, beraz ezingo du kristauak aurrerapenik egin animako bizitzan, ez azi birtutean, igesi bezela badabil mai onetatik?

E. Ongi diozu, zeren komunio santuak dakarren irugarren mesede, edo ona, da ematea bizitza espiritukoan azitzea.

G. Azalda beza nola dan ori.

E. Txit pozik egingo det. Korputzeko janariak, ez bakarrik iraunerazi oi dio bizitza aragizkoari, bai ta ere azitzea edo geitzea eman. Aurtxoa jαιο ta zerekin azitzen da? Urte bete igaro orduko zenbat azi oi da? Zerk eman aziera, edo korputzeko geitzea? Amaren ugatzak. Gero nola dijoa aziaz ogei urterean gutxi gora bera? Jaanaz. Ala bada aziko da anima bizitza graziakoan, geituko zaizkoz bertuteak, izango da humillagoa ta



garbiagoa: izango du eroapen edo pazienza andiagoa lureko naigabeetan; geituko zaio Jangoikoakiko amorioa: lagunari barkatuko diozka gaitzeginak, ebilliko dira bertuterik bertute Siongo Jangoikoa ekusi artean betiko bizitzan. Fedea piztuko zaie, Emausko diszipuloi piztu zitzaizen bezela, Jesu-Kristok ogia zatitzean. Aurreratuko dira Esperanza, gogoan idukirik Jesusen eskintza au, *Nere aragia jaten duena biziko da betiko*. Espiritu Santuaren doaiz beteko da, prestaera andiak badarama anima. Lenengo kristauak biotz batekoak bezela ziran, beti pakean; ondasundunak gabeak eramaten zituzten Apostoluak gana etzuenai zatitzeko, pobre esturik etzan; martirioan bizitza emateko nolako gosea ta karra? Nondik anbeste bertute? Zeruko janaria egunoro ta prestaera ederrekin artzen zutelako. Santa Maria Magdalena Paziskok esan oi zuen, komunio prestaera osoakin egin bat asko zala anima bat eramateko santutasun andira. Zer esan genzake geiago?

G. Zein da laugarren mesede edo on animan egiten duena?

E. Biurtzen ditu indar zerbait gutxitu edo galduak. *Restaurat*.

G. Nola izan diteke ori?

E. Alde askotara Bekatu benialak barkatuaz, inperfekzio edo utsegite ezauera txit arinarekin egiñetatik garbituaz, bekatuen ugar, edo zetaketatik anima libratuaz, ta txurituaz.

G. Ez da erraz aditzea esan dana astiroago esplikat u gabe.

E. Ona bada. Bekatu benialak erraz egiten dira, ta guziz ezauera laburrez ta borondate gutxirekin egin oi diranak. Anima birtutean aurreratzin diranak ere ez dira libratzen onelako utsegite arinetatik. Persekuzio, ta naigabeetan kejaxoren bat, geiegi estutzea gaizki esaten digutenean, Jangoikoarn borondatearekin ez osoro ta bakez berdintzea biotza; desprezioak ez artzea ixil ixillik, orazioko orduak laburtzea noiz bait, edo nekearen beldurrez, edo nagitasunez, edo bear bezelako prestaerakin oraziora ez joatea, murmurazio txikitxoak, ta onela ezin kontatu beste bekatu arin, ta inperfekzio ezagutzen ez diranak begi Jangoikoak argituakin ezpada. Eguzkia sartzen danean gela baten ekusten dira aidean mota, ispi-ta lauso bestela ekusten ez diranak. Arropa zuri ta garbi piñ baten ezagun da mantxa edo loirik txikiena, ez ala zatar trebes baten. Asko alditan olio mantxa galantak ere ekusten ez dira. Onela, anima on Jangoikoak argitzen dituenak, ezagutzen dituzte utsegite ta palta asko, kristau epel nagiak ezagutzen ez dituzten gauzeetan. Ezaguera gabe damurik ez da artzen damu gabe ez da ezer barkatzen, barkatzen ez dan bekatu arinenak izango du kastigua beste munduan: ala dijoaz bekatu mortal gabe iltzen diran geie-

nak Purgatoriora, non egongo dira luzaro, bekatu benial askorekin erioztzak arrapatu zituelako.

Beste batzuek dira gazte egunetan eraman zuteenak bizitza lasai, mundutar, ta gaiztoa. Bizitza onekin komulgatzen ziran, egiten zituzten sakrilejio itxusiak edo damutu gabe, edo bekatuak estalduta konfesatzen ziralako. Oek Jangoikoaren argi andi batekin biurtu ziran beragana, egintzen Konfesio jeneral oso ta damu andiko bat, azi zuten bizitza berri bat. Ordea zenbat garbikizun onelako animak? Zenbat ugar edo zetaka animan gelditzen diranak bekatuak berak barkatuagatik? Urte asko Relijio estuetan, penitentzia betikoan bezela bizitza eraman duteenak, santutzat zeudenak, joaten badira geien geienak Purgatoriora, ta gutxi gutxi batzuek Zerura zuzen, nolako garbitu bearra idukiko ez dute bekatuetatik irten berriak bezela diranak? Zenbat urteko Purgatoria itxaroten ez die garbitzen ezpada geiago? Penitentzia korputzekoak onak dira, limosnak onak; ordea sinisnazazu, prestaera onakin egiten diran komunioak geiago garbitzen dutela anima bestelako obra on guziak baño. Bai dio San Franzisko Sales ondo probatuak, badira leku batzuetan erbi txuriak. Zergatik? Zerren beti jaten duten elurra, ta elur txuria beti jaanaz txuritzen zate narua. Ala gertatuko zate Bildots txuri eder Kristo dana sarri sarri, ta ondo prestaturik jaten duten animai; txuritu ta edertuko dira; kenduko dizte zetaka ta loi guziak, ez dira atzeratuko beste egite onetatik; ta bai gogo geiagorekin egin.

G. Ori ondo dago, baña nola gordeko gaitu aurrarakoan bekatuetan ez erortetik?

E. Ona nola: komunio ondo egiñak argituko du gure entendimentua, ezagutzeko bekatu benial, ta inperfekzioak. Argi onekin ezagutuko degu, zein gauza txarra dan iñola ere ofenditzea Jangoiko maite gaituena bera dan guzia emateraño. Komunio ondoan, egiten diran akto fedeko, esperanzako, karidadeko ta esker ematekin borondatea irizikitzen da, eskintzen dio biotz guzia Jesusi; ezagutzen du zein maitagarria dan, zein ona, ta artzen ditu gogo berriak ez emateko injuriarik. Emen artzen du ezagutzen dituen falta guzien damua, laguntzen dio damuari aurrera alakorik ez egiteko propositoak, ta ala artzen ditu neurriak ez erorteko berriz falta txikietan ere ezagueraz, ta noiz edo berriz zerbaitean uts egiten badu, damutzen zaio bereala, ta lotsa andi batekin dijoa komulgatza: emen artzen ditu indar berriak, ta onela dijoa aurreratzin Jangoikoaren bidean. Ala da; ez dago santu izateko bitarteko urragorik, nola dan komunio ondo egiña. Emen garbitzen gera, dio Trentoko Konzilio santuak egunoro egin oi diran utsegite txikietatik, zeintzuek diran auts erasten diranak



igarri gabe. Emen pagatzen diran Jangoikoaren Justiziar diozkagun zorrak, garbitzen da anima Bildotsaren odolean, ta prestatzen da betiko atsegiñak artzeko, zerren dan Jesus ematen zaiguna etorriko dan Gloria-ko Bai, edo prenda ederra. *Futurae nobis Glorae pignus datur.*

G. Nola errazten du Zeruko bidea?

E. Ona nola. Beldurra sartuaz gure animako etsaiak, zeintzuek eragotzi nai diguten eбилtea Zeruko bidetik. Aragi bat degu uzarkatu, ta eraman nai gaituena bere naikunde ta atsegiñetara. Nolako esetsi ta gerrak jasotzen ez ditu? Nola arrotu ez? Sentidu guziak su ematen die. Nola ezita eskuratu etsai gaizto au, zeñek negar eragin zion bein baño geiagotan S, Pablo Apostoluari? Nola ezi? Goazen sarritxo ta prestamentu onakin mai Kristok ipintzen digunera, an santifikatuko da nola bait gure aragia Jesusen aragi eder ta garbiaren ikutze ta egoteaz, ta onekin galduko ditu bere arrotasunak, ausiko zaioz bere egoak, ta gure borondatea eskuratuko du, ta ekarri arazoizko bidera, ta noiz edo berriz arrotzen bada, bereala galduko ditu indarrak. Badegu beste etsai bat, ta etsai baten, asko etsai; esan nai det infernuko Dragoi anzinakoa ta gaurkoa, zeñen mendean bezela dauden bere agindura anbeste serbitzari, edo Aingeru gaizto berekin infernura erori ziranak. Oek ez dute lorik egiten; gaba ta eguna orobat dira oentzat; ezin ekusi dute gure onik, nai lukee guziok kondenaatzea, inork Kristo ez serbitzea, ta ala dabilta gure inguruan gure animak irins-teko, dio San Pedro Apostoluak. Nai dezu jakin, zein dan animarik sendoena garaitzeko etsai oek? Da, dio San Krisostomok, komunio ondo egiña. *Facti diabolo terribiles.* Eldu gaitezen dio, konfianza ta amorio andi batekin mai eder onetara, ta irtengo degu Leoi batzuek eginda, indarrez beterik, arpegi eman ta iges eraziko diogu Deabruari. Kristok largatzen duen usai, Aingeru onentzat gozoak, igui ematen die Infernuko gaizkinai, ta artzen dute igesa.

Ipiñi zituen Jangoikoak Paradisoan arbola mota bi beste askoren artean. Arbola bata zan osasunekoa, edo bizitza luzatzen zuana. Etzan iñor illko arbola artatik jan ezker, jaten ezpazuen bigarren Arbolatik, zeñia zan eriotza zekarrena. Zer egin zuen Suge asko jakinak edo deabruak? Etzion esan, ez konsejurik eman Ebari jaateko osasuneko arbola-ko frutua, ta bai eriotza emango zionetik. Ala bada gaur ere, ez die putzik emango kristau onai jan dezen Sakramentuan Kristok ematen digun osasun ta bizitzako frutua, bai atzeratu alegiñez, eldu ta urreratu ez gaitezen mai santura, dakitelako nola iraungo degun bekatu gabe, anima ill gabe, ta aurrerapen andiak egiten birtuteko bidean. Nork esan zenbat gerra ematen dituzten infernuko etsaiak joan ez ditezen kristau onak komunio san-

tuko maira? Nolako ikara, beldur, ta atzerapenak? Zer egin bear da? Eman kontu osoa Konfesoreari, ta egin itxu itxuan agintzen diona. Komunio bat galtzen duen kristau onak bere naiz, ta beldur bidegabeaz, nolako kalteak bere animari? Nolako atsegiña deabruari?

G. Nai nuke Jauna enzun ejemplo edo gertakuntza bat jakiteko gordetzen ote dien lotsarik infernukoak Jesu-Kristo Sakramentuan dagoanari.

E. Ona Aita San Franziskoaren Koronika, edo bere Relijio andiaren historia edo gertaeretako Libru baten erakurten dana. Trailo zeritzon Jaun batek zeukan Alemanian bere etxean emakume birtutetsu edo bizitza oneko bat; baña Jangoikoak ala laketurik, jabetu ziran Infernuko gaizkinak emakume gaixoaren korputzaz; orre-gatik largatzen zien noiz edo berriz pakean Elizara joaten, meza enzuten ta etxean bere Senarrarekin tratatzen. Egun batean irteten zuela San Franziskoko Konbentuko Elizatik, igarotzen zan ate ondolik Apaiza Hostia konsagratua zeramala gaixo bategana. Belauniko jarri zan emakume gaizkindua beste an zeuden jende askorekin batera, ta bakarrik oen artean arkitzen zan Judu batek makurtu etzituan belaunak. Emakume ura jaiki zan zegoan tokitik, ta onen bitartez edo eskuz eman zion etsaiak Juduari belarrondoko edo maxallako ikaragarri bat esaten ziola, Zorigaiztoko ta esker-gabeko gizona, zergatik honratzen ta adoraten eztezu Ostian dagoan zere Kreadore, ta Jangoikoa? Eranzun zion Juduak, Ostia guzietan badago Jangoikoa, Jangoiko bakar bat izango ez litzake. A tontotzarra, esan zion deabruak emakume aren aotik; artu zuen Galbae zulo asko zeuzkana, ta ipiñirik Eguzki argitan, ator ona, esaten dio, ez dek ekusten nola anbeste zulotik agertzen dan Eguzki osoa, ta nola esateko moduau sartutzen dan Eguzkia zulo askotatik bat izanik? Ala bada, bat da Jesu-Kristo, bat Jangoikoa, ta orregatik dago lurreko Ostia konsagratu guzietan. Onela obligatuak izandira noiz bait infernukoak aitortzera damu gorrian Jesusen Sakramentuko egoera egiazkoa, adoratzera Jesus San Pablok adierazitzen duen bezela itz oekin, Jesusen *izenean guziak belaunak makur ditzatela, Zerukoak, lurrekoak, ta infernukoak.* Ordea beste asko alditan tentatzen dituzte gizonak egiteko Jesus Sakramentuari egin al injuria ta deshonra. Tentatu dituzte Judu ta hereje asko bota ditzen Ostia konsagratuak surtara, lurrera, ibaira, zakur ta zaldien eztarrietara. Tentatu ditu aitatu ezin ditudan gauzarik itxusienak egitera. Tentatzen dituzte kristau onak joan ez ditezen komulgatzera, baita ere gaizki bizi diranak ondu gabe joan ditezen bekatu mortalean, onela injuriatzeko aleginez Jesu-Kristo bere amorioa agertzen duen lekurik ederrenean. Nola garaitu anbeste animako etsai gaizto? Anzina esan zuen Dabidek gero gertatuko zana, ta ipiñiko zuela bere aurrean Jangoi-



koak mai bat, zeïnen janariarekin sendoturik garaituko zituen, etsai guztiak.

Animari ez ezen, korputzari ere eman dio sarri indarra. Santa Katalina Senakok, oraindik gaztetxoa zanean, ezin ezer jan izaten zuen komulgatzen zan egunetan; ematen zion igui jan guziak ta korputza gelditzen zitzaion janda baño indar geiagorekin. Galdetu zion Konfesoareak, nola egon zitekean gose gabe; nola indar osoakin egun osoetan alimenturik artu ez da? Eranzun zion: Jauna ain andia da sentitzen dedan atsegin edo gozotasuna Jesusen Korputza artzean, zein da ezin artu det lurreko gauzarik jaateko gogorik; ezin komulgatu naizanean, Elizan sartuaz, Sagraiora fedeko begiak eramanaz, ase ase egin ta indartzen naiz. Meza eman duen Sazerdotea ekusiaz beste gabe, gogoan artuaz bere eskuetan egon zala Kristo, edo komulgatu ondoan bere bularrean zerabilela, bere espiritu guzia sendotzen zion, ta gertatu zitzaion noiz bait Garizumako lenengo egunetik Kristoren Aszensio, edo Zeruko igoerako Jaira artean, ego-tea Santa aitatu degunari, ezer jan bage; bakarrik bai komulgatu egunoro, ta au zan bere indarrak oñean zeuzkana.

G. Zein da esan degun azkeneko on edo mesede Sakramentu onek egiten duena?

E. Da animan largatzen duen atsegin edo gozotasun ezin esan bestekoa. Lurreko jatekoak atsegin eman oi du, ta esan ere oi da, gozoa dan gauzak aragi ona egiten duela. Baña mingaña zetakatu edo ugartua bada-go, etzaio atsegin edo gusto onik artutzen. Erakurten baditugu Santuen bizitzak, ekusiko ditugu zein amorez urtuak, zein gozatuak gelditzen ziran komunio aurrean, komunioko unean, ta komunio ondoan. Zirudien ito bear zutela kontentuen kontentuz, zeru berri baten arkitzen zirala, ta amore gozoz ordituak; non zeuden ere etzekitela. Ain Santu andiak ere ez diranak, baña bai ebilli birtuteko bidean, izan oi dituzte aldi askotan lurreko jende eroak beren olgantza guzietan arkitu oi duten baño atsegin geiago. O nolako negar samurrak! Nolako nasai aldiak, ta biotzeko olgura, ta askatutasunak.

G. Ori orrela bada, ez dute komunio onik egingo komunio ondoan motel, agor, ta siku siku daudenak?

E. Ez da egiaz zuk ateratzen dezun kontu edo ondorena nik esan dedanetik. Santo Tomasek berak dio, samurtasun, gozamen, ta atsegin sentikor ta ezagunak ez dituztela arkitzen anima onak beti ta era guzietan, komulgatu ondoan. Ordea ez da inoiz izan anima birtutean aurreraturik noiz edo berriz, baita aldi askotan ere probatu gabe komunioko gozotasunak. Eman niri, dio San Agustinek, Jangoikoa benetan maite duen

anima bat, ta aituko du esaten dedana. *Da amantem et senti et quod dico*. Baña kristau beti epel, ta kontu gutxirekin bizi izan diradenai itz egiten badiet, ez naute aituko, ez dutelako inoiz probatu alako gozotasunik. *Urreratu zaitzte beregana*, dio Dabid Errege Santuak, egizute bere esana, kendu biotzetik Jangoikoaren amorea, galdu edo gutxitzen dituzten gauzaak *ta argituak izango zerate*. Argi onek irizikiko du biotza, ta jaikiko dira amore gar andiak. Ordea probatu oi ditu Jesusek animarik maiteenak biotzeko agortasun, ententimentuko illuntasun, espirituko mingoiztasunekin, komunioan ere lengo gozotasunik sentitzen ez duteela. Uste dute iges diela betiko Jesusek, ezkutuko bekatuaren batekin aserra-erazi diela, larga dituela guziz: emendik zenbat negar samin, zenbat estutasun! Konfesoareak animatuagatik, ez die sinisten, ta bizi dira animako martirio gogor baten. Daude Jangoikoa amatu nai sendoan, egingo luke edozein gauza Jesusi atsegin ematerren; ta uste izanik maite ez duteela Jaun ain maitagarria, daude penaz ta naigabez. O anima zorionekoak! Igaro negu gogor orretako oztasunak, gau illun orretako beldurrak. Jarraitu fedearekin Kristorik, egin berari atsegin emango dion gauza guzia, ta artuko dituzu pazientzia ta humildateko frutuak. Igaroko da negua, argituko da eguna ta orduan ekusiko dezu, zenbat mesede ekarri dituen zure animaren barrenara, Jesusen iges egite edo ezkutatzte amorezkoak. *Sicut tenebrae eius ita et lumen eius*. Andiak izan badira illuntasunak, andiak ere izango dira argiak.



ERAKASTE IV.

Nola prestatu bear dan anima ateratzeko frutu onak komunio santutik

Ikusi degu orainagoko doktrinan zenbat on ta mesede datozkion ondo komulgatzen dan kristauari. Orain ekusi bear da nor ondo komulgatzen dan.

G. Nor da bada ondo komulgatzen dana?

E. Bear diran prestaerakin urbiltzen edo urreratzen dana Sakramentu andi onetara.

G. Ori bai; baña zein dira ondo komulgatzeko prestaera?

E. Batzuek dira korputzaren aldetik, ta besteak animaren aldetik datozanak.

G. Zer eskatzen da korputzaren aldetik?

E. Baraur oso osoa, eriotzako peligroan ez danean, zeren artzen danean komunioa eriotzako bidean laguntasuna izateko, ez da eskatzen baraur egoterik, erraz erraz ezin danean. Gaixotze andiakin daudenak artu bear dute sarri alimentua, edo botikakoren bat, ta ez da erraz eraguziak ondo etortzea osasunaren kalte gabe baraur osoarekin komunioa artutzeko.

G. Zer aditzen da komulgatuko danak eraman bear duen baraur natural edo oso osoaren izenez?

E. Aditzen da, komunio aurreko gauerditik komulgatu artean, artu bear ez dala ez jan, ez edari gauzarik.

G: Ori ondo aditzen det, baña badet zer galdetu; galtzen ote da baraurra ortz, edo agiñen artean gelditu oi diran lengo janaren izpi, edo apurren batzuek irinsten badira txistuarekin batera, edo arnasa artzean?

E. Ez da baraurrik ausitzen, zerren ez diran artzen jaateko gogoz, edo janari moduan. Orobat odol tantaren batzuek irtetzen badute agiñe, ortz, naiz oietatik, ta irintsi-arren txistu moduan edo txistuarekin batera, ez da baraur oso au galtzen, ta komulga diteke. Arpegia garbitzean Elizara joan aurrean igarotzen bada eztarritik, berariaz ez dala, ur tanta bat edo beste, ez da baraurra galduko, ta ez eragotziko komunioa. Berriz nork nai daki aora etorri dan txistu mea, nai loditzarra berriz irentsiagatik, komulgatu ditekeala beldur gabe. Beste batzuek dira beldurrez daudenak komul-

gatu ezinda eltxoren bat, edo benetan edo begitazioz igaro zatelako ezta rritik. Oek dira beldur sustrai gabeak ta aienatu bear diranak.

G. Ondo da komulgatzera dijoanak ez artzea Tabako orri ta autsik?

E. Nola ere dan, ta guziz tabako-orria. Sentidu guzien ildura edo mortifikazio osoa eraman bear dan une edo denporan, ez da ondo, atsegin molde gabeko, ta korputzaren palagarria eramatea. Berriz ao kiratsuarekin ez dirudi ondo, ez Konfesoarearen sudurrai igui ematea, ez Kristo baizen gauza andia usai zatar ta mingain kiatuaren gañera eramatea. Zer da ansi baraurrik ez ausiagatik? Ez da egiaz bekatu mortala komunio aurretik tabako-orria pipa, edo papeletik kian artzea. Ordea komuniora eraman bear dira Jesusi onra emango dien prestaerak. Errege edo Jaun andien aurrean pipa artzea, litzake injuria ematea. Etzaio zor geiago Jesu-Kristori? Tabako autsa artu gabe dijoanak atsegin geiago emango dio Jesus mortifikatu, ta mortifikazio zaleari, artu ta sentiduari atsegin emanda dijoanak baño. Gutxi gutxi dira tabako autsa artzen duteenak bizio edo palta gabe. Ala bada edolarik mortifika ditezela komulgatze aurrean, baita Eliza santuan ere, ta guziz Sakramentu santua agertuta dagoan egunetan, eta meza enzutean.

Korputzaren aldetik, eskatzen ere da modestia andia janzian, arrotasun gabeko soñoakoan agertzen dala humildatez beterik dagoan Jesusen aurrera. Nolako janzi humillarekin ez dago Jesus Ostia santuan bere Anditasuna estaltzen duela? Jangoikoari eskerrak, euskal-errian ez da ekusten janzien aldetik agiriko arrotasunik komulgatzera dijoazenetan. Eskatzen ere da begietako lotutasun, edo modu ona; komulgatzera dijoanak, joan bear du ots gabe, pauso gelditxo ta zatarkeria gabeko ebiltzearekin begiak goraturik, ez arinegi batera ta bestera begira darabiltzala. Balego fede bizi bat, ezaguera andi bat, ta artuko bagenu ondo gogoan nor gana goazen, nori hostatu eman bear diogun, joango giñake atenzio andi batekin, ta atenzio onek ekarriko luke korputzaren aldetik bear dan reberenzia. Sazerdoteak alde batera ematen baditu, ostiatxoak eraatsirik dardelako, igaro biak beldur gabe.

G. Nolako prestaerak eraman bear dira animaren aldetik?

E. Dira iru gisakoak, komunio aurrekoak, komunio ordukoak, ta komunio osteko, edo ondorengoak.

G. Zein dira komunio aurreko prestaerak?

E. Lenengoa, bearra, ta beste guzien itur-burua, da Jangoikoaren grazia, ta au gabe ez dago komunio onik, ta bai kalte andikoa. Esan genuen lenagoko doktrinan, nola grazia gabe dagoan animarentzat bearra dan, aurreko prestaeratzat Sakramentu santu konfesiokoa.



G. Asko da graziako estadian komulgatzea, len aitatu ditugun frutu guziak ateratzeko?

E. Ez: zeren grazian, edo pekatu mortal gabe urreratzen diraden guziak ez daramez prestaera oso osoak irabazi guziak ateratzeko. Ona zein ederki adierazio zion Jesu Kristok Santa Katalina Senakori. Nere alaba, esan zion, idukitzen da kandela iriziki bat eskuan; dijoaz asko kandela artan irizikitzen bakoitzak berea; guziaz ematen die argia; ordea ateratzen da argi asko edo gutxi bakoitzak nolako kandela daraman. Badijoa bat kandela me txiki, babil laburrekoarekin, argi gutxiago atera, edo artuko du librerdikoa kandela batekin dijoanak baño: ta librerdikoa kandela ta dagokion babillarekin dijoanak baño geiago artuko du sei librako kandelarekin dijoanak. Guziak artzen dute argia; ez ordea guziak berdin, nolako daraman kandela, alako izango da argi artua. Au berau gertatzen da nere Sakramentura urreratzen diranetan graziako estadian; guziak ateratzen dute argia, edo nere graziaren gaarra; batzuek gutxi, besteak geiago, nola diraden dakartzien prestaerak.

G. Nor da grazian egonagatik prestaera laburrekin eltzen dana komuniora?

E. Da lenen, gutxi gogoan arturik, ezaguera laburrekin ta oitura utsez bezala dijoana komulgatzera. Janaria apurtzen edo zeatzen ezpada, ez du onik egiten: orregatik esan oi da Otsoak beti diradela argalak, zeren irinsten duten jaateko itoka, ta zeatu gabe. Bada pensatu bear da komulgatu baño len egun aurretik, ta egun bertan, nor artzeera goazen; zein dan Jesu-Kristo; nor gu; zenbat amodio erakusten digun bere aragi Jangoikozkoa guri ematen, nola ematen digun eman ala; nola gu ere obligatuak gelditzen geran gere biotz, ta sentidu guziak berari ematera esker gaiztoak izan nai ezpadegu. Pensamentu, edo konsiderazio onek ekarriko digu lotsa santu ta reberentzia andia. San Franzisko Asiskok, gogoratuarekin, *Jauna zu nor zera, ta ni nor naiz* atera oi zituen amorezko, ta humiltasuneko kar andiak, ta emendik bete birtutez. Baña bagoaz komulgatzera biotza aurrez prestatu gabe, elduko gera epeltasun andiarekin, egingo diogu arrera motel, otz ta gogo gabeko bat, ta lotuko degu Kristoren esku emallea, ta irtengo degu frutu laburrekin.

Bigarrenak dira obetzen ez diranak beren bizitzan, egiten dituztenak bekatu txiki edo arinak beldur gabe, oituraz, ta ezaguera argiarekin. Onelakoak bizi dira bekatu andietan erorteko peligran; Jangoikoari amorio guziz laburra die, daude epeltasuneko estadu kaltegarrian, ta Kristo gana dijoaz biotz ondo garbitu gabearekin. Errege bat dijoanean norbaiten etxera, garbitzen da etxe guzia goitik bera, ez da largatzen amelaun, ez

autsik, apaintzen ere da alegin guziaz egongo dan leku, edo gela. Bekatu benialak dira gure animako amelau, ta ausak. Oek gere borondateko eskobarekin kentzen ezpaditugu, au da, artzen ezpadegu komulgatu baño leenago bekatu txiki edo benialen damu egiazko, ta obetzeko asmoa, eman go diogu Jesusi, igui eman bear dion hostatu ez garbitua, autsez betea.

Ona zein ederki adierazotzen duen San Franzisko Salesek. Badaukagu konserba usai gozokoa Onzi baten, persegituko dute euli txatarrak, ta seguruen da estaltzea Onzi ura eulirik sartu ez didin. Baña demagun arkitzen dutela sarrera konserbategi artara euliak. Euli bat edo beste sartu, apur bat konserba jan edo artu, eta bereala egiten badu egaa, kalte gutxi egingo dio konserbari. Ordea euli asko badijoz, bertan asebate eginda gelditzen badira egaatu gabe, usteldurik, nori emango ez dio igui alako konserba euli ito ta atsitzu beteak? Zenbat kalte egin ez konserbari? Onela bada bekatu benial bat edo beste egitea arinka, ezaguera laburrez, karidadeko konserba gozo ederra daukaten animai ere gertatzen zaie. Grazian daudenak badute konserba karidadekoa; ordea batzuek euli askoz, ta bertan illez, au da, bekatu benialez betea: egin ta egin, ta bertan ito egaatu gabe; damurik artu ez, ta dijoaz Kristogana atsegiñik emango ez dion prestaerakin. Emendik dator sarri komulgatuagatik irautea bizitza epelean, ez aurreratzea birtuteko bidean, beren buruben ildura edo mortifikazio gutxi edukitzea, aserra-errazak izaitea, gezur txiki edo kalte gabekak esatea ugari, janean billatzea atsegin geiago ematen diona nagia Jangoikoren gauza neke apur bat dakartenerako, bakarrik daukatela kontu lodi lodi bat ez erorteko bekatu mortalean. O bizitza peligro andikoa! Jesusekin ain urri, zikotz ta zeken dabillenak, zer itxaron dezake? *Gauza txikietan begiratu ez danak, geldika joko du bea*, dio Espiritu Santuak. Nola ur epela trokatu edo errebesa erazitzeke ona dan, ala aterako ditut edo trokatu nere aotik bizitza onelako epela daramenak, esan zion Jesu-Kristok alako bati san Juan Ebanjelistaren bitartez, edo mandatari zala. Ona itzak berak. *Naiago nuke otza baziña edo beroa; baña zeren zeran epel ta nagia, trokatu bear zaitut*, edo bota nere gandik. Da esatea, ez dirala Jesusen biotzean ondo sartuak egongo, Zeruko bidean nagi, epel, ta ardura gabeak diranak, ez dituztela artuko Jesus gandik komunio ondoan bere maitatzalle zindo edo pin piñak artu oi dituzten atsegin gozagarriak. Biotz nagiak, zure epeltasunak nasten darozkit errai guziak. Erdi lo zaude, ta zere nagitasunak ez dizu esnaatzera uzten. Au esaten die Kristok bekatu benial edo arinak ardura ta kontu gabe egiten dituztenai, biotz batu edo barriundua ez darabiltenai, lo asko, jan ondo, ta olgantz mundukoetan dabilzenai, gaizto gaiztoak, edo bekatu mortalekoak izan ezagatik. Oen artean badira erdi



mundukoak, erdi Jangoikoaren izan nai lukeenak. *Divisum est cor tuum*. Banatu nai lukee biotza, eman erdia munduari, ta beste erdia Jesusi; au da etsai, inoiz alkartu ez diradenakin, bizi pakean, biai atsegin eman; ordea biek in galduko dute. Onelakoak nai dute konfesatu ta komulgatu txit sarri, astean bein edo birritan; baña aurrera lengo bizitza nagiar, aurrera bekatu benialak ardura gabe ta ugari egiteari: konfesatzen badituzte bekatu benialak, da damu gabe, zerren ez dituzten artutzen neurri egokiak obetzeko; leenak beti. Onelakoentzat ez da ain sarri komulgatzea.

San Agustinek ematen zien konseju bere Sermoietan enzunlai, komulga zitezela Igande edo Domeka guzietan. Konseju ederra, dio San Franzisko Saleskok, baña kontuz egin bear dana. Zortzi egunetik zortzi egunera komulgatzeko bear da bekatu mortal gabe egoteaz ostean, ez iduki amorio edo eraspenik bekatu benialak diraden gauzai; ez erortea bekatu benialetan arinki, sarri, gogo osoz, oituraz, ta kontu gabe. Bear da eldu komuniora bekatu benial ezagun guzian damuz, ta asmoaz obetu edo emendatzeko. Bestela, komunio epela egingo da; ta zertako ditu Jesu-Kristok berekin ain sarri adiskide onak ta bere maitatzalle piñak ez dituenak? Ez utzi nai Kristogatik lurreko on izate edo interes labur bategatik largako lirakeenak, ta joan beragana maite bat balitza bezela? Atoz ona gezur txikiak ugari ta beldur gabe esaten dituzuna: esango balizu Jaun batek gezurrik esaten ez dezun egun bakoitzean emango dizula ogei errealeko bat, gezur asko esango zenuke? Ez Jauna. Ogei errealeko bategatik egongo litzake edozein, beintzat aberats aberatsa ez balitz, egun guzian gezurrik esan gabe. Eta beingo baten esango bazendu gezurtxo bat, nolako naigabe ta damua? A! Esango zenuke, galdu ditut ogei erreal aurkeria bategatik, kontu piska bat ez idukitzeagatik. Zerk egiten du pasio txaar ta zaarra ere garaitzea ain erraz? Diru amoreak. Orobat egingo zenuke bekatu benialak diraden beste gauza askorekin. Etzinake joango Kristoren legea arkitzen ez dan leku ta itzkera alperretara, bazenuka errentatxo bat egunoro zere etxean, ta leku on onean egoteagatik. Ala ez da? Ongi. Beraz ez egitea zuk Jesusen amorez, Jesusen atsegin, lurreko diru guziak baño geiago balio duteenak gatik, egingo zenukeana diru batzuek gatik, da argiro esatea, Jesusi atzea ematen diozula lurreko ondasun galkorrak begien aurrean iduki ezker; da esatea, diru apur batzuei estimazio geiago ematen diezula Jesusen naia egiteari baño. Amatzalle ederrak egiaz! Eta joan gero ain sarri Jesus gana, zein ain gutxi maite dezun? Ez da asko esatea mundu guzian baño maiteago dezula, bere amorez garaitu nai ezpadituzu pasio txatarrak; artu bear dira ta ill azeri txikitxo animako maasti ederra gutxika galtzen duteenak, ez da asko basaurde zatarrak iltzea; oen kaltea agiri ta ezaguna

da, ta persegitzen ere dira. Baña azeri gazte ta txikiak inork igarri gabe bezela egiten dituzte kalte asko; matsaien, edo txarmentuak ez ausiatatik basaurde zatarrak bezela, ausitzen ta galtzen dituzte panpanu, edo morgotatxoak, nondik etorri bear zuten mordoak. Arrapatu bada azerikume kaltegarri oriek, dio Jangoikoak. *Capite nobis vulpes parvulas quae demoluntur vineas*. Au da kendu animako mastitik, urrutitu, edo aienatu iges dezen, bekatu benialak, zeintzuek ugari ta borondatez diranean, ta animan dirautenean kendu gabe, egiten dituzte kalte andiak.

Ori orrela bada obe izango da gutxitan komulgatzea. Kontu gaiztoa ateratzen dezu. Ona zer esan bear zenukean. Ori orrela bada, kendu bear degu Jangoikoaren amorio andia eragozten digun guzia. Ori orrela bada, iduki bear degu kontu txit andia ezertan ere aleginez Jangoiko ain maite izan gaituenari atsekaberik ez emateko. Eraman bear degu bizitza Jesusi atsegin emango diona, mundutik biotzez aldegin. Izan bear degu oraziora emanak ta noiz edo berriz erorten bagera bekatu arinen baten, bereala bear diogu eskatu barkazioa Jesusi. Artu bear degu fede sendo bat Sakramentu komuniokoaren gañean, piztu baragana eltzeeko egia andi bat, ta aurtxoak beren Amaren bularrean erasten diran amoreaz edateko ugatza, ala ta geiago, dio San Krisostomok, egin bear degu guk, eltzeeko komunioko maira, non Jesusek ematen digun Ama batek bere aurrari baño geiago ta amorio geiagorekin, ta gure naigaberik andiena izan bear da komulgatu ezin geranekoa. Onela bagabiltza, nolako ondasunak animarentzat? Nolako irabazi ta aurrerapenak Jaunaren bidean? Nolako amorio ta pozarekin artuko ez gaitu Jesusek iru bider asteoro bagoaz ere. A bai ta prestatuko bagiña egunoro eltzeeko mai santu onetara: Eta nolako arrera gozo edo beintzat sendagarria egingo ez likegu? Komulga zaite sarri Filotea, esaten dio San Franzisko Saleskok bere Alaba espiritual bati, ta aren buruan besteai, komulga zaite, ta al dezun guzian zere Konfeso-reen borondateaz. Sinis nazazu, ezen nola Erbiak zuritzen diran gure mendietan elurra jaanaz, ala zurituko ere da zure anima, edertu ta apaindu Jesus ain garbi ta ederra jaaten ematen zaitzunean, edo sarri bazoaz Sakramentu onen maira.

Baña Filotea ura zan anima Jangoikoari guziz emana, orazio zalea, bekatu arin edo benialetan ez erorteko kontu andia zuena, egunetik egunera aurrerapenak egiten zituena birtuteko bidean. Onelakoak eldu bear dute sarri edo maiz mai santura, nondik ateratzen dituzten ezin esan beste animako ondasun, ta sinistu nai badiozu Maria Jesus Agredako beneragarriari, ondo prestatu ta sarri komulgatzen diran anima askok gloria geiago izango duteela martirioan bizitzan eman dutenen batzuek baño.



G. Birtutean berriak diranak, edo aurrerapen andiak egin ez dituztenak komulgatu bear lukee sarritxo?

E. Ederki galdetzen didazu; ona eranzuna. Anima Jaunagana biurtu berriak, ez dira guziak modu batekoak; batzuek abiatzen dira gogo bero edo ferbore andiarekin, daude prest aldegiteko bekatu txikietatik, nai dute sartu orazioko bidean, iraun sendo, egin penitentiak ta itz gutxitan, jarri Konfessore aitu baten obediencia osoan bizitza zuzen ta garbi bat eramateko. Oek nai ta ez bezala izango dituzte, geienez beintzat, tentazio ta eragozgarri andiak, ala infernuko etsaien aldetik, nola mundukoenetatik. Onelako animak eldu bear dute sarri, ez beren buruz, baña bai Konfessore anima zalearen konsejuz, mundukoen berriketai jaramonik egin gabe. Nola obeto garaitu, ta ebaki egoak ta indarra infernuko tentatzalleai Jesu-Kristoren aragi santua jaanaz baño? Kristok anima alakoetan largatzen duen usai gozoa, da deabruarentzat kirats iges-erazotzen diona ta gelditzen da etsai gaiztoa indar ta aginte gabe. Ur bedeikatu ta Kristoren irudi edo imajinak ikaritzen, ta urrutitzen badituzte, nola iges-erazoko ez dio Jesu-Kristo ber berak? Nolako amorroa emanez? Ala bada, zenbat eta tentazio geiagoz inguraturik arkitzen dan kristau Jangoikoaren serbitzaria, anbat sarriago eldu bear du komunio santura.

Ori egiten det Jauna, ordea ez dira tentazioak gutxitzen; naiz gabaz naiz egunez, arkitzen ez det pakerik. Zertako da komulgatzea sarri? Beragatik; deabruak irten ez dezan bereaz, zeñek arrabiaz ta gorrotoz geitzen dizkitzu tentazioak, zu beldurtzeko, zuri iges erazitzeke mai santutik. Komulgatu ondoan desafia ezazu, ta esan ikara gabe, ator ona nai badek, etsai gaizto Zerutik deserrituta agoana betiko; zer nai didak? Nik ez artzea nere Jesus borondaterik onenarekin etorri zatana? Ez diat ere beldurrik berekin nagoan artean. Jarri bearko dek belanuko bezela bere aurrean, zeñi obeditu bear dion Infernuak. A zorigaiztokoa! Galdurik dek betiko Jesus Zeruan ekustea, ezin amatuko dek, ez orain, ez inoiz. Zer nai dek infernu andiagorik Jesus inoiz ekusi, ta amatu ezina baño? Nai dek ekusi nola nik amaten ziadan?

Onela arrabia eraziko zaio etsai gaiztoari, ta azkenean pakean utziko dio animari ekusten duenean konfianza osoarekin jartzen dala Jesusekin peleatzera.

G. Nork geiago sarri komulgatu bear du?

E. Jangoikoaren bidean arkitzen dituztenak mingoiztasun, ta agortasunak, pake osorik ez ta bai beti beldurrak. Onelakoak esango dute: otz, ta epel arkitzen naiz komulgatzean, ta komunio ondoan; ta esaten da, epe-lak ez dirala onak Jangoikoarentzat, ta igui ematen diela. Zertarako bada

joan sarri komulgatzera? Zenbat eta jai andi debotoagoa dan, orduan ni otzago, ta epelago. Nik Kristo artzea da ozpal zati bat artzea bezela; ez det gozotasunik ez samurtasunik sentitzen; ta batzuetan etortzen ere zait tentazioa, edo bekatu mortalean nagoala, edo Kristorik ez dagoala hostia santuan. Ai Jauna! Len izan oi nituen poz andiak, negar gozoak, nere biotza samurtzen zan erraz, ta ez nuen largako komunio bat lurreko ondasun askogatik. Baña aldi onetan ikaritzen naiz gogoratuaz beste gabe komulgatu bear dedala. Atoz ona biotzeko martirio orietan zauden anima ezagutu gabe zorionekoa. Nai zenuke biotz guziarekin amatu Jangoikoa? Egin bere nai ta borondatea, berari atsegin eman al dezun guzian? Ori bai Jauna, gogo eta animako deseoa ez det galdu; ez nuke nai bekatu benialtxo batekin ere ofenditu Jangoikoa, ta egiten dedanean paltaxoren bat, damutzen zat bereala, biurtzen naiz Jangoikoari parkazioa eskatzera. Ori bai? Bada etzaude bizitza epelean; bizitza epelekoak egiten dituzte paltak kezka gabe, ez dira penatzen beren epeltasunarekin, bizi dira beldur gabe; iltzen zaiztez perfekzio edo on on izateko deseoa guziak. Berriz nondik datozkitzu nai gabe ta biotzeko pena oriek? Nai zenuke ondo komulgatu, eraman Kristori amorio andi bat, ta nola biguntzen etzeran len bezala, uste dezu amore gabe zoazela; ta zure animan arkitzen dan estutasun ta naigabea, da amorio penazko geiago balio duena, ta on geiago ekarriko dizuna, amore gozatsu, eztiitsu samur, ta bigun negartsuak baño. Onelako amore gozoago da; baña bestea alde askotatik on geiago dakarrena. Amore gozoak ekarri dezake konfianza arro, ta bere buruaren amore; billatzean Jesus gere emengo gusto edo atsegiñagatik. Baña amore illun, agor ta penazkoak berez dakar humiltasuna, ta ez amatzea Jauna gere gustoz, ta bai dana dalako fede utsarekin. Ez naiz aspertuko au erakasteaz, zeren anima on askorentzat da doktrina animagarria.

G. Sazerdotea ez danak artu dezake komunioa egunoro?

E. Bere buruz egiten badu, ez du ondo egingo, zerren anima gutxi-gan arkitzen da anbeste komuniorako prestamena. Egiten badu Konfessore jakitun, ta bertuteko bide ezkutuak ondo aditzen dituenaren aginduz edo konsejuz, egin dezake. Eliza ama Santak ez du eragozten egunoroko komunioa, ta balego kristaueetan artako bear dan prestaera osoa, lurrean izan al ditekeanez, naiko luke, ta ala agertu du bere borondatea. Ordea nola grazian egote utsa, asko ez dan orretarako, Aita Santu Erromako batek utzi zuen aukera edo begiratze au Anima-zai, ta Konfessore aituen eskuan. Jangoikoak denpora guzietan izan ditu, baditu, ta izango ere ditu anima bertute andikoak. Oentzat da txit ona egunoroko komunioa; baña ez geienez bestelakoentzat. Komunio ain sarriak, humiltasun andi baten



sustraiturik ez dagoan animan, ekarriko du lotsa gutxia, edo desprezioa, gosea etzaio geituko, ta bai gogo bete; ta gero egingo dira komunio ari-negi ta debozio gabeak. Gaurko egunean ekusiko balute kristau bat egunoro komulgatzen, nolako zer esanak ala Konfesore, nola komulgatzen danagatik? Usteko luke jendeak, ekusi bearko lirakeala milagro edo mirari andiak egiten alako kristauak; ez lulela belarra baño besterik jan bear: ikusiko balie palta txikitxoren bat, zeña ekusteko dituzten mundutarrak begi zoli ta argiak, nolako burla ta parreak? Ala, bakea errrietan aleginez izan didin, gutxi gutxitan konbeni da egunoroko komunioa. Egia da ekusiagatik anima bat egunoro komulgatzen bere Konfesorearen kosejuz, ez dala gaizkirik esan bear; ez du bakoitzak bere buruarekin bestearena neurtu bear. Elizak permititzen duena, ez da eragoztekoa eskubiderik ez dutenen ao txarrez. Ez diot nik iñori eman egunoroko komuniorik, ez nik baño obeto merezi etzutelako (inork munduan merezi ez duena bada ere bein bakarrik komulgatzea) baña bai beste arrazoi onak gatik. (Videatur Calataiudius tract. de Comu.) Sartutzen dira enbidia edo ondamuak anima argaletan. Zergatik ni ere komulgatzen ez nau bestea bezela? Zer ote du besteak ez dutenik? Onela esaten dute beren artean, ta bear bada lagunen aurrean, ta datoz animetara kalte andiak. Komulga ditekez egunoro biotzez ta deseoz; onela geituko da komunio gosea, ta komunio bakanago egiñetan aterako da frutu egunoro egiñetan atera zitekeana, prestamentu geiago badarama bakanagoetan. Jai bi edo irutan errenkan komulgatzea, ez da egunoroko komunioa beste egun askotan komulgatzen ez danean.

G. Nork ere komulgatu bear ez du ain sarri?

E. Fede laburreko jende batzuek, zeintzuek komulgatu ondoan denpora gutxi bat eginga dijoazan Elizatik beren zer egiñetara. Oen fedea da laburra. Au da Jesu-Kristo eramatea munduko arazkeria, ta zer egiñen artera. Ekusiko bagendu Elizakoakin dijoan Sazerdote bat bere bideari larga, eta joaten etxe batera Jesu-Kristo berekin daramala, ta igarotzeko denpora berriketa alperretan, jokoan edo jaaten, zer esango genuke? Fede ta Sakramentu andi onen siniste guzia galdu duela. Zer esan bada komulgatuta laster, zerimoniazko egote labur bat egin ta bereala dijoazanak gatik gosari edo almortzua artutzer, eta beste zer egin mundukoetara Kristo ber bera beren Sabelean daramatela, burura ere etorri gabe, norekin dijoazen? Ona kristauak jakin bear duen doktrina ondo aztertzea. Nork nai daki Jesu-Kristok dirauala hostia konsagratuan ogi irudi, edo itxurak desegin artean. Ez da guzien iritxi berdina jakiteko zenbat denporaren buruan desegiten dan hostia konsagratu edo ogi itxura. Batzuek dioe, dagoala desegin gabe ordu erdi baten; besteak, ordu lauren baten.

Beraz ordu lauren bat Jesusekin igaro gabe eskerrak ematen, irteten duenak Elizatik, irteten du Kristo aldean duela. Izan diteke desonra edo bidegabe andiagorik? O Fedearen laburtasuna! Etorri Jesus hostia santura, ta gero gure barrenera gurekin egotera, guri mesede andiak egitera; nai berak gurekin bakartxoan egon, eta guk iges egin, artu ta atera gurekin munduko arazo zeregin ta asmoetara? Eta sinisten degu Sakramentu onetan dagoala egiaz Jesu-Kristo? O nola negar egiten zuen Santa Teresak ekusten zituenean kristauak, komulgatu ta astiro Kristorekin Elizan gelditu gabe, irteten munduko lan ta zeregiñetara, kontuz eman gabe mesede ain andiaren eskerrak, aztertu edo pensatu gabe, gutxi gutxienez ordu lauren baten, nor etorri dan gugana, zertara etorri dan, norgana etorri dan, ta zer nai duen gugandik bere etorrera miragarriaz! A eta zenbat grazia, zenbat bedeinkazio, ta zenbat ondasun animako aterako lirakean bisita eder artatik! Noiz egongo da Jesus grazia geiago egiteko abagune, edo era obeagoan! Etorri zan gure Jesus bizitza ematera ez ezen, baita ematera ere bizitza luzea ta ugariagoa. *Ego veni ut vitam habeant, et ut abundantius habeant.* Au da, etortzen dala Jesus, ez bakarrik ematera guri Sakramentu onek berez dakarten grazia, eragozpenik ipintzen ez dutenei, baita ere ematera beste bedeinkazio, ta grazia asko. O kalte andi ezin esan besteko dotozkigunak astiro Jesusekin ez egoteaz komunio ondoan.

Ona emen gertatu zana Aita Abila Beneragarriarekin. Ekusten zuen Sazerdote santu onek kristau fede laburreko batek (*et hic erat Dacerdos proh dolor!*) komulgatu ondoan bereala irteten zuela Elizatik; ta ezaguerazitzeko bere gaizki egitea, artu zuen asmo eder bat. Agindu zien beste Sazerdote edo Abade biri, egon zitezela prest kandela irizikiekin kristau komulgatu ondoan laster Elizatik irteten zuen ari, laguntzeko bidean. Esan ta egin; zijoanean Elizatik irtetera, jarri ere ziran Abade biak bere aurrean, beren kandelakin; ta zijoazen aurretik buru utsian. Arritu zan komulgatuta zijoana ekusten zuenaz ta galdetu zien Abade bi aiei: Jaunak, zer da au? Zertarako da nere aurretik Kandelakin joatea? Zertarako izango da? Eranzun zien. Orain komulgatu etzera? Ez daramazu zerekin edo zere bularrean Jesu-Kristo? Ez du Jaun ain andi onek merezi guk argiak zure etxeraño laguntzea? Lotsatu zan kristau fede laburreko ura. A bai! Zenbat kristauri egin bear litzakio beste anbeste? Komulgatu ondoan, batzuek gelditzen dira denpora apur bat penitentzia kunplitzen, bete batzuek aldarak bisititzen, ez gutxi errosario bat artu, ta errezuak egiten, beren bularrean daukaten Kristori ezer esan gabe, amore ta eskerrik agertu gabe. O Fedea! Eta zein illa zauden kristaurik geienen artean! Idiki arren biotza Jesusi. Bai arren bai.



ERAKASTE V.

Komunio gaiztoaren gañean

Ikusi degu igaro diran doktrina edo erakusteetan komunio onak eskatzen dituen prestaerak, zer ere dan komunio epela. Ikusi bear degu orain, zer dan komunio gaizto ta sakrilegoa, zein beltz ta itxusia, ta nola kastigatu oi dituen Jangoikoak bekatu mortalean komulgatzen diranak.

G. Zer da bada komunio gaiztoa?

E. Da bekatu mortaletik garbitu gabe egiten dana.

G. Eta pekatu andia da onela komulgatzea?

E. Etziñaket niri ori galdetu bear; Aingeru batek ezingo luke adirazo bear bezela bekatu onen itxusitasuna. Nola bada egin dezake gizon batek? Bekatu onik ez dago; baña komunio gaiztoarekin egiten dana, da guziz ezain, beltz, ikaragarri, ta besteen azkarria bezala. Nai dezu ekusi? Adizazu bada. Beste bekatuekin ofenditzen da Jangoikoa zearretara, ta albokerara bezela; ez artez artez, arpegiz arpegi, bai bere kreaturetan edo legea ez gordeaz. Baña gaizki komulgatzen dana, dia zuzen Jesu-Kristoren kontra, egiten dio ber berari, ematen dio injuria bere Persona Jangoikozkoan. Errege batek ematen ditu ordena edo legeak; bere mendekoak ez dute obeditu nai: ematen zaio onekin injuria; baña berari arpegiz arpegi esaten bazaio itz astun edo gaistoren bat; edo ematen kolperen bat, zenbat andiagoa litzake injuria edo bide gabea? Nolako kastiguak prestatuko ez lirake alako gaiztakeria egingo lukeanarentzat? Urkamendian bizitza kentzea, ta eskua ebakitzea lirake gizonen artean kastigo laburrak. Errege legea ausitzea ez da onela kastigatzen, zeren ez dan ain belz, ta itxusia bekatua, nola Errege berari egiten zaiona. Orobat, kristau batek urratzen duenean Jangoikoaren legea, zerbait ostuaz, projimoari gorroto izanaz ematen zaio injuria Jangoikoari, ta merezi du beti betiko infernua bekatu mortal bakoitzagatik. Baña nora igoko ez du ofensa ta injuriak egiten zaionean Jesu-Kristo ber berari emanik ostatu pekatuz zikindua? Orain bada Jangoikoaren legeak eragozten badu projimoari onra galtzea, ondasunak kentzea, banatu edo iltzea, diralako gizonak bere irudi edo imajinara egiñak, Sazerdote bati eskuak ezartea bere opensatzat artutzen badu, ta San Pablok lujuriako bekatuagatik badio, dala nola ere bait loitu edo zikintzea Jesu-Kristoren korputza, zer esan Jesu-Kristo bera eramaten bada bekatuz lizundu, ta loitua dagoan lekura? Nolako kastiguak izan-gotzate zori gaiztoan jaio diran kristau lotsagabe onelakoak?

G. Ezin ori sinistu liteke, Jauna, esango dezu. Juduak egin zuten bekatua zan egiaz belz itxusia, ta besterik ez bezalakoa. Aiek esetsi, ta ekin zioten arrika, itz astunekin; erabili zuten Jesu-Kristo ber bera Tribunaletan deshonoratzen; azkenik kendu zioten bizitza anbeste mesede artu ezkerro. Baña kristauak gaizki komulgatuagatik ez die lotsarik galdutzen Kristori, ez burlarik egin, ez kolperik eman, ez kruzifikatu. Dijoaz humil humillik altara aurrera, adoratzen dute Jesu-Kristo hostian artu bear duteena; baña ez gorrotorik artu, ez beste despreziorik egin; predikadoreak asmatzen dituzte, gu beldurtzeko, gauza asko.

E. Usteko dezu irtengo dezula zeureaz? Ona bada nola eguzkia baña argiago egingo ditudan, bekatu mortalean komulgatzen dan kristauak ofensa ta naigabe andiagoa ematen diola Jesu-Kristo ber berari, Juduak Pasio santuan egin zitenak baño. Aditu kontuz.

Egitea ofensa bat Persuna bati ezagutzen ez diranean ondo onen prenda onak, izan liteke ofensa, ta da beti. Baña ofensa geitzen da ondo ezagutzen bada persona ofenditu, ta onek merezi baditu onra guziak bere prenda andiak gatik. Juduak ezagutu bear zuten nor zan Jesu-Kristo, egin zuten bekatu andia kruzifikatzeaz; baña dio San Pablok, ezagutu balute nor zan, etzuteela Jangoiko gloriakoa kruzifikatuko; begitandu zitzaten zala Jangoikoaren kontra zebillen gizona, zala Sorgin deabruarekin aitzen zana gaixoak osatzeko, ta itxutasun onekin kondenatu zuten gaiztotzat, etzekitelako zala Jangoikoaren Seme berak itxaraten zuteena. Onegatik Jesusek, iltzen zegoala, Kurutzetik eskatu zion Aita Zerukoari, Jauna, barkatu oei, zeren ez dakiten zer egiten duten, ezagutzen ez naute. Baña nor dago kristau komulgatzen diranen artean, ez dakianik nor dan Jesu-Kristo bere biotz zikiñera daramana ezagutzen ez duena bere Jangoikotzat? Esan bada; egin dezake Kristok hostia santutik orazio au Parkatu, Aita nerea, kristau onek egiten didan ofensa izugarria, zeren ezagutzen ez nauen, edo ez daki zer egiten duen? Zein gutxi! Guk ezagutzen degu hostian guregana datorrena dala gure amorez munduan gelditu zana, dala Maria Santiximaren Seme bedinkatua, dala juzgatu bear gaituena Juizioko egunean. Beraz gure sakrilejioa da ezaguera osoaz egiña, estalgarri edo eskusa gabea.

Geiago. Juduak gandik artu zituenean ofensa ta injuriak, etzegoan bere Gloriako janzi, ta inditasunean. Zirudian gizonen begietan beste gizonen gisakoa; zeduzkan estalduta bere Jangoikotasunaz batera bere korputzeko doai ederrak. Errege bati ofensa bat egitea Arzai baten soño-koakin janzirik dagoanean, ta guziz argirio ezagutzen ezpada Errege dala, ez da gaiztakeria ain itxusia, nola ezaguturik argiro Errege dala, egiten



bazaio Errege janziakin bere Tronoan dagonean. Au nork ez daki? Zer egin zuten Juduak, ta zer kristau gaizki komulgatzen danak? Juduak ofenditu zuten argiro ezagutu gabe, Gloriako soñoko edo janziakin etzegoanean. Baña bekatu mortalarekin komulgatzen danak ezaguturik argiro nor dagoan Ostia konsagratuan, ematen die injuria Jesu-Kristori bere Aitaren Glorian edo eskuitik dagoan denporan, illen artetik piztu ezker. Dakarte lurrera nola bait indarrez bezela Zeru igo zuenetatik, eramateko bigarren Kalbariora, negarrekin dion bezela San Agustin andiak.

Ez dago onetan guzia. Jesu-Kristok Juduen aldetik zeramazanean anbeste atsakabe edo ofensa, bazuen bai zerk poztu, zerk arindu bere naigabea. Artu zituen pena guziak bere naiz, bere borondatez, zekialako zenbat mesede etorriko zitzaizkon gizonari. Bazekian jaioko zirala martiri asko, ta oek idukiko zuteela ejenplo edo jarraigari ederra Gurutzeko eriotza Juduen alde edo eskuetatik artzen zuenetik. Bazekusan Gurutze artan jaioko zirala anbeste Apostolu, anbeste birjina Santa ta garbi, anbeste Penitente, ta anima on denpora guzietan ekusiko ziranak; ta esan genzake nola ere bai Juduen bekatuagatik Adanenagatik Elizak kantatzen duena, O zorioneko bekatu anbeste on ekarri duena! Baña zerk poztuko du Jesu-Kristo daramanian kristau gaiztoak bere barren bekatuz betera, bere etsairik andienaren ondora? Zer on etorriko da lurrera komunio gaiztoetatik? Zer kalte ez?

Ez da onenbestean bukatzen komunio gaistoarekin kristauak egiten dion ofensa. Juduen bekatua zan denpora laburrekoa, iraun zuen Jesusen Pasio santuak iraun zuen bestean. Bein bakarrik izan zan azotatua, bein bakarrik kurutzetua, ta beste lotsatasun guziak bukatu ziran bere eriotzarekin. Ordea zenbat luzeagoa da komunio gaiztoen bidez ematen zaion eriotza, edo kruzifikatzea. Darabilte onelakoak Kristoren odola ostikopean, San Pablaren itzkeran. *Concultantes Sanguinem Christi*. Zenbat komunio gaizto egin dira Judasegandik asi ta onarañoan? Zenbat egingo dira munduaren azkeneraño? Beraz beti darabilte kristauak beren Salbagille ona kruzifikatzen munduko lau aldeetan. Eta ain sentigarria izan bazan beretzat Judasek egin zuen komunio bakarra beste amaika Apostoluak komunio ederra egin zuten unean, nolakoa izango da anbeste kristauren komunio gaizto egunorokoekin ematen zaion sentikizuna, ta injuria?

G. Ote dago nondik ezagutu komunio gaiztoaren belztasuna esan diran arrazoiak gañetik?

E. Bai, ta ona zein argia. Nork nai sentitzen du geiago adiskide, ta mesedetu baten aldetik artzen dan naigabe, edo injuria, etsai ezagutu baten aldetik artzen dana baño. Juduak egitea anbeste desprezio, ez da ain

sentigarria, zeren diran bere etsai ezagunak. Ordea kristau ain mesedetuak, ain maite izan dituenak egitea alako injuriak amorioa geien agertzen dan lekuan nola izan ez sentikizun andia? Ala kejtzen ere da Profeta baten aoz; nere etsai batek esan balit iztastun bat, igaroko nuan. *Si inimicus meus maledixisset mihi substinuissem, utique*. Da esatea bezala, Judu ezagutzen ez nautena parre ta siñu egitea Sakramentu au Kalerik kale darabilteanean, kristauak komulgatzen ekusten dituztenean, igaro erraza da. Turko ed Mauru nere konturik ez duteenak, Mahoma nere ordean adortzen dutenak, ez egitea niri jaramon ta kausiorik, ta despreziatzea meza Santuan nere korputz preziosoa, ez da arritzeko gauza. Herejeak eskribitza libruak nere Sakramentua persegitzeko, erretzea Eliza Santuak, ostutzea kopoeak Sagrarioak ausirik, ta botatzea lurrera ostia konsagratuak, edo gañibetakin zulatzea, igarokorra da; *substinuissem utique*. Oek guziok nere etsai jakiañak dira, itxuturik daude ez sinistzeko ni nagoala ostia konsagratuan, ta sinistuko balue ni nagoala, ez lirake alako injuriarik egingo. Baña kristau sinistea duteenak, nere maira biltzen diranak janaririk gozotzena artzeko, etortzea anima beltzituakin, nere etsai eginda eramateko bekatuko osin batera, nola nere biotza minberatu ez? Nola igaro nezake esker ain gaiztoa ekusita? *Homo unanims*. Gizon nere animarekin bat bezela egiten dedanak komunio santuaren bidez, egin alako traizioa? Aingeruren janaria arrapatu demonio batzuek baño gaiztoagoak eginik dauden kristauak? Eman ganau beltzai Arri prezioso guziak baño geiago balio duana? Eman zakurrai Santuak Santu egiten dituana? simaur loiz beterik dagoan tokira bota Kristo? O Aingeruak! Zer diozute onenbeste desprezioren artean ekusitan Zeruko Tronuan ikarazko amoreaz adortzen dezute Bildots eder, ta ain maite dezutena?

Ots andia egin du beti munduan Judasen palsakeriak, eman zuelako Jesus bere Maisua etsaien eskuetan apa edo musu batekin. Baña geitzen zuen gaiztakeria adiskidetzat bere burua emanaz saltzen zuen une artan. Judas, esaten dio Jesusek, apa batekin saltzen dezu Gizonaren Semea? Izen au artzen zuen batzuetan Kristok. Zan esatea bezala: A Judas! Zu nere eskolan azia, munduan beste asko largata nere Apostolutzat autatua, nerekin mai baten egon zerana, zu izango ziñan ni salduko ninduzuna, ta ori apa batekin Maisuaren izena emanaz adiskide leial baziña bezala? *Osculo Filium hominis tradis?* Bada zenbat arrazoi geiagorekin esango dio Jesusek bekatu mortalean komulgatzera dijoan edozein kristauri Judasi esan ziona ber bera. Zu etorriko zera apa laztan batekin ni saltzeera; ni eramatera biotz bekatuz lizundu ta kirastura? O Ezpañ zorigaiztoko muñ egiten diezunan Ama Birjiñaren Seme garbi ederrari! O kristau gaiztoa! Nere



esanak gorde nai ezpedituz, naiago badezu igaro deabruaren eskolara, ta serbitu mundua, zoaz ordu gaiztoan; utzi pakean niri, ez adiskitzat zere burua eman nere etsai andi bat izanik. Izango ditut maite izango nauteenak, serbitzari onak, biotz garbiakin etorriko diradenak. Ni engañatu nai garbirik zatozelako estalkiaz? Saldu adiskide baziña bezela? Sartu nere biotzean burni zorrotz bat Joab gaiztoak Abner kulpa gabeari korputzean bezela apa laztan batekin. Pakea dalakoan isuri odola ta eman eriotza? *Estudit sanguinem beli in pace*

Biurtzen da Elizako Santu andi bat onelako kristau gaiztoen kontra ta esaten die aserre santuan, Egon ezin bazera zere pensamentuak ta itzak zikindu gabe bekatu loian; larga nai ezpadiozu bekatu lagunari, zere atsegin osoa arkitzen badezu eskuka ta laztan lujuriosoetan, zoaz, ase zaitte bekatur; *baña barkatu Kristori*; ez etorri ezpañ zikinduak eskintzera Jesusi, ez adiskidetzat eman zere burua; ez eraman Kristo Kaifasen etxean baño gogo gutxiagorekin egongo dan sabel gaiztora. *Parce in te Christo*. Gorrotoan bizi zeran kristaua, etsaiari barkatu gabe, arpegi gaiztoa erakusten diozula, agurra ere ukatzen zabiltzala; ez barkatu nai ezpadezu Kristok agindu[247-248/255 (latina)]agatik, ezarri biraoak, bedeinkazio ta orazio orde, egizozu nai beste gaitz, baña barkatu Kristori. *Parc in te Christo*. Etzoazela pake edo komunioko maira. Eragozten dizu Jesusek ara eltzea projimoarekin pakeak egin gabe nai du humilla zaitezen. Nolako arpegiarekin agertuko zera bere maira bere esanak egin nai ez dituzun uean? Nolako arrera egingo dizu bera zere barrunbera daramazuean, ekustera an zure biotz zital, prestubez, dollor, ta gorrotoan sendotua? Iges bada maitik orrela zauden artean, ta bestela bere korputz ederra izango da zuretzat Judasentzat bezala pozoi betiko eriotza ekarriko dizuna. Iñoren ondasunak zeureturik dauzkatzun kristau txarra, irabazi bidegabek eginda, gauzaren batzuek ostu ta biurtu nai ezta, jarraitu nai badezu zere logrerietan, izan beste Judas lapur dirua maiteago dezuna zere anima baño, iraun biurtu gabe bakoitzari berea, zoaz nai badezu Infernura; *baña barkatu Kristori*. Ez joan bere maira; geituko dezu infernua komunio gaiztoakin, ta Judasek bezela aurreratuko dezu eriotza burua urkatzen ezpadezu ere. Anima errukarri urte osoetan zabiltzana, konfesatzen agertu ezin dezula, bekaturen bat edo geiago, ez konfesatu nai ezpadezu, baña *barkatu Kristori*. Zer aterako dezu komunio santuetatik, baizik arnatzea zure kontra Jesusen odola? Dio beste Santu batek, *Sanguinem eius contra te armasti*. Daramazu Jesu-Kristo zure gezur sakrilegoen testigo izatera. Ez dezu obe infernura joan komunio gaizto gabe. Turkoak, Herejeak, ta Jentil fedegabek egiten dituzte bekatuak, zeintzuek gatik kondenatzen diran;

baña kristau asko ta askok beste bekatuez gañean geitzen dituzte komuni sakrilegoak, ta izango dute infernu askoz andiagoa.

Zer besterik egiten du gaizki komulgatzen danak? Berriztatu Kristoren Pasioata eriotza Juduak bezela, ta erabilli oinpean bere odola. *Concunctantes sanguinem Christi*, san Pablok dionez; ta beren aldetik zikintzen dute Jesusen Korputz ederra, eramanaz lekuri zikinera, zeña dan anima bekatu mortalean dagoana. Sartutzen naute, esan dezake Profeta baten itzekin, leiza edo kobao sakon sakon baten. *Posuerunt me in lacu inferiori*. Onra ederra Ama Birjiniaren Seme garbiarentzat. Aginduko balitzakio gure arteko bati oe baten egoteko ezkabi, edo korputz guziko lepraz baterik dagoan batekin, nolako iguia emango ez likegu? Eta eramango dala Kristo ber bera ezkabi guziak baño kiratsua dagoan anima gaiztora?

Enzun orain zer dion San Bernardino Senakok. Demagun datorrela Eliza batera Mauru edo hereje gaizto bat, ta atararik Kopoetik hostia konsagratua sartzan duela Illen obi edo Sepultura ezur ustelez betean, edo daramala Satstegi edo simurtza batera. Zer esan ta egingo giñoke alako Gizon fede gabeari. Alkate Jaunak sartuko luke Karzelan, ta izango litzake beretzat justiziako kastigoa. Bilduko lirake Sazerdote ta beste kristau asko ateratzeko Jesu-Kristo ostia konsagratuan dagoana, leku ain itsusitik, ta negarrekin lagundu giñoke altarara. Non da gure fedea? Atoz orain, dio Santu andi aitatu dedanak, ez da bekatu laburragoa komunio gaizto baten bidez eramatea Jesu-Kristo ber bera, korputz ta anima, ao ta biotz bekatuz zikindura lokaitza edo beste leku zatar batera botatzea baño.

Nai dezu enzun sinisgarri geiagorako ejenplotxo bat? Ona emen. Egun baten eldu zan kristau bat bekatu mortalean komulgatzera. Artu zuten bereala sabeleko miñ, edo ala portitz batzuek; irten zuen Elizatik, ta larri larri joan bear izan zuen bazter loi batera, ta an errebesatu edo trokatu zuen hostia konsagratua zikintza baten; adierazotzeko naiago zuela egon bazter loi artan, kristau aren sabelean baño.

A kristau lotsa gaiztokoa! Nora daramazu Jesu-Kristo komunio gaiztoa egiten dezuean? Zuk sinisten dezu bekatu mortalean dagoan anima dala demonioen abia edo bizi lekua? Eta daramazu zure amorez ill zan Jesu-Kristo deabruaren etxera? Bai, dio San Bernardino berak, bekatu mortalean komulgatzen danak ipintzen du Jesus Luziferren alboan bezala, ta dago an desprezio andiagotan Kurutzeko arbolan esekita baño. Ai nere Jaun maitea, dio san Pedro Krisologok, nora zaramaz amorioak. Aska batera jaio zinanean bezela? Kalbariora? Gurutzera? sepulturara? Ori gutxi zan zure geiegi nai izatearentzat. Zoaz ixil ixillik kristau gaiztoak eramanda Satanasen etxera, zeña dan bekatu mortalean dagoan anima



zorigaiztokoa. Etxe gaizto ta bigarren infernu onetan ipintzen zaituzte alako kristau madarikatuak, ta au da zuk egin dituzun mesede andien pagua. Ez naiz ni orain arritzen enzunaz Santuen esanak. Bekatu andiago dala gaizki komulgatzea Elizako ateak erre, Kaliza ta lanpara ostu, urtu ta diru egitea baño. Bekatu andiagoa dala Gurasoak, Sazerdoteak, ta Aita Santu Erromakoa iltzea baño. Bekatu andiagoa da seigarren mandamentuaren kontrako bekatuak itsusienak baño. Bekatu andiagoa dala deabruarekin artu emana iduki ta oni anima saltzea baño. Gaiztoagoak dirala ala komulgatzen diranak Anas, Kaifas, ta Judas bera baño, onek egin ezpalu komunio gaiztoa. Ala dio San Bernardinok.

Ori ezin ala izan diteke; ori da ponderazio edo geiegira jasotzea. Nork sinistu gaizki komulgatzen dan kristauak gaiztoagoa dala Anas, Kaifas ta Judas bera baño, au komulgatu ezpalitz? Ala diote kristau ondo ez dakitenak zertan dagoan bekatuaren anditasuna. Ona baño egia argitan ipinirik. Anas ta Kaifasen aurrean etzuen erakutsi Jesusek ez ikara, ez beldurrik. Enzun zituen milla itz astun, artu belar-ondoko lurrera egotzi zuena; ta guzia eraman zuen pazienza ezin andiagoarekin. Obligatzen dute Pilatos azotatzera ezurretaraño, ta odola zeriola bere korputz ederetik, etzuen keja bat eman, ez nai ezik erakutsi. Atoz orain Sakramentu au egitera zijoanean gertatu zitzaiona. Artu zuen espiritu edo biotzeko ikara ta larri batek, ta itz zoli zoliarekin dio, Zuen arteko bat deabrua da. *Unus ex vobis diabolus est.* O arriteko gauza! Eskintzen du arpegia masallakoak artzeko; korputza azotez, ebakia izaiteko, luzatzen ditu esku ta oñak Kurutzean josi dezen; ta guzia bere borondate ta nai osorekin. Eta Apostoloai ta aietan guri eman bear zuenean bere korputza janaritzat ta odola edaaritzat, ikaratzen da guzia larri larririk dio, *Zuen arteko bat deabrua da.* Nork ala ikaratu ta larritzen du? Nor zan berekin zegoan deabru ura? Nor zan? Judas. Amabi Apostoloen artean au zan bekatu mortalean komulgatzeko zegoana. Jesusek sartu bear zuen deabru eginda zegoan Apostolo gaizto onen sabel belz ta madarikatuan. Etzuen zorigaiztoko onek konfesatu nai zuzen bere bekatua, ez larga bere Maisua sartzeko artu zuen asmo galdua. Esaten du Kristok: zuen arteko batek salduko nau. Judasek egiaz esan bear zuen, bera zala, ta negarrekin eskatu bear zion barkazioa. Etzuen baño ala egin, ta bai estaldu bere bekatua esanaz, Jauna, ni ote naiz? Konfesio gaizto bat eginda egia esan gabe bere bekatuaren damurik etzeramala, arteeko zegoan Judas komunio santua Jesusek konsagratuko zuen ta bere eskuekin emango zion ostia bere korputza zedukana; komulgatuta laster sartu bear zuen Satanasek Judasen biotz ta korputzean; *post buccelam introivit in eo Satanas;* eta Jesu-Kristok egon bear zuen Satanas bere

etsaiarekin etxe edo toki baten. Orra zerk larritzen zuen Kristo. Orain bada, zenbat pozago egongo zan Jesus, Anas ta Kaifasen etxeetan Judasen sabel madarikatuan baño?

Igaro zan Judasen komunio gaiztoa, baño jaijo dira Judas asko munduan. Judasek urkatu zuen burua jabetu zalako Satanas bere korputz ta animarekin. Orain bada, baldin komunio gaizto batek eman bazion Jesusi anbeste biotzeko ikara, zekusian beste amaika Apostoloak egingo zituztela komunio onak gau artan, nolakoa izango litzake Kristoren nagabe ta larritasuna lurrean bizi balitz len bezela padezitzeko estadian, kristauak gaurko egunean egiten dituzten komunio gaiztoekin? Zenbat geiago ote dira komunio gaiztoak, onak baño? Begira kristauen bizimoduari: zein gutxi diran onak, ta berak persegituak. Zer dala uste degu ekartzea Kristo egunoro Zerutik lurrera igaro erazitze alako injuria ta bidegabeak. A bai! Eta nola pozagorik jetsiko litzatean berriz Kurutze batean beste eriotza bat eramateko, ez igarotzeagatik anbeste injuria, nola daramazan orain kirstau askoren komunioetatik. Obe izango zan Judasentzat inoiz jaijo ezpalitza. Bada zer esan bear ezta komunio gaiztoak urte osoetan egiten dituztenak gatik? Komunio gaizto bakar bat izandu bazan Judasentzat ain kaltegarria, ta Jesu-Kristorentzat injuria ain andia, zer izango da amar, ogei, berrogei komunio gaizto egin dituztenentzat? Ai ai! dio Santo Tomas Aingeru Maisuak; ai konzienzia loi ta gaiztoarekin komulgatzera dijoazanak! Obe luke, San Krisostomok dionez, demonio aldra edo pillo bat sartutzea beren korputzetan Jesu-Kristoren aragi ederra baño. Obe luke alakoak, dio San Ziprianok, ezarriko balute itxasoaren ondora errotarri bat samatik duela, eltzea baño altara santura bekatu mortalean.

Usteko dezu Santuak esaten zituztela sententzia oek beren buruz edo asmoz? Ez kristaua, ez: esaten zituzten zekitelako guk baño argi geiagorekin, nor dan Jesu Kristo, zer merezi duen; nolakoa dagoan bekatu mortalean dagoan anima, infernuko bat bezela beltz ta itxusi, ta zein pisu andiko bekatua dan alako ostatua ematean egiten dana. Orain ixillik daramaz geienez onelako sakrilejioak.

Baña Santuen esan guziak siniserrazak egiten dira Espiritu Santuak San Pablaren aoz esandituen itz oekin. *Jaten duenak ogi* Jangoikozko au graziako prestaera gabe, *jaten du bere juizioa.* Au da jatea bere kondenzioa, dio San Krisostomok. Gaizki komulgatzen danak, dio Apostolo onek beste leku baten, artzen du bere gañera edo bere kontra bezela Jesu-Kristoren Korputz ta odola. Zer esan dezake geiago? Nor arritzen ez da itz oek enzunda? Zer dala uste dezu kristaua jatea Jangoikoaren juizio edo



bakoitzaren kondenatzea? Da sillatzea bezela Kristoren odolarekin itxaraten digun juizio estua? Zer dala artzea gere gañera edo gere kontra Jesusen korputz ta odola? Da nola ere bait esatea, Juduak Pilatosi esan ziena, orren odola izan didilla gure gañera. Eta zer atera zuten Juduak Kristoren odola ixuri erazoaz ta bere gañera artuaz? Gaur da eguna aien ondorengoai jarraitzen diena kastigo andiak. Nolako itxutasuna ez ezagutzeko Jesu-Kristo? Nolako gorroto ta ekusi ezina Jende guziak? Non da odol mantxa andiagorik Juduena baño? Nolako kastigoa izan etzuten Jesu-Kristo illda geroko urte baten milla bat ta berreun milla goseak ta ezpatak ill zituenean Kristo ill zuten Jerusalemgo errian? Zergatik? Artu zutelako Jesusen odola beren gañera, au da eman zituztelako bideak, ta egin Pilatosi eskaariak iltzeko Jesu-Kristo. Orain bada komunio gaiztoak baño bekatu txikiagoak gatik Badio San Pablok, dala berriz Kristo kruzifikatzea, dala erabiltzea oinpean Kristoren odola, *conculcantes Sanguinem Christi*, zer esan bear da komunio gaiztoaren gañean? Nolako Kalbario gogorra prestatzen etzaio Jesusi bekatuko ostatu zikinean, ta deabruaren etxean? Nolako kastigoak ekarriko ez ditu bere gañera sakrilejio gaiztoen bidez? Bai dio San Pablok, emendik jaiotzen dira gaitzak ta eriotzak. *Ideo inter vos infirmi, et dormiunt multi*. Askorentzat da Kristoren korputza eriotza dakarren pozoia, nola dan osasun emallea ondo prestaturik artzen dutenentzat. *Mors est malis, vita bonis*.

Ai Kristau bekatu mortalean komulgatzen zeran zori gaiztokoa! dio aserre santu batekin San Bernardino Senakok: Zure gañera eroriko dira Dabid Errege Profetak adierazo zituen madarikazio latzgarriak. Izan didilla beren maia lakirio edo katigugarria. *Fiat mensa eorum corant ipsis in laqueum*. Beren begiak geundu edo illundu bidiz gauza onik ekusi ez ezen.

G. Nai nuke enzun ejemplo bat edo beste ezagutzeko bekatu onen anditasuna, ta dakarren animako kalteak.

E. Ongi eskatzen didazu. Nik nai banitu bildu Eskritura Santeetan ejemplo egokiak, bearko nuke denpora luzea. Natan ta Abiron irentsi zituen bizirik lurak eraman zuteelako Sakrifiziora su bedeikatu gabea. Anbeste aserratu bazan Jangoikoa erreberenzia falta bat gatik anzinako sakrifizioan, zenbat geiago aserratuko zaio ekusirik bere Seme maite maitea Infernu eginda dagoan toki baten. Antioko Erregeari zerk ematen zion naigaberik andiena eriotzako orduan, korputza usteldu ta inork sufritu ezin zuenean? Jerusalemgo Eleizan egin zituen sakrilejioak. Zenbat andiagoa da Eleizaren Jabeari, Kristo ber berari egiten zaiona komunio gaiztoan? Baltasar Babiloniako Erregeak nolako azkena izan zuen bere

Aitak Jerusalemgo Eleizatik eraman zituen onzi edo baso santuetan ardoa edaten zuelako? Oza Eliz gizona beingo baten iltzen da Dabid Errege ta jende guziz askoren aurrean ikutu ziolako Testamentuko Kutxari? Zenbat milla Betsamitar ill ziran lotsa gutxirekin begiratu zielako Kutxa Santu berari? Aingeruak azotatzen dute ta erdi illik utzi Heliodoroban sartu zalako Jerusalemgo Elizan diruak artzeera. Oen bekatuak guziz txikiak ziran komunio gaiztoaren ondoan; ala ere izan ziran ain portizki kastigatuak mundu onetan. Zer itxaraten die Jesu-Kristoren korputz ta odolari kristau sakrilegoak egiten dizten bide gabe, edo injuria itsusiak gatik? Nork kontu lezakez banaan Jangoikoak mundu onetan ere egin dituen kastigo ikaragarriak bekatu mortalen batekin komulgatzera eldu diranakin? San Ziprianok dakar bere egunetan eldu zala emakume bat bekatu mortalean komulgatzera, ta komulgatu baño leenago irten zuela Ostia konsagratuti su andi batek, ta utzi zuela erreta emakume zorigaiztokoa igarotzeko emengo erretzetai beti erre bearko zuten Infernuko suetara. Onelako milla ejemplo erakurtzen dira.

Ai Jauna! Esango dute batzuek, noiz edo berriz orrelako kastigoak izanagatik, niri etzait orrelakorik gertatu bein baño geiagotan eldu banaiz ere komulgatzera gaizki konfesatu ondoan, edo lotsaz bekatuaren bat konfesatu gabe utzi nuelako edo damu gabe urreratu naizalako komunio maira. Osasun galantarekin nago; bizi naiz kezka andi gabe; ta orren andia balitza komunio gaiztoaren bekatua, oraingo kastigatuko ninduen. O kristau zorigaiztoan jaioa! Zer diozu? Bizi zerala osasunarekin ta kezka andi gabe Jesu-Kristori egin diozkatzun injuria astunen ondoan? Ez luza iritzi, ez: Ez dira zure sakrilejio beltzak sartuko zaku eten ta zulatuan. Zuk biltzen dezu, esango dizut San Pablorekin, Jangoikoaren aserrearen tesoroak bere Benganzako egunerako. Gizon gaizto asko eldu dira zaar izatera. Zorionekoa zu Jangoikoak bere zigorra artu ta kastigatu bazinduz Aita batek bezela. Zorionekoa zu komulgatu zinanean gaizki zure mii guzia anditu balitzazu; gaitz andi batekin erori baziña Aldara aurrean, zure korputz guzia ezkabi edo lepra gogorez bete balitz, edo Aingeru Santuak etorri eta azotez ebaki, ta erdi illik gelditu baziña Elizan Heliodoro bezela. Kastigo onelakoren batekin ezagutuko zenuan zure bekatuaren anditasuna, ta izango zenuan penitentzia egiteko laguntasun andia. Baña zuretzat dauka Jangoikoak kastigo gogorragoa. Zure entendimentuaren begiak geun andiarekin illundurik daude, ekusten ez dezu bekatuaren belzatasuna. Zure biotza geroago ta gogorrago egin zatzu, ta urratuko ez da bekatuaren damuz; iraungo dezu gaizki konfesatzen, ta largako dizu pakean Jangoikoak; igaroko zara biotz zikin batekin injuriazera Jesu-



Kristo, ta ixil ixillik egongo da. Ordea egiaztuko da Jaunaren esana: nik bere denporan emango diet sari edo pagua. Ori nere kontura gelditzen da. Ixiltxorik eraman zituen Jesusek Anas ta Kaifasen arrotasunak, Pilatosen sententzia bidegabea; borreroen azote erruki gabeak, eskini zuen masalla alde kolpeak eramateko, eskuak ta oñak josiak izateko: egin zuten Juduak berekin nai zuten guziak. Au da zuen denpora, oek zuen egunak, esaten zien Jesusek; etorriko da nerea, ta jakin eraziko zaie nor zan kruzifikatu zuteena. Igaro ziran aien egunak, igaroko ere dira gureak. Non diran orain ta aspaldian Anas, Kaifas, Pilatos, Herodes, Judas, ta deadarrez Jesusen odola eskatzen zuten anbeste jende deabrua baño gaiztoagoak? Noren eskuetan erori ziran ill ondoan. Zer atera zuten bere gaizki eginakin? Eta norako dira, noren eskuetan erori bear dute orain bizitza gaizto bat eraman ta penitentzia gabe dijoazanak altara santuetara? Norako dira kristau lujurioso asko beren ezpañ zikinekin, ta korputz bekatuan lizunduakin dijoazanak artzera Maria Santisima garbiaren Seme maite garbiagoa? Noren eskuetan eroriko dira bekatuen inguruan dabilzanak, komunitatik bekatuta, bekatutik komuniora. O kristau zorigaiztoko ta ordu gaiztoan mundura etorria; onela itz egiten die San Ambrosiok: ebilli zerate emakume zikin baten arpegian lizuntzen mingain zatarrak, ta zoazte gero negar andiekin bekatu ori garbitu gabe, laztan edo mun egitera Ama Birjinaren Seme lirio guziak baño zuriagoari? Esku zikinduekin bekatu loietan elduko zera Kristoren mai Santura. Oek dira Ama Birjinaren debotoak esaten dituztelako orazio batzuek mingain deabruzkoekin.

Ez berriz galdetu niri zenbat kristau diran gaizki komulgatzen diranak. Txit asko dira ukatzen, edertzen edo gutxitzen dituztenak beren bekatuak lotsa gaizki aitu batekin. Txit asko dira edo okasio gaiztoai larga bage, edo oitura txarrak kendu gabe, edo beren obligazio jakin bearrak kunplitu gabe urreratzen diranak mai santuetara, ta egunoro daramaz Jesusek injuria beltzak kristaurik geinetatik. O nolako eskerrak artzen dituen guri anbeste mesede egin ondoan. Nik azi nituen umeak esan dezake Isaiasekin; baño artu ditut despeziorik andienak. Idiki ditut iturri ur ederra ta ezin obeagoa zeukatenak; baño naiago dituzte Ijituako zingura basatueta arkitzen dituzten ur loi, ta zatarrak. Azkenean esan bear da San Juan Ebanjelistarekin, kanpora zakurrak, gaizkillak, lujurioso, ta gezurrezko konfesioakin dabilzanak. *Foris canes, venefici, impediti...* Aldatu bizitza, garbitu anima bizitza bera artu nai duenak.